

NAFARROAKO ARARTEKOAREN TXOSTEN BEREZIA



Nafarroako Administrazio publikoen
jarduna adingabeak babesteko



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

Nafarroako arartekoaren txosten berezia

**NAFARROAKO ADMINISTRAZIO
PUBLIKOEN JARDUNA
ADINGABEAK BABESTEKO**



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

Izenburua: **Nafarroako administrazio publikoen jarduna adingabeak babesteko**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundea

© 2007ko abendua

Diseinua eta maketazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea: PÁGINA, S.L.

Lege gordailua:

aurkibidea

0. AITZINSOLASA.....	13
1. TXOSTEN BEREZIA EGITEKO ARRAZOIAK	17
2. TXOSTENAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	21
3. ZER ERAKUNDE ETA ORGANORENTZAT EGIN DUGU TXOSTENA?	25
4. LANA EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA	29
5. ARAU ESPARRUA	35
5.1. AITZINSOLASA.....	35
5.2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN JARDUNAREN OINARRIA	36
5.3. HAURREN ESKUBIDEEN KATALOGOA	38
5.4. JARDUNAREN PRINTZIOAK	42
5.5. 1/1996 LEGE ORGANIKOTIK AURRERA IZANDAKO BERRIKUNTZA NAGUSIAK	45
5.5.1. Arrisku eta babesgabetasun egoerak.....	45
5.5.2. Familian eta etxeetan hartzea	52
5.5.3. Adingabeak administrazioak zaintzea	57
5.6. ADINGABEAK BABESTEKO ESKUMENEN GAUZATZEA NAFARROAN.....	58
5.7. ONDORIOA.....	64

6. BABES SAREA.....	69
6.1. LEHEN MAILAKO SAREA.....	70
6.1.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuak	70
6.1.2. Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programaren baliabideak	72
6.1.3. Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldeak (HNAL)	75
6.2. SARE ESPEZIALIZATUA.....	82
6.2.1. Adin Txikikoak Babesteko Atala	82
6.2.2. Ikerkuntzarako, Ebaluaziorako eta Esku Hartzeko Kanpo Lantaldea.....	88
6.2.3. Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua Laguntzeko Kanpo Lantaldea	89
6.2.4. Nerabeak Hezteko Programa Laguntzeko Kanpo Lantaldea	90
6.2.5. Ingurune Irekiko Taldea	90
6.2.6. Familia hartzaileak.....	91
6.2.7. A) Harrera etxeak.....	93
6.2.8. B) Eguneko zentroa	95
6.2.9. C) Elkartzeko guneak.....	96
6.2.10. Baliabide espezializatuen laburpena.....	97
6.2.11. Baliabide ekonomikoak	98
6.2.12. Espazio fisikoa (lokalak) eta bertze bitarteko material batzuk	101
7. LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZEA	111
7.1. LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA.....	111
7.1.1. Esparru teorikoa.....	111
7.1.2. Egungo egoera.....	114
7.1.3. Hobetu beharrekoak.....	117

7.2. BABESGABETASUN ETA ARRISKU EGOERAK GARAIZ ANTZEMATEA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI JAKINARAZTEA.....	118
7.2.1. Esparru teorikoa	118
7.2.2. Egungo egoera	125
7.2.3. Hobetu beharrekoak	129
7.3. HASIERA BATEKO EBALUAZIOA ETA KASUA HAURRAK BABESTEKO ZERBITZUETARA BIDERATZEA	130
7.3.1. Esparru teorikoa.....	130
7.3.2. Egungo egoera	133
7.3.3. Hobetu beharrekoak	142
7.4. BABESGABETASUN TXIKIKO ETA NEURRIZKOKO EGOERETAN ESKU HARTZEA	143
7.4.1. Esparru teorikoa.....	143
7.4.2. Egungo egoera	149
7.4.3. Hobetu beharrekoak	158
8. BABESGABETASUN LARRIKO EGOERETAN ESKU HARTZEA	163
8.1. ADINGABEEN GAINEN IKUSPEGI OROKORRA	163
8.2. IKERKETA ETA EBALUAZIOA.....	167
8.2.1. Informazioa, artekaritza eta negoziazioa (hitzarmenak).....	169
8.2.2. Bermeak eta laguntza.....	173
8.2.3. Jakintza arlo askotako profesionalen artean erabakitzea (Ebaluazio Batzordea).....	176
8.3. EGOERA KONPONTZEKO PLANA, ARDURADUNA ETA EBALUAZIOA	183
8.3.1. Plan orokorra.....	183
8.3.2. Mailaketa eta proportzionaltasuna	188
8.3.3. Ebaluazioa.....	191

8.4. FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA ESPEZIALIZATUA.....	197
8.4.1. Esparru teorikoa.....	197
8.4.2. Egungo egoera	200
8.4.3. Hobetu beharrekoak	203
8.5. ADINGABEAK FAMILIAN HARTZEA.....	205
8.5.1. Helburua	205
8.5.2. Bildutako datuak.....	207
8.5.3. Familia hartzaileen jarraipena egin eta haiek laguntzea	215
8.5.4. Familia hartzaileen iritzia.....	217
8.5.5. Elkartzeko guneak eta bisita erregimena.....	223
8.6 ADINGABEAK HARRERA ETXEETAN HARTZEA.....	228
8.6.1. Helburua	228
8.6.2. Bildutako datuak.....	233
8.6.3. Adingabeen iritzia.....	245
8.6.4. 18 urte bete eta harrera etxetik joan beharra.....	254
8.6.5. Aipamen laburra zentzatzeko etxeetan dauden adingabeei buruz.....	258
8.7. JARRAIPENA ETA BABESA	262
8.8. SISTEMAREN EBALUAZIOA ETA IKERKETA	266
9. ONDORIO ETA GOMENDIO NAGUSIAK.....	273

0. aitzinsolasa

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14.3. artikulua honako hau xedatzen du: "Arartekoa haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratuko da, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, honakoak bertzeak bertze: a) Jardutea, bere kabuz edo norbaitek eskubideen urraketari buruzko kexa jarri duelako. b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari jardun dezan eskatzea, foru lege honekin zerikusia duten gaietan. c) Nafarroako Foru Komunitateko hurrek eta nerabeek duten egoera baloratzea, legean jasotako programak eta jarduketak benetan bete daitezen".

Legeak ezartzen duen agindua betetze aldera, María Jesús Aranda Lasheras Nafarroako arartekoak eta haren aholkulari taldeak txosten berezi honen proiektua prestatu zuten, eta, hortaz, haiena da merezimendua, eta halabeharrezkoa (eta esker onekoa) da onartzea.

Egungo arartekoak kargua hartu ondoren, txostena amaitu eta Nafarroako Parlamentuan aurkezteari ekin genion. Halere, Nafarroako Parlamentuari helarazi aurretik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari egoki zeritzon oharrak eta iradokizunak egiteko eskatu genion, guztiz bidezkoa eta gizalegezkoa baitzen eta lehengo arartekoak konpromisoa hartu baitzuen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariarekin (ikus 4. puntua).

Txostenaren azkeneko idatzaldia egiteko, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak idatziz zein ahoz egin zituen ekarpenak izan ditugu kontuan eta, hartara, hobeto arrazoitu ditugu txostenaren hasierako proiektuko zenbait iritzi eta ondorio.

Azkenik, azken atalean esanguratsuenak iruditu zaizkigun ondorioak eta gomendioak nabarmendu ditugu.

Bestalde, zera argitu beharra dago: txostenaren xedea ez da Nafarroako adingabeen babesgabetasun egoerei buruz analisi estatistikoa egitea; aitzitik, arartekoaren eginkizunaren ildoan, txostenaren helburua Nafarroako administrazio publikoen jarduna (batez ere, eskumen arrazoiak direla-eta, Foru Komunitateko administrazioaren jarduna) ikuskatzea da, legediak haiei agintzen dien aldetik adingabeak babesgabetasun egoeren eta egoera arriskutsuen aurka babesteko funtsezko eginkizuna.

Bada, lerro hauen bitartez, eskerrik beroena eman nahi diegu txostena sustatu eta ahalegin handiz landu zutenei, eta baita Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari ere, bere jardunaren berri leialtasunez adierazteko laguntzagatik eta arduragatik. Bestalde, espero dugu txosteneko gomendioei eta iradokizunei esker, Nafarroako Parlamentuak hobeto jakinen duela Nafarroako administrazio publikoek adingabeak babesteko egiten duten lanaren berri eta administraziook aurrera egingen dutela hain egiteko garrantzitsua betetzen; izan ere, haien lanak berebiziko eragina du hurrengan zein gazteengan, eta, horrenbestez, baita Nafarroako etorkizunean.

1. txosten berezia egiteko arrazoiak

1. TXOSTEN BEREZIA EGITEKO ARRAZIOAK

Nafarroako arartekoa 2001. urtean jarri zen abian, eta, ordutik, erakundeak aparteko arreta jarri du adingabeak lagundu eta babestearekin zerikusia duen gai orotan eta haien eskubideen sustapenean eta babesean.

Bertzeak bertze, honako hauek izan dira alor honetako jarduerarik esanguratsuenak:

- 2003. urtean “adingabeen aurkako sexu abusuen eta tratu txarren arloan laguntza emateari, horretarako prozedurari eta jarraipena egiteari” buruzko gomendioa eman zuen, Nafarroako Gobernua bultzatzeko alor honetan esku hartzeko protokoloa lehenbailehen aurkeztera.
- 2003an proposamena egin zuen, Nafarroako agintari publikoei gomendatzeko adingabeak babesteari buruzko foru legea aldarrikatu eta maila txikiagoko araudiak testu bakarrean bat egin zituzten.
- 2004an txosten berezi bat aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren aurrean, “Haurrentzako nortasun bat. 0 eta 3 urte arteko haurren hezkuntza Nafarroan” izenekoa.
- 2004an “Haurren eskubideak” izenburuko dibulgaziozko argitalpena plazaratu ere egin zuen, Nafarroako Unibertsitatearen laguntzaz egindakoa.

Jarduerok administrazio publikoek adingabeei eman behar dieten laguntzaren eta babesaren alderdi jakin batzuetan jarri zuten arreta, baina osatu egin behar ziren ezinbestean, adingabeak babesteko Nafarroako sistemaren funtzionamendua aztertu eta ebaluatu ondoren.

Alde horretatik, adingabeak babesteko sistemaren funtzionamendua hurrei aitortutako eskubideak zenbateraino erabili eta bermatzen diren zehazteko adierazlerik esanguratsua da, eta baita agintari publikoek alor honetan onartu behar dituzten betebeharrak zenbateraino onartzen dituzten neurtzeko ere.

2005eko abenduaren 5ean, Nafarroako Parlamentuak Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2005 Foru Legea onartu zuen eta, Foru Legeko 14.3. artikulua bitartez, eginkizun esanguratsua egokitu zion arartekoari haurren eta

nerabeen eskubideak babestu beharraren alorrean; gainera, haren ondorioz, gaur egun hain kontuzkoa eta garrantzitsua den gaia boladan dago berriro, Espainian Adingabeak juridikoki babesteari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa onartu izanak adierazten duenez.

Hain zuzen ere, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14.3. artikulua arartekoari egokitzen dio hurren eta nerabeen eskubideak babesteko ardura eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartzeko, hala nola, jardutea, bere kabuz edo inork eskubideen urraketari buruzko kexa jarri duelako; Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari jardun dezan eskatzea, foru lege honekin zerikusia duten gaietan; Nafarroako Foru Komunitateko hurrek eta nerabeek duten egoera baloratzea urteko txostenean; eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari legean jasotako programak eta jarduketak benetan bete daitezen eskatzea.

Ekimen horiek guztiak gizarteak adingabeen inguruan duen ikuspegi berriaren adierazgarri baino ez dira. Izan ere, gizarteak subjektu aktibo, parte hartzaile eta sortzailetzat hartzen ditu adingabeak orain, beren ingurune pertsonala eta soziala aldatu eta beren beharrei erantzuten parte hartzeko gaitasuna duten subjektutzat, eta, azkenean, beharrok dira haien eskubideen eta babesaren ardatza.

Bestalde, adingabeak gero eta auzi gehiagotan nahasi dira azken urteotan, arazo eta behar berriak sortu dira alor honetan, gizarteak kontzientzia hartu du pixkana-pixkana gaiari buruz eta, ondorioz, subjektu juridikorik ahulenak babestu beharra sortu da eta, hori guztia dela-eta, are beharrezkoagoa da halako lan bat gitea.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaien Batzordeak Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Plana onartu zuten, hurrenez hurren, 2001eko azaroaren 19an eta 2002ko irailaren 17an, eta, hari jarraiki, adingabeak babesteko sistema publikoari buruzko azterketak Planak xedatzen dituen programa eta jarduera batzuk zenbateraino gauzatu diren ere hartu behar du kontuan.

2. txostenaren helburuak eta norainokoa

2. TXOSTENAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Txosten bereziaren funtsezko helburua Nafarroako administrazio publikoek adingabeak babesteko eginkizuna nola betetzen duten ebaluatzea da, eta, horretarako, Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planaren egitura osatzen duten hainbat programa eta jardunbide aztertuko ditugu.

Bereziki, honako hauek dira txosten bereziaren helburu espezifikoak, oro har:

- Ebaluatzea Nafarroako administrazio publikoek egokitasunez egiten duten adingabeen eskubideak urratu egiten diren egoerei (indarkeria fisikoari, abandonu fisikoari edo emozionalari eta abarri) aurrea hartzeko eta haiek antzemateko egin beharrekoa:
 - Halako egoeretan jarraitu beharreko prozedura, argibide edo protokolorik dagoen eta egokia den.
 - Esku hartzen duten zerbitzuak eta estamentuak (gizarte, osasun, hezkuntza... zerbitzuak, Polizia, etab.) egokiro koordinatuta dauden.
 - Informazio sistema estatistikoa eta kontrol eta ebaluazio sistema.
 - Baliabiderik dagoen eta, egotekotan, baliabideak nahikoak diren.

- Ebaluatzea zer-nolako lana egiten duten Nafarroako administrazio publikoek aipatu egoeretan esku hartu eta adingabeen eskubideak babesteko prozedura jarraitu bitartean:
 - Ikerketa eta biderapen fasea, erabakiak hartzeko sistema, etab.
 - Erabakiak hartzeko irizpide teknikorik, protokolorik, etab. dagoen.
 - Adingabeen eskubideak babesteko neurriak aplikatu eta betearazteko plangintza.
 - Bideratzen diren neurrien, laguntza teknikoaren, baliabideen eta planen jarraipena.
 - * Familiar esku hartzea.
 - * Familiar hartzea.
 - * Etxeetan hartzea.
 - * Adoptatu aurretik hartzea.

- Zerbitzuen kontrola eta ebaluazioa.

Egin beharreko lana mamitsua eta luzea da, gauza asko hartu behar baitira kontuan eta behar bezala analizatu. Hori dela-eta, eta gauza horiek guztiak halako zehaztasunaz eta sakontasunaz landu nahi ditugula-eta, txostena ez da arituko adingabeei kalte egiten dieten bertze arazo jakin batzuez, hala nola, epaileek zigortu egiten dituzten adingabeenez, bakarrik dauden adingabe atzerritarrenez eta nazioarteko adopzio prozesuekin lotutakoez; batetik, bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazoak gero eta agerikoagoak dira Nafarroan, eta, bertetik, nazioarteko adopzio prozesuek gero eta gehiago kezkatzen dituzte Nafarroako familiak, gero eta gehiagok hartzen dutelako esku halako prozesuetan.

Bestalde, aldez aurretik ohartarazi beharra dago txosten berezia, funtsean, 2006. urteko bigarren sei hilabeteetan bildutako datuak erabiliz egin dugula; orduan, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Familia Zuzendaritza Nagusia 2005-2006 aldiaren ebaluazioa eta Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planaren ebaluazio orokorra prestatzen ari zen.

3. zer erakunde
eta organorentzat egin dugu
txostena?

3. ZER ERAKUNDE ETA ORGANORENTZAT EGIN DUGU TOSTENA?

- Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuarentzat.
- Oinarrizko udal gizarte zerbitzuentzat eta bertze toki erakundeen mendekoentzat.
- Adingabeak babesten esku hartzen duten zentro eta bulego publikoentzat eta pribatuentzat.

4. lana egiteko erabilitako metodologia

- a) 2006ko ekainean eta abenduan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariarekin harremanetan jarri eta elkarrizketatzea:
- Txostenaren helburu orokorrak jakinaraztea.
 - Behin behineko txostena helarazteko konpromisoa, alegazioak aurkezteko.
- b) 2006ko uztailaren 26an, Familia Zuzendaritza Nagusiko Azterlan eta Koordinazio Ataleko buruarekin elkarrizketatzea:
- Txostenaren helburu orokorrak jakinaraztea.
 - Erabili beharreko metodologiaren berri ematea.
 - Elkarrizketa erdi egituratua, politiken, planen, sistemen eta bitartekoen garapena zenbaterainokoa den jakiteko.
 - Informazioa eta dokumentazioa eskatzea (ikus eranskina), batez ere, honakoa:
 - Datu orokorrak, Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planean bildutako batzuk erabiliz prestatutakoak.
 - Esku hartzeko jarraibideei eta prozesuei buruzko datuak:
 - * Urratzeak antzematekoei buruzkoak.
 - * Epeei buruzkoak.
 - * Ebaluazioaren kalitate teknikoari buruzkoak.
 - * Prozeduraren bermeei buruzkoak.
 - * Esku hartzeko jarraibide orokorrei buruzkoak.
 - * Informazio eta ebaluazio sistemei buruzkoak.
 - * Isilekotasunari buruzkoak.
 - * Azken emaitzei buruzkoak.
 - Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2004ko eta 2005eko oroitidazkiak.
- c) 2006ko ekainean eta irailean, informatzaile esanguratsuekin elkarrizketatu eta biltzea:
- Informazioa eskatzea.
 - Metodoa:
 - Informatzaile esanguratsuak aukeratzea: lehen mailako gizarte zerbitzuetako langileak, adingabeen babesaren eremuan jarduten diren teknikariak, familia epaitegietako langileak, adingabeen fiskaltzakoak eta halako egoeretan esku hartzen duten zuzenbide arloko profesionalak.
 - Horiek guztiek egiten duten lanean izandako esperientziaren berri eman eta antzematen dituzten arazoei aurre egiteko proposamenak egitea.

- Lanari, nor bere esparruan, honako profesional hauek egindako ekarpenak eranstea: Maite García Areso Milagrosako auzoko unitateko gizarte langileak, lehen eta bigarren mailako prebentzioari eta lehen mailako sarearen bidezko laguntzari buruz; Txus Santamaría Iruñeko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldeko kideak, Iruñeko HNALren esperientziari eta jardunari buruz; Alberto Jauregi pedagogo eta Sandiusterriko komunitateko lantaldeko kideak, lehen mailako prebentzioari buruz; eta José Luis Eslava adimen osasunaren lantaldeko psikologoak, laguntza espezializatuari buruz.

d) 2006ko abenduan, familia hartzaileen lagin bati inkesta egitea:

- Neurriaren kalitatea ebaluatzea.
- Metodoa:
 - Magale Nafarroako Familia Hartzaileen Elkartearekin biltzea.
 - Familia hartzaileen lagina aukeratzea.
 - Neurriaren funtzionamenduari buruzko inkesta igortzea (ikus eranskina).

e) 2007ko urtarrilean, adingabeen babesari buruzko espedienteak aztertzea:

- Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea.
- Metodoa:
 - Lagin adierazgarria aukeratzea.
 - Arrazoiak eta jatorria.
 - Lagundutako herritarrak.
 - Hartutako neurriak.
 - Esku hartzeko epeak.
 - Adingabeak nora bideratu diren azkenean.

f) 2006ko abenduan, harrera etxeak ikuskatzea:

- Harrera etxe eta apartamentuen lagin baten ezaugarri fisikoak eta antolaketazkoak bertatik bertara egiaztatzea.
- Metodoa:
 - Etxeak eta apartamentuak aukeratzea.
 - Haiek kudeatzen dituzten erakundeekin eta elkarteekin elkarrizketatzea.
 - Etxeak eta zerbitzuak zuzenean bisitatzea (ikus bisitetan ebaluatu beharreko gauzei eta adingabeei etxeen funtzionamenduaz egin beharreko inkestari buruzko eranskina).

g) Azterketa juridikoa:

- Egungo araudiaren analisi laburra.
- Bibliografia (zerrenda).
- Hobetu beharreko esparruak antzematea:
 - Prozedurak.
 - Eskakizunak.
 - Bermeei buruzko araubidea.
- Metodoa:
 - Arartekoaren erakundeko langileek zuzenean egitea.

5. arau esparrua

5. ARAU ESPARRUA

5.1. AITZINSOLASA

Oro har, “babes” terminoaren bidez izendatzen dira zuzenbide publikoak (Estatuko eta Foru Komunitateko administrazio zuzenbideak, zuzenbide prozesalak eta zigor zuzenbideak) eta zuzenbide pribatuak (zuzenbide zibilak) hartzen dituzten neurriak adindunen berezko jarduteko gaitasuna eta autonomia pertsonala ez dutenak babesteko.

Terminoaren adingabeen esparrura mugatu eta joz gero haiek direla zaintza neurrien onuradun edo hartzaileak, “adingabeak babestea” kontzeptu edo izendapen generikoak biltzen ditu administrazioak hartzen dituen neurriak haurren existentzia beharrei erantzuteko. Zehazkiago, adingabeen beharrei erantzuteko hartzen ditu neurriok; izan ere, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen izena eta bertze hainbat gorabehera, aintzat hartu beharreko kontzeptu juridikoa “adingabe” da, eta adingabeak 18 urtetik beharera dira.

Azken batean, adingabeak dira administrazioak halako egoeretan hartzen dituen neurrien hartzaileak, eta administrazioak hori egiteko oinarria da adingabeak babesgabe daudela. Hau da, administrazioak hori egiteak ez luke izaneren zentzurik adingabeak ez baleude babesgabe, familiak ordezkatu egiten dituelako; azken batean, familiarrean dute adingabeek beren burua garatzeko eskubide ukazina, eta administrazioak ezin du inola ere ez tartean sartu.

Administrazioa hasten da adingabeak babesten familiak adingabearen oinarriko beharrei erantzun ezin dienean eta, ondorioz, haren bizitza edo garapena eta gizarteratzea arriskuan jartzen duenean. Helburua adingabeak arrisku larrian ez egotea da, eta txikiak direnetik bazterkeria egoeretan ez erortzea.

Adingabeak babestea ongintzaren arduraren tradizionala izan da, eta, hortaz, ezin erran daiteke orain dela gutxi arte administrazioak alor honetan berez esku hartu duenik, hau da, behar bezalako programazioari jarraiki, behar bezalako aurrekontua bideratuz eta beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak bideratu eta behar bezala antolatuz, politika publikoak planifikatu, garatu eta gauzatzeko, xede jakin batzuk lortze aldera, hain zuzen ere, adingabeen babesgabetasun egoerak konpontze aldera.

5.2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN JARDUNAREN OINARRIA

Administrazio publikoaren jardunaren oinarria adingabeak izaera osoko herritartzat eta eskubideen subjektu diren gizakitzat hartzea da. Ikuspegi horri esker, eta haurrei eta adingabeei aparteko babesa eman behararren inguruko ikuspegiari esker, Nazio Batuen Biltzarrak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zuen, 1989ko azaroaren 20an. Urtebete gero, Espainiak berretsi zuen.

Nazioarteko bitarteko juridiko gisa, Hitzarmenak berrikuntza esanguratsuak ekarri zituen:

- Lehenengo aldiz, haurren oinarrizko eskubideen legezko definizioa mundu osoan onartzea ekarri zuen.
- Giza eskubideen bi belaunaldiak (eskubide zibil eta politikoak eta eskubide ekonomikoak, kulturalak eta sozialak) biltzen ditu, eta ez ditu bereizten; aitzitik, horiek guztiak bat egitera behartzen du, eskubide bat ere bertzeetatik bereiz ezin eskatu eta errespetatzeko moduan. Planteamendua orohartzailea dela erran daiteke, eta giza eskubideak, oro har, garatu eta errespetatzeko bidea urratzen ere lagun dezake.
- Haurren inguruko ikuspegi berri baten hasiera ekarri zuen: ez ditu biltzen babeserako haien eskubide tradizionalak bakarrik; parte hartzeko eta iritzia emateko eskubideak ere onartzen ditu. Helburua ez da biktima diren haurrak babestea soilik, haur guztiak erabil ditzaketen eskubide positiboak aitortzea ere baizik.
- Inplizituki bada ere, Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKEek) eginkizun formala dutela onartu zuen giza eskubideei buruzko nazioarteko lehenengo ituna izan zen, Hitzarmenaren aplikazioaren jarraipena egiteko egokitu baitzien.

Hitz egineen dugu geroago Hitzarmenak berak adingabeei aitortzen dizkien eskubideen zerrendari buruz, baina gatozen oraingoz barne antolamendu juridikora. 1978ko abenduaren 27an, Espainiako Konstituzioa onartu zuten, batetik, herritarren oinarrizko eskubideak arautzeko (alegia, funtsezko eskubideak edo nortasunak berezkoak dituenak eta inola ere ez direnak botere publikoek ematearen ondorio, baizik eta haiek onartu eta bermatu beharrekoak) eta, bertetik, hainbat askatasun publiko arautu eta Estatuaren edozein esku-sartzetik babestutako herritarren jardun esparru jakin batzuk onartzeko.

Alde horretatik, 1978ko Konstituzioak ez zituen herritarren eskubideak eta askatasunak aldarrikatu eta onartu bakarrik egin, haien funtsezko edukia mugatuz; aitzitik, haiek babesteko arauzko bermeak eta berme instituzionalak eta judizialak zehatz-mehatz arautu ere egin zituen. Bermeon ikuspegitik, honako eskubide hauek bereizten ditugu:

- **Babes osoko edo indartuko eskubideak** (I. tituluko II. kapituluko 1. atala). Zuzenean dira eragingarriak, 53.1. artikulua aldarrikatzen duenez, eta 168.1. artikulua xedatzen duen prozedura indartuaren bidez bakarrik alda daitezke arauz. Lege Organikoaren mailako arau baten bidez soilik gara daitezke arauz, eta lehentasunez eta era sumarioan babestu beharrekoak dira justizia auzitegietan eta Konstituzioak babesten ditu.
- **Babes arrunteko eskubideak** (I. tituluko II. kapituluko 2. atala). Horiek ere zuzenean eragingarriak dira, 53.1. artikulua aldarrikatzen duenez, eta hortaz, justizia auzitegietan eska daitezke, legediak aldeztatik aurretik garatu beharrik gabe. Justizia auzitegiak onartzen dituen Konstituzioko aginduan oinarritu daitezke dena delako arazoa konpontzeko. Legearen mailako arau baten bidez garatu behar dira arauz, eta Konstituzio Auzitegiari dagokio kontrolatzea Konstituzioak dena delako eskubideari buruz onartzen duen funtsezko edukia errespetatzen duen legediak.
- **Babes mugatuko eskubideak** (I. tituluko II. kapitulua). Aurrekoak ez bezala, ez dira zuzenean eragingarriak, baina onartzen dituzten Konstituzioko aginduak arauzkoak dira eztabaidarik gabe, ez programatikoak soilik, eta, horrenbestez, eskubideon onarpenak, errespetuak eta babesak oinarritu behar du legegintza positiboa eta epaileen eta botere publikoen jarduna. Konstituzio Auzitegiak, onartzen dituzten Konstituzioko aginduetan oinarrituz, jaramonik egiten ez dien edo urratzen dituen araua Konstituzioaren aurkakoak dela ebatz dezake.

Komeni da gogora ekartzea pertsonaren oinarrizko eskubideak babesteko konstituzio antolamenduak nabarmentzen duela eskubideok eta haiek babesteko agindua pertsona orori, eskubideen subjektu orori buruzkoak direla, haien adina eta egoera gorabehera.

Gure antolamenduak adingabeen jarduteko gaitasuna mugatzen du; oinarrizko eskubide batzuen erabilera berezia da, nortasunaren bereizmen, garapen eta heldutasun maila desberdina delako adinaren

arabera; eta legediak hainbat neurri eta erakunde arautzen ditu, adingabeak ordezkatu eta babesteko. Horregatik guztiagatik, batzuetan, adingabeak Konstituzioak onartzen dituen eskubide guztien jabe direla “ahantzten” dugu, aipatu konstituzio antolamenduarekin bat, eskubideok eskatzeko modukoak diren arren.

5.3. HAURREN ESKUBIDEEN KATALOGOA

Orain arte azaldutako arauen edukian oinarrituz, haurren edo adingabeen eskubideen azalpen edo katalogo laburra egin dezakegu. Konstituzioak kontzeptuak eta babesa inplizituki antolatzen dituen moduarekin bat, “nortasunaren berezko banakako eskubideak” eta “banakako gizarte eskubideak” bereiziko ditugu; banakako gizarte eskubideak dira banakoaren eskubideak taldean bizi den aldetik.

Nortasunaren berezko eskubideak, berriz, bi motatan sailkatuko ditugu, nortasunaren zer alderdiri buruzkoak diren: pertsona fisikoaren eskubideak eta eskubide intelektualak.

Banakako gizarte eskubideak hiru ikuspegitatik aztertu behar dira, familiaren, eskolaren eta gizartearen beraren ikuspegitik, aipatu banakako eskubide bakoitza adingabearen eremu guztietan aplikatu eta gauzatzeari kalte egin gabe.

1) Nortasunaren berezko eskubideak

- 1. a) Honako hauek dira pertsona fisikoaren eskubideak:
 - Bizitzeko eskubidea. Horretarako, ahal dela, adingabeak bizirik irautea bermatu behar da, eta inolaz ere ezin zaio heriotza zigorra ezarri.
 - Segurtasun fisikorako eskubidea. Debehatuta dago adingabeak edonola torturatu edo adingabeei gizatasunik gabeko tratua edo tratu iraingarria ematea.
 - Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Adingabe bati ere ezin zaio kendu askatasuna legez kontra edo apetaz. Eskubideok adingabeei buruzko zigor zuzenbidea osatzen duten printzipioekin bat soilik mugatu daitezke. Gainera, berariaz debehatuta dago haurrak legez kontra lekualdatu eta atxikitzea, baita haurrak nolana bahitu eta saltzea eta adingabeak eskean ibiltzeko erabiltzea ere.

- Sexu ukigabetasunerako eskubidea. Legegileak adingabea ados ez zegoela jotzen duen egoeretan bermatu behar da, adina dela-eta, hark ez duelako adostasuna bere kabuz eratzeko gutxieneko ulermena eta nahimena.
- 1. b) Eskubide intelektualak:
 - Segurtasun moralerako eskubidea. Adingabeek eskubidea dute pertsona ororen berezko duintasunak merezi duen errespetuaz trata ditzaten eta tratatu txar psikikoen aurka babes ditzaten.
 - Ohorerako eta intimitaterako eskubidea. Inolaz ere ezin da onartu eskubideon babesaren esparruan apetzako edo legez kontrako esku-sartzerik izatea.
 - Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea.
 - Nork bere iritzia emateko eskubidea eta, zehazki, norberarengan eragina duten auziei buruz iritzia emateko eskubidea, kontuan har dezaten.
 - Informazioa askatasunerako eskubidea. Botere publikoek zaindu behar dute komunikabideek haurren ongizatea susta dezaten eta komunikabideak saia daitezen, bereziki, adingabeentzako informazioak Konstituzioko balioen errespetua bultzatuz.
 - Hezkuntzarako eskubidea eta adingabeek beren nortasuna erabat garatzekoa, oinarrizko eskubideen eta askatasunen eta elkarrekin bizitzeko printzipio demokratikoen errespetuan oinarrituz. Oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa izatea ziurtatu behar da.
 - Aisialdirako eskubidea. Adingabeek jolasteko eta atsegin hartzeko eskubidea dute, beren adinekoren berezko jokoetan aritzekoa eta kultur eta arte bizitzan parte hartzekoa.
 - Sexu askatasunerako eskubidea. Berez banakoaren askatasuna adierazteko askatasuna dela jo behar da, eta barne borondatea norberaren kabuz eratzeko

prozesua eta barne borondate hori adierazteko bideak norberaren kabuz gauzatzekoa biltzen ditu. Hori dela-eta, indarkeriarik baina adingabea ados egon gabe egiten direnak (hala nola, abusuak) eta sexu erasoak ezberdin babesten ditugu, adingabeen prostituzioaren eta adingabeak ikuskizun eta material porno-grafikoetarako erabiltzearen inguruko jokabideak zigorren bidez bereziki babesteari kalte egin gabe.

- Sexu ukigabetasunerako eskubidea. Legegileak adingabea ados ez zegoela jotzen duen egoeretan bermatu behar da, adina dela-eta, hark ez duelako adostasuna bere kabuz eratzeko gutxieneko ulermena eta nahimena.

2) Banakako gizarte eskubideak

• 2. a) Familiartean

- Nork bere nortasun biologikoa zein den jakiteko eskubidea.
- Izen-abizenak izateko eskubidea.
- Familiarekin egoteko eskubidea. Hari dagokio adingabeak zaindu eta garatzeko ardura nagusia.
- Familiak bateratzeko eskubidea. Bertze estatu batean bizi diren gurasoen seme-alaba adingabeek haiekin batzeko eskubidea dute.

• 2. b) Eskolan

Eskolan, gaur, haurra ez da hezkuntzarako eskubidearen subjektu bakarrik, hezkuntzaren gai ere baizik, eta hezkuntzaren edukiek haren oinarritzko eskubideak eta askatasunak bermatu behar ditu:

- Bere gaitasunak eta ahalmen fisikoak eta adimenezkoak garatzekoa.
- Konstituzioko balioen eta bertzeren eskubideen errespetuan hez ditzaten.
- Norberaren kulturari eta kultur nortasunari buruzko eta bertze zibilizazio batzuei buruzko ezagutzak

jabetzekoa, gizarte plural batean ulerkortasun, bake eta tolerantzia giroan bizitzeko.

- 2. c) Gizartean, oro har
 - Naziotasunerako eskubidea.
 - Botere publikoek babes ditzaten eta gizarte laguntza izan dezaten, guraso edo tutorerik ez badute edo haiek ezin badute beren gain hartu adingabeak zaintzeko agindua.
 - Berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea.
 - Desberdintasunerako eskubidea. Ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoren bat duten adingabeek eta egoera sozial eta kultural zailean daudenek desberdintasunerako, beren kultur nortasunaren errespeturako eta diskriminazio positiborako eskubidea dute, berdintasunik eza berdintzeko.
 - Osasunerako eskubidea.
 - Gizarte babeserako eskubidea, gizarte zerbitzuen onuradunak izatekoa eta esplotazio ekonomikoaren eta beren hezkuntza eta garapena oztopatzen duen edozein lan egin beharraren aurka babestuta egotekoa. Adingabeei buruzko neurriak hartzen dituztenean, botere eta erakunde publikoek haien interesa babestea izan behar dute lehentasuntzat, babesa merezi duen bertz bidezko edozein interes baino gehiago.
 - Biltzeko eskubidea.
 - Elkartzeko eskubidea.
 - Errehabilitaziorako eta gizarteratzeko eskubidea. Abusuen, abandonuaren edo bestelako tratu txarren edo esplotazio bideen biktima izan diren adingabeek errehabilitaziorako eta gizarteratzeko eskubidea dute.
 - Zigor arloan beren adinaren arabera trata ditzaten. Adingabeak adingabeei buruzko zigor zuzenbidearen esparruan zigortu behar dira, eta hark prebentzio

berezian eta, helduei buruzkoak ez bezala, “adingabeak oraindik hezi” egin daitezkeen funtsezko printzipioan oinarritu behar du.

5.4. JARDUNAREN PRINTZPIOAK

Aipatu arauen (Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren eta Espainiako Konstituzioaren) edukari kalte egin gabe, indarrean dagoen gainerako esparru juridikoarekin bat (funtsean, Kode Zibileko VII. tituluko V. kapituluarekin, adopzioari eta adingabeak babesteko bertze modu batzuei buruzkoarekin (172.-180. artikuluekin) bat; Kode Zibila eta Prozedura zibilaren Legea adopzioari eta adingabeak babesteko bertze modu batzuei dagokienez aldatzeko azaroaren 11ko 21/1987 Legearekin bat; eta, bereziki, Adingabeen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoarekin bat), administrazioak honako printzipio gidari hauek hartu behar ditu kontuan esparru honetan jarduteko; printzipiook 1/1996 Lege Organikoko 11.2. artikulua xedatzen ditu:

- Adingabeen interesaren nagusitasuna.
- Adingabeek jatorriko familia ingurunean jarraitzea, beren intereserako komenigarria ez bada izan ezik.
- Adingabeak familiartean egotea eta gizarteratzea.
- Adingabeen garapen pertsonalari kalte egiten dioten egoera guztiei aurrea hartzea.
- Herritarrek adingabeen babesgabetasunaren kontzientzia hartzea.
- Gizartearen parte hartzea eta elkartasuna sustatzea.
- Babes jarduna zuzenbide aldetik segurua, objektiboa eta inpartziala izatea eta neurriak jakintza arlo askotako kide anitzen artean hartzen dituztela ziurtatzea.

Nafarroan, gainera, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea ere nabarmendu beharra dago. 3. artikulua printzipiook bildu eta zenbaitetan mugatu ere egiten ditu, eta zenbait erreferentzia eransten ditu: haurrei buruzko neurri guztiek hezitzaileak eta gizarteratzaileak izan behar dutela; adingabeak zentroetan laguntzeak bertze aukerarik

ez dagoenean aplikatu beharreko konponbidea izan behar duela eta, ahal den neurrian, behin-behinekoa izan behar duela; alor honetan jarduten diren administrazio publikoek eta erakunde pribatuek lankidetzan aritu eta koordinatu egin behar dutela; tolerantzia, elkartasuna, errespetua eta berdintasuna sustatu behar direla adingabeen artean; adingabeen onerako eta haiek babesteko neurriek isilekoak izan behar dutela; eta, azkenik, adingabe bakoitza laguntzeko baliabideen aukerak eraginkorra izan behar duela.

Arituko gara aurrerago 15/2005 Foru Legeaz, baina gatozen Adingabeen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren edukira. Bi bloke bereizten ditu: alde batetik, adingabeen eskubideen katalogo edo zerrenda eta eskubideok eraginkorrak izateko eta botere publikoek adingabeen babesgabetasun sozialari aurre egiteko egin beharrekoa antolatzen hainbat neurri; eta, bertze aldetik, Kode Zibilaren eta Prozedura zibilaren Legearen erreforma bera adingabeei dagokienez.

Aurreko lege testuek adingabeak babesteko neurriak epaileen eskumenetik kanpo uzteko joera izan dute, eta Lege Organikoa ere ildo beretik dator: esku hartzeko mekanismoak sinplifikatzen saiatzen da, eta, hori dela-eta, administrazioaren eginkizuna gero eta nagusiago da. Horretarako, jarduteko gaitasun handia egokitzen dio.

Hartara, bizkorrago esku hartzeko bide ematen du. Kontuan hartuta zein esparruz ari garen, askotan guztiz beharrezkoa da, neurriak eraginkorrak izateko eta adingabeen babesgabetasun egoerei zinez erantzuteko.

Dena dela, behar den segurtasun juridikoa eta alderdi guztien eskubideak errespetatu beharra dela-eta, hainbat betebeharrak ezartzen ditu, jarduna koordinatzeko, eta, horretarako, Ministerio Fiskalari erabateko zaintza lanak egokitzen dizkio. Hain zuzen ere, ezartzen du adingabeen tutoretza, zaintza eta harrera eratu, aldatu eta amaitzearen inguruko egoera eta gorabehera guztiak jakinarazi behar zaizkiola hari, eta hark, sei hilean behin gutxienez, administrazioaren zaintzapean edo tutoretzapean dauden adingabe guztien egoera egiaztatu behar duela eta beharrezko jotzen dituen babes neurriak sustatu behar dituela epailearen aurrean.

Bestalde, zuzenbide estatuaren berezko eskumenen esparruan, haurren eskubideez erabakitzeke arduraren nagusia epaileei dagokie, bereziki, gatazken arteko interesa dagoen egoeretan. Hala ere, kontuan izan beharra dago, epaileek osatutako organoek administrazioaren erabakiak berrikusten dituztenean, berrikusketa

bigarren mailakoa dela eta, horrenbestez, hasiera batean behinik behin, administrazioak ez duela behar epaileek osatzen dituzten organoek baimena ematea alde aurretik neurririk hartu edo esku hartzeko. Alde horretatik, ohikoa da zalutasun eta segurtasun juridikoaren arteko dikotomia, eta, nolabait, legegileek lehenaren alde egin dute, kontuan izanik adingabeen eskubideak eta interesak babesteko beharrezko neurriek berehalakoak izan behar dutela ezinbestean.

Aztertzen ari garen arau esparruaren bertze elementu nabarmengarri bat da legedi osoa adingabeen interes gorenak burutzen duela, aurreko erreformek ekindako bideari eta gure gizartean izan diren gizarte eta kultur aldaketei jarraiki, haurren eskubideen inguruko ikuspegia nabarmen aldatu baita.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da “adingabeen interes goren” kontzeptua, eta bidezko bertze edozein interesi gailentzen zaiola; izan ere, adingabeak lehen mailakoak izatea dakar, haien eguneroko bizitzari edo etorkizunari buruz erabakitzeari dagokionez. Hori dela-eta, adingabeen onerako neurriak hartzeko, botere publikoek haien ongizatea zaindu baino gehiago egin behar dute; alegia, haien iritziak aintzat hartu behar dituzte –adingabeek eskubidea dute entzun egin ditzaten–, eta baita haien borondatea ere, eta, ahal dela, adingabeen erabakimena errespetatu behar dute haien familiarterako harremanetan eta abarretan eragina duten esparruetan, bai familiari dagokionez eta bai adingabeei buruzko edozein prozedura administratibori edo judiziali dagokionez.

Ikuskeraren horrekin bat, eta aipatu printzipio gidariekin bat, 1/1996 Lege Organikoak adingabeek jatorriko familia ingurunean jarraitzeari ematen dio lehentasuna, beren intereserako komenigarria ez bada izan ezik, eta adingabeak familiarterean egotea eta gizarteratzea eta adingabeen garapen pertsonalari kalte egiten dioten egoera guztiei aurrea hartzea bultzatzen du, Europako egungo gizarte politikak bideratzen dituzten arau orokorrei eta, zehazki, halako egoerei aurrea hartzeari eta, komunitatearen laguntza baliabideak erabiliz, adingabeek beren ingurunean jarraitzeari buruzkoei jarraiki.

Aipatu ereduaren eta ikuskeraren ildoan, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak arau horietan biltzen ditu, alor honetako jarduna burutu behar duten printzipio gidariei buruz aritu garenean erran dugun bezala. Hain zuzen ere, 3. artikulua biltzen ditu, baina Foru Legeko artikulua guztietan barrena ere sumatzen dira: 31. artikulua eta hurrengoak prebentzioaz dihardute; 15. artikulua,

administrazioaren esku-hartzearen subsidiariorotasunaz; 38. artikulua, adingabeen interesa eta eskubideak babesteko neurriei buruzko irizpideez; 16.3., 22.3., 39.k), 51.4., 60.4., 60.6. eta 84.3. artikuluek, Ministerio Fiskalak esku hartzeaz eta harekiko harremanaz; eta 35.f), 42.1., 52.1., 58.c) eta 60.4. artikuluek, epaileek esku hartzeaz.

Dena dela, gogoan izan beharra dago, juridikoak baino ez diren bermeei kalte egin gabe, adingabeen eskubideak babesteko, haien eskubideak eraginkortasunez babesteko, haurren oinarrizko beharrei erantzun egiten zaiela ziurtatu behar dela eta haurren behar sozialen lehentasunak zehaztu behar direla. Izan ere, adingabeen eskubideak bermatzeko, haurren garapen librea eragotzi edo mugatzen duten gizarteko baldintzak aldatu behar dira, eta, horretarako, bermerik onena da adingabeak familia eta gizarte ingurune egokian egotea, behar bezala hazi eta gara daitezen bultzatzeko.

5.5. 1/1996 LEGE ORGANIKOTIK AURRERA IZANDAKO BERRIKUNTZA NAGUSIAK

5.5.1. Arrisku eta babesgabetasun egoerak

Esku hartzeko erduei buruz eta, zehazki, arrisku eta babesgabetasun egoerei aurrea hartzeari eta, komunitatearen laguntza baliabideak erabiliz, adingabeek beren ingurunean jarraitzeari buruz aritu gara lehen. Bada, horiek guztiak praktikoki bermatzeko, 1/1996 Lege Organikoak bereizkuntza bat egin zuen, berrikuntza edo ekarpen nagusietan lehena: arriskua eta babesgabetasuna bereiztea.

Babesgabetasuna Kode Zibila eta Prozedura zibilaren Legea adopzioari eta adingabeak babesteko bertzeko modu batzuei dagokienez aldatzeko azaroaren 11ko 21/1987 Legeak tipifikatu zuen lehenengo aldiz, ordu arte "abandonu" kontzeptua erabiltzen baitzen. Aurrerapauso garrantzitsua izan zen hura, baina are garrantzitsuagoa izanen da orain, adingabeen babesgabetasun sozialeko egoeren artean bereizteari esker; izan ere, administrazioak ezberdin esku hartuko du, eta esku-hartzearen ondorioak ezberdinak izanen dira, adingabea arriskuan edo babesgabe dagoen.

5.5.1.1. Arriskua

Arrisku egoera arautzea, nolabait, babesgabetasuna tipifikatu ondoren sortu zen gabezia bat bete behararen ondorio izan zen. Izan ere, babesgabetasuna askotarikoa izan daiteke: egoera batzuk ez dira bertzeko batzuk bezain larriak, eta, beraz, ez da beharrezkoa haurrak

familiarengandik bereiztea, baina, hala ere, arriskutsuak dira haien garapen pertsonalarentzat.

Azken batean, adingabeak arrisku egoeran egotea da haien garapen pertsonalari edo sozialari kalte egitea, baina, hasiera batean, ez familiarengandik bereizteko eta, hortaz, adingabeen tutoretza dena delako lurraldean haiek babesteko eskumena duen erakunde publikoak bere gain hartu behar izateko bezain larriki. Aitzitik, halako egoeretan, erakunde publikoen esku-hartzeak adingabeen familiarteko egituran bertan dauden arrisku faktoreak desagerraraztea izan behar du helburu.

Alde horretatik, Espainiako araudiari jarraituz zaio Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea. Hain zuzen, 34.3. artikulua arrisku egoera zer den zehazten du, eta 45. artikulua adibideen bitartez azaldu edo argitu eta arrisku egoeratzat zein hartzen dituen zehazten du.

Arrisku egoera zer den definitzeko, kontzeptu zehaztugabeak darabiltza neurri batean, baina, halere, haiek interpretatzeko bideak behar bezain zabalak dira, eta administrazio publikoak behar bezala ebalua dezake, kasuan-kasuan, adingabeen garapen pertsonala eta soziala norainoko arriskuan dauden, edo zenbaterainoko kaltea egiten zaien. Hartara, egoera hain larria ez bada eta beharrezkoa ez bada adingabea familiarengandik bereiztera behartzea, esku-hartzearen helburuak zailtasunak desagerrarazi, txikiagotu edo berdintzea izan behar du, adingabea babesgabe ez geratzeko; edonola ere, litekeena da, gainera, egoera aztertu ostean, gurasoek beren borondatez adingabeak zaintzeko neurriren bat eska dezaten hitzartzea familiarekin.

Haurrak eta nerabeak babesteko foru dekretuaren proiektua egin berri du Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, eta hura osatzeko ekarpenak biltzen ari da orain. Ildo horretan, proiektuak gai honi buruzko arau zehatzak xedatzen ditu, eta, horretarako, arrisku egoerak sailkatu eta deskribatzen ditu; gainera, arrisku txikiko, neurritzko arriskuko eta arrisku larriko egoerak bereizten ditu, honako ezaugarri hauen arabera:

- Arrisku txikiko egoeretan, haurrei ez zaie minik egin edo, egin bazaie, mina txikia da, eta ez da aurrez ikusten minik egingen zaienik edo, egiten bazaie, mina handia izanen denik.
- Neurritzko arriskuko egoeretan, haurrei min handia egin zaie edo min handia egingen zaiela aurrez ikusten da baina haurren

garapena ez dago arriskuan eta ez da tratamendu espezializaturik behar, edo/eta haurren garapenari min handia egin zaio edo min handia eginen zaiola aurrez ikusten da baina familia osatzeko iragarpena ona da, gurasoek beren arazoek kontzientzia dutelako eta haurren egoera hobetzen laguntzeko behar bezain prest daudelako.

- Arrisku larriko egoeretan, behin-behinean edo behin betiko, gurasoek ezin dute bete haurrak zaintzeko betebeharra, ez dute betetzen haurrak zaintzeko betebeharra edo haurrak oso-oso desegokiro tratatzen dituzte. Ondorioz, haurrei min handia egin diete edo min handia eginen dietela aurrez ikusten da, eta, hori dela-eta, haien garapena arrisku larrian dago edo arrisku larrian egonen dela aurrez ikusten da eta tratamendu espezializatu bat behar da edo behar izanen dela aurrez ikusten da.

Ondoren, foru dekretuaren proiektuak arrisku egoerak ebaluatzeko irizpide ugari ezartzen ditu, eta, haien arabera, eta kasuan kasuko babesgabetasun egoeraren arabera, azkenean, xedeak, programak eta hartu beharreko babes neurrien mailak xedatzen ditu.

Aipatu testuak ezartzen dituen programei dagokienez, nabarmendu beharra dago, adingabeen babesgabetasun egoeraren larritasunaren arabera, gurasoak zenbateraino dauden prest arazoa konpontzen laguntzeko eta familiaren egoera aldatzeari buruzko aurreikuspenaren arabera, foru dekretuaren proiektuak honako hauek bereizten dituela:

- Adingabeak babesteko programak, arrisku egoeran dauden adingabeak familiarengandik ez bereizteko.
- Adingabeak familiarengandik aldi baterako bereizi eta ondoren bateratzeko programak, haien segurtasuna babesteko eta familiarengana itzultzeko bide ematen duten baldintzak sortzeko.
- Adingabeak jatorriko familiarengandik behin betiko bereizteko programak, familia egoki eta egonkor batekin bizi daitezen bultzatzeko.
- Adingabeak beren kabuz bizitzen laguntzeko prestakuntza programak, bizimodu autonomo erabatekoa izateko beharrezko abileziak izan edo, ezgaitasunen bat badute, haien tutoretza haiek zaintzeko eskumena duten erakundeei egokitzeko.

Azkenik, foru dekretuaren proiektuari buruzko testuak honako maila hauek xedatzen ditu babes neurriei dagokienez, babesgabetasun egoeraren ezaugarrien eta mailaren arabera:

- Arrisku txikiko eta neurritzko arriskuko egoeretan, esku-hartzearen helburuak, nagusiki, lehen mailako prebentzioa izan behar du, kasuan kasukoa.
- Arrisku larriko egoeretan, gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen laguntza izanez gero eta ez bada beharrezkoa adingabeak haiengandik bereiztea, esku-hartzearen helburuak familiak laguntzea izan behar du, ziurtatzearen haiek erantzuten dietela behar bezala adingabeen beharrei.
- Arrisku larriko egoeretan, gurasoen edo tutoreen laguntza izanez gero baina beharrezkoa izanez gero adingabeak haiengandik bereiztea, haien eskariari erantzun behar zaio eta adingabeak zaintzeko betebeharra onartu behar da.
- Arrisku larriko egoeretan, babesgabetasun egoera foru legediak aipatzen duen arrazoi baten ondorio bada, adingabeak babesgabetasun egoeran dauden adierazpena egin behar da eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko erakunde eskudunak bere gain hartu behar du haien tutoretza.

5.5.1.2. Babesgabetasuna

Arrisku egoeretan ez bezala, babesgabetasun egoeretan, gertakariak larriak direla-eta, adingabeak familiarengandik bereizi eta haien tutoretza erakunde publiko bati egokitzea komeni da. Horretarako, gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei haien gainean duten guraso ahala edo tutoretza arrunta kendu behar zaie. Mekanismo horrek "tutoretza automatiko" izena du, lege bidez, erakunde publikoei egokitzen zaielako babesgabetasun egoeraren bat jazotzen denean.

Adingabeen tutoretza erakunde publiko bati egokitu ondoren, babes neurririk egokiena (adingabeak familian ala etxeetan hartzea) hartu behar da, eta, 48 orduko epean, Ministerio Fiskalari eta haien gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei babesgabetasun ebazpena jakinarazi behar zaie; gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei, ahal dela, zuzenean jakinarazi behar zaie, eta administrazioak esku hartzeko zioak, erabakiaren balizko ondorioak eta hartutako neurriak zein diren eta zer errekurtso aurkez ditzaketen azaldu behar zaie.

Kode Zibilak dioenez, babesgabetasun egoerak dira “egitez gertatzen direnak, adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez-betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala”.

Definizio hori bera ematen du Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 34.4. artikulua, eta 50. artikulua babesgabetasun egoeratzat har daitezkeen hainbat egoera aipatzen ditu; gainera, m) atalaren arabera, honako hau ere babesgabetasun egoeratzat jo daiteke: “adingabeak zaintzeko legeek ezarritako babestu beharra ez betetzeagatik edo ezin bete izateagatik edo gaizki betetzeagatik egitez sortzen den bertze edozein egoera, ondorio gisa ekartzen duena haiek behar duten laguntzaz gabetzea”.

Legeak (hala nola, Kode Zibileko 172. artikulua) kontzeptu juridiko zehaztugabeak aipatzen baditu, egoerak adibideen bitartez azaltzen dira, agian, ulerterrazagoak izan daitezten, haiek aplikatu behar dituzten teknikariek ez baitaude ohituta halako interpretazio juridikoekin, baina teknika arriskutsua da, dena delako adibidea edo egoera automatikoki aplikatuz gero, zer kontzepturi dagokion eta kasuan-kasuan zer gorabehera jazotzen diren kontuan hartu gabe, bidegabekeriak gerta baitaitezke.

Ildo horretan, definizioak dioenarekin bat, babesgabetasuna egitezkoa den aldetik, hura aplikatzeko dilema nagusia da kontzeptua hertsiki interpretatu behar den, asmoa edo nahitasuna kontuan hartu gabe eta arrazoiaren dolozkotasuna, erruzkotasuna edo ezustekotasuna gorabehera, ala, aitzitik, gorabehera guztiak aintzat hartu behar diren eta interpretazioak dakartzan emaitza bidegabeetan aparteko arreta jarri behar den. Adibidez, bada, bere esku ez dauden arrazoiak (langabezia, gaixotasun bat, zailtasun ekonomikoak, etab.) direla-eta, adingabeen beharrei nahi bezala erantzun ezin dien gurasorik.

Doktrina juridikoa ez dator bat gai hori dela-eta, eta badago uste duenik egitezko babesgabetasun egoera bakarrik hartu behar dela kontuan, adingabeen gaineko guraso ahala dutenek nahita ala nahi gabe eragin, eta badago, adingabeen interesaren nagusitasuna argudiatuz, uste duenik gorabehera oro hartu behar dela kontuan; izan ere, gurasoek guraso ahalaria dagozkion betebeharrak betetzen ez badituzte baina haiek ez betetzeko zioa ez bada nahitasuna edo utzikeria, egoera babesgabetasun egoeratzat hartzea ezaugarri pertsonaletan edo sozialetan oinarrituta diskriminatzea omen da, eta Konstituzioko 14. artikulua debekatu egiten du halakorik.

Erran dugu lehen ere, egungo araudiari esker, administrazioak eskumen handiak dituela esku hartu eta hartzen dituen neurriak mailakatzeko, egoera bakoitzari kasuan kasuko berezitasunen arabera erantzute aldera. Horri esker, kasuan-kasuan, aurrez ezarritako nolanhiko iritziak (edo, bestela erranda, oso jarrera zorrotzak) alde batera utzi eta aipatu adibideetako egoerak komunitatearen laguntza bidezko neurriak (neurri ekonomikoak eta bestelakoak) hartuz konpon daitezke; horrek ez du erran nahi, aldi baterako, administrazioak zaintza bere gain hartu beharra ere xedatu ezin denik.

Bestalde, adingabeen babesgabetasun egoera definitzeko, adingabeek laguntza moral edo materialik ez izatea ere aipatzen du Kode Legeak, eta kontzeptua interpretatzeko zailtasunak areagotu ditzake horrek.

Terminologia zehazte aldera, askotara interpreta baitaiteke, laguntza morala guraso ahalaren alderdi pertsonalari dagozkion eskubideekin eta betebeharrekin lotuta dagoela jo daiteke, Kode Zibileko 154. artikulua guraso ahala definitzen duen moduarekin bat: adingabeak zaindu, haiekin izan, haiek hezi eta haiei prestakuntza oso ematearekin. Laguntza materiala, berriz, haiek elikatu beharrekin lotuta dago, elikadura ikuspegi juridikotik, Kode Zibileko 142. artikulua definitzen duen moduarekin bat hartuta, alegia, mantenua, ostatua, jantziak eta medikuen laguntza (baita hezkuntza eta heziketa gastuak) bermatzeko beharrezko denatzen.

Nolanhahi ere, aurreko guztiak nabarmentzen du garrantzizkoa eta beharrezkoa dela babesgabetasun egoera kasuan kasuko gorabeherak kontuan hartuz tratatu edo ebaluatzea, eta, bereziki, adingabeen interesaren arabera eta guraso biologikorik baduten eta haien bidezko eskubideak zein diren aintzat hartuz. Horretarako, hainbat faktore izan behar dira kontuan, hala nola, administrazioak izatezko zer egoera antzematen duen, familiartean zer urritasun edo gabezia dauden eta zer neurri hartu behar diren, nola edo hala, arazok konpontzen saiatu eta, hartara, egoera amaiarazteko. Aipatu araudiak esku hartzeko aukera asko ematen ditu eta askotariko eta maila askotako neurriak eta konponbideak xedatzen ditu, eta, horri esker, azkenean, litekeena da kasuan-kasuan egokiena den babes neurria hartzea, sortzen diren gatazkak haztatuz.

5.5.1.3. Babesgabetasun adierazpena egiteko prozedura

Arrisku egoerei aurre egiteko, lehenik, arrisku egoera sumatu eta, amaieran, oro har, administrazioako erakunde eskudunak esku hartzea

erabakitzen du. Aitzitik, babesgabetasun egoerei aurre egiteko, bada prozedura administratibo bat eta, amaieran, administrazioko erakunde eskudunak ebazpen arrazoitua ematen du; haren kontra jurisdikzio zibilaren esparruan aurkez daiteke helegitea, aurrez administrazioaren aurrean erreklamazioa aurkeztu beharrik gabe.

Hori xedatzen du Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 51. artikulua. Hala ere, arautu ondoren eginen dela dio, arazko garapen bidez; hain zuzen, erran bezala, Nafarroako Gobernuo Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak haurrak eta nerabeak babesteko egin berri duen foru dekretuaren proiektuak garatuko du, eta hura osatzeko ekarpenak biltzen ari dira orain.

Arauaren proiektua 12 artikuluk osatzen dute, eta hainbat zehaztapen xedatzen dituzte administrazio prozedura erkideari buruz: faseak (hasiera, biderapena eta ebazpena) nahitaez errespetatu behar dira, eta baita prozeduran interesa dutenen eskubideak ere alegazioak aurkezteko, probak egiteko, egindakoa ikuskatzeko eta ebazpenaren aurka errekurtsioa aurkezteko.

Era berean, nahiz Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak, nahiz aipatu foru dekretuaren proiektuaren testuak bertze bide bat aipatzen dute: prozedura laburtu edo urgentziazko prozedura batera jotzea, adingabeen segurtasunerako arrisku larria eta berehalakoa sumatu eta lehenbailehen esku hartu behar bada.

Alde horretatik, ezinbestean, bata bertzearen aurrez aurre, gure gaur egungo sistemaren jardunean nagusi diren bi dinamikak aipatu beharrean gaude: presa eta moteltasuna. Batetik, beharrezkoa da botere publikoek lehenbailehen antzematea eta aurre egitea arrisku egoerei, baina batzuetan ez dute behar bezain bizkor egiten. Bestetik, lasaitasunez esku hartu behar da eta hartu behar dira neurriak adingabeen eskubideen eta askatasunen alorrean.

Hasiera batean, arrazoizkoa dirudi adingabeen eskubideen eta askatasunen alorrean lasaitasunez esku hartu eta neurriak lasaitasunez hartzea; izan ere, helburua egoera zailak aldaraztea da, eta, horretarako, denbora eta neurri kateatu asko behar dira. Alta, oso ondorio kaltegarriak izan ditzake, adingabeengan bereziki, behin betiko erabaki bitartean, izatezko egoera sortzen delako adingabeen bizitzan eta oso zaila delako egoera hori aldatzea azkenean erabaki egiten denean.

Azken batean, halako prozeduretan berme sistema hobea ezartzen laguntzen duen orok (hala nola, neurri bakoitza hartzeko epeek, esku hartzeko laguntza juridikoak eta, bereziki, bitarteko apropos eta nahikoe) prozedurek zenbaitetan dakartzaten ondorio kaltegarriak arintzen lagun dezake.

5.5.2. Familian eta etxeetan hartzea

Kode Zibila 1987an erreformatu zuten azken aldiz, eta 1/1996 Lege Organikoak, orduan abiatutako ildo berean, adingabeen babesgabetasun sozialari aurre egiteko hartu beharreko neurrien hainbat alderditan sakontzen du.

Bereziki, adingabeak familian hartzearen inguruan sakontzen du, behin-behinean familian hartzeko aukera ematen baitu, lehenengo aldiz. Badira bertze berrikuntza batzuk, baina aurrerago arituko gara haietaz; edonola ere, hainbertzerainoko berrikuntza ere ez dira, praktikan, berez, lehenago sumatzen hasiak baitziren.

Bai gurasoen edo tutoreen eskariari erantzunez, bai, lege bidez, tutoretza automatikoaren ondorioz, administrazioak adingabeen zaintza bere gain hartzen duenean, figura juridiko jakin baten bitartez (harreraren bidez) zaintzen ditu adingabeok, eta, Legeak berak egiten duen bereizkuntzarekin bat, familietan edo etxeetan har ditzake.

5.5.2.1. Adingabeak etxeetan hartzea

Adingabeak etxeetan hartzea da haiek babes etxeetara eramatea, establezimenduko edo harrera etxeko araubidearen mendean jar daitezen. Hain zuzen ere, harrera etxeko zuzendariak betetzen du babesle lana.

Ohikoena da adingabeak familian hartzeak lehentasuna izatea etxeetan hartzearen aldean. Behinik behin, hori xedatzen du 15/2005 Foru Legeko 69.b) artikulua. Alabaina, oro har, adingabeak harrera etxeetan hartzen dituzte lehenbizi eta, ondoren, haien egoera ebaluatu eta, kasuan-kasuan, haiek babesteko neurririk egokienak hartu bitartean. Dena dela, legediak berak dioenez, harrera etxeetako egonaldiak ahalik eta laburrena izan behar du, adingabeen ongizatea eta interesa dela-eta, harrera etxeetan luzaroago egotea komeni denean izan ezik. Izan ere, 15/2005 Foru Legeak aurrerapauso bat egiten du, eta printzipio gidari batek dio adingabeak harrera etxeetan hartzeak izan behar duela bertze aukerarik ez dagoenean soilik aplikatu beharreko konponbidea. Ildo horretan, behin eta berriz aipatutako foru dekretuaren proiektuak (22.4. artikulua) zehazten du,

epe luzeagorako babes neurriren bat hartu bitartean, adingabeak ezin daitezkeela egon hiru hilabete baino gehiago harrera etxeetan.

Bestalde, 1/1996 Lege Organikoko 21. artikulua xedatzen duenez, erakunde publikoek adingabeak hartzeko zerbitzu eta zentro espezializatuak aurretik baimendu, akreditatu eta erregistratu behar dituzte, eta haien funtzionamenduari buruzko araubidea bereiz arautu. Aparteko arreta jarri behar dute segurtasun eta osasun gaietan, langileen kopuruan eta prestakuntzan, hezkuntza proiektuan eta adingabeek barne funtzionamenduan parte hartzeko bideetan, eta baita haien eskubideak bermatzen laguntzen duten gainerako baldintzetan ere. Horretarako, Legeak, berariaz, betebeharrak ezartzen die adingabeak babesteko eskumena duten erakunde publikoei: sei hilean behin gutxienez, zentrook eta zerbitzuok ikuskatzea; Ministerio Fiskalari, aurrekoek gain, haiek zaintzea ere ezartzen dio.

Nafarroan, berriz, 15/2005 Foru Legeko 91. artikulua eta hurrengoek harrera etxeetako araubideari eta etxeotan bizi diren adingabeen estatutuari buruzko hainbat agindu xedatzen dituzte, baina haien antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araubidea ondoren, arazko garapen bidez jazoko omen da; hasiera batean, behintzat, aipatu foru dekretuaren proiektuaren testuak ez dakar halakorik.

5.5.2.2. Adingabeak familian hartzea

Adingabeak familian hartzea da erakunde publikoak familia hartzaileen esku uztea babesgabetasun egoeran daudela adierazten duen adingabeak; familia hartzaileak aukeratu egiten dituzte, egokitasun irizpide jakin batzuekin bat, eta, ondoren, prestatu egiten dituzte, programen bitartez. Ondorioz, adingabeek erabat parte hartzen dute familia hartzaileen bizitzan, eta familia hartzaileek hainbat betebeharrak onartzen dituzte: adingabeak zaindu, haiekin egon, elikatu, hezi eta prestakuntza osoa ematea.

171996 Lege Organikoaren arabera, adingabeak familietan hartzeko hiru modu daude:

- Bakuna aldi baterako da, dela adingabeen egoeratik ondorioztatzen delako beren familiara itzuliko direla, dela epe luzeagorako babes neurri bat finkatu bitartean jazotzen delako.
- Iraunkorra gertatzen da, adingabeen adina edo adingabeen beren eta haien familien bertze gorabehera batzuk direla-eta, komenigarria denean eta adingabeak laguntzeko zerbitzuak

aldeko txostena egiten dutenean, eta, berez, horixe da harrera: babes neurri egonkor eta iraunkorra. Hartzailleek, legezko eragozpenak direla medio, adingabeak adoptatu ezin ditzaketenean hartzen da, baita aurrez ikusten denean adingabeak ez direla itzuliko gurasoengana baina ez denean nahi familia hedatuarekiko harremana gal dezaten; hain zuzen, horixe gertatuko litzateke familiek adoptatu aurretik hartu eta ondoren adoptatu eginen balituzte: jatorriko familiarekiko harremana guztiz hautsiko litzateke.

Halakoetan, erakunde publiko eskudunek eskatzen ahal diete epaileei hartzaillei tutoretza egokitu eta haien betebeharra betetzen lagun diezaieten, betiere, adingabeen interesaren nagusitasunean oinarrituz.

- Adopzio aurrekoaren helburua da, izenak berak dioenez, haurrak lehenbailehen babestea ez ezik, adopzioa prestatu edo adopzioari bide ematea ere. Erakunde publiko eskudunak formalizatzen du, adopzio proposamena epaileen agintaritzari aurkeztzen dionean, baina, horretarako, batetik, hartzailleek adoptatzeko eskakizunak bete behar dituzte, hautatuak izan behar dute eta adoptatzeko adostasuna adierazi behar dute, eta, bertetik, adingabeek adoptatzeko moduan egon behar dute egoera juridikoa dela eta.

Erakunde publikoak, adopzio proposamena aurkeztu baino lehen, adingabeak dena delako familiara egokitzeke tarte bat beharrezkoa dela jotzen duenean ere formalizatzen ahal du adopzio aurreko harrera.

1/1996 Lege Organikoak adingabeak familian hartzeko bertzeko modu bat xedatzen du. Aldi baterako da, eta erakunde publiko eskudunak adingabeak familian hartzeko neurri bat hartu eta familiak edo tutoreek haren aurka egiten dutenean edo hura baimentzen ez dutenean jazotzen da. Halakoetan, epaileek bakarrik erabaki dezakete adingabeak familian hartzea, erakundearen eskariari erantzunez, baina, bitartean, erakunde publikoak erabaki dezake, haien onerako, adingabeak aldi batez familietan hartzea, alegia, epaileek dena delako ebazpena eman artean.

Gainera, adingabeak familian aldi baterako hartzea erabaki ondoren, erakunde publiko eskudunak lehenbailehen egin diezaioke proposamena epaileari, beharrezko zuzemenak egin eta espedientea amaitu ostean; betiere, espedientea 15 eguneko epean osatu behar da gehienez. 15 eguneko epea errespetatu beharra, epaileen aginduetara jartzea eta azken erabakia haiek ematea berme

elementuak dira halako egoeretan, baina, zoritxarrez, praktikan, zaila da prozedurak behar bezain bizkorrak eta zaluak izatea.

Bestalde, autore askok eta askok aldi baterako harrera kritikatu izan dute, beharrezko mekanismoak antolatu behar direlakoan, prozedurek behar bezain zalu eta eraginkorrak izan eta epaileek berehala esku hartu eta kontrolatzeko. Gainera, uste dute epaileak behartuta senti daitezkeela erakunde publikoek egitez sortutako egoera bat onartzera, ebazpena ematerako, litekeena delako adingabeak harrera familian guztiz integratuta egotea eta, ondorioz, ezinezkoa izatea familia biologikoarengana itzultzea.

Azkenik, harrera motak bereizteari dagokionez, administrazioak agindutakoak eta epaileek aginduak ditugu, baina antolakuntza aldetik baino ez dira bereizten: batzuk administrazioak formalizatzen ditu: alderdi guztiek onartzen dituzte, eta, ondorioz, epaileek ez dute esku hartu beharrik; bertzeak, berriz, epaileak baimendu behar ditu, guraso biologikoek edo tutoreek erabakiaren aurka egin dutelako edo ados ez daudelako. Hala ere, erran bezala, bereizketa formala da erreala baino gehiago, batzuen eta bertzeen ondorioak berberak direlako behin indarrean sartu eta gero.

5.5.2.3. Adingabeak familian hartzea formalizatzea

Oro har, harrera eratzeko prozedura, epaileen esku ezpada, administrazio publikoaren esku dauden hainbat formalitateri jarraitzen zaie; azken batean, adingabeen gurasoek edo tutoreek beren kabuz baiezkota ematen ez dutenean edo dena delako erabakiaren aurka egiten dutenean soilik hartu behar dute esku epaileek.

Alde horretatik, 1/1996 Lege Organikoak Kode Zibileko 173. artikulua idatzaldi berria dakar, eta harrera idatzizko dokumentu baten bidez formalizatu beharra xedatzen du. Bertzeak bertze, honako hauek argitu behar ditu:

- Adostasuna adierazi behar dutenek adierazi egin dutela: adingabeak babesteko eskumena duen erakunde publikoak; familia hartzaileak; adingabeek, 12 urte edo gehiago badituzte; eta gurasoek, guraso ahala kendu ez badiete, edo tutoreek.
- Harrera mota eta harrerak zenbat iraunen duen.
- Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak zein diren: hartutako adingabeen senideek haiek bisitatzeko araubidea,

erakunde publiko eskudunak estaltzea adingabeen kalteak eta bertzeri egiten dizkietenak eta, azkenik, nork hartzen dituen bere gain mantenu gastuak.

- Harreraren helburua zein den, erakunde publikoak jarraipena nola eginen duen eta familia hartzaileek horretan laguntzeko konpromisoa.
- Familia hartzaileei ordain ekonomikorik dagokien eta, baldin badagokie, ordaina zenbatekoa den.
- Harrera profesionalizatua den ala ez.
- Zerbitzu espezializatuaren txostena.

Gogoan izan beharra dago, familiek adingabeak hartzen dituztenean, nolana hartzeko dituztela ere, litekeena dela administrazioak familia hartzaileei ordaintzea edo, bestela erranda, nolabaiteko ordain ekonomikoa ematea.

Erran bezala, Kode Zibileko 173. artikulua ezartzen du horretarako aukera, harrera formalizatzeko dokumentuak edo, bestela, aldi baterako harrera formalizatzeko proposamenak hori adierazi beharra xedatzen baitu. Nolabait, familia hartzaileei adingabeen oinarritzko beharrei aurre egiten laguntzeko sostengua da.

Familiek adingabeak hartzeari utzi edo harrera bukatzeari dagokionez, epaileek ebatz dezakete, beraiek erabakitzen badute, familia hartzaileak erabakitzen badu, adingabeen gurasoek (guraso ahala izaten jarraitzen dutenek) edo tutoreek eskatzen badute eta, azkenik, zaintza edo tutoretza bere gain duen erakunde publikoak erabakitzen badu; harrera amaitzea epaile batek ezartzen badu, nahitaez ebatzi behar dute amaitu egiten dela.

Adingabeak familian hartzeari dagokionez, gaiari buruzko zenbait aipamen dakar Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak, baina hura garatzeko foru dekretuaren proiektuaren testuak dihardu zehazkien familia hartzaileek aurkeztu beharreko eskabideez, haiek ebaluatzeko irizpideez, eskabidea aurkezten duten familiak egokiak diren ala ez erabakitzeko prozeduraz eta adierazpenaz, familia hartzaileen betebeharez eta, azkenik, familia hartzaileei ordainen bat emateaz, adingabeen familia hedatuak diren edo haiekin zerikusirik ez duten.

5.5.3. Adingabeak administrazioak zaintzea

Ez da 1/1996 Lege Organikoak ekarritako berrikuntza, 21/1987 Legeak ekarritakoa baizik, baina komeni da, labur-labur bada ere, kontzeptua ulertzen saiatzea, aukera askori bide ematen baitie, prebentzioaren ikuspegitik batez ere.

Administrazioak adingabeak zaintzea zuzenbide zibilaren esparruko bide bat da; haren ondorioz, legezko xedapenei, epaileen ebazpenari edo guraso ahalaren jabe direnen eskariari erantzunez, erakunde publiko batek hartzen du, aldi baterako, adingabeak zaintzeko ardura. Hain zuzen ere, Kode Zibileko 172.2. artikulua arabera, "inguruabar larriak direla eta, guraso edo tutoreek ezin dutenean adingabea jagon, herri-erakunde eskudunari eska diezaioke horrek bere gain har dezan adingabearen zaintza, beharrezkoa den epean zehar".

Ikusten denez, adingabeak administrazioak zaintzearen ezaugarri nagusietako bat da zaintzak behar adina irauten duela, adingabeen gurasoek erakunde publikoari haiek zain ditzan eskatzera behartzen dituen arazoa konpondu bitartean.

Adingabeak administrazio publikoaren esku egon arren, guraso ahalaren edo tutoretzaren berezko funtzioak ez dira bertan behera gelditzen, ez adingabeen eremu pertsonalean, ez haien ondarearen alorrean. Hau da, gurasoek guraso ahalaren jabe izaten segitzen dute, adingabeak administrazioak zain ditzan eskatzeko behin-behineko arrazoi larriak ezin zaizkielako haiei egotzi; aitzitik, egotzi egin ahal izanen balitzaizkie, babesgabetasun egoera litzateke, lehen erran bezala, eta, ondorioz, erakunde publikoak bertan behera utziko luke guraso ahala eta, automatikoki, bere gain hartuko luke adingabeen gaineko tutoretza.

Adingabeak administrazioak zaintzea idatziz formalizatu behar da, eta gurasoei edo tutoreei seme-alaben gainean zer erantzukizun duten azaldu zaiela adierazi behar da, baita administrazio publikoak adingabeak nola zainduko dituen ere: oro har, haiek familietan edo etxeetan hartuz.

Bestalde, gurasoen edo tutoreen eskariari erantzunez ez ezik, erakunde publikoek epaileek ebazten dutenean ere har dezakete beren gain adingabeak zaintzeko ardura, 1/1996 Lege Organikoak ekarri erreformarekin bat; harekin bat, epaileek, beren kabuz edo Ministerio Fiskalaren eskariari erantzunez, adingabeak babesteko beharrezko neurriak hartzeko eskumen handiak dituzte.

Ildo horretan berean, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 58. artikulua eta hurrengoek zaintzari buruz dihardute, eta azaltzen dute administrazioak zer hiru egoeratan har dezakeen adingabeak zaintzeko ardura bere gain: gurasoek eskatzen dutenean, epaileek ebazten dutenean edo, azkenik, adingabea babesgabetasun egoeran dagoelako adierazpena egin eta administrazioak haren gaineko tutoretza onartzen duenean.

Zehatz-mehatz, Foru Legeko 61. artikulua borondatezko zaintzaz ari da, gorabehera larriak direla-eta aldi batez adingabea zaindu ezin dezaketen gurasoek edo tutoreek eskatzen dutenaz; 60. artikulua, berriz, zaintza bera eta zaintzaren iraupena eta helburuak arautzen ditu; eta, azkenik, 62. artikulua zaintza bertan behera uzteko arrazoiak azaltzen ditu.

Foru Legea garatzeko foru dekretuaren proiektuaren testuko 44. artikulua eta hurrengoek antzeko xedapenak dakartzate, baina, gainera, behin-behineko zaintza edo ex lege zaintza aipatzen dute; ex lege zaintza, gurasoekin, tutoreekin edo zaintzaileekin aldi batean harremanetan egon ez direla-eta, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak zaintzeko da.

Proiektuarekin bat, halakoetan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak berehala esku hartu behar du, adingabeak behar bezala laguntzeko, eta, horretarako, neurririk egokiena zein den aztertu eta hura hartu bitartean, haiek aldi baterako zaintzeko ardura hartzen du bere gain.

Alde horretatik, aldi baterako zaintzari dagokionez, lehen azaldutako zerbait gogorarazi beharrean gaude, zalutasun eta segurtasun juridikoaren arteko ohiko dikotomiari eta adingabeak aldi baterako familietan hartzeari buruz: halakoetan, behin-behineko konponbideen alde egin izan da, behar bezain zalu eta eraginkor izate aldera, baina horrek ez du erran nahi praktikan berme sisteman murrizketak izan daitezkeenik halako prozesuetan murgilduta daudenen eskubideei dagokienez.

5.6. ADINGABEAK BABESTEKO ESKUMENEN GAUZATZEA NAFARROAN

Atal honen hasieran azaldu dugunez, bai zuzenbide publikoak eta bai zuzenbide pribatuak hainbat erakunde sortzea xedatzen dute, adingabeak haien garapen pertsonalari eta sozialari kalte egiten dioten babesgabetasun egoeren aurka babesteko.

Zuzenbide pribatuaren (zibilaren) esparruan, azkenaldian erreformak egin dituzte, lehenago aipatu dugunez, baina, ordura arte, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak ondarearen ikuspegitik araututa zeuden nolabait, kontuan hartu gabe adingabeak eskubide osoko pertsonak eta eskubideen subjektu aktiboak eta parte hartzaileak direla, beren ingurune pertsonala eta soziala aldatzeko eta beren beharrei erantzuten saiatzeko gai.

Nafarroako zuzenbide pribatuaren esparruan apenas dago legedi zibil erkideak aipatzen dituzenez bertze ezaugarri batzuk dituen erakunde juridikorik adingabeak babesteko, umeordetza izan ezik. Hori dela-eta, eta Konstituzioko printzipioek dakartenez gero botere publikoek modu erabakigarrian esku hartu behar izatea alor honetan, zuzenbide publikoari (zehazki, administrazio zuzenbideari) egokitu zaio adingabeen babesaraz arautu eta antolatzeko ardura.

Hartara, Nafarroako botere publikoek egiteko esanguratsua izan dute historian adingabeak babesten, hainbat laguntza erakunderen bidez eta horretarako establezimenduak sortuz.

Gaur egun, Espainiako Konstituzioak ezartzen duen esparruarekin bat, autonomia erkidegoei dagokie adingabeak babestu eta zaintzeko eskumena. Ildo horretan, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 44.23. artikuluekin bat, Nafarroan, Foru Komunitateari bakarrik dagokio adingabeak babestu eta zaintzeko erakunde eta establezimendu publikoen gaineko eskumena.

Gainera, gogoan izan beharra dago, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 48. artikulua aipatzen duen eskumen historikoari esker, Nafarroari soilik dagokiola foru zuzenbide zibilaren bildumak adingabeak babesteari dagokionez arautzen dituen erakunde juridiko guztien oinarritzko araubide zibila aldarrikatzea, eta eskubide osoa duela horretarako.

Horregatik guztiagatik, administrazio legedia gero eta esanguratsua da eta administrazioak orain arte zuzenbide zibilaren esparrukoa izan den gai batean esku hartzen du. Ondorioz, erakunde zibilak eta administrazio erakundeak elkarri egokitu behar zaizkio, bat eginik jardun behar dute, printzipio ezberdinetan oinarritu arren, eta erakunde zibilen eta administrazio prozeduren gidariak adingabeen interesa edonola babesteko printzipio nagusia izan behar du.

Hain zuzen ere, gai honi buruz dihardu Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005

Foru Legeak. Zehatz-mehatz, zioen azalpenak aipatzen du Nafarroako Foru Komunitateak foru zuzenbide zibilaren gaineko eskumena duela, eta, ondoren, lehenengo azken xedapenaren bidez, zehazten du zein diren Foru Legeko artikuluen ezaugarriak: artikulua asko eta asko zuzenbide zibilaren esparrukoak dira, eta Nafarroako foru zuzenbide zibilaren gainean duen eskumenari esker aldarrikatutakoak, baina bertzeak, aldiz, administrazio zuzenbidearen esparrukoak dira, eta Espainiako Konstituzioak (148.1.20. klausulak) gizarte laguntzari dagokionez autonomia erkidegoei bakarrik egokitzen dizkien eskumenei esker aldarrikatutakoak.

Ondoriorik nabarmenena da 15/2005 Foru Legeko zioen azalpenak hainbat zehaztapen eman behar dituela foru zuzenbide zibila osatzen duten artikulua aplikatzeari buruz; Kode Zibileko 14. artikulua dioenez, foru zuzenbide zibila nafar izaera foral zibila duten pertsonen aplikatu behar zaie, eta nafar izaera foral zibila ez dutenei, berriz, haien legedia aplikatu behar zaie, Kode Zibilak xedatzen duenari jarraiki.

15/2005 Foru Legeko zioen azalpenak bertze zenbait zehaztapen dakar Nafarroako zuzenbide zibila seme-alabatasunari, adopzioari, tutoretzari eta adingabeak babesteko gainerako bideei aplikatzeari buruz, eta, adingabeak babesteko emandako administrazio xedapenei dagokionez, ondorioztatzen du Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden guztiei aplikatu behar zaizkiela; lurraldetasunean oinarritzen da, alegia.

Lehenago ere erran dugu Espainiako Konstituzioko 148.120. klausulak bide ematen duela autonomia erkidegoek gizarte laguntzaren alorreko eskumenak izateko. Hartara, bakoitzaren estatutuen testuarekin bat, gizarte laguntza eta gizarte zerbitzuak, oro har, eta, zehazki, adingabeen babesa arautzeko eskumena dute.

Nafarroan, aukera horren legezko lehen gauzatze orokorra Gizarte zerbitzuen martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea izan zen. Haren arabera, lehentasunezko jardun esparruetako bat familiarterko gabeziak konpontzen saiatzea bultzatu beharra da; haurrak eta gazteak zaindu eta babestea bultzatu beharra, beharrezkoa bada haien familiarterko egoera dela eta; eta adingabeak berriz heztea bultzatu beharra, egokitu egiten ez badira. Betiere, ahal dela, saiatu behar da adingabeak erakundeetan ez sartzen eta familiarengandik ez deserrotzen.

Foru Legeak hainbat udal zerbitzu eta laguntza ezarri edo zehazten ditu familien eta adingabeen alde, udalek kudeatutakoak:

hautzaindegiak, adingabeen familia etxeak eta gazte elkarteak, baita informazioa, aholkularitza eta laguntza teknikoak eta ekonomikoak ere, oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez. Zerbitzuen antolamendu administratiboa deszentralizatzeko joeraren ildotik datoz zerbitzu eta laguntza horiek guztiak, eta xedea da zerbitzuak udalen eta mankomunitateen eskumenekoak izatea ahal den neurrian eta, hartara, erabiltzaileengandik hurbilago egotea eta haiek gehiago parte hartzea.

Geroago, xedapenok garatzeko, Adingabeen adopzioei, familietan egiten diren harrerei eta laguntzari buruzko martxoaren 25eko 90/1986 Foru Dekretua eman zuten, eta Foru Dekretuak sakon dihardu Nafarroako administrazio publikoek adingabeak babestu eta zaintzeko egin beharrekoari buruz.

Gizarte zerbitzuen martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea indargabe gelditu zen 2007ko martxoaren 20an; hain zuzen ere, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak indargabetu zuen, eta 15/2006 Foru Legea egun horretantxe sartu zen indarrean. 90/1986 Foru Dekretua ere indargabe gelditu zen, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen ondorioz. Hori guztia dela-eta, komeni da, labur-labur bada ere, adingabeak babesteko eginkizuna eta erantzukizuna bete dezaten, Nafarroako administrazio publikoei dagozkien eskumenak nola esleitzen zaizkien aztertzea.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak xedatzen duela, hainbat programaren artean, oinarrizko gizarte zerbitzuek (hau da, udalek) oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programa landu behar dutela; Foru Legeko 31.1.d) artikulua dioenez, haren helburuak izan behar du adingabeei haien garapen pertsonalari bide ematen dion ingurunea ziurtatzea, babesa eta laguntza pertsonala, familiartekoa eta soziala emateko tresnen bidez.

Bestalde, gizarte zerbitzuen gaineko eskumena duen departamentuak aldeko txostena egin ondoren, Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzu orokorreari buruzko plan sektorial eta programa oinarrizkoak eta espezializatuak onar ditzake. Izan ere, planok eta programok ezartzea, hasiera batean, Foru Komunitate osoan da nahitaezkoa, baina helburua pixkana ezartzea da; halere, litekeena da oinarrizko eremu bakoitzeko biztanleriaren ratioek eta gizarte egoerek ezarpena baldintzatzea. Gainera, programak osatzen dituzten laguntzak arau bidez ezarri behar dira, eta eskaintza betiere bermatu behar da.

Zehazki, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko I. tituluak banatzen ditu eskumenak xeheago: batetik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagozkionak eta, bertzetik, Nafarroako toki erakundeei dagozkienak bereizten ditu.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarenei dagokionez, 7. artikulua xedatzen du hura dela adingabeen babesgabetasun egoerei aurrea hartu eta haiek babesteko erakunde publiko eskuduna, eta, ondoren, eskumenak xehe-xehe azaltzen ditu. Garrantziaren arabera, honako hau da sailkapen laburtua:

- Adingabeen babesgabetasun egoerei aurrea hartzeko eta haiek babestu eta berriz hezteko neurriak zuzendu, planifikatu eta programatzea; horretarako baliabide eta programa egokiak bideratu, kudeatu eta sustatzea; eta, nork bere eskumener esparruan, toki erakundeek gai honi buruz prestatu behar dituzten planen helburuak, lehentasunak eta gutxieneko edukia zehaztea.
- Adingabeen eskubideak oro har sustatu eta babestea, bereziki, gizarteak kontzientzia hartzeko kanpainak eginez, eta berte organo eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko bideak sortzea.
- Babesgabetasun egoeran dauden, gizarte gatazkaren batean murgilduta dauden edo legedia urratu duten adingabeentzako zerbitzuak eta zentroak baimendu, ikuskatu eta kontrolatzea.
- Alor honetako profesionalak eta laguntzaileak prestatu eta espezializatzeo ekintzak diseinatu, ikuskatu eta betearaztea, eta gai honi buruzko azterketak egiteko programak antolatu eta gauzatzea.
- Babes neurriak hartu eta bertan behera uztea, eta, horretarako, toki erakundeei oinarritzko zerbitzuak eta familiak laguntzekoak garatzen laguntzea ez ezik, harrera prestatu eta gauzatzea eta haren jarraipena egitea, eta hartzaileak informatu, erakarri, ebaluatu, prestatu eta aukeratzea eta haien jarraipena egitea.
- Adopzioari dagokionez, adopzio eskatzaileak informatu, erakarri, ebaluatu eta prestatzea, eta egokiak direlako adierazpena egin eta haiek aukeratzea; nazioarteko adopzioari dagokionez, zehazki, gauza bera egitea, baita

adoptatzen laguntzen duten erakundeak akreditatu, ikuskatu eta kontrolatzea ere.

- Azkenik, laguntza eta babes sistema publikoaren esparruko baliabide bakoitza erabiltzeko irizpide teknikoak ezartzea eta adingabeak laguntzeko zentro eta zerbitzu bereziak sortzea.

Nafarroako toki erakundeen eskumenei dagokienez, berriz 8. artikulua, adingabeen eskubideetan trebatu eta haiek sustatu eta babesteko neurriak hartzea eta oinarrizko gizarte zerbitzuak eta familiak laguntzeko zerbitzu espezializatuak sortu eta kudeatzea egokitzen die, eta baita hainbat eginkizun esanguratsu ere:

- Nork bere lurralde esparruan, babesgabetasun egoerei eta gizarte gatazkei aurrea hartzeko neurriak hartzea.
- Adingabeentzako egoera arriskutsuak hauteman, haiei buruzko adierazpena egin eta halako egoeretan esku hartzea, bereziki, eskola eta osasun unitateekin koordinatuta.

Eskumenei dagokienez, kontuan izan beharra dago Nafarroako toki erakundeena dela zer egoeratan esku hartu behar duten hauteman eta kasuan kasuko beharrak hasiera batean ebaluatzeko ardura, oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez. Ebaluaziotik ondorioztatzen bada egoera arriskutsutzat hartzekoa dela, egindako sailkapenarekin bat, erantzun egin behar dute, adingabeek familiaratean jarraitzea ziurtatzeko komunitatearen beharrezko baliabideen bitartez. Aitzitik, ebaluaziotik ondorioztatzen bada egoera babesgabetasun egoeratzat hartzekoa dela, auzia eta ebaluazioari buruzko dokumentu oro adingabeak babesteko Nafarroako Gobernuaren mendeko zerbitzuei helarazi behar diete.

Behin eta berriro aipatu dugun foru dekretuaren proiektuaren testuak Nafarroako toki erakundeei egokitzen die adingabeentzako arrisku txikiko eta neurritzoko egoerak hauteman, haiei buruzko adierazpena egin eta halakoetan esku hartzeko eskumena, baina Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko organo eskudunari egokitzen dio egoera oso arriskutsuei buruzko adierazpena egin eta halakoetan esku hartzeko eskumena eta, bereziki, babesgabetasun egoerei buruzko adierazpena egin eta halako egoeretan esku hartzekoa.

Aurrekoari kalte egin gabe, Foru Legeak berak egoera arriskutsu jakin batzuk aipatzen ditu. Halako arrisku egoeretan, neurriak hartzeko ardura Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko

organo eskudunari dagokio. Familia bereiztea edo gurasoek edo tutoreek baimentzen ez dituzten neurriak hartzea beharrezkoa denean ez ezik, botere publikoek behar bezala esku hartzen dutela ziurtatzea beharrezkoa denean ere egin behar dute hori; hots, toki erakundeek, neurriok hartzeko eskudunak haiek direla-eta, esku hartu behar dutenean baina esku hartu egiten ez dutenean esku hartu behar du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko organo eskudunak.

Familietako edo etxeetako harrera amaitu eta beharrezko jotzen bada orduan emandako laguntza luzatu edo toki erakundeek hartu ezin dituzten bertze neurri batzuk hartzea, orduan ere, beharrezko neurriak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko organo eskudunak har ditzake.

Halako egoeretan esku hartzeko, bi esparruen artean (tokiko edo lehen mailako esparruaren eta foru esparru edo esparru espezializatuaren, Nafarroako Gobernuari dagokionaren artean) behar bezalako lankidetzeta eta koordinazioa izan behar diren adierazgarri da hori.

Ildo horretan, Nafarroako toki erakundeen eskumenei buruzko atalean, Foru Legeak xedatzen du erakundeok bertze zenbait eginkizun betetzen ahal dituztela, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko organo eskudunaren kudeaketa aginduari erantzunez. Eginkizunok adingabeak zaintzeko neurriekin, ikertu, ebaluatu, erabaki, esku hartu eta jarraipena egiten laguntzearekin eta adingabeak familiarrean egoteko eta haiek gizarteratzen laguntzearekin lotuta daude.

Azkenik, toki erakundeei esleitzen dizkien eskumenen adierazpenari dagokionez, Foru Legearen testuak hainbat gai aipatzen ditu: adingabeen beharrezko buruzko datuak bildu eta azterlanak eta estatistikak egitea; Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, nahitaezko eskolatzea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzea; eta gizarte ekimena, herritarren parte hartzea eta adingabeen eta, oro har, herritarren boluntario lana sustatzea Foru Legeak arautzen dituen alor guztietan.

5.7. ONDORIOA

Nafarroan legezko eta arauzko esparru osoa dugu administrazio publiko eskudunek (Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta udalek) adingabeak babesten dituztela ziurtatzeko.

Gaur egun, esparru orokor horren ardatza Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea da, baina arau bidez garatzeke dago; dena dela, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua hasia da jada zenbait foru dekretu prestatzen.

6. babes sarea

Lehen, Nafarroan adingabeak babesteko eskumenak nola gauzatzen diren aztertu dugu, nolabait, oinarrizko udal gizarte zerbitzuek alor honetan bete behar duten eginkizun garrantzitsua nabarmendu nahian. Izan ere, funtsean, haiek daude adingabeen errealitatek eta inguruetik hurbilen eta, hortaz, oro har, haiek dakite hobekien adingabeen edozein egoeraren edo gorabeheraren berri.

Gizarte zerbitzuok oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programa landu behar dute, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak berariaz xedatzen duelako. Bestalde, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak eskumenen banaketa zehazten du. Hori guztia zerbitzuon garrantziaren adierazgarri nabarmena da, baita laguntza maila bakoitzaren jardun esparrua mugatu eta argi finkatu beharrena ere.

Hori dela-eta, lehenik, Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzuen lehen mailako edo oinarrizko sarea aipatu beharrean gaude halaberharrez. Nafarroako toki erakundeetako oinarrizko gizarte zerbitzuek osatzen dute, eta adingabeen beharrei erantzun, babesgabetasun egoerak hauteman eta halakoetan esku hartu eta haien garapen pertsonalerako egoera arriskutsuak hauteman eta halakoetan esku hartzeaz arduratu behar duen lehen instantzia da.

Aurreraxeago, berezko sare espezializatu gisa, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Familia Zuzendaritza Nagusiaren esparruan sartzen den sarea ere aipatu dugu; zehatz-mehatz, Adin Txikikoak Babesteko Atalaren esparrukoa da.

Honako taula hau Nafarroako Foru Komunitatean adingabeak babesteko bideratzen diren baliabide espezifikoek eta ez-espezifikoek laburpen orokorra da.

ADINGABEAK BABESTEKO BALIABIDEEN LABURPEN OROKORRA

BALIABIDEAK	Kopurua	
	Zentroak	Tokiak
LEHEN MAILAKO SAREA		
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	54	
Haur eta familientzako laguntza programa lantzen dutenen kopurua	33	
LAGUNTZA SAREA		
Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldeak (HNAL)	2	
SARE ESPEZIALIZATUA		
Adin Txikikoak Babesteko Atala	1	
<i>Adingabeak Adoptatzeko eta Familietan Hartzeko Bulegoa</i>		
Adingabeak Familian Hartzeko eta Espainiako Adingabeak Adoptatzeko Lantaldea		
Nazioarteko Adopzio Lantaldea		
Zailtasun edo Gatazka Sozialak dituzten Adingabeak Laguntzeko Bulegoa		
Adingabeak Ebaluatu eta Etxeetan Hartzeko Lantaldea		
Gatazka eta Adingabeen Berreziketa Lantaldea		
Kanpoko laguntza taldeak		
<i>Ikerkuntza, Ebaluazioa eta Esku Hartzea</i>	1	
<i>Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua</i>	1	
<i>Nerabeak hezteko programa</i>	1	
Familia hartzaileak	190	
Harrera etxeak		
<i>0 eta 12 urte artekoentzako behaketa eta harrera zentroa</i>	1	12
<i>12 eta 18 urte artekoentzako behaketa eta harrera zentroa</i>	1	10
<i>Babestutako etxebizitzak eta laguntzako egoitzak</i>	14	104
<i>Mutil gatazkatsuen babesteko egoitza</i>	1	16
<i>Neskek babesteko egoitzak</i>	2	23
<i>Epailerek ebatzitako neurriak betearazteko egoitza</i>	1	10
<i>Adingabeak desohitzeko terapia zentroa</i>	1	4
Guztira	21	179
Eguneko zentroa	1	18
Elkartzeko guneak	2	

Jarraian, labur-labur, bakoitza azalduko dugu.

6.1. LEHEN MAILAKO SAREA

6.1.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuak

Haurren eta nerabeen babesgabetasun egoerei aurrea hartu eta haiek sustatu eta babesteko, lehen mailako lana Gizarte Zerbitzuen Lehen Mailako Sareko gizarte zerbitzu normalizatuek egin behar dute; zerbitzuok oinarrizko gizarte zerbitzuak dira.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak orokorrak eta balioaniztunak dira eta Nafarroako udalen eskumenen ardurapean jarduten dira.

Oinarrizko 54 gizarte zerbitzu daude Nafarroan. Lurraldeka banatuta

daude, oinarrizko eremutan, eta, oro har, oinarrizko eremu bakoitza hainbat udalerrik osatzen dute; hori dela-eta, oinarrizko gizarte zerbitzu gehienak zenbait udalen artean ematen dituzte. Iruñean, berriz, zerbitzua deszentralizatuta dago, eta hamaika auzo unitatek osatzen dute. Guztira, 2005. urteko urtarrilaren 1ean, oinarrizko gizarte zerbitzu bat zegoen 10.990 biztanleko –orduan, Nafarroan 593.472 lagun bizi ziren–.

Oinarrizko gizarte zerbitzuek lehen mailako gizarte laguntzaren berezko eginkizun orokorrak betetzen dituzte: prebentzioa eta sustapena, informazioa, aholkularitza, orientazioa, hasierako ebaluazioa, laguntzak bideratzea... Gainera, eginkizun orokorrez gain, programa espezifiko jakin batzuen garapenaz ere arduratzen dira, bertzeak bertze, oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programarenaz.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bidez, oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzen laguntzen du, eta, deialdi publikoen bitartez, programak diruz laguntzen ditu, baita oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programa ere.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzeko diru-laguntzak emateko 2005eko deialdiaren oinarriak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren apirilaren 5eko 47/2005 Foru Aginduaren bitartez onartu zituzten. Oinarrizko gizarte zerbitzuen esparruko programak diruz laguntzeko baimendutako zenbatekoa 3.138.272 eurokoa izan zen, eta diru-laguntzen % 15, guti goiti-beheiti, oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programarako izan ziren.

Gizarte zerbitzuen esparruko 5.000 biztanletik gorako oinarrizko eremuetan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak diruz laguntzen dituen programen zenbateko osoaren % 60 ematen du. Gizarte zerbitzuen 5.000 biztanletik beherako oinarrizko eremuetan, berriz, diruz laguntzen dituen programen zenbateko osoaren eta herritar bakoitzak 5,71 euro ordainduz gero ateratzen denaren arteko aldea ematen du; herritar bakoitzeko 5,71 euro eremuko udalek ordaintzen dutela jotzen da.

Udalek eta mankomunitateek diru-laguntzak eskuratzeko aurkezten dituzten eskaerak batzorde tekniko batek ebaluatzen ditu, eta honako irizpide hauek darabiltza:

- Programaren bideragarritasuna eta errentagarritasuna (10 puntu).

- Biztanle kopurua (5 puntu).
- Biztanleriaren sakabanaketa eta zahartasuna (10 puntu).
- Laguntza beharrak (Etxeko Laguntza Programa) (15 puntu).
- Oinarrizko eremuetako arazo espezifikoak (15 puntu).
- Babesgabetasun egoeran egoteko arriskuan edo babesgabetasun txikiko, neurrizkoko edo larriko egoeran dauden adingabeen kopurua (15 puntu).
- Eskatzaileek aurreko ekitaldian gizarte zerbitzuetan gastatutako zenbatekoa (15 puntu).
- SIUSS programa informatikoa erabiltzea (15 puntu).

2006. urtean, finantzazio sistema aldatu egin zen, eta, urtero diru-laguntzak banatzeko deialdiak egin beharrean, urte askotarako hitzarmenak formalizatzen hasi ziren. Hartara, finantzazioaren egonkortasun, jarraitutasun eta segurtasun juridikoa eta ekonomikoa hainbat urtetarako ziurta daiteke, aldez aurretik. Nafarroako arartekoak bere garaian egindako gomendio bat onartzearen emaitza izan da.

6.1.2. Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programaren baliabideak

Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programaren helburua adingabeei haien garapen pertsonalari bide ematen dion ingurunea ziurtatzea da, babesa eta laguntza pertsonala, familiarterkoa eta soziala emateko tresnen bidez. Zehatz-mehatz, honako hau da ekintzen xedea:

- Komunitateak haurren beharren kontzientzia hartzea.
- Babesgabetasun eta arrisku egoerak aldez aurretik hauteman eta ebaluatzea.
- Lurralde bateko haurrentzako lehen mailako prebentzio programak egitea.
- Bigarren mailako prebentzio programak eta familiarterean esku hartzeko programak egitea, babesgabetasun txikiko eta neurrizkoko egoerak sumatzen direnean.

- Lehen mailako bertze zerbitzuekin (osasun eta hezkuntza zerbitzuekin, udaltzaingoarekin eta abarrekin) koordinatzea, zailtasun sozialen bat duten adingabeak hauteman, ebaluatu eta laguntzeko.
- Zerbitzu espezializatuagoekin elkarlanean, adingabeak haien familiengandik bereizteko egoeretan laguntzea, posible denean familia berriz elkartzeko.

Programa ez da berdin ezarri Nafarroako eremu guztietan, ez denborearen eta ez norainokoaren aldetik, baina azken urtean hazkunde esanguratsua gertatu da. Hala ere, oinarrizko gizarte zerbitzuen % 25ek programatik kanpo jarraitzen dute oraindik.

2005ean, 21 zerbitzuz (oinarrizko eremurik) eskuratu zuten programa finantzatzeko diru-laguntza, eta diru-laguntzen zenbatekoa 494.296 eurokoa izan zen, hau da, 23,5 langilekoa; hain zuzen, psikologo bat, zazpi gizarte langile, 14 hezitzaile eta 1,5 administrari laguntzaile ordaintzeko aski.

2006an, berriz, 33 zerbitzuz eskuratu zuten diru-laguntza, eta 40 langile ere lagundu zituen diruz oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programaren esparruan: bi psikologo, zortzi gizarte langile, 29 hezitzaile eta 5 administrari laguntzaile bat.

**OINARRIZKO LAGUNTZAKO HAUR ETA FAMILIENTZAKO
LAGUNTZA PROGRAMAREN ESPARRUAN DIRUZ
LAGUNDUTAKO LANGILEAK**

GIZARTE ZERBITZUEN EREMUAK	Bizt. kop.	Psikologo ak		Gizarte langileak		Hozitzaileak		Administ. laguntz.		GUZTIRA	
		2.00 5	2.00 6	2.00 5	2.006	2.00 5	2.00 6	2.005	2.00 6	2.005	2.00 6
Allo	5.672					0,8	0,8			0,8	0,8
Altsasu	9.450						0,5				0,5
Antzin Ameskoa	4.563										
Agoltz	3.933					0,5	0,5			0,5	0,5
Artaxoa	5.362					0,5	0,5			0,5	0,5
Auritz	2.621						0,5				0,5
Barañain	22.071			0,3	0,3	1,0	1,0			1,3	1,3
Berriozar	20.277		0,5			0,5	0,8	0,5		1,0	1,3
Buñuel	14.070						0,5				0,5
Burlata	18.040		0,3	1,0	0,5	0,5	0,5			1,5	1,3
Zarrakaztelu	5.208					0,5	0,3			0,5	0,3
Cascante	11.079										
Cintruénigo	8.740					0,5	1,0			0,5	1,0
Zizur	14.577			0,5	1,0	1,5	1,5			2,0	2,5
Corella	11.022					0,5	1,3			0,5	1,3
Doneztebe	5.333										
Elizondo	8.312										
Lizarra	15.190			1,0	0,5		0,5			1,0	1,0
Etxarri Aranatz	6.266					0,5	0,5			0,5	0,5
Uhart							0,5				0,5
Aranguren	14.905										
Eguesibar											
Irurtzun	7.493						0,5				0,5
Izaba	1.678										
Leitza	4.152						0,5				0,5
Lesaka	8.324										
Lodosa	11.384						0,5				0,5
Los Arcos	2.806										
Noain	10.083		0,5			1,0	0,5			1,0	1,0
Erriberrí	8.105					0,5	0,5			0,5	0,5
Orkolen	4.776					0,5	0,5			0,5	0,5
Iruña	191.865	1,0	0,5	3,0	4,0	1,0	8,0	1,0	1,0	6,0	13,5
Azkoien	13.280						0,5				0,5
Gares	7.133					1,0	1,0			1,0	1,0
Zaraitzu	1.922										
San Adrián	13.558					1,0	0,8			1,0	0,8
Zangoza	10.422			0,5	0,5	1,0	1,0			1,5	1,5
Tafalla	12.621			0,5	0,5	0,5	1,0			1,0	1,5
Tutera	31.659		0,5				1,0				1,5
Ultzama	3.389						0,5				0,5
Valtierra	12.623										
Viana	4.254						0,5				0,5
Villatuerta	4.749						0,5				0,5
Atarrabia	11.767			0,5	0,5		0,5			0,5	1,0
GUZTIRA	584.734	1,0	2,3	7,3	7,8	13,8	29,3	1,5	1,0	23,5	40,3

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Oinarrizko Osasun Laguntzako Atalak kudeatzen ditu diru-laguntzak, ez Familia Zuzendaritza Nagusiko Adin Txikikoak Babesteko Atalak.

Programaren ezarpenaren inguruan errandakoa gorabehera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak nabarmendu du programa finantzatzeko zenbatekoa handitu egin zela 2004ko,

2005eko eta 2006ko ekitaldietan: orduan, 333.073,56, 494.295,84 eta 663.491,45 eurokoa izan zen, hurrenez hurren.

6.1.3. Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldeak (HNAL)

Nafarroako Gobernuak Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Plana onartu zuen, 2001. urteko azaroaren 19an, eta haren bigarren helburu edo programatzat finkatu zuen gizarte zerbitzuetako zentroetan haurrak eta nerabeak laguntzeko lantalde espezifikoak (Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldeak, HNAL) sortzea:

“Nafarroako Gobernuak argi eta garbi zehaztu behar du zer harreman dagoen lantaldeon eta oinarrizko gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzuetako eremuen eta zentroyen eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren artean; urtean zenbat lantalde sortuko dituen zehaztu behar du, eta nola banatuko dituen lurraldean barrena; eta bertze babes sistema batzuekin (hala nola, hezkuntzaren, osasunaren eta adimen osasunaren alorrekoekin) koordinatzeko sistema zehaztu behar du. Halaber, hezitzailea barneratu behar du lantaldeen lanean eta egoera konpontzeko planaren prestaketan”.

(Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordea, 2001eko irailaren 17ko bilera)

Plana gauzatzeko kronogramak ezartzen zuenez, 2006rako sortuta egon behar zuten beharrezko HNAL guztiek, baina, egia erran, zerbitzu hau ez da aurrez ikusi bezala heldu biztanleriarengana, eta 2006ko abenduaren 31n estaldura osoa aurrez ikusitakoaren % 50ekoa baino ez zen.

HNALen ESTALDURAREN BILAKAERA

	BIZTANLE KOP. *		
	2004	2005	2006
HNALek estaltzen dituzten eremuak			
Lizarra aldeko gizarte zerbitzuak	70.179	70.179	70.179
Iruña aldeko lau auzo unitate *	82.297	82.297	82.297
Iruña aldeko gainerako auzo unitateak			142622
Estalduraren guztizko partziala	152.476	152.476	295.098
HNALek estaltzen ez dituzten eremuak			
Iruña aldeko gainerako auzo unitateak	142.622	142.622	
Iruñerri aldeko gizarte zerbitzuak	89.196	89.196	89.196
Ipar-mendebaldeko gizarte zerbitzuak	53081	53081	53081
Ipar-ekialdeko gizarte zerbitzuak	20.563	20.563	20.563
Erribera aldeko gizarte zerbitzuak	90.661	90.661	90.661
Tafalla aldeko gizarte zerbitzuak	44.873	44.873	44.873
Estalduraren guztizko partziala	440.996	440.996	298.374
GUZTIRA	593.472	593.472	593.472
Estaldura	% 25,7	% 25,7	% 49,7

* 2005eko biztanleriaren izendatzailea


** Arrotzapea, Alde Zaharra, Sanduzelai eta Txantrea

GIZARTE ZERBITZUETAKO ZONIFIKAZIOA

HNALek estaltzen dituzten eremuak. 2006



Ildo berean, alor honetan aurrekontuaren harira ezarritako aurreikuspenak ez dira bete, Planak xedatzen duena eta egin egindakoa konparatuz gero ikusten denez.



Hain zuzen ere, honako hauek ziren HNALen bidez lortu nahi zituzten helburuak:

- Lehen mailako zerbitzuen eta haurrak babesteko zerbitzu espezializatuen baliabideak ugaritzea, Nafarroako Foru Komunitatean zailtasun sozialak dituzten haurren, gazteen eta familien beharrei hobeto erantzuteko.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuetara eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura haurrak babesteko lantalde espezifikoak bideratzea, prebentzio, detekzio, ikerketa eta ebaluazio lanetan eta esku hartzen laguntzeko.

Horretarako, Planak honako eginkizun hauek egokitu zizkien lantaldeoi:

- Bigarren mailako prebentzioaren alorrean
 - Egoerarik konplexu eta zailenetan, oinarrizko gizarte zerbitzuen gaitasun teknikoa edo esparru geografikoa gainditzen dutenetan, haiei aurrea hartzeko esku hartzea.
 - Bigarren mailako prebentzio programa egituratuak ezartzea halakorik prestatu ez duten udalerrietan.

- Ikerketaren eta ebaluazioaren alorrean
 - Zailtasun sozialen bat dutenen egoerarik konplexuenak ikertu eta ebaluatzea.
 - Alor honetan jarduteko jakintza arlo anitzetako lantalderik ez duten oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratzen dizkieten egoerak ikertu eta ebaluatzea.
- Erabakitzearen alorrean
 - Oinarrizko gizarte zerbitzuak aholkatu eta alde teknikotik laguntzea.
 - Ikertu eta ebaluatzen dituzten egoeretan esku hartzeari buruz erabakitzea.
- Familietan eta adingabeen ingurunean esku hartzearen alorrean:
 - Familietan eta haurren ingurunean esku hartzea, neurrizko babesgabetasun egoera konplexuetan, egoerok oinarrizko gizarte zerbitzuen gaitasun teknikoak edo esparru geografikoa gainditzen dutenean.
 - Antzeko programak prestatu ez dituzten oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratzen dizkieten haurren babesgabetasun txikiko eta neurrizkoko egoeretan familietan esku hartzea.

Lantaldeok jakintza arlo anitzetakoak dira, eta gizarte langileek, psikologoek eta hezitzaileek osatzen dituzte.

Lantaldeen estaldura ez da nahikoa, baina nabarmendu beharra dago Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Tafalla aldean berehalako batean (2007an) bat sortzeko plangintza eta aurrekontua egin duela.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak ezartzen du halako lantaldeak ezinbestean sortu behar direla gizarte zerbitzuen eremuetan sortu beharreko gizarte zerbitzuen zentroetan. Hau da, zortzi urteren buruan, halako hamar bat talde izanen dira, arau horretatik eta hura osatzeko oroitidazkietatik ondorioztatzen denez.

Iruñeko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldea (HNAL)

2003an, esperientzia pilotu gisara, lehenbiziko HNAL jarri zuten abian, Iruña iparraldean (Alde Zaharrean, Txantrean, Arrotxapean eta Sanduzelain).

2004ko maiatzean, Iruñeko Udaltzako bigarren mailako prebentzio baliabide bat sortzea onartu zuen: Familian Esku Hartzeko Programa.

2005ean, aipatu lau auzoetako 42 familia izan ziren programaren onuradun.

2006ko apirilean, Udalak esperientzia positibotzat jo eta Familian Esku Hartzeko Udal Programa arautzeko ordenantza onartu zuen, eta programa Iruña osora hedatzea erabaki zuen, oinarrizko bi ildori jarraiki:

- Lehen mailako prebentzioa, Iruñean bizi diren haur eta nerabe guztientzat, arazorik izan ez dadin esku hartzeko.
- Bigarren mailako prebentzioa, haien garapen osoa galarazten duten babesgabetasun faktoreak jazotzen direnean esku hartzeko.

Familian Esku Hartzeko Programa Iruña osora hedatzeko, Udalak kanpoan egin zuen programa gauzatzeko kontratua, eta, horretarako, lehiaketa publikora deitu zuen. Kontratuaren iraupena 2006ko maiatzaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartekoa zen, eta bideratu zuen zenbateko osoa 907.405 eurokoa izan zen; alegia, urteko kostua 500.000 eurokoa baino handiagoa zen.

Programa Iruña osora hedatuz, 80 familia baino gehiago laguntzea espero zuen.

Hedapenaren ostean, honako langile hauek osatzen dute Iruñeko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldea:

IRUÑEKO HNAL OSATZEN DUTEN LANGILEAK

	2005	2006
Psikologoak	1	2
Gizarte langileak	3	6
Hezitzaileak	1	6
Administraria	1	1
GUZTIRA	6	15

“2004-2005 aldian, 24 hezitzaile aritu dira guztira Iruñeko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldean lanean. Horregatik, zailagoa da programa eraginkorra izatea azkenean, neurri handi batean, halako programek arrakasta izatea familiak eta adingabeak erakartzearen eta haien hezkuntza erreferenteen arabera delako. Hezitzaileak etengabe aldatzen dira eta lan baldintza txarretan daude (orduka lan egiten dute), eta horrek guztiak ez du laguntzen zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea bermatzen”.

Familian Esku Hartzeko Programa plangintza bati jarraiki heziketan teknikoki esku hartzea da, eta, nagusiki, familiartean gauzatzen da. Helburua xede jakin batzuk erdietsi eta unean-unean dauden babesgabetasun faktoreei aurre egitea da, eta, hartara, haurrak eta nerabeak familietatik ez bereiztea. Era berean, Familian Esku Hartzeko Programa esku hartzeko bi azpiprogramak eratzen dute:

- Trebakuntzak. Azpiprograma hau heldu gaitu bat dagoen familietan lantzen da, eta heziketa arloan lan egiten da haiekin, elkarrekin bizi den nukleoan dauden arrisku faktoreak txikiagotzeko. Astean lau eta zazpi ordu artean esku hartzea da helburua, eta familiek gehienez ere 18 eta 24 hilabete artean ematea programan; hala ere, beharrezkoa bada, esku hartzea sei hilabetez luza daiteke.
- Laguntzak. Azpiprograma hau lantzen da gurasoak neurri batean bakarrik direnean guraso ahala erabiltzeko gauza baina, hala ere, gurasoan eta seme-alaben artean harreman afektibo estua dagoenean. Erreferentziatzeko heldu baten (hezitzailearen) bitartez esku hartzen da, haurrak behar bezala zaintzen dituztela ziurtatu eta haien segurtasun fisikoa eta oinarrizko segurtasuna bermatzeko. Hasiera batean, hezitzaileak astean 12 eta 15 ordu artean esku hartu behar du, baina, programaren beraren ezaugarriak direla-eta, ez da ezarri familiek zenbat denbora eman dezaketen gehienez programan; aitzitik, HNALk erabakiko du.

Honako hauek dira Programaren helburu orokorrak:

- Familiek batuta jarraitzea, haurrak familiarengandik bereizi gabe.
- Haurren ongizatea bermatu eta haien oinarrizko beharrei familiartean eta ingurune sozial naturalean erantzuten dietela ziurtatzea.

- Haurren babesgabetasunaren ondorio negatiboei aurrea hartu eta haiek garbitzea.
- Familiak bere bizi zikloaren faseei egokiro aurre egiteko gaitasuna sendotzea.
- Familiarteko harremanen kalitatea hobetzea.
- Familiak ingurukoekin dituen harremanen kalitatea hobetu eta hura laguntzeko sistemak sendotzea.
- Adingabeek eta gurasoek harreman pertsonal positiboak sortzeko gaitasuna hobetzea.
- Ziurtatzea haurrek, gutxienez, inguruko heldu batekin harreman egonkorra dutela.

Ordenantzak Programaren balizko hartzaileak nor diren zehaztu eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak finkatzen ditu.

Programan parte hartzea zinegotziak onartzen du, ebazpen bidez, baina, aldez aurretik, HNALko profesionalak ebaluazioa egin behar dute, eta familiek, onartu.

Zerbitzua HNALk eman eta antolatzen du, eta egoera konpontzeko plan bat egitera behartuta dago kasuan-kasuan, esparru bakoitzean zer helburu lortu behar diren, zer neurri hartu behar diren, zer baliabide erabili behar diren... zehazteko.

Lizarrako Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldea (HNAL)

2004ko urrian, Lizarrako Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldea kudeatzeko kontratua egiteko prozedura jarri zuen abian Familia Zuzendaritza Nagusiak, eta 136.000 euroko aurrekontua osatu zuen 2005. urterako. Baldintza teknikoei buruzko orriarekin bat, honako hauek izanen dira Lizarrako HNALko langileak:

LIZARRAKO HNAL OSATZEN DUTEN LANGILEAK

	2005
Psikologoa	1
Gizarte langilea	1
Hezitzaileak	2
GUZTIRA	4


Lizarrako HNAL martxan jarri aurretik, 45 egoeratan probatu zuten, eta esperientziak berretsi zuten beharrezkoa dela halako lantaldeak izatea oinarritzko gizarte zerbitzuen eta adingabeen alorreko zerbitzu espezializatuen artean.

6.2. SARE ESPEZIALIZATUA

6.2.1. Adin Txikikoak Babesteko Atala

Lehen erran bezala, botere publikoek adingabeak lagundu eta babesteko, Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Familia Zuzendaritza Nagusiko Adin Txikikoak Babesteko Atalaren bitartez, egitura eta lantalde tekniko espezializatuak osatu ditu. Haiek arduratzen dira helarazten dizkieten egoerak ebaluatu eta kasuan-kasuan antzematen dituzten beharrei erantzuteko neurririk egokienak proposatzeaz, eta, gainera, neurriok aplikatu eta bete egiten direla ziurtatu behar dute.

ADIN TXIKIKOAK BABESTEKO ATALAREN ORGANIGRAMA



Familia Zuzendaritza Nagusiaren oroitidazkiek berek Adin Txikikoak Babesteko Atalaren antolaketaz ematen dituzten datuen arabera, Atala honako bulego hauek osatzen dute eta, era berean, bulegoek honako lantalde hauek eratzen dituzte eta honako eginkizun hauek dituzte:

Zailtasun edo Gatazka Sozialak dituzten Adingabeak Laguntzeko Bulegoa**Adingabeak Ebaluatu eta Etxeetan Hartzeko Lantaldea**

- Zailtasun sozialen bat duten adingabeei buruzko espediente guztiak ebaluatzea.
- Zentroetan dauden adingabeen jarraipena egitea:
 - Asociación Navarra Nuevo Futuro elkartean.
 - Xilema Elkartean.
- Familiak Hezteko Programan (Familian Esku Hartzeko Programan) parte hartzen duten adingabeen jarraipena egitea.
- Gizarte zerbitzuekin batera, familiartean jarraitzen duten adingabeen jarraipena egitea.

Gatazka eta Adingabeen Berreziketa Lantaldea

- Gatazka sozial bat duten adingabeei buruzko espediente oro ebaluatzea.
- Zentroetan dauden adingabeen jarraipena egitea:
 - Asociación Navarra Sin Fronteras elkartean.
 - Ilundaingo Haritz Berri baserri eskolan.
 - Zandueta zentroan.
 - Nerabeak Hezteko Programan dauden adingabeen jarraipena egitea.
 - Adingabeen Epaitegiak hartzen dituen neurriak betearazi eta jarraipena egitea.

Adingabeak Adoptatzeko eta Familietan Hartzeko Bulegoa**Adingabeak Familian Hartzeko eta Espainiako Adingabeak Adoptatzeko Lantaldea**

- Espainiako adingabeak adoptatzeko eskatzen duten familiak ebaluatzea.
- Adingabeak familian hartzeko familiak ebaluatzea.
- Hartzen dituzten adingabeen jarraipena egitea.

Nazioarteko Adopzio Lantaldea

- Nazioarteko adingabeak adoptatzeko eskabideak hartu, erregistratu eta bideratzea.
- Prozedurari eta zuzemenei buruzko informazioa ematea.
- Egokitasun egiaztagiria eskatzen duten pertsonak ebaluatzea.
- Adoptatutako adingabeen jarraipena egitea, haien jatorrizko herrialdeak ezartzen duenarekin bat.
- Erakunde laguntzaileak ikuskatzea.

Txosten berezi honen esparruan ez dugu aztertu Nazioarteko Adopzio Lantaldea, baina aipatzekoa da, Adingabeak Adoptatzeko eta Familietan Hartzeko Bulegoak kudeatzen duelako eta, hortaz, lan handia ematen dielako langileei; izan ere, urtean, ehun adingabe baino gehiago adoptatzen dituzte eta 175 familiak eskatzen dute adoptatzeko.

Bertze horrenbeste gertatzen da epaileek zigortu egiten dituzten adingabeekin: txosten berezi honen bidez ez dugu aztertuko haien egoera, baina haien jarraipena Gatazka eta Adingabeen Berreziketa Lantaldeak egin behar du, eta urtean 165 adingabe berrezten dituzte –45 zentroetan daude, eta gainerako 120ak, kanpoan–.

Giza baliabideak

Atalean lan egiten duten langileek hainbat lantalde eratzen dituzte, funtsean, programa edo baliabide bakoitzaren esparruko eginkizunen arabera. Zenbaitetan, programa eta zerbitzu jakin batzuk kanpoko baliabideen bidez gauzatu eta ematen dira, hitzarmena edo kontratua egin ondoren; horietako zenbaitez atal honetan bertan jardunen gara.

ADIN TXIKIKOAK BABESTEKO ATALA OSATZEN DUTEN LANGILEAK (LABURPENA)

	2003	2004	2005
Psicologoak	6	7	8
Gizarte langileak	5	6	7
Gizarte hezitzaileak	5	4	4
Administraria	1	1	1
Administrari laguntzaileak	2	2	2
Guztira	19	20	22

Jakinarazi digutenez, honako hauek dira langile multzo bakoitzaren soslai profesionala eta egitekoak:

Psikologoak

- Familien egoera hasiera batean ebaluatzea, alde psikologikotik eta ezagueren eta harremanen aldetik.
- Adingabeen egoera emozionala ebaluatzea, eboluzioaldiaren arabera, erabakitzen laguntzeko.
- Alor hauetako lanaren hasierako helburuak zehaztea.

- Gizarte langileekin bat, familia bakoitzaren egoera aztertzeke hasiera bateko plana egitea.
- Esku hartzea adimen osasunaren alorreko zerbitzuekin koordinatzea.
- Beharrezkoa izanez gero, familiako kideak epe motzean lagundu eta tratatzeko esku hartzea –psikoterapiak laburra izan behar du eta familiaren unean uneko arazoetan jarri behar du arreta–.
- Familiako kideek jarrerazko edo harremanen edo adimen osasunaren alorreko arazo larriak edo drogazaletasun edo alkoholismo arazo larriak dituztenean, halako egoerei buruzko informazioa zentralizatzea.
- Sei hilabete behin, gutxienez, taldeko kideekin bat, egoera bakoitzaren bilakaera formalki aztertu eta egoera konpontzeko planean beharrezko aldaketak egitea.
- Egoerak bideratzen dituzten zerbitzuekin egoerok aztertzeke bilerak egitea.

Gizarte langileak

- Familien egoera soziala hasiera batean ebaluatzea.
- Alor honetako lanaren hasierako helburuak zehaztea.
- Psikologoekin bat, familia bakoitzaren egoera aztertzeke hasiera bateko plana egitea.
- Baliabideak kudeatzea.
- Esku hartzea bertze gizarte zerbitzuekin koordinatzea.
- Sei hilabete behin, gutxienez, taldeko kideekin bat, egoera bakoitzaren bilakaera formalki aztertu eta egoera konpontzeko planean beharrezko aldaketak egitea.
- Egoerak bideratzen dituzten zerbitzuekin egoerok aztertzeke bilerak egitea.

Hezitzaileak

- Egoera konpontzeko planek familiako kideak lagundu eta hezteke ezartzen dituzten neurriak hartzea.
- Sei hilabete behin, gutxienez, lantaldeko kideekin bat, egoera bakoitza formalki aztertu eta egoera konpontzeko planean beharrezko aldaketak egitea.
- Egoera bakoitzean esku hartzen duten profesionalek eta zerbitzuek osatzen duten sarearekin etengabe koordinatuta egotea eta sare hori koordinatu eta dinamizatzea.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuekin eta gainerako zerbitzuekin egoerak aztertzeke bilerak egitea.

- Atalaren administrazio arloko jardun osoaz arduratzea, bertzeak bertze, espedienteek eragiten dituzten aldaketa guztiak kontrolatzeaz, diru-laguntzak emateko prozedurez, ebazpenak banatu eta helarazteaz, Fiskaltzari eta Familia Epaitegiari aldiaren behin babespean dauden adingabeen zerrendak igortzeaz, artxibatzeaz...

Ondoko taulan langileen azken urteotako bilakaera ageri da, kategorien eta lantaldeen arabera.


ADIN TXIKIKOAK BABESTEKO ATALEKO LANGILEAK, LANTALDEEN ARABERA

		2003	2004	2005
Atala	Psikologoa *	1	1	1
	Administrari laguntzaileak	2	2	2
	Guztira	3	3	3
Harrera Lantaldea	Psikologoak	2	2	3
	Gizarte langileak *	2	2	2
	Gizarte hezitzailea	1	1	1
	Guztira	5	5	6
Nazioarteko Adopzio Lantaldea	Psikologoak	1	2	2
	Gizarte langileak	1	2	3
	Gizarte hezitzailea	1		
	Administraria	1	1	1
	Guztira	4	5	6
Ebaluazio Lantaldea	Psikologoa	1	1	1
	Gizarte langilea	1	1	1
	Gizarte hezitzaileak *	3	3	3
	Guztira	5	5	5
Berreziketa Lantaldea	Psikologoa	1	1	1
	Gizarte langilea	1	1	1
	Guztira	2	2	2
GUZTIRA		19	20	22

* *Horietako bat da burua.*


Eman dizkiguten datuetatik ondorioztatzen denez, Ataleko langileen kopurua pixka bat handitu da 2003. urtetik. Hazkunderik handiena Nazioarteko Adopzio Lantaldean izan da, bertze psikologo batek eta bertze gizarte langile batek osatzen baitute, baina txosten berezi honetan ez gara arituko lantalde horretaz. Txostenak lantzen duen

alorrean, nabarmentzekoa da lanpostu berri bat bakarrik sortu dela azken lau urteotan; hain zuzen ere, psikologo bat gehiago dute Familiarteko Harrera Lantaldean.




Esan bezala, txosten bereziak ez du aztertuko nazioarteko adopzioa, eta, hortaz, lantaldearen lanari buruzko oinarritzko zenbait datu eman bertzerik ez dugu egingen. Izan ere, Adin Txikikoak Babesteko Atala osatzen du, eta, hori dela-eta, bere egiteko eta behar asko Atalarenak ere badira.

2005. urtean, Nazioarteko Adopzio Lantaldeak adoptatzeko eskatu zuten 175 familia lagundu zituen, 139 egokitasun egiaztagiri egin zituen eta 101 adingabe adoptatzea kudeatu zuen.



2003tik 2005era bitartean adoptatutako adingabeen jatorrizko herrialdeak ondoko taulan ageri dira, eta, ikusten denez, adoptatutakoen % 70 Errusiakoak, Txinakoak eta Perukoak ziren.



Hiru erakunde daude akreditatuta nazioarteko adopzioan laguntzeko, eta honako herrialde hauetan laguntzen dute:

AKREDITATUTAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA

FAMILIA HARTZAILEAK	Familia mota		GUZTIRA
	Hedatua	Adingabee na ez dena	
Laguntza ekonomikoa hartzen dutenak	70	48	118
Laguntza ekonomikorik hartzen ez dutenak	59	13	72
GUZTIRA	129	61	190

Bestalde, Adin Txikikoak Babesteko Atalak honako baliabide hauen laguntza du lanean (bereziki, gai eta egiteko espezifikoetan), eta bertzerekin egindako hitzarmenen eta kontratuen emaitza dira.

6.2.2. Ikerkuntzarako, Ebaluaziorako eta Esku Hartzeko Kanpo Lantaldea

2004. urteko ekainean sortu zen, eta ordutik ematen du laguntza, Pauma enpresari esleitutakoa. Xedea zailtasun sozial oso larriak dituzten adingabeen egoera ikertzea eta ebaluatzea da, baita adingabeen aurkako sexu abusuak ebaluatu eta halakoetan terapeutikoki esku hartzea ere.

Lantaldea

Psikologo batek eta gizarte langile batek eratzen dute, eta bertze teknikari batek laguntzen die sexu abusuei aurre egiteko terapia eta tratamendua behar dutenean.

2005eko kasuak

27 familiari eta babesgabe dauden 36 adingaberi buruzko espedienteak ebaluatu zituen.

Gainera, 10 familia eta 13 adingabe ebaluatu zituzten, sexu abusuak zirela-eta, eta lau laguni eman zieten tratamendu terapeutikoa.

2005eko aurrekontua

Gastua 29.928 eurokoa izan zen guztira.

6.2.3. Familiar Esku Hartzeko Programa Espezializatuak Laguntzeko Kanpo Lantaldea

Otik 18 urtera arteko adingabeentzako programa da, ingurunean trata daitezkeen familiarreko arazoak eta arazo sozialak dituzten adingabeentzakoak, helburua baita adingabeak harrera zentro edo etxe batera joan ez eta ez deserrotzea. Programaren harira ezartzen diren neurrien jarraipena egin, haiek ebaluatu eta zenbat denbora iraun behar duten erabakitzea Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldearen eginkizuna da, baina Familiar Esku Hartzeko Kanpo Lantalde Espezializatuak laguntzen du neurriok betearazten; zerbitzu hori ere Pauma enpresak ematen du.

Programak adingabeengan eta haien familietan du eragina, eta adingabeekiko harremana hobetu eta haiek behar bezala zaintzeko aholkatu eta orientatzen du, eta haien inguruko alor guztien jarraipena egiten du, heziketa ikuspegitik: psikologiaren, eskolaren, osasunaren, garapen fisikoaren, familiarren garapenaren, harremanen... ikuspegitik.

Lantaldea

Bi psikologok eta 15 hezitzailek osatu ohi dute.

2005eko kasuak

2005ean 43 familiarrean esku hartu zuten modu espezializatuan, eta, guztira, 96 adingaberekin lan egin zuten.

2005eko abenduaren 31n, 71 adingabe ari ziren programan parte hartzen.

2005eko aurrekontua

Gastua 400.184 eurokoa izan zen guztira.

6.2.4. Nerabeak Hezteko Programa Laguntzeko Kanpo Lantaldea

2003. urtean jarri zuten abian, eta krisialdian dauden eta seme-alaba nerabeen jarrera kontrolatzeko zailtasunak dituzten familientzat da. Programaren harira ezartzen diren neurrien jarraipena egin, haiek ebaluatu eta zenbat denbora iraun behar duten erabakitzea Gatazka eta Adingabeen Berreziketa Lantaldearen ardura da, baina Berriztu erakundeak laguntzen du zerbitzua ematen; erakundeak epaileek ezartzen dituzten neurriak kanpoan betearazteko programan ere laguntzen du, hain zuzen ere, Ingurune Irekiko Taldea.

Lantaldea

Bi hezitzailek osatu ohi dute.

2005eko kasuak

2005ean 30 gaztek parte hartu zuten Nerabeak Hezteko Programan.

2005eko aurrekontua

2005eko gastua 263.450 eurokoa izan zen guztira, eta zenbateko hori Nerabeak Hezteko Programa Laguntzeko Kanpo Lantaldea eta Ingurune Irekiko Taldea ordaintzeko erabili zen; jarraian jardunen gara Ingurune Irekiko Taldeaz.

6.2.5. Ingurune Irekiko Taldea

Programa hau Berriztu elkarteak kudeatzen du, Nerabeak Hezteko Programa bezalaxe, eta helburua epaileek zentzatzeko etxeetan dauden adingabeei ezartzen dizkieten erregimen irekiko neurriak (zaintzapeko askatasuna, etab.) kontrolatzea da; txosten berezi honetan ez gara neurriok analizatzen ari, baina aipatzekoak dira, baliabide jakin batzuk haietara ere bideratzen direlako.

Taldea koordinatzaile batek eta bost hezitzailek osatzen dute.

6.2.6. Familia hartzaileak

Familia hartzaileak adingabeak babesteko politika ororen funtsezko oinarrietako bat dira, eta haien eskura dauden baliabideak dira zinez. Hori dela-eta, egoki iritzi diogu txostenaren atal honetan haiei buruzko aipamen bat bertzerik ez bada egiteari; dena dela, jakina, gai hau espezifikoki ere analizatu dugu.

2006ko abenduaren 31n, 190 familia hartzaile zeuden Nafarroan. Honako hau da haien banaketa, familia motaren eta hartzen dituzten laguntzen arabera.

FAMILIA HARTZAILEEN EHUNEKOAK, FAMILIA MOTAREN ARABERA 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA

FAMILIA HARTZAILEAK	Familia mota		GUZTIRA
	Hedatua	Adingabeena ez dena	
Laguntza ekonomikoa hartzen dutenak	70	48	118
Laguntza ekonomikorik hartzen ez dutenak	59	13	72
GUZTIRA	129	61	190

Familia hartzaileen % 68 (129 familia) adingabeen familia hedatuak dira, eta gainerako 61ak (% 32a) ez dira haien familiartekoak.

FAMILIA HARTZAILEEN EHUNEKOAK, FAMILIA MOTAREN ARABERA

2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA


FAMILIA HARTZAILEAK	Familia mota		GUZTIRA
	Hedatua	Adingabeena ez dena	
Laguntza ekonomikoa hartzen dutenak	% 54	% 79	% 62
Laguntza ekonomikorik hartzen ez dutenak	% 46	% 21	% 38
GUZTIRA	% 68	% 32	% 100

Gizarte Ongizate Departamentuak nolabaiteko laguntza ekonomikoa ematen die familia hartzaileen % 62ri. Zehatz-mehatz, adingabeenak beraienak ez diren familien % 79k hartzen dute diru-laguntzaren bat, eta familia hedatuen % 54k baino ez.


FAMILIA HARTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA

Familia hartzaileak	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Familia hedatuak	94	93	100	104	110	114	126	134	129
Adingabeenak ez diren familiak	27	28	32	38	45	46	52	58	61
GUZTIRA	121	121	132	142	155	160	178	192	190

Familiaren kopuruaren bilakaera grafikoki aztertuz gero, ikusten da familia hartzaileen kopurua % 57 hazi dela azkeneko hamarkadan eta familia hedatuen ehunekoa txikiagotu egin dela: % 78koa zen lehen, eta % 68koa orain.



Laguntza ekonomikoren bat eskuratzen duten familien ehunekoa konstantea izan da, % 60 eta % 65 artekoa, baina izan da gorabeherarik; halere, pentsatzekoa da gorabeherok egoeraren araberakoak izan direla.



6.2.7. A) Harrera etxeak

Harrera etheen sarea 21 establezimenduk osatzen dute guztira. Horietako 14 laguntzako etxebizitzak eta egoitzak dira; bi, behaketa eta harrera zentroak; lau, etxeak; eta bat, desohitzeko zentroa.

HARRERA ETXEAK (LABURPENA)

Harrera etxe mota	Zentroen kop.	Tokien kop.
<i>Behaketa eta harrera zentroak</i>	2	22
<i>Babestutako etxebizitzak eta laguntzako egoitzak</i>	14	104
<i>Etxeak</i>	4	49
<i>Adingabeak desohitzeko zentroa</i>	1	4
GUZTIRA	21	179

Zerbitzuok emateko, kanpoko bost erakunde eta elkarte pribaturekin kontratuak sinatu dituzte. 179 adingaberentzako tokia dago guztira, eta horietako hamar epaileek ebazitako neurriak bete behar dituztenentzat dira.

Ondoko taulan ageri da eskaintza xehatuta.

	Zentroen kop.	Tokiak, guztira	Adingabeen batez bertz. kop.	Tokiko kostua	Tokiko ordaindua
NAVARRA NUEVO FUTURO	9	64	59	35.000	28.348
<i>Babestutako etxebizitzak eta laguntzako egoitzak *</i>	9	64	59		
XILEMA – MENSAJEROS DE LA PAZ	6	52	50	35.631	25.319
<i>Babestutako etxebizitzak eta laguntzako egoitzak **</i>	5	40	40	34.003	
<i>0 eta 12 urte artekoentzako behaketa eta harrera zentroa</i>	1	12	10	42.144	
ILUNDAIN HARITZ BERRI FUNDAZIOA	3	30	23		62.615
<i>12 eta 18 urte artekoentzako behaketa eta harrera zentroa</i>	1	10	7	86.364	
<i>Epailerek ebatzitako neurriak betearazteko egoitza</i>	1	10	8	+	
<i>Neskak babesteko egoitza</i>	1	10	8	52.337	
ASOC. NAVARRA SIN FRONTERAS ELKARTEA	2	29	28	40.806	39.673
<i>Mutil gatazkatsuak babesteko egoitza</i>	1	16	15		
<i>Neskak babesteko egoitza</i>	1	13	13		
DIANOVA	1	4	4		
<i>Adingabeak desohiltzeko zentroa</i>	1	4	4	106.820	26.705
Guztira	21	179	164	48.594	33.537

* Ez dugu eskatu baliabide honi buruzko informaziorik.

* Hiru Iruñean, hiru Barañainen, bat Uharten, bat Atarrabian eta bat Tuteran.

** Lau Iruñean, bat Atarrabian, bi Burlatan eta bat Orkolenen.

Taulako “Tokiko kostua” zutabeen ageri diren datuak establezimenduen tituludunek adierazi zituzten, informazioa eskatzeko igorri genien galdeketa betez.

“Tokiko ordaindua” zutabea betetako toki bakoitzaren trukean batez bertze ordaindutakoari dagokio, eta Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko oroitidazkiko informazioan oinarrituta kalkulatu dugu.

Ondoko taulan harrera etxe bakoitzeko langileen kopurua ageri da, tituludunek informazioa eskatzeko igorri genien galdeketa betetzerakoan adierazi zutenari jarraiki.

	Zuzendari koordinatza.	Psikologoak	Gizarte langileak	Hezitzaileak	Zaintzaileak	Administrariak	Ostalartzaileak langileak	Guztira
Navarra Nuevo Futuro	1	5		40		1	9	56
<i>Babestutako etxebizitzak eta laguntzako egoitzak</i>								
Xilema – Mensajeros de la Paz	1	3		34	10	1	4	53
<i>Babestutako etxebizitzak eta laguntzako egoitzak</i>								
<i>0 eta 12 urte artekoentzako behaketa eta harrera zentroa</i>								
Ilundain Haritz Berri fundazioa								
<i>12 eta 18 urte artekoentzako behaketa eta harrera zentroa</i>	1,33	0,5	0,5	13,8	5		1	22
<i>Neskak babesteko egoitza</i>	1,33	0,5	0,5	12			0,33	15
<i>Epalleek ebatzitako neurriak beteazteko egoitza</i>	.							
Asociación Navarra Sin Fronteras elkarte	2	2		26		1	3	34
<i>Mutil gatazkatsua babesteko egoitza</i>								
<i>Neskak babesteko egoitza</i>								
Dianova	ZG							
<i>Adingabeak desohitzeko zentroa</i>								
Guztira	7	11	1	130	15	3	17	184

* Ez dugu eskatu baliabide honi buruzko informaziorik. Zehaztu gabe (ZG). Zentro horrek hainbat autonomia erkidegotan ematen du zerbitzua, eta tokien % 10 baino apur bat gehiago bertenik ez dira Nafarroarekin itundutakoak.

6.2.8. B) Eguneko zentroa

Azken baliabidea izan da sarean sartzen, 2004ko azkeneko hiru hilabeteetan hasi baitzen zerbitzua ematen, eta adingabeak egunez, eskola orduetatik kanpo eta oporretan laguntzeko zentroa da. Hiru adin multzotan antolatzen da, eta adingabeen alor pertsonalean, familiartekoan eta sozialean esku hartzen du; oro har, eguneko zentroetara joaten diren adingabeen familiek ezin diete erabat erantzun haien beharrei eta haiek zaindu, ikuskatu eta hezi beharri, ageriko hainbat arrazoi direla eta.

Lanegunetan, 12:00etatik 20:30era lan egiten du, eta larunbatetan eta oporraldietan, 10:00etatik 18:00etara. Zentroa Xilema elkartearekin itundutakoa da.

Lantaldea

Lau hezitzailek osatu ohi dute.

2005eko tokiak

10 adingaberentzako tokia dago, eta, batez bertze, erdia betetzen da.

2005eko aurrekontua

Gastua 186.857 eurokoa izan zen guztira.

6.2.9. C) Elkartzeko guneak

Lehenengoa 2002ko maiatzaren 1ean sortu zen, Iruñeko Joaquín Beunza kalean, baina, 2004. urteaz geroztik, gehiago sortu dira.

Hain zuzen ere, 2006ko azken egunetan elkartzeko bertze gune bat sortu zen, Iruñeko Barañaingo etorbideko 260 m²-ko lokal batean.

Bi guneon kudeaketa eta ardura Xilema elkartearekin itunduta dago.

Izenetik ondorioztatzen denez, eguneko zentroek familiarteko harremanei eusten laguntzen dute, haurrek eta adingabeek haien jatorriaren eta historia pertsonalaren berri izan dezaten. Helburua gurasoen eta seme-alaben arteko harremana bideratzea da, seme-alaben eta gurasorik ahulenen segurtasuna eta ongizatea bermatuz. Horretarako, haurren eta familien arteko harremanei eusten laguntzen du, gurasoak banatu edota dibortziatu egiten direnean edo haurrak familian hartzen dituztenean, haiek bisitatzeko eskubidea bertan behera geratzen denean edo hura erabiltzea zaila edo gatazkatsua denean.

Bere ezaugarriak direla medio, aldi baterako eta behin-behineko baliabidea da, eta bisita erregimena normalizatzea du helburu. Alegia, bertan behera gelditzen da beharrezkoa izan dadila eragiten duten arrazoiak desagertzen direnean edo gurasoek guraso gisa dagokien ardura onartzen dutenean seme-alabekin komunikatu edota egoteari dagokienez.

Bisitak hainbat motatakoak dira (ikuskatuak, haurrak hartu eta uztekoak eta zentroan gelditzeoak), eta zentroak asteazketan eta ortziraletan, 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan eta igandeetan, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, daude zabalik.

Elkartzeko gune bakoitzeko lantaldea

Elkartzeko gune bakoitzeko lantaldea bost pertsonak osatzen dute: psikologo batek, legelari batek eta erdi mailako hiru teknikaririk.

Kasuak

2005ean 163 familiatako 188 adingabe lagundu zituzten, eta 2006an, 147 familiatako 264.

2005eko abenduaren 31n, 93 familia eta 112 adingabe ari ziren erabiltzen elkartzeko guneak.

Aurrekontua

2005eko gastua 134.846,10 eurokoa izan zen, eta 2007rako aurrez ikusitakoa, 235.700ekoa.

6.2.10. Baliabide espezializatuen laburpena

Honako taula hau adingabeak babesteko sare espezializatuan lan egiten duten giza baliabideen laburpena da .

	BALIABIDE PROPIOAK	ITUNDUTAKO BALIABIDEAK				GUZTIRA
	Adin Txikikoak Babesteko Atala	Ebaluatu eta Esku Hartzeko Kanpo Lantaldeak	Harrera etxeak	Eguneko zentroa	Elkar. guneak	
Zuzendari koordinatzaileak			7			7
Legelariak	1				2	3
Psikologoak	8	4	11		2	25
Gizarte langileak	7	1	1			9
Gizarte hezitzaileak / erdi mailako teknikariak	4				6	10
Hezitzaileak		17	130	4		151
Zaintzaileak			15			15
Administrariak	3		3			6
Ostalaritzako langileak			17			17
GUZTIRA	23	22	184	4	10	243

Ikusten denez, adingabeak babesteko sare espezializatuko giza baliabideen % 10 bertzerik ez dira propioak.

6.2.11. Baliabide ekonomikoak

Alderdi ekonomikora hurbiltzeko, Haur eta Gazteendako Planak gastuen alorrean aipatzen dituen aurreikuspenak hartu behar dira abiapuntu. Planak bost urte iraun zuen, eta honako aurreikuspen hauek egin zituen.

PLANAREN HARIRA AURREZ IKUSITAKO GASTUA (2002-2006)


HAUR ETA GAZTEENDAKO PLANAREN AURREKONTUARI BURUZKO AURREIKUSPENA	2002	2003	2004	2005	2006
1. Zailtasun sozialetan esku hartzeko eskuliburua prestatzea	18.000	18.000	0	0	0
2. Gizarte zerbitzuen etxeetan haurrak babesteko lantalde espezializatuak sortzea	288.500	306.500	372.600	691.200	691.200
3. Sentsibilizazioa eta lehen mailako prebentzioa	120.200	120.200	360.600	360.600	480.800
4. Zailtasun sozialen bat duten haurrak eta gazteak nor diren antzematea	0	0	0	30.100	30.100
5. Lehen mailako gizarte zerbitzuek zailtasun sozialak ikertu eta ebaluatu eta haiei buruz erabakitzea	60.100	60.100	60.100	60.100	60.100
6. Bigarren mailako prebentzioa eta lehen mailako gizarte zerbitzuek familietan garaiz esku hartzea	147.200	330.600	522.900	733.200	991.700
8. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua antolatzea eta hark esku hartzeko prozedura	63.100	78.100	132.200	132.200	126.200
9. Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua	304.700	336.600	396.700	456.800	456.800
10. Adingabeak familietan hartzeko programa	456.800	462.800	450.800	420.700	420.700
11. Adopzio programa	96.200	105.200	93.200	90.200	90.200
12. Adingabeak etxeetan hartzeko programa	3.521.900	3.524.900	3.524.900	3.521.900	3.521.900
13. Epalleek zigortutako haurrak eta gazteak laguntzea	574.000	637.100	979.600	1.523.600	1.613.700
14. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, lehen mailako gizarte zerbitzuak eta bertze babes sistemak koordinatzea	15.000	15.000	18.000	18.000	18.000
16. Azpiegiturak	1.202.000	1.292.200	384.600	384.600	432.700
17. Planaren jarraien etengabea egitea	30.100	30.100	30.100	30.100	30.100
Planaren harira aurrez ikusitako gastua	6.897.800	7.317.400	7.326.300	8.453.300	8.964.200

Aurreikuspenon aldean, aipatu urteetan programa bakoitzaren harira gastatutako zenbatekoak ditugu jarraian.

GASTUA (2002-2006)

	2002	2003	2004	2005	2006
1. Zailtasun sozialetan esku hartzeko eskuliburua prestatzea	22.659	19.071	884	-	-
2. Gizarte zerbitzuen etxeetan haurrak babesteko lantalde espezializatuak sortzea	41.000	120.000	129.148	163.487	225.393
3. Sentsibilizazioa eta lehen mailako prebentzioa	-	35.611	35.611	45.685	62.526
4. Zailtasun sozialen bat duten haurrak eta gazteak nor diren antzematea	-	-	-	11.948	13.936
5. Lehen mailako gizarte zerbitzuek zailtasun sozialak ikertu eta ebaluatu eta haiei buruz erabakitzea	-	-	6.840	7.200	2.400
6. Bigarren mailako prebentzioa eta lehen mailako gizarte zerbitzuek familietan garaiz esku hartzea	-	81.798	251.857	416.694	514.787
8. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua antolatzea eta hark esku hartzeko prozedura	-	2.414	1.024	43.555	44.649
9. Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua	-	417.630	390.288	400.185	418.374
10. Adingabeak familietan hartzeko programa	-	366.301	415.625	645.979	664.307
11. Adopzio programa	-	-	-	7.576	36.404
12. Adingabeak etxeetan hartzeko programa	-	5.283	6.160	24.090	37.916
Adingabeak babesteko hartzea etxeetan	4.186.645 €	3.206.412 €	3.433.968 €	3.673.060 €	4.742.988 €
Etxeetatik atera ondoren jarraipena egitea		5.283	6.160	1.540	30.140
Prestakuntza				22.550	7.776
13. Epailerek zigortutako haurrak eta gazteak laguntzea, baita haiek etxeetan hartuz		1.535.205	1.576.695	1.860.601	2.166.401
14. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, lehen mailako gizarte zerbitzuak eta bertze babes sistemak koordinatzea	-	-	4.785	8.261	7.234
16. Azpiegiturak	26.340	32.485	457.272	216.622	127.217
17. Planaren jarraipen etengabea egitea	-	37.839	22.489	24.880	47.336
Gastua	4.276.644	5.860.049	6.732.646	7.549.823	9.111.869

Lehen urteetako (2002., 2003. eta 2004. urteetako) ebaluazio txostenak berak adierazten zuenarekin bat, plana, oro har, hasiera batean planifikatu baino beranduago gauzatzen ari dela ikusten da. Hala ere, egoera zuzendu egin da azken bi urteetan, eta, oro har, aurrerapena nabarmena izan da. Gaur egungo egoera hasiera batean finkatutakoaren antzekoa da oro har, baina programa batzuen emaitzak oso bestelakoak dira hasieran zehaztutakoaren aldean.



2006ko egoerari dagokionez, ikusten denez, Planak urte horretarako finkatutako aurreikuspenak % 1 gainditu ditugu oro har, baina programa jakin batzuk gauzatzeko zenbatekoak oso bestelakoak dira hasieran zehaztutakoen aldean, bai handiagoak direlako, bai txikiagoak direlako.

PLANAREN ETA 2006an GAUZATUTAKOAREN ARTEKO KONPARAZIOA

HAUR ETA GAZTEENDAKO PLANAREN AURREKONTUARI BURUZKO AURREIKUSPENA	2006		Aldea (%)
	Planaren harira aurrez ikusitakoa	Gastatutakoa	
1. Esku hartzeko eskuliburua prestatzea	0	-	-
2. Haurrak babesteko lantalde espezializatuak sortzea	691.200	225.393	-67
3. Sentsibilizazioa eta lehen mailako prebentzioa	480.800	62.526	-87
4. Zailtasun sozialen bat duten haurrak eta gazteak nor diren antzematea	30.100	13.936	-54
5. Lehen mailako gizarte zerbitzuek zailtasun sozialak ikertu eta ebaluatu eta haiei buruz erabakitzea	60.100	2.400	-96
6. Bigarren mailako prebentzioa eta lehen mailako gizarte zerbitzuek familietan garaiatu esku hartzea	991.700	514.787	-48
8. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua antolatzea eta hark esku hartzeko prozedura	126.200	44.649	-65
9. Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua	456.800	418.374	-8
10. Adingabeak familietan hartzeko programa	420.700	664.307	58
11. Adopzio programa	90.200	36.404	-60
12. Adingabeak etxeetan hartzeko programa	3.521.900	4.742.988	35
13. Epaileek zigortutako haurrak eta gazteak laguntzea	1.613.700	2.166.401	34
14. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, lehen mailako gizarte zerbitzuak eta bertze babes sistemak koordinatzea	18.000	7.234	-60
16. Azpiegiturak	432.700	127.217	-71
17. Planaren jarraipen etengabea egitea	30.100	47.336	57
Planaren harira aurrez ikusitako gastua	8.964.200	9.073.953	1

Ondoko taulak, berriz, 2004an eta 2005ean Adingabeak Babesteko Programaren harira gastatutakoa ageri du.

**ADINGABEAK BABESTEKO PROGRAMAREN HARIRA
GASTATUTAKOA**

Adingabeak Babesteko Programa	2004	2005
<i>Harrera etxeekiko itunak</i>	5.010.663	5.533.662
<i>Eguneko zentroa</i>	48.900	186.857
<i>Elkartzeko guneak</i>	126.319	134.846
<i>Familian esku hartzea</i>	390.288	400.184
<i>Nazioarteko adopzioa</i>	5.388	?
<i>Zailtasun sozialen bat duten gazteak laguntzea</i>	5.610	?
<i>Lizarrako HNAL</i>	123.360	133.559
<i>Ebaluaziorako Kanpo Lantaldea</i>	10.059	29.928
<i>Nerabeak Hezteko Lantaldea eta Ingurune Irekiko Taldea</i>	261.210	263.450
<i>Elkarteekiko eta erakundeekiko itunak, guztira</i>	5.981.797	6.682.486
Zailtasun sozialen bat duten gazteak laguntzea		28.584
<i>Familientzako laguntza ekonomikoak</i>	381.972	645.979
<i>Haurrak propioak ez diren etxeetan hartzeko kuotak</i>	53.190	59.401
<i>Bertze elkarteentzako diru-laguntzak</i>	417.909	451.394
AURREKONTUA, GUZTIRA	6.834.868	7.867.844

Oraindik ere ez dituzte ebaluatu Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planaren azken bi urteetako emaitzak, baina indarrean jarraitzen du erabat eta hainbat xedapen guztiz garatzeko daude oraindik. Alabaina, xedapenok ezartzea beharrezkoa da alor honetako zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta haurren babesgabetasunari aurrea hartu eta heldu eta hura tratatzeko.

Hori guztia gorabehera, nabarmentzekoa da, oro har, 2003tik 2006ra bitarte gastatutako zenbatekoa % 55 handitu dela, eta 2007rako aurrekontuak bertze igoera bat dakarrela.

6.2.12. Espazio fisikoa (lokalak) eta bertze bitarteko material batzuk

Adin Txikikoak Babesteko Atala Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren egoitzaren behe solairuko lokaletan dago, Iruñeko González Tablas kalean; Familia Zuzendaritza Nagusia ere han dago.

Hain zuzen ere, Atalaren lokalak eraikinaren beheko solairuko albo batean daude, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak jendea hartzeko eta Erregistro Orokorretarako erabiltzen dituen eremuen ondoan; haietatik sartzen da Atalera, eta itxarongela osatzen dute nolabait.

Alde batean hiru lantalderi (Adingabeak Ebaluatu eta Etxeetan Hartzeko Lantaldeari, Nazioarteko Adopzio Lantaldeari eta Adingabeak Familian Hartzeko eta Espainiako Adingabeak Adoptatzeko Lantaldeari) dagozkien bulegoak daude, eta bertzean,

Gatazka eta Berreziketa Lantaldea eratzen duten bi lagunen bulegoa.

Azkenik, bilera gela txiki bat eta bi psikologoren (Adingabeak Familietan Hartzeko Lantaldekoen), administrazio publikoko (alor juridikoko) teknikariaren, Ataleko buruaren eta administrariaren bulegoak ere daude.

Gainera, bada bisitaldietarako eta haurrak jolasteko areto bat, eta, bilera gela bezala, Adin Txikikoak Babesteko Atalak eta Familia Atalak erabiltzen dute.

Itxarongela eta bilera eta elkarrizketa gela halabeharrezkoak dira Adin Txikikoak Babesteko Atalaren lanean, baina, bilera, batzar, bisita... asko izaten direla eta, halako gaiak aztertzeko, elkartzeko eta egoteko lekua behar dela-eta, zailtasunak daude halako bilerak, bisitak, etab. antolatzeko, toki nahiko ez dagoelako, eta, beraz, eraikinean bertan Atalaren lokaletatik gertu dagoen bilera gela erabiltzen da; bilera gela hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren hainbat zerbitzu eta langile dauden leku berean dago.

Analisi honen helburua ez da Adin Txikikoak Babesteko Atalaren gaur egungo espazioari buruzko xehetasunak ematea, baina, alor honetan dauden gabeziei dagokienez, nabarmentzekoa da aipatu lantaldeek erabiltzen dituzten bulegoen egungo egoera eta haien lanean beharrezkoak diren bertze zenbait eremu ez izatea.

Aipatu ditugun lehenengo hiru lantaldeen bulegoei dagokienez, bakoitzean lau lagunek ere lan egiten dute, eta, hortaz, bulegoek ez dituzte betetzen halako lantokiek bete beharko litzuketen gutxieneko baldintzak ere; izan ere, leku aldetik egokiak izateaz gain, erabiltzaileei gutxieneko isilekotasuna eta norberaren beharretara egokitutako laguntza bermatu behar diete.

Argi eta garbi dago, Atalak adingabeak babesteko eginkizuna behar bezala betetzeko, erabiltzen duen espazioak, batetik, nahikoa izan behar duela bulegoen neurriaren eta aniztasunaren aldetik, eta, bertetik, bulegoek eman beharreko zerbitzuetara eta landu beharreko egoeretara egokitu behar dutela.

Ildo horretan, errazagoa izanen litzateke halako zerbitzu batera lehen aldiz jotzea, bulegoak hobeto egokituko balira pribatutasun eta isilekotasun beharretara; izan ere, haurrak babesteko zerbitzuetan eta antzekoetan ezinbestekoa da bi ezaugarriok ahal bezainbat errespetatzea, lantzen diren egoeren ezaugarriak direla eta.

Egokitasunik eza horrek kalte larria egiten die zerbitzuei, bereziki, gurasoen eta seme-alaben arteko bisitak hitzartu eta ikuskatu eta egunerokoan askotariko egoerak landu behar dituztenean; behintzat, horixe sumatu genuen egin genuen bisitaren batean.

Jakina, ez gara espazio edo neurri fisikoaz bakarrik ari. Aitzitik, zerbitzuak eta bulegoak kokatzeko eta espazioa egituratzeko moduak guztiz ezberdina izan behar du ohikoaren aldean, administrazio ikuspegi hutsetik antolatzen baitira.

Administrazioaren eredia lantzen ari garen jardunean eta antzekoetan erabiliz gero, ondorio bakarra da, oso esanguratsua izan arren, giroak ez duela kontuan hartzen lan horren giza eta sentimenduzko alderdia eta ez dela kontuan hartzen halako lekuetan adingabe asko eta asko, haien gurasoak eta senideak eta gizarte arloan desegituratuta dauden herritarrak egoten direla.

Azken batean, lehenik eta behin, oinarrizkoa da instalazioak, batetik, nahikoak izatea Adin Txikikoak Babesteko Atalean lan egiten duten guztiak ondo sartzeko eta, bertzetik, langileok egiten duten lanera eta ematen duten laguntzara egokitutakoak izatea, lan giroa abegitsuagoa izateko, haurrak eta haien familiak egoteko leku egokiak eta, oro har, egoerara egokitutakoak izateko eta, azken finean, haurrak babesteari emateko lehenetasuna instalaziotan egiten den administrazio lanaren aldean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua arazoaren jakitun da, eta jakinarazi digu Familia Zuzendaritza Nagusiaren eraikina guztiz berregituratzeko proiektua bideratzen ari dela eta horregatik ez duela hartu orain arte erabakirik gai honi buruz.

Ekipamendua, bitartekoak eta informazio sistemak

Familia Zuzendaritza Nagusiarri Adin Txikikoak Babesteko Ataleko informazio sistemai buruz hainbat galdera egin dizkiogu, eta honako hauek izan dira erantzunak.

Erregistroa antolatzeko prozedura formalki ezarrita al dago?

“Haurrak babesteko baliabideren baten bitartez laguntzen ditugun adingabeen erregistroa dugu”.

“Espainiako eta nazioarteko adingabeak adoptatzeko eta haiek familiarean hartzeko eskatzen duten familien erregistroa dugu”.

Dokumentu guztiak espediente berean erregistratzen al dira?

“Bai”.

Zer neurri hartzen dira isilekotasuna bermatzeko?

“Administrazioko teknikarien profesionaltasuna datuen babesari buruzko araudia betetzeko”.

Ba al da sistema informatikoren bat denbora, bisitak, etab. kontrolatzeko alarmak izateko?

“Bai”.

Erregistro sistemaren bidez ba al da ebaluazioari buruzko adierazleak ateratzerik?

“Adin Txikikoak Babesteko Atala aplikazio informatiko berri bat erabiltzen hasi da berriki, eta aplikazio horrek horretarako bide emanen du”.

Alabaina, Atalaren bulegoak bisitatu ditugu, eta zuzenean ikusi dugunez, espedienteak kudeatu eta artxibatzeke sistema oso oinarritzkoa da, eta, ondorioz, lanaren eraginkortasuna baldintzatzen du, oso zaila dela-eta datu eta informazio jakinak aurkitzea eta denbora eta baliabide asko galtzen direla-eta halakoetan.

Dokumentuen kudeaketa kaskarra da, eskuz egiten delako ia, halako zerbitzuak bitarteko informatiko egokiez hornitzeko atzerapenaren ondorioz bertzerik ez. Izan ere, ordenagailuen erabilera orokortu da, baina oraindik ez dira prestatu agiriak kudeatzeko beharrezko bitarteko informatikoak, sistemak egokiro funtzionatu eta espedienteen jarraipena behar bezala egiteko.

Egungo informazio sistema Access bidezko datu base batean oinarrituta dago, eta beharrezkoa izan ohi da Familia Zuzendaritza Nagusiko informatikariek laguntza eman behar izatea.

Ildo horretan, Adin Txikikoak Babesteko Atalean izan ginenean, hango langileak aplikazio informatiko berri batean trebatzeko ikastaro batean parte hartzen ari ziren; aplikazioaren helburua espedienteak kudeatzea da, baina oraindik ez dago osotasunean erabiltzeko moduan.

Familia Zuzendaritza Nagusiak berak arartekoak eskatutako informazio taulak betetzeko zailtasunak izan dituela onartu du:

“Litekeena da taularen bat hutsik egotea txostenean. Izan ere, informazioa biltzea zaila da batzuetan, dela aplikazio informatikoa ezarri berria delako eta oraindik datuak grabatzen ari garelako, dela programa jakin batzuk ezarri berriak direlako”.

Alde horretatik, arreta ematen du haurrak babesteko sistema hain atzeratuta egotea informatizazio aldetik, haurrik babesgabeenen eskubideen eta bizitzaren oso oinarrizko alderdietan baitu eragina.

Berezik, honako hauek sumatu ditugu:

- Zenbait programaren harira hartzen dituzten adingabeen jarraipena egiteko beharrezko informazioa, elkartzeko guneetan parte hartzen duten adingabeei buruzko informazioa, etab. eguneratuta izateko zailtasunak.
- Bisita erregimena kudeatu eta kontrolatzeko eta bisitetan parte hartzen duten eragileekin harremanetan egoteko zailtasunak eta hori guztia informazio sistemak hobetuz errazteko aukera.
- Adingabeen jarraipena egiteko lanen eta prozesuko fase bakoitzaren gehieneko epearen kontrola automatizatzeke benetako alarma sistemarik eza.
- Informazio sistema zatikatuta egotea, bulegoen arabera egituratuta egotea nagusiki, eta, ondorioz, informazio sistema bikoiztuta egotea eta babestu beharreko adingabeei beraiei buruzko adierazle orokorrak ateratzeko zailtasunak.
- Babes sisteman sartu eta sistematik ateratzen direnak egokiro kontrolatzeko zailtasunak.

Hala ere, ezbairik gabe, antzeman dugun gabezia nagusia adingabeen babesari buruzko informazio sistema osorik ez izatea da, Nafarroan arrisku edo babesgabetasun egoeren maila guztietan dauden adingabeen benetako egoera zein den jakiteko. Izan ere, egungo informazio sistemak ez du kontuan hartzen arrisku egoerei eta babesgabetasun txikiko eta neurritzko babesgabetasun egoerei eta lehen mailako laguntza zerbitzuek eta HNALek adingabeak babesteko egiten duten lanari buruzko informazioa sistematikoki biltzeko garrantzia. Esate baterako, oso esanguratsua da Iruñeko HNALren oroitidazkiak dakartzan datuak aipatu ere ez egitea.

Honela arrazoitu du Familia Zuzendaritza Nagusiak informaziorik eza:

“Kontuan izan behar da egoera askori buruzko informazioa ez dugula adingabeak babesteko sistemaren esparruko lehen mailako laguntza zerbitzuen eskumenekoak direlako”.

Gure ustez, egoera hau koordinazio arazoak daudelako adierazgarri da, eta arazook konpondu egin behar dira. Alde horretatik, adingabeak babesteari buruzko informazio sistema osoa antolatzeako ardura, dudarik gabe, Familia Zuzendaritza Nagusiari dagokio, eta, lehen mailako laguntza zerbitzuei informazioa eskatzeaz gain, alor honetako erantzukizun nagusia bere gain hartu ere egin behar du: lehen mailako zerbitzuek adingabeak babesteko neurriak eta haien helburuak finkatu behar ditu eta sistematikoki zer informazio bildu behar den zehaztu behar du, finkatzen dituen politikak kontrolatu eta ebaluatze aldera.

Azkenik, funtsezkoa da aplikazio informatiko berriak isilekotasuna egokiro bermatzea, informazioa zentralizatuz gero, arrisku handiagoa dagoelako datu basean jende asko sartzeko.

Nolanahi ere, jakin badakigu Familia Zuzendaritza Nagusia alor honetan aurrera egiteko bitartekoak bideratzen ari dela azkeneko hilabeteetan: ekipamendua berritu du, espedienteak informatizatu ditu, haiek kudeatzeko sistema berri bat ezarri du eta oinarrizko gizarte zerbitzuekiko koordinazioan eta, bereziki, informazioa biltzeko mekanismoetan aurrera egin du. Horrek ez du erran nahi, alta, oraindik gabeziak ez daudenik eta ahalegina egiten jarraitu behar ez duenik, haiek gainditzeko.

Bertze azpiegitura batzuk

Haur eta Gazteendako Planeko 16. programak, “Azpiegituren garapena” izenekoak, hainbat helburu finkatzen ditu, adingabeak babesteko azpiegiturak sortu edo hobetzeko:

- Babesgabetasun egoeran egoteko arriskuan dauden hurrei eguneko laguntza emateko (eskola orduetatik kanpo eta oporraldietan laguntzeko) eta bigarren mailako prebentzio programak edota familian esku hartzekoak gauzatzeko zentroak sortzea.
- Gaur egungo egoitzak Planak finkatzen dituen printzipioetara eta helburuetara egokitzea, bereziki, haien ezaugarriak dibertsifikatu eta erabiltzaile taldeen beharretara egokitzeari dagokionez.

- Adingabeak hartzeko etheen sarea osatzea, Adingabeen erantzukizun penala arautzeko urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak ezartzen dituen eskakizunetara egokitzeko.

Helburuok lortzeko, berriz, askotariko ekimenak iragartzen ditu:

- Guztira 100 adingaberi eguneko laguntza emateko zentroak eraiki eta hornitzeko gastuen % 80 ere diruz laguntzea, irizpide jakinei jarraiki.
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin elkarlanean aritzen diren erakundeen mendeko egoitzak berregituratu edota egokitzeko lanen % 80 ere diruz laguntzea.
- Epailleek 14 eta 18 urte arteko arau hausle gazteei ezartzen dizkieten neurriak betetzeko egitura modularreko zentro bat eraikitzea, 15 gazterentzako, hezkuntza eta lan arloko baliabideetatik hurbil dagoena.
- Aipatu zentroaren ondoan, 14 eta 18 urte arteko adingabeak hartu eta behatzeko zentro bat eraikitzea, 5 adingaberentzako.
- Nafarroako Gobernuaren egoitzak Planaren xedapenetara egokitzeko beharrezko lanak egitea.

Honako grafiko honek erakusten duenez, orain arte egindako ahalegin ekonomikoa ez da izan Planak finkatzen duen aurrekontuaren parekoa. Ildo horretan, nabarmentzekoa da, ezinbestekoa dela-eta, epailleek ebazten dituzten neurriak betearazteko zentroaren eraikuntza atzeratu egin dela; hala ere, aurretiazko zuzemenak (proiektua egitea, etab.) abian dira jada.



7. lehen mailako prebentzioa eta esku-hartzea

7.1. LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA

7.1.1. Esparru teorikoa

Alor honetan prebentzioaz mintzaten garenean, lehenik eta behin, lehen mailako prebentzioa eta bigarren mailako prebentzioa bereizi beharrean gaude.

Nafarroako Foru Komunitatean Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planak ezartzen duenarekin bat, lehen mailako prebentzioa komunitatearen eta familien bizi kalitatea hobetzeko neurri eta ekimen orok, gizarteak haurrak ondo tratatzeko jarrerak eta baldintzak sustatzekoak eta abarrek eratzen dute.

Bigarren mailako prebentzioa, berriz, haurrei ematen dieten tratuan eta babesean eragin negatiboa duten arazoak edo egoerak jasaten dituzten familiak laguntzeko neurriek osatzen dute.

Ildo horretan, haurrak babesteko prebentzioa bi alderdik osatzen dute:

- Bata (lehen mailako prebentzioa) egiturazkoa da, eta Nafarroako Gobernuko departamentu guztiek, udalek beraiek eta Nafarroako gainerako toki erakundeek osatzen dute, helburua komunitatearen eta familien bizi kalitatea hobetzea eta gizarteak haurrak ondo tratatzeko jarrerak eta baldintzak sustatzea den aldetik.
- Bestea (bigarren mailako prebentzioa) egoera arriskutsuei eta maila guztietako arazoei aurre egitekoa da, eta babes sarearen beraren ardura da.

Jakina, bi horiek dira haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko modurik eraginkorrenak, eta, horrenbestez, botere publikoek alor honetan egiten duten lanaren lehentasunezko helburu izan behar dute; izan ere, arazoa sortu aurretik esku hartzea eraginkorragoa izan ohi da arazoa sortu ondoren egoera lehengoratu edo konpontzeko neurriak hartzea baino.

Azken urteetan bai erakunde publikoek, bai komunitatearekin lan egiten duten gainerako erakundeek haurrak babestearekin zerikusia duten esparru guztietan izandako esperientziaren kariatara, hainbat gogoeta ondoriozta daitezke:

1. Haurrak babestea ziurtatzeak zuzeneko lotura du prebentzio sistemarekin. Izan ere, arrisku egoerak antzematea, haiei garaiz aurre egitea eta haurren babesari kalte egiten dioten arazo ez bihurtzea erabil ditzakegun baliabideen (giza baliabideen, baliabide materialen, baliabide teknikoan, baliabide sozialen, arauzko baliabideen...) eta haien ahalmenaren arabera da.
2. Egiturazko aldetik, ama edo aita izaten laguntzea babesaren gako ardatzetako bat da: halakorik egin gabe, laguntza ez da batere eragingarria. Izan ere, etxebizitza eta lanpostu bat eskuratu eta, haiei esker, seme-alabak zaindu eta hezi ahala ez ziurtatzea da arrisku eta babesgabetasun egoera gehien eragilea.
3. Babes sistemaren bi alderdien indarra eta prebentzio ahalmena familian, eskolan eta komunitatean 12 urtetik beherako haurrekin egiten den heziketa lanean oinarritzen da, eta prebentzioa 12 urtetik 16 urtera arteko nerabeekin lantzea prebentzioa haurrak direnean landuz gero bakarrik da posible; behin 12 urte bete eta gero, nerabeek beraiek izan behar dute prebentzio prozesuen subjektu aktibo, eta, hortaz, prebentzioa gizarte heziketan parte hartzeko prozesuen inguruan ardaztu behar da.
4. Prebentzio lanaren egonkortasuna familiarean, eskolan eta komunitatean –auzokoekin, adiskideekin, bizilagunekin...– egin beharreko gizarte eta heziketa lan sistemikoan oinarritzen da. Lan sistemiko hori komunitatearen esparruan egin behar da, honela:
 - Haurrengandik hurbil dauden zerbitzu publikoek (ikastetxeek, osasun etxeek eta oinarrizko gizarte zerbitzuek) sarean lan eginez eta haiek auzoetako eta udalerrietako gizarte sareekin koordinatuz.
 - Familia eta auzo elkarteek haurrak laguntzen parte har dezaten bultzatuz. Alde horretatik, “bultzatzea” zera da:
 - Erakundeek elkarlana eta baliabideak (baliabide materialak eta teknikoak eta lokalak) eskaintzea eta haiekin etengabe harremanetan egotea.
 - Haurrak laguntzeko auzo eta familia elkarteak eta taldeak sor daitezen bideratu eta sustatzea.
 - Prebentzio ahalmena dutela ikusten bada, auzo eta familia elkarteek sortzen dituzten baliabide teknikoak eta lanpostuak erakundearen sistemaren barneratzea.
5. Prebentzioaren aldetik, erakundeek kontrolatu behar dute familiek adingabeak babesteko eginkizuna betetzen duela eta, neurri

berean, zerbitzu publikoek haiekin elkarlanean aritu behar dute gizarte eta heziketa arloan. Familiak zorrotzasunez kontrolatuz gero, bat eginik lan egiteko guneak izan gabe, babesgabetasuna larriagotu egiten da. Horregatik, familiekin gizarte eta heziketa arloan egiten den prebentzio lana gizarte heziketan parte hartzeko prozesu motibatzaileetan barneratu behar da, guraso izateko gaitasuna lantzen laguntzeko; hau da, ez da bakartuta edo irizpide tekniko hutsei jarraiki egin behar. Izan ere, ikuspegi hori erabiliz gero, ahalegin handia eta baliabide asko behar dira, eta, gainera, argi ikusi da ez dela eraginkorra; guraso eskolak dira adibiderik argienetako bat.

6. Haurren babesgabetasunari aurrea hartzeak proiektu estrategikoa izan behar du gizarte moderno eta aurreratu orotan, bai talde eta sare zibilen ikuspegitik eta bai ordezkari politikoenetik. Haurrak ondo tratatzearen alde egin eta horixe egiteak markatzen dute erakundeen eta herritarren maila etikoa eta gizatasun maila. Alde horretatik, babesgabetasunari modu eraginkorrean aurrea hartzeko giltzarria haurrekin halako harremana izatea da, oinarria ez da behar materialei erantzutea bakarrik. Oinarriak autonomia, erantzukizuna, askatasuna eta elkartasuna ikasteko bide ematen duten harreman pertsonalak izatea ere izan behar du, eta halako harremanak izatea familiarekin, gizartearekin eta erakundeekin; horrek izan behar du oinarri nagusia. Harremanetan ez bada erabiltzen estrategia hori, prebentzio politikak gutxieneakoak izanen dira eta "babesgabetasun mantendua" ezarriko dute, zerikusi handiagoa duena ordena publikoarekin gizarte ongizatearekin baino.

Bestalde, hutsegite handia litzateke pentsatzea babesgabetasun egoerek ez dutela loturarik elkarren artean eta adingabe taldeek ere ez dutela harremanik. Inola ere ez. Gure gizartean badira gizarteratzeko ibilbide oso-oso argiak (familia egituratua – eskolan arrakasta izatea – prestakuntza profesionala – lana edo nork bere familia izatea...), baina, era berean, badira gizartetik kanpo geratzeko ibilbide oso-oso argiak ere (familiarik izan ez edo desegituratua izatea – eskolan arazoak izan edo porrot egitea – erakunderen batean sartzea – delitugintza – erakunderen batean berriz sartzea – delitugintzan berriz erortzea...).

Ez da arraroa gaur eskolatik kanpo edo harrera etxe batean dagoen adingabea barnealdian egotea bihar eta, hilabete batzuen buruan, aparteko babesgabetasun egoeran egotea berriro ere. Horregatik, oso garrantzitsua da, ikuspegi orokorra izateko, zerbitzuen artean koordinazioa lortzea eta adingabeen ibilbidearen jarraipena egitea gizarteratu egiten diren bitartean.

7.1.2. Egungo egoera

Nafarroako Foru Komunitatean Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planak hainbat helburu finkatzen ditu 3. programaren ("Sentsibilizazioa eta lehen mailako prebentzioa" izenekoaren) esparruan, hala nola, honako hauek:

1. Zailtasun sozialak sortzea dakarten egoera sozialak, jarrerak, gizartearekin eta familiarekin harremanetan egoteko moduak, harreman ekonomikoak... hobetzea.
2. Komunitateko haurren bizi kalitatea eta ematen dieten laguntza eta babesa hobetzea.
3. Bai hurrek eta bai gazteek zailtasun gutxiago izatea.
4. Hurrek eta gazteen aisialdia beren garapen eta gizarteratze beharretara egokituta erabil dezaten bultzatzea.
5. Haurrak eta gazteak (batez ere, gizarteratze arloan gabezia gehien dutenak) gizarteratu eta komunitatean barnera daitezten eta gizartean eta komunitatean parte har dezaten bultzatzea.

Horretarako, hainbat neurri edo ekimen proposatzen ditu, zehatz-mehatz, honako hauek:

1. Zailtasun sozialen (esate baterako, nerabeak haurdun geratzearen, drogazaletasunaren edo alkohol gehiegi edatearen, pobreziaren, bazterketaren eta abarren) ondorioz sortzen diren arazo pertsonalak, familiartekoak eta sozialak konpontzeko egungo programak mantendu eta sustatzea eta Foru Komunitate osora hedatzen direla ziurtatzea.
2. Helduentzako programa espezifikoak prestatzea haurren (berezi, 0tik 3 urtera bitarteko) beharrei buruz.
3. Gurasoak haurren eta gazteen beharretan eta heziketa estrategietan trebatzeko programa espezifikoak mantendu eta prestatzea eta egoera psikologiko edo sozial arriskutsuan dauden gurasoek haietan parte hartzea.
4. Arrisku egoeran dauden hurrek eta gazteek aisialdiko prebentzio programa eta jarduera gizarteratzaileetan parte hartzea.
5. Eskolan eta eskolatik kanpo, tolerantzia, bizikidetzeta eta gatazkak indarkeriaren bitartez ez konpontzea sustatzen duten

programak eta jarduerak antolatzea haurrentzat eta gazteentzat.

6. Lehen mailako prebentzio proiektuak dinamizatzea komunitatean, auzoetako, herrietako eta ibarretako elkarteek osatzen dituzten gizarte sareekin elkarlanean.
7. Haurrak eta gazteak partaidetzan eta elkartasunean hezteko programak eta jarduerak egitea komunitateetan.
8. Haurrek eta gazteek elkarteak sor ditzaten bultzatzea, gizarte lankidetzara, elkar laguntzea eta elkartasuna sustatzen baitute.

Azkenik, helburuok zenbateraino lortzen diren ebaluatzeko, honako adierazle hauek zehazten ditu:

1. Nafarroako Foru Komunitateko lehen mailako prebentzio programen kopurua eta estaldura.
2. Lehen mailako prebentzio programa berrien kopurua eta estaldura.
3. Lehen mailako gizarte zerbitzuei eta haurrak babesteko zerbitzu espezializatuari helarazten dizkieten zailtasun sozialeko kasuen kopuruak pixkana-pixkana behera egitea.
4. Haurren bizi kalitateari buruzko adierazle orokorrak pixkana-pixkana hobetzea.

Planak proposatzen dituen neurriekin, helburuekin eta adierazleekin bat alor honetan zer lan egin den ikusteko, alde batera utziko dugu haurrak babesteko zerbitzu espezializatuek lantzen dituzten kasuen kopuruaren bilakaera –aurreko ataletan erran dugun bezala, gora egiten ari da– eta Euskal Herriko Unibertsitateko lantalde teknikoak egindako txosten bateko datuak erabiliko ditugu. Txostena Plana –zehatz-mehatz, Plana 2003an eta 2004an– ebaluatzeko egin zuen, eta 2005. urteko lehenengo hiru hilabeteetan aurkeztu; Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2004. urteko oroitidazkiak ere badakar hark emandako daturik.


2002., 2003. eta 2004. urteei buruzkoa da, eta orduan lehen mailako prebentzio jardura egituraturaren bat antolatu zuten udalerririk aipatzen ditu; hain zuzen, jardura egituraturatzen du idatzizko plangintzari jarraitzen zaiona eta astean behin eta, gutxienez, hilabetez edo hamabost egunean edo hilabetean behin eta, gutxienez, lau hilabetez antolatzen dena.

PREBENTZIO JARDUERA EGITURATUAK ANTOLATZEN DITUZTEN

LEHEN MAILAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Jarduera egituratua honako hau lortzeko antolatzen duten lehen mailako gizarte zerbitzuak	2003		2003		2004	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adingabeen osasun afektiboa eta sexu osasuna sustatzea	7	19	8	12	14	30
Guraso eskolak sortu eta sustatzea	7	19	6	12	8	17
Komunitateari tratu baxren kontzientzia harraraztea	0	0	0	0	4	9
Haurrek eta nerabeek ludoteketan eta aisialdiko elkarteetan parte har dezaten bultzatzea	9	25	17	35	12	26
Tolerantzia, bizikidetzaz, parte hartzea eta elkartasuna sustatzea	-	-	4	8	10	21
Lehen mailako prebentzioa	4	11	4	8	7	15
GUZTIRA	36	100	49	100	47	100

Orobat, Planeko 3. programak, "Sentsibilizazioa eta lehen mailako prebentzioa" izenekoak ezarritako aurrekontua eta horretarako gastatutakoa erka ditzakegu, Familia Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa erabiliz.



Bestalde, Familia Zuzendaritza Nagusiak diru-laguntzak ematen dizkie hainbat erakunderi, babes jarduerak abian jarri eta susta ditzaten, eta batzuk prebentzioaren alorrean ere jarduten dira.

ERAKUNDEEK BABES JARDUERAK ABIAN JARRI ETA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

ERAKUNDEEK BABES JARDUERAK ABIAN JARRI ETA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

	2004	2005
Lantxotegi elkartea	64.262	59.090
Haritz Berri baserri eskola	121.272	121.602
El Castillo lantegi eskola	31.088	62.868
Etxabakoitz lantegi eskola	83.805	109.157
San Adrián gune aktiboa	11.238	14.247
Lagundu Arakil elkartea	8.594	9.000
Suspertu programa (Proyecto Hombre Navarra fundazioa)	30.051	30.052
Bidare	15.778	
Modulu berriak (Hezkuntza)	51.821	
SEI elkartea		7.500
Elizbarrutiko Idazkaritza		4.862
GUZTIRA	417.909	418.378

7.1.3. Hobetu beharrekoak

Gizarte zerbitzuek eginkizun esanguratsuak dituzte informazio, trebakuntza eta protokolizazio arloan, baina ez dira hartzen denborazko baliabide edo baliabide ekonomikotzat eta, hortaz, ez dira hartzen abiapuntutzat. Aitzitik, laguntzen kudeatzailatzat hartzen dira, eta haien eginkizuna esku hartzea da nagusiki. Eskumen aldetik, egiteko esanguratsua dute lehen mailako prebentzio programetan eta jardueretan, baina, egia erran, haien egiteko nagusia ez da babesgabetasun eta arrisku egoerak antzematea eta haiei aurrea hartzea. Izan ere, oro har, bi arazo daude horretarako: neurri batean bakarrik aritzen dira haurren esparruan eta ez daude behar bezain espezializatuta.

Prebentzioa funtzio nagusietako bat den neurrian –arrakasta badu, ez da beharrezkoa haren ondoren esku hartzea–, lehen mailako edo oinarriko gizarte zerbitzuek lehen mailako prebentzioan jarri behar dute arreta (arrisku faktorerik antzeman ez arren, halakorik sor ez dadin saiatu behar dute), baita, jakina, bigarren mailakoan ere (babesgabetasuna eragiten duten arrisku faktoreak daudenean, esku hartu egin behar dute). Horretarako, zera egin beharko lukete:

- Trebakuntza programak antolatu guraso guztientzat.
- Laguntza programak antolatu guraso berrientzat, batik bat, seme-alabak gaizki tratatzeko arriskuan daudenenentzat.

- Hasiera batetik screening jarduera jarraituak antolatzea (haur guztientzako jardueretan arriskuan dauden haurrak aukeratzea).
- Haur guztiei eta senideei osasun fisikoaren eta adimen osasunaren alorreko zerbitzuak ematea.
- Gaizki tratatzen dituzten adingabeentzako programa terapeutikoak antolatzea.
- Haur eta gazte guztiak abilezia sozialetan (hala nola, gatazken konponketan) trebatzea.
- Estresatuta dauden gurasoentzako autolaguntza taldeak eta laguntza sistemak osatzea.
- Zuzeneko laguntza, prestakuntza, etab. zerbitzuak.

Fase honetan, funtsezkoa da, gainera, oinarrizko bertze zerbitzuekin (osasun etxeekin, ikastetxeekin, haur eskolekin...), zerbitzu espezializatuekin eta elkarteekin sarean lan egiteko sistema ezartzea, eta baita gizarteak haurrak laguntzeko elkarteetan eta auzo eta familia elkarteetan parte hartu egin dezan bultzatzea.

7.2. BABESGABETASUN ETA ARRISKU EGOERAK GARAIZ ANTZEMATEA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI JAKINARAZTEA

7.2.1. Esparru teorikoa

Zailtasun sozialak dituzten adingabeen ingurunean esku hartzeko, oinarrizkoa da alde zuzenetik haiek antzematea, alegia, inor ohartzea adingabeek zailtasun sozialak dituztela. Zailtasunak lehenbailehen antzematea funtsezkoa da haurren oinarrizko beharrei erantzuteari uzten diotenetik esku hartzeko eta, hartara, haiei kalte fisiko moral edo handiagorik ez egiteko.

Lehen faseko zailtasunak babesgabetasun egoera gehien berezkoak dira: familiartean jazotzen dira eta adingabeek ez dute zuzenean eskatzen laguntza. Hori dela-eta, egoerok garaiz antzematea, arazoa sortu eta berehala identifikatzea oinarrizkoa da lehenbailehen esku hartzen hasteko, finkatutako helburuak lortu eta azkenean lortzen diren emaitzak hobetearren; funtsean, azkenean lortu beharreko emaitzak dira egoera ez larritzea eta egoerak ez egitea hain okerrera, ia ezinezkoa da komunitatearen baliabideak erabiliz konpontzea eta adingabeak familiarengandik bereizi behar dira.

Onartu beharra dago ezinezkoa dela halako egoera guztiak antzematea, eta, horregatik, ezinezkoa da zenbatetan gertatzen diren

zehaztea. Alde horretatik, alor honetako kalkuluek diotenez, antzematen diren egoerak kasu guztien % 30 eta % 35 artean bertzerik ez dira; tasa, ordea, ezberdina da egoera motaren arabera.

Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua prestatu du, eta datuok bildu ditu. Haurren aurkako tratu txarren eta abandonuen kantitateari eta ehunekoei buruzko azterketekin bat, adierazten dute “izozmendiaren tontorra” osatzen duten egoeretan bakarrik esku hartzen dela eta haren azpian ezagutu egiten ez diren kasu asko eta asko daudela, eta, antzeman arren, jakinarazi egiten ez diren bertze zenbait.

Gainera, Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planak berak aipatzen duenez, kontuan izan beharra dago detekzioa lerratuta dagoela neurri batean, alegia, antzematen diren kasu gehienak bazterreko pertsonenak edo arazo psikologiko edo sozial erantsiren bat dutenenak direla. Horregatik guztiagatik, erraza da ulertzen zergatik duen hain eragin handia kasu eta egoera guztiak antzeman eta jakinarazteak esku hartu eta adingabeak babesteko.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da Adingabeen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoko 13. artikulua eta baita Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 4.3. artikulua halako kasu edo egoerak jakinarazi edo salatzeke betebeharra ezartzen dutela. Hain zuzen ere, zera xedatzen dute: “Pertsona edo agintari orok, eta, bereziki, beren lanbide edo eginkizunengatik adingabeei loturik dauden horiek, adingabe baten arrisku egoera bat edo ustezko geriza-gabetasuna antzematen badute (...), agintari eskudunei edo kargudunik hurbilenei horren berri emanen diete”.

Alabaina, askotan, zaila izaten da familiak, profesionalek eta, oro har, herritarrek halako egoera edo kasuak jakinarazi edo haiez ohartaraz dezaten; izan ere, familiartean edo adingabeen etxean bertan jazotzen dira, eta, gainera, ezjakintasuna dago haurren aurkako tratu txarrei eta abandonuei, kasurik ezkutukoenei buruzko adierazleei eta haien mugei buruz, baita oharkabetasuna ere halako egoerak salatzeke betebeharrari buruz edo, zergatik ez, beldurra salaketaren ondorioak direla eta.


Horrexegatik, beharrezkoa da lankidetzak bideak eta egoerak bideratzeko bitarteko egokiak ezartzea, komunitateko laguntza zerbitzuek halakoetan modu eraginkorrean esku hartzeko, eta,

horretarako, lehenik eta behin, eragile guztiek lehenengo fasean dagokien erantzukizuna hartu behar dute beren gain ezinbestean, eta halako egoeren berri dutenean zer egin behar duten azaldu eta irakatsi behar zaie.

Honako taula hauek 2003. eta 2004. urteei buruzkoak dira, eta, haietan ikusten denez, familiaren eta haurren esparruan lan egiten duten komunitateko zerbitzuek eta sektoretako eragileek jakinarazten dizkiete halako babesgabetasun eta arrisku egoerak lehen mailako gizarte zerbitzuei eta adingabeak babesteko Familia Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuei.

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI EGITEN DIZKIETEN JAKINARAZPENAK, EGILEAREN ARABERA
2003. eta 2004. urteak

Lehen mailako gizarte zerbitzuei egiten dizkieten jakinarazpenen egileak	%	Kasuen kop.
Eragile bat baino gehiago	38,5	814
Familia	18,4	389
Hezkuntza zerbitzuak	14,3	302
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	13,8	292
Osasun zerbitzuak	4,9	104
Bertze batzuk	3,9	82
Epaitegietako zerbitzuak	2,5	53
Banakoak	1,8	38
Larrialdietako eta Poliziako zerbitzuak	1,5	32
Gizarte eta komunitate eragileak	0,4	8
GUZTIRA	100,0	2.115



Azken batean, babesgabetasun eta arrisku egoerak garaiz antzematea ez da zerbitzu edo sektore bakarraren egiteko edo ardura espezifikoa; aitzitik, haurrekin harremanetan dauden pertsona guztiek hartu behar dute parte eginkizun garrantzitsu honetan. Alde horretatik, nabarmentzekoa da, oro har, komunitateko zerbitzu eta eragile guztiek parte hartzen dutela, baita epaitegietako eta Poliziako zerbitzuek, eta jakinarazpen asko adingabeen familiartekoei egiten dituztela, baina argi eta garbi dago, haurrekin harreman handiagoa dutela-eta, hezkuntza eta osasun zerbitzuei dagokiela alor honetan lan gehien egitea eta, hortaz, zerbitzuotako profesionalak dagokiela, nork bere eskumenen esparruan, prebentzio lan esanguratsu hau egitea.

Aurreko tauletan nabarmenduta ageri dira zerbitzuok, baina, oraindik, egiten dituzten jakinarazpenen ehunekoak ez dator bat haurrekin oro har duten harremanarekin eta ematen dieten laguntzarekin.

Alde batetik, osasun arloan, tratu txar fisikoen kasuak antzemateaz gain, bestelako babesgabetasun jarrerak eta egoerak oharkabean ez jazotzeko, beharrezkoa da alor horretako profesionalak gai jakin honetan trebatzea, babesgabetasun egoera baten hasieratzat har daitezkeen zantzuak edo jarrerak bereizteko gauza izan eta erne ibil daitezzen.

Bertze alde batetik, gauza bera erran daiteke hezkuntza arloaz. Halere, alor honetan, babesgabetasun egoerak adierazten dituzten zantzuen berri izateko zailtasun erantsiaz gain, ezjakintasuna ere bada sarri egoerok ebaluatu eta haiei aurre egiteko arduradunei gertatzen dena jakinarazteko prozedurei edo bideei buruz.

Nolanahi ere, eragileok babesgabetasun eta arrisku egoerak antzemateko lehenengo fase honetan parte hartzeko, beharrezkoa da antzematen diren egoerei azkar eta modu eraginkorrean erantzuten dien sistema bat ezartzea. Izan ere, haien eskaerei behar bezala erantzuten ez bazaie eta egoerarik larrienen baina ez bazaie laguntzen, baliabideak eta profesionalak eskasak direlakoan eta egoera guztiak ikertzeko nahikoak ez direlakoan, argi eta garbi dago litekeena dela etsipena piztea haien artean, eta motibazioa galtzea, eta, ondorioz, antzematen dituzten egoerak behar bezainbatean ez salatzea.

Ildo berean, sistemak ondo funtzionatzea (hots, profesionalak zinez eta modu aktiboan parte hartzea arrisku egoerei aurre hartzen eta aurre egiten) prozeduraren ondoko faseetan profesionalak ematen duten laguntzaren zinezko eragina zenbaterainokoa izan den eta, isilekotasun printzipioa errespetatu beharrak ezartzen dituen mugen barruan betiere, egoeraren bilakaeraren berri jakitearen araberakoa

ere bada. Babes sare espezializatuak ezin du behar bezainbatean egin feedback lan hori, baina funtsezkoa da sektore horietako profesionalak motibatzen; hala ere, gaur egun, gure sistemak ez du merezi adina balioesten haren garrantzia.

Gainera, bi sektoreok (osasun eta hezkuntza arloak) ez dira garrantzitsuak babesgabetasun egoerak garaiz antzemateko soilik. Aitzitik, lehen mailako gizarte zerbitzuek antzematen diren egoerak ikertu eta ebaluatzeko erabiltzen dituzten informazio iturrietako datuek eta adierazleek diotenez, egoerok antzeman eta ondorengo fasean ere jarraitu behar dute lanean, hain zuzen ere, eskolari eta osasun etxeei galdetzen dietelako gehien eskura dagoen informazioa osatzeko.

Bestalde, nabarmentzekoa da oinarrizko gizarte zerbitzuen lana. Izan ere, haiek dute jakinarazpenen eta antzematen diren egoeren berri lehenengo eta, gainera, haiek dira, beharrezkoa denean, kasuak Familia Zuzendaritza Nagusiko Adin Txikikoak Babesteko Atalari helarazteko iturri nagusia.

Zehatz-mehatz, oinarrizko gizarte zerbitzuen alorrean sortu den Harrera eta Orientabide Sozialerako Programaren bidez egiten dute hori, haren berezko helburuetako bat jakinarazpenok hartu eta behar bezala bideratzen laguntzea baita. Horretarako, jakinarazpenak hartzeaz gain, sustapen lan handia ere egin behar dute, komunitatean, oro har, eta komunitatearekin lan egiten duten profesionalekin, zailtasunak txikiagotzeko, herritarrei haien berri eman eta kontzientzia harrarazteko kanpainen bidez eta, antzematen diren egoeren berri ematea errazagoa izan dadin, lurralde bereko zerbitzuak bildu eta elkar koordinatzeko guneen bidez.

Lehen erran bezala, kontuan izan beharra dago abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak, adingabeak babesteko esparru juridikoa, administrazioak babesgabetasun eta arrisku egoerei aurrea hartzeko eta adingabeen eskubideak babesteko neurriak eta ekimenak eta administrazio publikoek eremu honetan dituzten eskumenak ezartzen dituenean, toki erakundeei egokitzen diela oinarrizko gizarte zerbitzuak eta familiak laguntzeko gizarte zerbitzu espezializatuak sortu eta kudeatzea; horretarako, bitartekoak eskaini behar dizkiete, ingurunea hobetzeko eta adingabeen oinarrizko beharrei erantzuteko, xedea baita adingabeak familiarengandik ez bereiztea edo, behin bereziketa erabaki eta gero, familiarekin itzultzea.

Alde horretatik, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta Iruñeko auzo unitateak ez dira haurrak babesteko zerbitzu espezializatuak, baina, aurreko datuek erakutsi dutenez, komunitateak erreferente publiko eta

erakundeen esparruko erreferentetzat hartu behar ditu, gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko atea baitira: haurrengandik eta haien familiarengandik eta ingurune sozialetik hurbilen dagoen maila.

Oinarritzko zerbitzuon esparruan, Harrera eta Orientabide Sozialerako Programa arduratzen da oro har haurren eta nerabeen eskubideak sustatzeaz eta haiek lagundu eta babesteaz. Honako jarduera hauek osatzen dute Programa haurrei dagokienez:

■ Talde edo komunitatearen baitan

- Zer lekutan edo auzotan lan egiten duten, zerbitzuek bertako egoeraren berri izatea: tokian tokiko ezaugarrien berri jakitea, herritarrenena, zer baliabide formal eta ez-formal dituzten jakitea, harreman pertsonalak nolakoak diren, zer adingabe talde dauden, zer biltoki dauden, zer hornigai eta zer gabezia dituzten...
- Haurren babesgabetasuna eta jarrera antisoziala eragiten duten testuinguruak (inguruneak, bizi baldintzak, beharrak, arrisku egoerak, berdintasunik eza...) antzematea.
- Zailtasun sozialei aurrea hartzea.
 - Komunitatea haurren inguruan kezkatzera bultzatzea.
 - Komunitateari haur talde bereziki babesgabeen eta haurren artean antzematen dituzten arazoaren kontzientzia harraraztea.
 - Sarean lan egiten duten bertze profesional batzuei (osasun etxeetako pediatrei eta gizarte langileei, ikastetxeetako orientatzaileei eta tutoreei eta abarri) kontzientzia harraraztea, noizean behin haurren eta nerabeen zailtasunetan esku hartzeko informazio saioak eta biltzarrak antolatuz.
 - Gurasoei kontzientzia harraraztea, gurasoen elkarrekin, guraso eskoletan, elkarrekin, komunitateko taldeetan... solasaldiak antolatuz.
 - Adingabeek eta hain familiek bat egin eta parte hartzeko guneak sor daitezen bultzatzea.
 - Lehen mailako prebentzio programak lantzea, arazo psikologikoak eta sozialak ez sortu eta, hartara, zailtasun sozialak edo gatazkak ez pizteko: drogazaletasuna, nerabezaroan haundun gelditzea, pobrezia, eskolara ez joatea, etab.
 - Dauden tokietan, HNALekin elkarlanean, bigarren mailako prebentzio programak lantzea, familiekin

(gurasoekin, tutoreekin eta abarrekin) eta babesgabe gelditzeko edo delituren bat egiteko arriskuan dauden haurrekin eta gazteekin.

- Haurrak laguntzeko baliabideak, zerbitzuak eta laguntzak (lehenik, laguntza edo orientabidea eskatzeko tokiko erreferentea den aldetik, Programa bera) ezagutaraztea.
- Sareko baliabide formalak eta ez-formalak koordinatuta erabiltzeko laguntza teknikoak.

Iruñean, lantaldeek Haurrak Babesteko Komunitateko Lantaldearekin bat antolatzen dituzte ekimen horiek guztiak, eta, plangintza egiteko, Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldearen laguntza eta aholkularitza teknikoak izaten dute.

■ Banakoaren eta familiaren baitan

- Haurren arrisku eta babesgabetasun egoerei aurrea hartzea eta haiek antzematea.
- Larrialdietan lagundu eta berehalako babes neurriak hartzea eta, beharrezkoa bada, HNALri edo Familia Zuzendaritza Nagusiarik aholkularitza eta laguntza teknikoak eskatzea horretarako.
- Arrisku edo babesgabetasun txikiko egoerak ikertu eta ebaluatzea eta halakoetan plangintza egin eta esku hartzea.
 - Adingabeen oinarrizko beharrei erantzun egiten zaiela ziurtatzea.
 - Tokian tokiko gizarte arloko eta haurrak babesteko baliabideei laguntza eskatzea.
 - Aldaketa prozesuak bultzatzeko edo haiei bide emateko motibatzea.
 - Familia egituratzen eta harremanak izaten laguntzea.
 - Gurasoak guraso izaten trebatzea, eskatu egiten badute.
 - Ekonomia eta etxea antolatzen laguntzea.
 - Beharrezkoa bada, adingabeak babesteko neurriak hartzea.
 - Sareko baliabideak koordinatu eta laguntzea.
- Babesgabetasun neurritzeko edo larriko egoerak ikertu eta hasiera batean ebaluatzea eta lantalde espezializatuengana bideratzea. Lantalde espezializatuarekin elkarlanean aritzea, adingabeak babesteko sareko berte bide bat baita.
- Babesgabetasun larriko egoerek adingabeen aurka delituren

bat egitea badaukarte, egoerok agintari eskudunen aurrean salatzea.

- Beharrezkoa bada, familia talde jakin batzuen erreferentziazko jarraipena egitea.

■ Prestakuntza eta informazioa

- Gizarte zerbitzuetako eta auzo unitateetako profesionalak trebatu eta informatzea, bai Harrera eta Orientabide Sozialerako Programan, bai Beren Kabuz Moldatzeko Zailtasunak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programan dabilzanak, zailtasun sozialak dituzten haurrak bi horien esparruan lagundu baitaitezke, bai lehen mailan eta bai larrialdietan; eta prestakuntza hori haurrak babesteko komunitateko lantaldeetako eta HNALetako teknikarien prestakuntzaren parekoa izatea.

■ Ebaluazio jarraitua egitea, baina banakoen eta familien baitan eta bai talde edo komunitatearen baitan

- Lanean antzematen diren beharrak aztertu eta analizatzea, baliabide, laguntza edota zerbitzu berriak proposatu eta zailtasun sozialak dituzten haurren babesgabetasun eta arrisku egoeretan prebentzio, detekzio eta esku-hartze lana errazago egiteko.

Honako hauek har daitezke fase honetan esku hartzearen onuraduntzat:

- Haurrak, oro har, eta haien familiak.
- Familian eta ingurune sozialean zailtasunak dituztela-eta, babesgabetasun txikiko egoeran edo arrisku egoeran dauden haurrak eta nerabeak.
- Adingabeak, sexu abusuak egin dizkieten, eraso egin dieten, gaizki edo zabarkeriaz tratatu dituzten edo abandonatu egin dituzten susmoa denean eta haien osasuna edota oinarritzko segurtasuna larriki eta zuzenean arriskuan dagoenean –orduan, berehala esku hartu behar da–.

7.2.2. Egungo egoera

Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planak dioenez, sortu zenean (2000n) jotzen zen arrisku egoerak, oro har, gutxitan eta berandu antzematen zirela, eta nabarmentzen du orduan oso programa gutxi lantzen zirela profesionalen eta, oro har, herritarren

artean, egoerok goiz antzematea bultzatzeko, eta ez zegoela ia batere protokolorik lehen mailako laguntza zerbitzuek egoera horiek oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazteko.

Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua prestatu du, eta, nolabait, haurren ingurunean esku hartzeko lehen faseetako hutsuneak bete ditu, garrantzitsuak diren bertze batzuez gain.

Hartara, erran daiteke badaukagula dokumentu bat, Departamentuaren beraren hitzetan, profesional guztiek (Adin Txikikoak Babesteko Atalak, lehen mailako gizarte zerbitzuek, egoitzetako zerbitzuek, lehen mailako sarea osatzen duten programek eta familian esku hartzeko sare espezializatuak erabiltzen dutenak) irizpide komunei eta prozedura formalizatuei jarraiki lan egiteko.

Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planaren esparruan eskuliburu bat prestatzearen aldeko ekimena, nolabait, Nafarroako Gobernuak babes zerbitzuak, lehen mailako gizarte zerbitzuak eta bertze babes sistema batzuk (hezkuntza, osasuna, Fiskaltza, epaileak eta Polizia) koordinatzeko programak osatu du, eta haren oinarria, neurri handi batean, eskuliburuaren edukia aplikatzea da.

Ondorioz, Departamentuak berak garai batean arartekoari jakinarazi zionez, adingabeak babesteko zerbitzuetako eta oinarrizko edo lehen mailako gizarte zerbitzuetako prestakuntzaz gain, komeni da eskuliburuak ezartzen duen prestakuntza bertze sektore batzuetara ere hedatzea, eta "profesionalak sarean" trebatzeko politika abian jartzea. Izan ere, hori du gaizki tratatzen dituzten adingabeekin egin beharreko lanaren fase guztietan zorrotasuna eta koordinazioa ziurtatzeko metodologiatzat, eta Haur eta Gazteendako Planaren Jarraipena Egiteko Batzorde Teknikoak horixe erabaki zuen 2004ko maiatzaren 12an egin zuen bileran.

Gizarte Ongizate Departamentuak babesgabetasun egoerak garai antzeman eta oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazteko protokoloak buruzko informazioa eman digu. Bertzeak bertze, eskuliburuaren edukia (Jakinarazpenak Hartzeko Protokolo Bateratua, 3. eranskina) aipatu digu, eskola, hezkuntza, etab. arloan protokolo bat dagoela frogatzeko, baita Burlatako psikologia eta gizarte arloko lantaldean gisa horretako hainbat protokolo daudela; ildo berean, bertze elkarte eta profesional batzuek ere, hala nola, pediatrek, sareko lana antolatzen dute.

Arrisku egoerak antzemateko protokoloak ezagutarazteko ekimenei buruz, honako hauek aipatu ditu:

- Esku hartzeko eskuliburua aurkezteko saioa, hura argitaratu eta banatu eta berehala.
Oinarrizko gizarte zerbitzuetako eta Iruñeko auzo unitateetako profesionalentzat.
Iruñean bi saio izan ziren; Lizarran, bat; eta Tuteran, bertze bat.
- 20 orduko ikastaroa, esku hartzeko eskuliburuaren eta, oso bereziki, protokoloen erabileran sakontzeko.
Oinarrizko gizarte zerbitzuetako eta Iruñeko auzo unitateetako profesionalentzat.
Iruñean bi ikastaro izan ziren; Lizarran, bat; eta Tuteran, bertze bat.
- Lan saioak, eskualdeetan, oinarrizko gizarte zerbitzuetako eta Iruñeko auzo unitateetako profesionalen eta lantalde espezializatuen artean, protokoloak nola bete landu eta irizpideak bateratzeko.

Gizarte Ongizate Departamentuarekin bat, eskuliburuaren argitalpen berriak planifikatu dituzte berriki, eta, gainera, haurrak babesten trebatzeko eta haurrak babestu behararen kontzientzia harrarazteko bertze bi bitarteko sortu dituzte: “Haurrak babestea, eskolaren eginbeharra” eta “Haurrak babestea, familiaren eginbeharra” gidaliburuak. Lehenengoa irakasleak laguntzeko zentroetan aurkeztu zuten, 2007ko lehen hiru hilabeteetan, eta bigarrena, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, guraso elkarteetan eta bertze familia elkarteetan artean ezagutaraziko dute.

Bestalde, galdegin dugu zer jarduera egin eta zer datu biltzen diren ebaluatzeko noraino ezagutu eta erabiltzen dituzten gizarte langileek, pediatrek, poliziek, adimen osasunaren esparruko zentroek, haur hezitzaileek... babesgabetasun eta arrisku egoerak antzemateko protokoloak, eta Gizarte Ongizate Departamentuak Haur eta Gazteendako Planaren ebaluazioa eta elkarteek babesgabetasun egoeran dauden haurren egoera bideratu edo jakinarazten duten kasuen ehunekoari buruzko datuak aipatu dizkigu.

Jardun horren lekuko, hona hemen Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2004ko oroitidazkitik ateratako datuak.

ZAILTASUN SOZIALEKO EGOEREN DETEKZIOA HOBETZEN ARI DEN ADIERAZLEAK

Zailtasun sozialak dituzten adingabeen batez bertzeko adinak behera egitea	Batez bertzeko adina	
	2002	2004
Oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazten zaizkien egoeretan dauden adingabeena	7,5 urte	7,0 urte
Adin Txikikoak Babesteko Atalari jakinarazten zaizkion egoeretan dauden adingabeena	6,2 urte	6,0 urte


2006ko lehen hiru hilabeteetan adingabeak familian hartzeko 16 prozedura jarri ziren abian.

Egoeren larritasuna txikiagotzea		Lehen mailako gizarte zerbitzuak ez bertzek jakinarazitako egoerena		Adin Txikikoak Babesteko Atalak ez bertzek jakinarazitako egoerena	
		2002	2004	2002	2004
Arriskuan		% 38,6	% 45,7		
Babesgabetsun egoeran	Txikikoan	% 17,7	% 24,0	% 1,8	% 2,8
	Neurritzko koan	% 28,2	% 19,4	% 25,7	% 27,0
	Larrikoan	% 15,5	% 10,9	% 72,5	% 70,2
GUZTIRA		% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Protokolo bidez jakinarazten diren kasuen kopurua handitzea	Protokolo bidez jakinarazitakoen %	
	2002	2004
Oinarrizko gizarte zerbitzuek jakinarazitakoak	3,60	8,40

Lehen fasean familia biologikoarekin izaten diren harremanen kopurua	Harremanen kopurua	Kasuko batez bertzekoa
Telefono bidezko harremanak	40	2,5
Elkarrizketak	15	0,9
Guztira	55	3,4

Bertze programekin egin dugun bezala, gatozen, azkenik, Planeko 4. programa ("Detekzio goiztiarra" izenekoa) eta 5. programa ("Ikerketa eta ebaluazioa" izenekoa) gauzatzeko aurrekontuak eta zinez gastatutakoa konparatzera.



7.2.3. Hobetu beharrekoak

Jakin badakigu, gizartean babesgabe dauden haurrei dagokienez, kasu gutxi antzematzen direla eta, komunitateko zerbitzuek (osasun etxeek, ikastetxeek eta abarrek), familia hedatuak edo herritarrek baten bat jakinarazten dutenerako, haurrak babesgabetasun handiko egoeran daudela eta, ondorioz, zailagoa dela esku hartzea. Hori dela-eta, komeni da herritar guztientzako informazio kanpainak egitea eta lurralde berean aritzen diren sistemetako profesionalentzat lanerako prestatzeko guneak egokitzea, prebentzioa eta egoerok haurrak txikiak direla antzematea eta arriskuan edo babesgabetasun txikiko egoeran dauden haurren egoerak jakinaraztea bultzatzeko eta, hartara, egoerak konpontzeko neurriak hartu eta haiek areago ez larritzeko.

Hasiera batean, Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua dokumentu egokia da profesionaleri halakoetan esku hartzeko jarraibideak eta prozedura edo protokoloak eskaintzeko, baina badirudi beharrezkoa dela hura ezagutarazteko lana areagotzea eta profesionalak haren edukian areago trebatzea. Funtsean, orain arte eginiko lana oinarritzko gizarte zerbitzuen esparruan egin da, baina komunitatean adingabeen beharrei erantzuteaz arduratzen diren bertze zerbitzuetara eta profesionalengana hedatu behar da. Ildo horretan, egokiak iruditzen zaizkigu Familia Zuzendaritza Nagusiak onartu berri dituen ekimenak, baina, hala ere, dibulgazio lana gehiago nabarmendu behar dela uste dugu.

Babesgabetasun egoerei erantzuteko, gehienetan, hainbat instantziak eta zerbitzuek hartu behar dute parte, baina zerbitzu edo instantziok administrazio departamentu ezberdinen mendekoak dira sarri: gizarte

ongizatearen, hezkuntzaren, osasunaren... alorrekoak. Hori dela-eta, koordinatuta esku hartu behar da, sektore eta zerbitzu ezberdinetako profesionalak informazioa helarazi behar diote elkarri, lanak jarraitua izan behar du...

Askotan, parte hartzen duten zerbitzuak eta instantziak departamentu edo administrazio ezberdinen mendekoak izatea lan egiteko zailtasun erantsia da, baina alderdiek ahalegin handiagoa eginez eta borondate ona izanik gainditzen da.

Halakoetan, neurrien artean loturarik ez izateko, hutsuneak izateko, bikoiztasuna gertatzeko, irizpide bateraturik ez izateko... arriskua dago, eta ondorioak zerbitzuek eta adingabeek jasaten dituzte: alde batetik, eraginkortasunik eza eta energia alferrik ahitzea eta, bertze alde batetik, utzikeria eta neurrien artean koherentziarik ez izatea.

Azken batean, lehen mailako baliabideek (ikastetxeek, osasun etxeek, udaltzaingoak, prebentzioan aritzen diren komunitateko elkarteek...) eta baliabide espezializatuak (adimen osasunaren alorreko zentroek, ospitaleek eta abarrek) sarean lan egiteko dinamika sistematikoki sortzea bultzatzeaz gain, bestelako neurriak ere hartu behar dira. Litekeena da neurriok handinahiak ez izatea, baina berehala ezar daitezke eta hobekuntza nabariak ekarriko lituzkete: zerbitzuak koordinatzeko mekanismoak, esku hartzeko protokolo bateratuak ezagutaraztea, profesional jakin batzuk adingabeen ibilbidearen tutore aritzea eta haren jarraipena egitea, sistema informatikoak aprobetxatzea... Halaber, komeni da lehen faseetan esku hartzen duten profesionalak ematen duten laguntzak egiaz zer-nolako eragina duen jakitea eta, isilekotasun printzipioa errespetatu beharrak ezartzen dituen muga esparruan betiere, egoeraren bilakaeraren berri jakitea.

7.3 HASIERA BATEKO EBALUAZIOA ETA KASUA HAURRAK BABESTEKO ZERBITZUETARA BIDERATZEA

7.3.1. Esparru teorikoa

Fase honetarako, oinarrizko gizarte zerbitzuek edo Adin Txikikoak Babesteko Atalekoek badute jada, nolana, adingabe baten babesgabetasunaren berri, eta, horrenbestez, abiapuntuak izan behar du jakinarazten dizkieten egoerak lehenbailehen eta azkar aztertu eta ikertzea.

Halako jakinarazpenei ez bazaie azkar eta interesez erantzuten, alde batetik, adingabearen egoeran ondorio larriak izan daitezke eta litekeena da, egoera hainbertze larritu eta hain okerrera egitea, are

zailagoa da ondoren esku hartzea eta, bertze alde batetik, halako egoerei aurrea hartzen eta halako egoeretan esku hartu behar duten eragileen eta profesionalen inplikazioa ez da behar lukeena.

Hasiera batean, esku hartzeko eskuliburuaren aurreikuspenen arabera, honako hauek dira adingabe bat babesgabetasun egoeran edo babesgabe gelditzeko arriskuan dagoelako jakinarazpenak eta ohartarazpenak hartzeko faseko helburuak:


- Haur baten egoerari buruzko jakinarazpena egin nahi duten pertsona eta erakunde guztiei berehalako batean jaramon egitea.
- Oinarrizko informazioa biltzea, egoera haurrak babesteko zerbitzuen eskumena den ebazte aldera.
- Kasuan-kasuan zer egin behar den erabakitzea:
 - Babes zerbitzuek (oinarrizko gizarte zerbitzuek edo Adin Txikikoak Babesteko Atalak) esku hartu behar duten eta egoeraren larritasuna edo lehentasuna zenbaterainokoa den erabakitzea, edo kasua bertze zerbitzuei (hala nola, adimen osasunaren eta hezkuntzaren alorrekoiei) dagokien eta bideratu egin behar zaien.
 - Babesgabetasun egoerarik dagoen lehenengoz ebaluatzea.
- Haurraren edo familiaren egoera dagokion profesionalari edo zerbitzuari jakinaraztea, behar izanez gero, laguntza eman diezaion.

Gainera, oso garrantzitsua da fase honetan azkar esku hartzea, eta, horregatik, eskuliburuak berak orientabidea emateko bertze erreferente bat dakar, zera baitio, dena delako erabakia eta harekin bat egin beharrekoa egoeraren berri izan eta, gehienez ere, hamabost eguneko epean hartu eta gauzatu behar dela.

Jakina, erabakiak baldintzatzen du kasua oinarrizko gizarte zerbitzuen esku gelditzen den ala, esparru honetako zerbitzu espezializatua den aldetik, Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratu behar den. Izan ere, esparru juridikoari buruzko atalean aipatu dugun eskumenen banaketaren arabera, Nafarroako toki erakundeei dagokie adingabeen arrisku txikiko eta neurrizko arriskuko egoerak antzeman, haiei buruzko adierazpena egin eta halakoetan esku hartzea; arrisku larriko egoerei eta, bereziki, babesgabetasun egoerei buruzko adierazpena

egin eta halakoetan esku hartzea, berriz, Nafarroako Gobernuko Adin Txikikoak Babesteko Atalaren eskumena da.

Esku hartzeko eskuliburuko bigarren kapituluak berak haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskumenak aipatzen ditu, eta oinarrizko zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen jardun esparrua diseinatu.



Bestalde, erabakitzen denak prozesuko fase honetan ere du berebiziko eragina: ez bada sumatzen egoera zenbateraino den larria edo noraino egin dezakeen okerrera eta komunitatearen baliabideak erabiliz esku hartzea ebatzen bada, baliteke adingabeen benetako beharrak kontuan ez hartzea eta, ondorioz, gehiegi atzeratzea zerbitzu espezializatuen esku-hartzea.

Alderantziz, behar izan gabe, oinarrizko gizarte zerbitzuek kasua zerbitzu espezializatura (Nafarroako Gobernuko Adin Txikikoak Babesteko Atalera) bideratzen badute, lan gehiago ematen diote berez ebatz ditzakeenak baino kasu gehiago pilatuta dituen egitura bati eta, gainera, familiarteko erlazioari kalte egiteko arriskua dago.

Alde horretatik, kontuan izan beharra dago zerbitzu espezializatuetera jotzeak eragin handia duela familietan, bereziki, haien autoestimuan, eta hura nahiko kaltetuta dagoela oro har ordurako. Egia erran, eragina zaila da ebaluatzen, baina, gai honi buruz egindako zenbait

ikerlanen arabera, kasua zerbitzu espezializatuera bideratzea atalase gisakoa da familien ikuspegitik: orduetik aurrera, adingabeez abusatzen duten, oker tratatzen dituzten edo jaramonik egiten ez dieten susmoa "formal" bihurtzen da, eta, egoeraren bilakaera dena delakoa ere, susmoak eragin lazgarria izan dezake.

Horregatik, ahal dela, hasierako fase honetan, garrantzitsua da, adingabearekin ez ezik, familiarekin ere harremanetan jartzea ikertzen hasi aurretik, ikerketa hastekoa dela jakinarazteko, zerbitzua eta profesionala dagozkien testuinguruan kokatzeko, zer neurri hartuko diren eta zenbat iraunen duten jakinarazteko...


7.3.2. Egungo egoera

Oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratzen dute kasu gehien (% 59) Adin Txikikoak Babesteko Atalera, baina badira bertze iturri esanguratsu batzuk, hala nola, epaitegietako zerbitzuak –kasu guztien % 12 bideratzen dituzte–, osasun zerbitzuak –% 9,3–, etab. Horiek guztiek zuzenean jakinarazten dizkiote hainbat egoera (oro har, larrienak) Atalari.

BABES ZERBITZUARI EGITEN DIZKIOTEN JAKINARAZPENAK, EGILEAREN ARABERA 2003. eta 2004. urteak


Adin Txikikoak Babesteko Atalari egiten dizkioten jakinarazpenak	%	Kasuen kop.
Hezkuntza zerbitzuak	1,2	5
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	59,0	255
Osasun zerbitzuak	9,3	40
Gizarte eta komunitate eragileak		
Epaitegietako zerbitzuak	12,0	52
Banakoak	2,0	9
Larrialdietako eta Poliziako zerbitzuak	3,0	13
Bertze batzuk	12,7	55
GUZTIRA	100	432

Babes Zerbitzuari egiten dizkioten jakinarazpenen jatorria



Txostenean azaldutako jarraibideekin bat, haurren babesgabetasun egoerei buruzko hasiera bateko ikerketa eta ebaluazio lana oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokie; horixe uste dute oinarrizko gizarte zerbitzuetako eta Adin Txikikoak Babesteko Ataleko profesionalak beraiek ere.

Hasiera bateko ebaluazioaren bidez, lehenik eta behin, adingabea babesgabetasun egoeran dagoela egiaztatu behar da. Ondoren, haren larritasuna eta larrialdiko babes neurriak hartu behar diren ala ez ebaluatu behar da, eta egoera zer faktorek eragin duten ikertu. Azkenik, egoera konpontzerik dagoen aztertu behar da, eta adingabea eta haren familia lagundu eta babestu egin behar diren eta haien ingurunean esku hartu beharrik dagoen. Azken batean, lehenbiziko erabaki garrantzitsua hartu behar da, alegia, zer neurri hartu behar diren esku hartzeko eta adingabeak familiarekin bizitzen jarrai dezakeen edo, egoeraren larritasuna dela-eta, beharrezkoa den kasua Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzea, hark modu espezializatuan esku hartu edo babes neurriren bat ezar dezan.



Nafarroako Foru Komunitatean Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planak dakartzan datuak ez daude guztiz eguneratuta, baina badira oinarrizko gizarte zerbitzuen funtzionamenduaren adierazgarri. Oinarrizko 30 gizarte zerbitzuek erantzun zioten Plana prestatzeko igorri zieten inkestari, eta zera ondorioztatzen da haiek emandako datuetatik:

- Oinarrizko gizarte zerbitzuen % 56,7an, esku hartzeko erabakia eta esku hartzeko planaren diseinua eta azterketa lantaldean egiten dute eta, oro har, taldea bi kidek osatzen dute. Hala ere, taldearen osaera askotarikoa da: gizarte langile batek eta hezitzaile batek osatutakoa (11 zerbitzutakoa), bi gizarte langilek osatutakoa (bitakoa), psikologo batek eta hezitzaile batek osatutakoa (batekoa), gizarte langile batek, psikologo batek eta hezitzaile batek osatua (bitakoa) eta gizarte langile batek, hezitzaile batek eta komunitateko prebentzioan aditu batek osatutakoa (batekoa).
- 12 zerbitzutan (zerbitzuen % 40an), esku hartzeko erabakia gizarte langile batek bakarrik hartzen du, eta harekek diseinatzen du adingabearen ingurunean eta familian esku hartzeko plana, hark ebaluatzen du denboran eta hark erabaki eta egiten ditu beharrezko aldaketak esku hartzeko planean.
- Oinarrizko gizarte zerbitzu batean, eginkizun horiek guztiak (esku hartzea erabaki eta esku hartzeko plana diseinatu eta aztertzea) gizarte hezitzaile batek bakarrik egiten ditu.
- Ikerketa eta ebaluazio lanari dagokionez, zerbitzuen % 53,3an gizarte langileek soilik egiten dute, eta zerbitzuen % 33,3an, gizarte langileek eta hezitzaileek osatutako lantaldeek. Oinarrizko hiru gizarte zerbitzutan bakarrik laguntzen diete psikologoek egiteko horretan.

Ondoriooz gain, nabarmendu beharra dago, lehen azaldu dugunez, oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesional gehienek ezin dituztela egin behar bezainbateko kalitateaz eta sakontasunaz egiteko horiek guztiak, nagusiki, haurren babesaren alorrean neurri batean bakarrik jarduten direlako eta ez daudelako espezializatuta.

Hori dela-eta, ikerketa eta ebaluazio lana jakintza arlo askotako lantaldeek egin beharko luketela uste dute, gizarte langile, hezitzaile eta psikologo espezializatuek osatutakoek. Alabaina, oro har, Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuen gaur egungo egoera ez dator bat ikuskera horrekin, nahiz eta, jarduteko irizpide gisa, egoerarik zailenetan (esaterako, familiaren barnean sexu abusuak izaten direnean), oinarrizko gizarte zerbitzuen jardun esparrua gainditzen dutenetan, Adin Txikikoak Babesteko Atalaren beraren laguntza eta, beharrezko bada, Ikerkuntzarako, Ebaluaziorako eta Esku Hartzeko Kanpo Lantaldearena edo, Lizarran, HNALrena duten; salbuespen bakarra Iruña da, HNAL udal barruti osoan baitaude joan den urteaz geroztik.

Azaldutako egoera are nabarmenagoa da lehen mailako laguntza sareari buruz aritzean erabili ditugun informazio taulak kontuan hartuz gero.

Bestalde, egoera horren ondorioz, batzuetan, Adin Txikikoak Babesteko Atalak egin behar du ikerketa eta ebaluazio lana, edo elkarlan aktibo eta estuan aritu behar du oinarrizko gizarte zerbitzuekin lan hori egiteko, haiek dagokion epean ezin dutenean, zuzenean Atalera bideratzen dituzten egoera larri eta premiazkoetan eta oinarrizko gizarte zerbitzuen gaitasun teknikoa gainditzen dutenetan, eta, azkenik, oinarrizko gizarte zerbitzuek txostenak osatzen ez dituztenean; dena dela, Departamentuaren hitzetan, txosten osatugabeen kopurua behera egiten hasi da, gizarte zerbitzuak pixkana-pixkana esku hartzeko eskuliburua erabiltzen hasi diren heinean.

Ikerkuntzan bildu beharreko informazioari, erabili beharreko metodoei eta informazioa interpretatu eta balioesteko moduari dagokienez, berriz, orain arte nabarmen hobetu beharreko zatitza jotzen ziren, ez zegoela-eta irizpide eta prozedura bateraturik, baina esku hartzeko eskuliburua erreferente bihurtu da alde horretatik. Hala ere, begien bistakoa da hainbat dibulgazio eta prestakuntza ekintza eta jarduerak egin behar direla oraindik, alor honetan aritzen diren profesionalak oinarrizko ezaguerak erabiliz lan egiteko.

Izan ere, jakinarazten diren egoerei buruzko ikerketa eta ebaluazio lanean ez ezik, horiek guztiek kasu larriak, Adin Txikikoak Babesteko Atalak bere gain hartu eta landu behar dituenak hari bideratu behar zaizkionean ere dute eragin handia.

Kasuak bideratzeko modua ez bada homoginoa eduki, egitura eta ikertzeko prozedura aldetik eta, ondorioz, ez bada informazio nahikoa ematen, arriskua dago zerbitzu espezializatuek (Adin Txikikoak Babesteko Atalak) ikerketa lana berriz ere egin behar izateko, erabaki bat hartze aldera, eta, hori dela-eta, erabakia atzeratzeko arriskua dago, eta Atalaren lan dinamikari berari kalte egitekoa.

Alor honetan aipa ditzakegun datuak Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2004ko oroitidazkikoak dira, eta ondoko taulan ageri dira.

LEHEN MAILAKO GIZARTE ZERBITZUEN EBALUAZIOAREN KALITATEA

Ebaluazioaren kalitateari buruzko adierazleak	2002	2003-2004
Egokiro ebaluatutako kasuen %	% 92,2	% 94,4
Osatu gabe zeudela-eta, birbideratu egiten diren kasuen %	% 23,3	% 12,7


Ebaluazioa egiteko galdekatutako informazio iturriak		
Eskola	% 75	% 74
Osasun etxea	% 52	% 44
Gizarte eta komunitate eragileak	% 27	% 4
Adimen osasunaren alorreko zentroa	% 18	% 12
Epaitegiak	% 6	% 5
Familia bera	Ezin jakin	% 60
Adingabea bera	Ezin jakin	% 32
Polizia	% 7	% 8
Bizilagunak eta banakoak	% 11	% 4
Bertze batzuk	% 35	% 38

ADIN TXIKIKOAK BABESTEKO ATALAK EGITEN DITUEN TXOSTENEN KANTITATEA ETA KALITATEA

Adin Txikikoak Babesteko Atalak egiten dituen ebaluazio txostenetako informazioa	2002	2004
Hutsa	% 50,80	% 44,80
Partziala	% 30,10	% 28,10
Osoa	% 18,90	% 27,50
Egoera konpontzeko planetako espedienteak		
Zailtasun sozialen bat duten adingabeei buruzkoak	% 8	% 6
Gatazka sozialen bat duten adingabeei buruzkoak	% 6,8	% 0

Oinarrizko gizarte zerbitzuek antzematen dituzten kasuak helarazi edo bideratzeko faseari buruz ere badugu daturik, 2003. eta 2004. urteetako, Familia Zuzendaritza Nagusira bideratu diren ala ez eta zenbateraino diren larriak zehaztuta.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzen dituzten kasuen %, larritasun mailaren arabera



Oinarrizko gizarte zerbitzuek edo lehen mailakoek antzeman eta Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzen dituzten kasuen ehunekoak agerian uzten du egoerak larriak direnean soilik bideratzeko joera dagoela, eta, adingabeak babesgabetasun txikiko egoeran edo babesgabe gelditzeko arriskuan daudenean, kasuak ez direla bideratzen; dena dela, halako kasuen ehuneko txiki bat ere bideratzen da, eskumenak banatzeko aipatu irizpideei jarraiki gabe.

Ildo horretan, oinarrizko gizarte zerbitzuek ez dituzte bideratzen Adin Txikikoak Babesteko Atalera babesgabetasun larriko kasuen % 22; arrisku egoeren % 8 eta babesgabetasun txikiko kasuen % 13, berriz, Atalera bideratzen dira, halakorik egin beharko ez litzatekeen arren.

Egungo egoerari buruzko atal honetan, aipagarria da Iruñeko Udalak ikerketa eta ebaluazio fasean ezarri duen metodologia: auzo unitateen bitartez eta Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldearen laguntzaz egiten du lan hori.

Ebaluazio fasean nola esku hartzen jarraitu erabakitzeko oinarria da, larrialdietan izan ezik –orduan, HNALk bertzek aurretiazko ikerketarik gabe esku hartzen du–, auzo unitateko profesionalak aztertzen dutela adingabeen egoera (Nafarroako bertze eremuetan, oinarrizko gizarte zerbitzuek) eta, ondoren, HNALko profesionalak burutu behar dutela azterketa. Haien eskaerari erantzunez burutu behar dute, gai batzuk zehaztuz eta bertze batzuetan sakonduz; izan ere, kontua ez da adingabeak eta haien familia ezagutzea, babesgabetasuna zenbaterainokoa den eta adingabeengan zenbaterainoko eragina duen zehaztea ere baizik. Analisi sakon hori egiteko, bertze ikuspegi bat erabili behar da: aurrekoa osatu behar du, baina saiatu behar da berriro ez hasten eta pertsonak birritan ez ikertu eta aztertzen.

Hurrez ari garela, egoeraren berri hobeto jakiteko, jotzen da garapen eta heldutasun maila hartu behar dela kontuan, adingabeak zenbateraino dauden atzeratuta adiskideen aldean, zein den haien egoera afektiboa eta haien egoerak zenbaterainoko eragina duen haiengan, ordura arte izandako laguntzak zer-nolako eragina izan duen, etab., baina baita zer egiten duten eta zer ez duten egiten haiekin bizi diren helduek, zer aldatu beharko litzatekeen, zer behar duen halabeharrez adingabeak. HNALek adingabe bakoitzak zer duen eta zer ez duen jakin behar dute, zerk balio duen babesteko eta zer indartu behar den, zerk eragiten duen babesgabetasuna eta sufrimendua eta zer murriztu behar den, zeri aurre egin behar zaion edo zer egin behar den ondoriorik izan ez dezan.

Nolanahi ere, Lantaldearen beraren ustez, esku hartzen laguntzeko ebaluazioa da, ildo beretik esku hartzen jarraitu behar duen, esku hartzeko modua aldatu behar duen edo areagotu egin behar duen, adingabeak bakoitzaren beharren arabera laguntzeko planak nola gauzatu behar diren erabakitzeko: sakonago aztertzea, hobeto esku hartzeko modu bat aurkitzeko; neurtzea jarraipena nagusiki auzo unitateak egiten jarraitzea komeni den, edo HNALren laguntza izatea, aldi baterako HNALren ardura izatea edo, bestela, Nafarroako Gobernuak esku hartu eta babesgabetasun adierazpena egin dezan eskatzea.

Lantaldearen aburuz, hasierako ebaluazioa – ebaluazio sakona – plangintza bati jarraiki esku hartzea edo larrialdian esku hartzea sekuentzia azkar, profesionaltasunez eta modu eragingarrian egin behar dute esku hartzen duten instantziek. Egoerak ebaluatu eta haietan esku hartzeko irizpideek sareko lanarekin lotuta egon behar dutela eta bateratuak izan behar dutela jotzen du. Horrexegatik ematen dio halako garrantzia egoerei buruz hausnartzeko guneak eta, areago, sistema osatzen duten eragileek hausnarketa egiteko guneak izan eta kasuak etengabe ikuskatu eta langileak etengabe prestatzeko bideak urratzeari, ezaguerak eguneratu eta praktikaren analisisan sakontzeko.

Oinarrizko gizarte zerbitzuei babesgabetasun eta arrisku egoerei buruz egiten dizkieten jakinarazpen batzuk Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzen dituzte haiek, eta, hori dela-eta, egoki iritzi diogu jakinarazpenen balantze orokorra, bikoiztasunik gabea kalkulatzeari, larritasunaren arabera.

BABESGABETASUN SUSMOAK, SUSMOA ZER ZERBITZURI JAKINARAZTEN DIOTEN ETA, EBALUAZIOAREN ARABERA, ZENBATERAINO LARRIA DEN 2003. eta 2004. urteak

SUSMO JAKINARAZPENAK	Arrisku an	Babesgabetasun egoeran			GUZTIRA
		Txikikoan	Neurritzokoko an	Larrikoan	
Oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazitakoak, guztira	967	512	406	231	2.115
<i>Oinarrizko gizarte zerbitzuek jakinarazitakoak</i>	40	32	88	94	255
<i>Adin Txikikoak Babesteko Atalari bertek jakinarazitakoak</i>			29	209	237
Adin Txikikoak Babesteko Atalari jakinarazitakoak, guztira	40	32	117	303	492
GUZTIRA, GUTI GOITI-BEHEITI	967	524	498	303	2.352

Ikuskera honen bidez, egoeren eta haien larritasunaren ikuspegi osoa izan nahi dugu.


Era berean, laguntza instantzia batzuek eta bertzeek lantzen dituzten kasuen larritasun maila ere oso ezberdina dela ikusten da.

BABESGABETASUN SUSMOEN EHUNEKOA, SUSMOA ZER ZERBITZURI JAKINARAZTEN DIOTEN ETA, EBALUAZIOAREN ARABERA, ZENBATERAINO LARRIA DEN 2003. eta 2004. urteak

SUSMO JAKINARAZPENAK	Arriskuan	Babesgabetasun egoeran			GUZTIRA
		Txikikoan	Neurritzokoan	Larrikoan	
Oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazitakoak	% 45,70	% 24,20	% 19,20	% 10,90	2.115
Adin Txikikoak Babesteko Atalari jakinarazitakoak		% 2,80	% 27,00	% 70,10	432

Pentsatzekoa denez, oinarrizko gizarte zerbitzuei askoz ere kasu gehiago jakinarazten dizkiete, baina erdia arrisku egoeratzat jotzekoak dira. Adin Txikikoak Babesteko Atalari jakinarazten dizkieten artean, berriz, % 70 babesgabetasun egoera larritzat hartzekoak dira.

Laguntza instantzia bati eta bertzeari helarazten dizkieten egoera guztiak bateratu eta larritasunaren arabera sailkatzen baditugu, ondoko grafikoa da emaitza.



Laguntza instantzia bati eta bertzeari egiten dizkieten jakinarazpenak bateratu eta nork egiten dizkien begiratzen badugu, berriz, honako hau da egileen araberrako banaketa.


JAKINARAZPENAK, GUZTIRA, EGILEEN ARABERA

2003. eta 2004. urteak

141

Lehen mailako gizarte zerbitzuei eta Adin Txikikoak Babesteko Atalari egiten dizkieten jakinarazpenak, guztira	%	Kasuen kop.
Eragile bat baino gehiago	35,5	814
Familia	17,0	389
Hezkuntza zerbitzuak	13,4	308
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	12,7	292
Osasun zerbitzuak	6,3	144
Gizarte eta komunitate eragileak	0,4	8
Epaitegietako zerbitzuak	4,6	105
Banakoak	2,0	47
Larrialdietako eta Poliziako zerbitzuak	1,9	45
Bertze batzuk	6,0	137
GUZTIRA	100	2.292

Babesgabetasun egoerak eragiten dituzten tratu txarren motei buruzko informazioa ere eskatu diogu Familia Zuzendaritza Nagusiar, baina ez digu eman, oraindik ez duela-eta. Hortaz, erakunde horrek Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua egindako argitalpenean ageri den informazioa emanen dugu.



Iturria: Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua.

7.3.3. Hobetu beharrekoak

Iruñeaz aritu gara lehen: han, Udalaren beraren ekimenez, zailtasun sozialak dituzten hurrei ematen dieten laguntza hobetu egin da, Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldea hiri osora hedatuz. Hala eta guztiz ere, bistakoa da alor honetako baliabideak eskasak direla. Izan ere, teorian, eginkizunak oso zabalak dira eta badirudi argi eta garbi daudela, baina, praktikan, profesionalen lanean gabeziak daude, eta ezin da halako egoeretan behar bezain ondo eta modu eraginkorrean esku hartu.

Lehen mailako zerbitzuen arloan, beharrezkoa da profesionalen prestakuntza areagotu eta hobetzea, Horretarako, oinarrizko gizarte zerbitzuetan Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua ezagutarazteko eta hartan trebatzeko orain arte egindako lana egiten jarraitu behar da.

Oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitza informazioa biltzeko ereduari behar bezala jarraitzeko ez ezik, balio behar du metodo edo sistema bat zehaztu eta ziurtatzeko erabakitzeke beharrezko informazio guztia biltzen dela; gutxienez zer dokumentu bildu behar diren finkatzeko balio behar du, ziurtatzeko haurrak babesteko neurriak erabakitzeke erabiltzen den informazioa egokia eta dagokiona dela. Hartara, ezbairik gabe, segurtasun juridikoa handiagotuko litzateke eta hobeto babestuko lirateke adingabeen eta haien inguruko pertsonen eskubideak.

Dudarik gabe, alor honetan aritzen diren langileak espezializatuago egoten lagunduko luke eta haiek hobeto lan eginen lukete adingabeekin eta haien familiekin eta ingurunearekin; alde horretatik, aintzat hartu beharra dago adingabeak garai konplexuan daudela adina dela eta. Alabaina, gainera, haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeak lehenbailehen sortu behar dira, bertzeak bertze, egiteko horretan laguntzeko. Haur eta Gazteendako Planak xedatzen du sortu behar direla, eta, denborazko kalkuluen arabera, 2002tik 2005era bitartean sortu behar ziren, baina, 2007. urteko lehen hilabeteetan, Iruñean baino ez ziren sortuak –duela zenbait hilabetez geroztik, udal barruti osoan–, eta Lizarran.

Taldeok sortuz, zailtasun sozialak dituzten familien eta adingabeen kopuruak eta beharrek gora egin izanari erantzuteko gaitasuna handiagoa litzateke, oinarrizko gizarte zerbitzuak hasiera batean esku hartzen lagunduko litzuketelako, eta, gainera, bai ikerketa eta ebaluazio lana eta bai adingabearen ingurunean eta familian esku hartzeko neurriak erabakitzea jakintza arlo askotako lantaldeen ardura

litzateke; lantaldeok espezializatutako gizarte langileek, hezitzaileek eta psikologoek osatu beharko lituzkete.

Azkenik, oinarrizko gizarte zerbitzuek lehen fase honetan egiten duten lana aldizka ebaluatzeko eta ikuskatzeko sistema ezartzea komeni da, funtsean, helarazten dizkieten kasu guztiak behar bezala lantzen eta tratatzen dituztela egiaztatzearen, eta, beharrezkoa bada, neurriak hartzea antzematen diren eta jakinarazi egiten dizkieten kasu guztiez ardura daitezen eta egoerak egokiro ebaluatu eta ebaluazioak ezartzen dituen irizpideei edo bideei jarraiki esku har dezaten.

7.4. BABESGABETASUN TXIKIKO ETA NEURRIZKOKO EGOERETAN ESKU HARTZEA

7.4.1. Esparru teorikoa

Adingabeak, dena delakoagatik, babesgabe daudenean edo zailtasun sozialak dituztenean, babes sistema publikoak esku hartzen du, eta oinarrizko gizarte zerbitzuek egoera ikertu eta ebaluatu egiten dute; ondoren, ebaluazioarekin bat, kasua zenbateraino larria den, Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratu ala ez erabakitzen dute. Atal honetan landuko dugu zer gertatzen den, azkenean, kasua ez bideratzea erabakitzen dutenean eta, ondorioz, beraiek esku hartu behar dutenean.

Gogoan izan beharra dago, hasiera batean, txostenean aipatu ditugun jarraibideekin bat, adingabeak babesgabe gelditzeko arriskuan daudenean edo babesgabetasun txikiko edo neurrizkoko egoeran daudenean, ardura oinarrizko gizarte zerbitzuena dela eta haiek esku hartu behar dutela; adingabeak babesgabetasun larriko edo handiko egoeran daudenean edo, aldi batez edo behin betiko, familiatik bereizi behar direnean, berriz, ardura Adin Txikikoak Babesteko Atalarena da eta hark esku behar du.

Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2004ko oroitidazkiak Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzen dituzten kasuen larritasunari buruz dakarren datuak, baina, erakusten du egoera arriskutsutzat edo babesgabetasun txikiko egoeratzat hartzen diren egoera asko ere Atalera bideratzen direla oraindik. Jakina, datua deigarriagoa da mugatzen zailak diren neurrizko babesgabetasun egoerei eta, areago, esku hartzeko baliabideak eskasagoak direlako eta oinarrizko gizarte zerbitzuek behartuta daudelako bideratzen dituzten kasuei dagokienez.

	2002	2004
Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzen diren babesgabetasun egoeren larritasuna	(N396); % 1,8, txikikoak; eta % 25,8, neurrizkokoak.	(N396); % 2,7, txikikoak; eta % 27 neurrizkokoak.

Edonola ere, atal honetan oinarritzko gizarte zerbitzuen eskumenekoak diren eta haiek landu behar dituzten kasuak analizatuko ditugu. Hori dela-eta, oro har bada ere, komeni da gogora ekartzea, bai Adingabeen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, bai Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak ezartzen dituzten printzipioekin eta irizpideekin bat, haurrak babesteko egungo sistemak esku hartzeko modua arautzen duela, Nafarroako haurrei babes egokia eman dakien ziurtatzeko. Hona hemen zenbait irizpide:

- Lehen mailako zerbitzuek eta haurrak babesteko zerbitzu espezializatuak esku hartzeko eta erabakitzeko funtsezko printzipioek haurren beharretan oinarritu, haien eskubideak babestu eta lehentasuna haien interesei ematea izan behar dute.
- Gurasotzat hartzen dituzten pertsonekin erreferentziatzko eta loturazko harreman egonkorra izatea eta atxikimenduzko harreman egonkorrak izatea haurren oinarritzko beharrak dira. Azkenean, haurrak babesteko zerbitzuen helburuak izan behar du haurrek ingurune egonkor eta seguruan bizitzea eta hark haien oinarritzko beharrei erantzutea.
- Prebentzioa (bai lehen mailakoa eta bai bigarren mailakoa) haurren babesgabetasunari aurre egiteko modurik hoberena eta eraginkorrena da.
- Familia batuta mantentzea eta gurasoak guraso izaten eta egiteko horretan beregain izaten trebatzeko laguntza eta tratamendu zerbitzuak sortzea da babesgabetasun egoeran dauden adingabeen familietan esku hartzeko modurik onena hasiera batean. Halako familiak haurrak babesteko lantalde espezializatuak esparru nagusietako bat dira.
- Babesgabetasun egoeran dagoen adingabe bakoitzaren egoera banaka-banaka ebaluatu eta haren jarraipena banan-banan egin behar da. Babesgabetasun egoeren ondorio negatiboak gaituzteko beharrezko laguntza eta tratamendu zerbitzuak eman behar zaizkio, eta haren oinarritzko beharrei

erantzuten zaiela eta pertsona gisa osotasunean hazi eta garatzen dela ziurtatu behar da.

Irizpideok betetzeko eta babesgabetasun egoeran dauden edo babesgabe egoteko arriskuan dauden haurren beharrei behar bezala erantzuten zaiela ziurtatzeko, oinarrizko gizarte zerbitzuek esku har dezakete, baina, gainera, nabarmendu dugunez, Haur eta Gazteendako Planak (zehazki, bigarren programak) ezartzen du haurrak babesteko lantalde espezializatuak sortu behar direla, zailtasun sozialak dituzten familien eta adingabeei erantzuteko baliabideak ugaritzeko eta bai oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta bai Familia Zuzendaritza Nagusian haurrak babestu eta haiekin prebentzio, detekzio, ikerketa eta ebaluazio eta esku-hartze lana egiteko talde espezializatuak izateko.

Hain zuzen, zailtasun sozialak dituzten haurrak eta nerabeak artatzeko lantalde espezializatuak dira taldeok, eta bi eskualde jakinetan hasi ziren esku hartzen: Lizarran eta Iruña iparraldean; gaur egun, ordea, Iruñeko udal barruti osoan ere aritzen dira. Ebaluatu beharreko esperientzia pilotu gisara hasi ziren, gero Nafarroako Foru Komunitate osora hedatzeko. Esperimentazio ereduak, baina, ezberdinak izan dira: batetik, Lizarran Nafarroako Gobernuko Familia Zuzendaritza Nagusiaren mendeko kanpo lantalde batekin kontratua egin dute eta, bertzetik, Iruñeko Udalak udal talde bat osatu du, Gizarte Gaietako Alorreko langileekin.

Lehen mailako laguntza instantziak oinarrizko gizarte zerbitzuen eskumeneko egoeretan esku hartu behar duten moduaren adierazgarri argia dela-eta, Iruñeko Udaleko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldeak esku hartzeko darabiltzan irizpideak azalduko ditugu jarraian.

Lantaldeak zuzenean bere ardurapean hartzen dituen egoeretan esku hartzeko ardatz nagusia haien inguruan benetako laguntza sarea sortzea izaten da, hurrez arduratzen diren sistemak eta bereziki horretarako sortutako baliabideak erabiliz. HNALko profesionalak eskolarekin eta osasun etxeekin (bereziki, adimen osasunaren alorrekoekin) lan egiten dute, eta, erran berri dugunez, haurrak babesteko auzoko baliabideekin eta haiei laguntza babesgarria emateko sortzen diren programekin (hala nola, Familiar Esku Hartzeko Programarekin). Izan ere, esku hartzea, adingabeengan eta haien familiarengan pentsatuz betiere, haien beharren inguruan ikuspegi bateratua izan eta oro har esku hartzeko modu gero eta sendoago bat diseinatzea dela jotzen dute, denboran jarraitutasuna duen haria sortzeko, eta haien eginkizuna sareko lanean tutore aritzea da.

Pertsonetikiko (adingabeekiko eta haien senideekiko) harremanetan, HNALk haien egoera zein den ulertarazteko esku hartzen du, haren kontzientzia harrarazteko. Batetik, haurrak laguntzen ditu kontzientzia hartzeak txikitu ez ditzan, larritasunari eusten, errudun ez sentitzen, eta, horretarako, lotura afektiboak eskaintzen dizkie, krisialdiak bestela kudeatzeko. Helduekin, berriz, txikitzeari eutsi eta hura mugatzeko esku hartzen du, eta, seme-alabekiko jokabidearen kontzientzia harraraziz, guraso izateko gaitasunak eta baliabideak hobetzeko lan egiten du, guraso aritu ahal izateko eta guraso izaten ondo sentitzeko; horretarako, zehatz-mehatz, banakoak eta familiak etengabeki laguntzen ditu, eta baita taldeak ere, zenbait egoeratan egiten hasia den bezala.

Heldutasuna eta haztea bultzatzen du, aldaketa prozesuak bultzatu eta laguntzen ditu, norbera eta familia aldatzeko prozesuen esparruan, guraso izateko modu hobek aurkitzeko, eta, horretarako, lantaldeko profesionalak eta bertze batzuk txandatu egiten dira, batzuen eta bertzeen ekarpenak elkar osatzeko.

Helburu horiek guztiak lortzeko, bilguneak (bulegoak eta familien etxeak), abileziak ikasteko ariketak, jarduera terapeutikoak eta askotariko laguntza (bertze baliabide batzuk erabili eta sistema sozialekin harremanetan egoteko laguntza) erabiltzen ditu. Itunak eta hitzarmenak erabiltzen ditu, familian bizitzeko proiektuak batera diseinatu, eta laguntzak eta baliabideak eskaini. Bereziki, baina, zubi lana egiten du, adingabea zerbitzuetan eta baliabideetan onar dezaten, haietara egokitu egin dadin, eta norbaitek haren beharren araberrako laguntza eman diezaion.

Lantaldeak askotariko estrategiak eta teknikak konbinatu behar ditu, eta guk zenbaiten berri baino ez dugu eman. Izan ere, aurrekoek gain, babesgabetasun egoeretan maiz gertatzen diren krisialdietan eta larrialdietan esku hartzeko gaitasuna ere izan behar du, eta, horretarako, haien larritasunarekin bat, eskura egon eta erantzuteko gaitasuna izan behar du. Hala ere, oraindik zehaztu gabe dago nola antola daitezkeen, HNALk ez ezik, udal gizarte zerbitzuen sistemak larrialdietan esku hartzeko mekanismoak, baina, haurren larrialdien ezaugarriak eta haien ondorioak direla-eta, bereziki beharrezkoak dira, eta baita bertze alor batzuetan ere.

Jatorrizko familiarengandik bereizi gabe, adingabeak babesteaz arduratzen den neurri berean, HNAL zuzeneko familiarik ez duten edo harekin jarraitu ezin duten adingabeek bertze senitarteko batzuekin harreman positiboa izan dezaten ere arduratzen da. Horretarako, ebaluazio lana, lehenik eta behin, familia hedatuaren

eragina ona den aztertzeke egin behar da, eta, jarraipena egiteaz gain, familia berria lagundu ere egin behar du, zuzeneko familia ordezkatzeko lanean.

Sarri askotan, ordea, egin beharreko lana gurasoekin artekari aritzea ere bada, seme-alaben zaintza eskualdatzea gatazkatsua izan ez dadin, kasua auzitara eraman behar izan ez dadin eta adingabeek are gehiago sufri ez dezaten, eta, horretarako, jarraipenaz gain, bertze hainbat gauza ere egin behar dira: adingabeak lagundu; jatorrizko familia lagundu, aldatu edo, bederen, seme-alaben babesgabetasuna are gehiago ez larritzeko; eta familia berria lagundu, baliagarria izateko eta heziketa lana ordezkatu edo osatzeko.

Bestalde, babesgabetasun egoerak bereziki dinamikoak, aldakorak direnez gero, bada familian egin beharreko hainbat gauza haurrak babesteko baliabideek (HNALk eta bertzek) egin beharko lukeena, baina oraindik ez dago argi nola eta zer neurritan egin beharko lituzkeen: zentzoren batean sartzen dituzten adingabeen familiak osatzea eta zentrotik atera ondoko prozesuetan laguntzea. Edonola ere, beharrezko baliabideak eta prestakuntza izan behar dituzte eta sareko lanaren logika berean parte hartu behar dute betiere.

Ahal dela, HNALk esku hartzea borondatezkoa izan behar du, eta, auzo unitateen bidez edo, bestela, Nafarroako Gobernuko lantaldeen bidez, hark esku hartzea onartzeko lan egin behar da, familiaren egoeraren eta zailtasunen kontzientzia hartzeko lehenengo urratsa den aldetik. Alta, litekeena da esku-hartzearen zati bat inposizioa eta kontrola ere izatea, helduek adingabeekin duten jokabideak are kalte handiagorik ez egiteko. Azken batean, haurrak babesteko mekanismoen arrazoi eta helburu nagusia direla-eta, adingabeen interesari eman behar zaio lehentasuna bertze edozeinen aldean, baina borondatezko tasunak eta familiaren laguntzak izugarri baldintzatzen dute esku-hartzea bera eta esku hartzeko prozedurak eta estiloak.

Azkenik, HNALen osareri eta lan egiteko moduari dagokienez, gogoan izan beharra dago askotariko txostenak egin behar dituzten profesionalak direla eta, maiz, txostenok neurri handian baldintzatzen dituztela administrazio babesleen eta sistema judizialaren erabakiak. Izan ere, haiek ere izan badute zerikusirik HNALen lan prozesuen zati esanguratsu batekin, eta baliteke Fiskaltzak parte har dezaten eskatzea, babesgabetasun egoeraren bat dagoelako susmoa duenean: hari buruzko adierazpena egiteko, adingabe arau-hausleak zigortzeko eta adingabeak senitartekoengandik adostasunik gabe banantzeko, bertzeak bertze.

Lehen mailako zerbitzuek beraiek esku hartzeari buruz aritu gara hasieran eta, horretarako, Iruñeko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldeak ezarritako ereduaz mintzatu gara, baina kontuan hartu beharra dago, aldez aurretik, norbaitek kasuan kasuko egoerari buruz erabaki behar izan duela, eta baita kasuan kasuko egoera konpontzeko plan bat prestatu edo ezarri ere, xedeak finkatzeko, hartu beharreko neurriak eta erabili beharreko baliabideak eta zerbitzuak zehazteko, elkar koordinatzeko eta abarretarako. Alde horretatik, Plana gauzatzeak esku hartzen amaitzea ekar dezake, edo kasua dagokion zerbitzu espezializatura bideratzea.

Plana beti egin behar da, bai auzia oinarrizko gizarte zerbitzuen esku gelditu eta haiek esku hartzen dutenean eta bai kasua Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzen dutenean. Halakoetan, Plana hark egin behar du, eta, hori dela-eta, aurrerago arituko gara xehekiago Planaz, aztertzen dugunean zer gertatzen den kasuak Atalera bideratzen dituztenean.

Edonola ere, fase honetan (babesgabetasuna jazotzeko arriskua dagoenean edo babesgabetasuna txikia edo neurrizkoa denean eta, hortaz, oinarrizko gizarte zerbitzuek esku hartu behar dutenean), bereziki garrantzitsua da esku hartu eta adingabeak eta haien familiak laguntzeko sistema egoki bat ezartzea, arrisku edo babesgabetasun egoera desagerrarazteko, eta, horrez gain, neurri osagarriak ere hartu behar dira, familiaren gaitasunak sendotu eta hobetzeko eta bere baitan eta ingurukoekin dituen harremanak sendotu eta hobetzeko, gizarte laguntza emateko sistemak indartuz.

Nolabait, halako baliabide edo programa egituratuen xedea da haurrak jatorrizko familiarengandik ez bereiztea edo, behin banandu eta gero, familiarengana itzultzea, arrisku edo babesgabetasun egoera desagerrarazi eta berriro sor ez dadin lortzea, egoerok haurrengan dituzten ondorioak garbitzea eta beharrezko baldintzak sortzea, ziurtatzeko haurren oinarrizko beharrei jatorrizko familiak erantzuten diela.

Horretarako neurriek "familiar esku hartzeko programa" izendatu direnak osatzen dituzte eta, hasiera batean, aipagai ditugun egoeretan, oinarrizko gizarte zerbitzuek hartu behar dituzte. Alabaina, maiz, ez da hori gertatzen, eta salbuespen batzuk baino ez daude, hala nola, Iruñekoa; han, badute halako programa bat, gurasoak guraso izateko gaitzeko eta haien lana osatzeko. Halaber, aurrerago arituko gara honetaz, baina badugu Familiar Esku Hartzeko Programa Berezitua; Adin Txikikoak Babesteko Atalak kudeatzen du, Pauma enpresaren bitartez.

Esku-hartzearen hasierako faseetan da garrantzitsu eta beharrezkoen halako baliabideak erabiltzea eta, horregatik, Haur eta Gazteendako Planak berak ere dio haurrak babesteko sistemak (hots, baita oinarrizko sareak, oinarrizko gizarte zerbitzuek) halako programez osatutako egitura bat izan beharko lukeela, guztiak baitira beharrezkoak eta elkarren osagarri. Programek ezaugarri aldetik ezberdinak diren arazoei eta beharrei aurre egiteko balio beharko lukete eta, horregatik, ezberdinak izan beharko lukete helburuei, baliabideei, iraupenari eta ebaluazio sistemari dagokienez.


Hala ere, gogoan izan beharra dago, komunitatearen eta prebentzioaren ikuspegitik betiere, baliabide psikosozialak eta hezkuntza arlokoak erabiliz, haurrak babesgabetasun psikiatrikoko egoeran egotea eragiten duten arazoiei eta babesgabetasun egoeran dauden adingabe askok laguntza psikiatriko gero eta handiagoa behar izateari ere heldu behar zaiola; izan ere, oro har, adostasuna dago esparru honetako zerbitzuen eskasiari buruz, baina, zoritxarrez, eskasia ez da alor honetakoa bakarrik.

7.4.2. Egungo egoera

Haur eta Gazteendako Plana egin zutenetik, gabezia handia sumatzen da, babesgabetasun egoerei aurre egiteko, familian esku hartzeko baliabideak sortzeari eta programa egituratuak ezartzeari buruz.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da Plana egiteko galdekatu zituzten oinarrizko 32 gizarte zerbitzuen artean 23k (hau da, % 72k) adierazi izana ez dutelako halako programarik.

Era berean, nabarmentzekoa da Planeko 6. programak, "Bigarren Mailako Prebentzioa eta Familian Garaiz Esku Hartzea" izenekoak ezartzen duen aurrekontuaren eta haren esparruan gastatutakoaren arteko konparazioa.



2004an, Planaren behin-behineko ebaluazioa egin zuten, eta, orduan bildutako informazioarekin bat, oinarrizko oso gizarte zerbitzu gutxiak egiten dituzte bigarren mailako prebentzioaren alorreko jarduerak egituratuak.

**BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOAREN ALORREKO JARDUERA EGITURATUAK
EGITEN DITUZTEN OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK**

Bigarren mailako prebentzioaren alorreko jarduerak egituratuak egiten dituzten oinarrizko gizarte zerbitzuak	2002		2003		2004	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gurasoak gaitzea	6	16,6	11	22,5	12	25,5
Babesgabetasun txikiko edo neurrikoko egoeran dauden haurrak eta nerabeak laguntzeko programak	0	0,0	0	0,0	6	12,7
Delituren bat egiteko arriskuan dauden haurrekiko programak	4	11,1	0	0,0	2	4,2
Bigarren mailako prebentzioaren alorreko berteze jarduerak batzuk	Ezin jakin		3	6,1	5	10,6

Aurreko taulan ikusten denez, 2004an, % 25,5ek soilik egiten zituzten gurasoak gaitzeko jarduerak; % 12,7k bakarrik, babesgabetasun txikiko edo neurrikoko egoeran dauden haurrak eta nerabeak laguntzeko programak; eta abar eta abar.

Datu horien aldean, ordea, behin-behineko ebaluazioak dakarren berteze bat daukagu; haren arabera, oinarrizko gizarte zerbitzuen eskumeneko egoeren % 72an egiten dute familian esku hartzeko lehen mailako jardueraren bat.

**OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEK FAMILIAN ESKU HARTZEKO
LEHEN MAILAKO JARDUERAK**

	2002	2004	2002	2004
Oinarrizko gizarte zerbitzuek familian esku hartzea	973	1.526	% 73	% 72
Familia hezitzaileak esku hartzea	478	?	% 36	?

Ez dugu informaziorik oinarrizko gizarte zerbitzuak nola eta zenbaterainoko kalitateaz esku hartzen duten familian, baina pentsatzekoa da haien jarduna ez dela ez homogeneoa eta ez kalitate onekoa; izan ere, argi eta garbi dago baliabide eskasak dituztela eta adingabeak (batez ere, haien eskumeneko neurrikoko babesgabetasun egoeretan daudenak) babesteko haien prestakuntza mugatua dela.

Alabaina, pentsatzekoa da oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programan parte hartzeko diruz laguntzen diren langileen kopuruak gora egiteak egoera hobetzen lagunduko duela, pixkanaka bada ere; 6.1.2. atalean, baliabideei buruz mintzatzean aritu gara programa horretaz.

Gure ustez, lehentasunezkoa da antzematen diren kasuetan hasierako faseetan esku hartzea, behar adina trebatutako teknikarien bidez, okerrera egin ez dezaten.

Bestalde, 2002an, lehen mailako gizarte zerbitzuek landutako kasuen % 36an familia hezitzaile baten laguntza izan zuten. Ildo horretan, 2005ean, oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programak hamalau hezitzailei kontratua egiteko diru-laguntzak banatu zituen, eta, 2006an, aurreikuspena 29ri egitea zen.

Erran bezala, oinarrizko gizarte zerbitzuek bigarren mailako prebentzioaren alorrean egiten duten lanari buruzko informaziorik eza arrazoitzeko, Familia Zuzendaritza Nagusiak alegatzen du "haurrak babesteko sistemaren esparruko lehen mailako gizarte zerbitzuen eskumena" dela.

Alde horretatik, berriro errepikatuko dugu Familia Zuzendaritza Nagusiak alor honetako erantzukizun nagusia bere gain hartu beharko lukeela; hain zuzen ere, lehen mailako laguntza zerbitzuek haurrak babesteko xedeak eta neurriak ezarri beharko lituzke eta, haurrak babesteko politikak kontrolatu eta ebaluatzeko, sistematikoki zer informazio bildu beharko litzakeen finkatu beharko luke.

Orain artean, gizarte zerbitzuek alor honetan dituzten mugak, neurri batean, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuak erremediatu ditu, baina haren estaldura ere oso mugatua da, aurrerago ikusiko dugunez; Programa Adin Txikikoak Babesteko Atalak kudeatzen du.

Hala eta guztiz ere, Haur eta Gazteendako Planarekin bat, oinarrizko sarearena da bigarren mailako prebentzioaren alorreko eta familian esku hartzeko programak gauzatzeko ardua, eta, horretarako, oinarrizko gizarte zerbitzu guztiek esku hartzeko halako zerbitzuak eta programak izan behar dituzte eta HNALen laguntza teknikoak izan behar dute; izan ere, baliabide horiek aipatzen ditu Planak lehen mailako sarearen osagarri.

Dauden tokietan (Lizarran eta Iruñean), badirudi HNAL oso lan garrantzitsua egiten ari direla, helarazi diguten informazioarekin bat;

antza, Iruñeko Udaleko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldea lan bereziki esanguratsua egiten ari da.

Lantaldeak berak jakinarazi digunez, “Zailtasun sozialak dituzten haurrak eta nerabeak laguntzeko oinarritzko dokumentua” testuan ageri da arlo honetan egiten duen lanaren berri –dokumentua 2003. urteko urrikoa da–, eta jardunaren antolamendua eta lan egiteko prozesuak ere aipatzen ditu.

**IRUÑEKO HNALi BIDERATZEN DIZKIOTEN
KASU BERRIEN JATORRIA**

ESPEDIENTEEN KOPURUA	2004		2005		GUZTIRA	
Adin Txikikoak Babesteko Atala (Familia Zuzendaritza Nagusia)	24	% 27,5	12	% 30,70	36	% 28,6
Gizarte zerbitzuetako auzo unitateak	57	% 65,5	26	% 66,70	83	% 65,9
Fiskaltza	3	% 3,5			3	% 2,4
Bertze batzuk	3	% 3,5	1	% 2,60	4	% 3,2
GUZTIRA	87	100,0	39	% 100,0	126	% 100,0

Iruñeko Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldera bideratzen diren kasu berrien bi heren (% 66,7) Iruñeko auzo unitateek bideratzen dituzte, eta bertze heren bat ia (% 28,6), Nafarroako Gobernuko Familia Zuzendaritza Nagusiko haurrak babesteko lantalde espezializatuek.

Bideratzen diren kasuen kopuruan izandako beherakadaren zioa izan daiteke, HNAL sortu zenerako, bazirela hainbat egoera larri pilatuta, zegokion laguntza instantziak bere gain hartu ezin zituenak eta, ordutik aurrera, HNALren eskumeneko bihurtu zirenak. Hartara, HNALk kasu horiek guztiak bere gain hartu eta “antzemandako baina tratatu gabeko kasuen poltsa” hustu ondoren, bideratzen diren kasuen kuantitatea egonkor bihurtu da, eta egonkorra izan da urtez urte.

HNALren eginkizun nagusiak babesgabetasun eta arrisku egoerak ebaluatzea eta auzo unitateak eta hurrekin lan egiten duten bertze profesional batzuk aholkatu eta laguntzea, adingabe jakin batzuk eta haien familiak banan-banan laguntzea eta haientzako laguntza sare formala eta informala sortu eta dinamizatzea, esku hartzen duen esparruetan programa espezializatuak (hala nola, Familiar Esku Hartzeko Programa) diseinatu eta haien jarraipena egitea eta, beharrezkoa denean, administrazio babesleak laguntzea dira.

Sortu zirenetik, auzo unitateek larritasun handiko zenbait babesgabetasun egoera egiaztatzeko ere erabiltzen dituzte HNAL, eta, ondoren, kasuok Familia Zuzendaritza Nagusira bideratzen dituzte.

**IRUÑEKO HNALren JARDUNA
URTEAN LANDUTAKO ESPEDIENTEEN KOPURUA**

ESPEDIENTEEN KOPURUA	2004		2005	
Berriak	87	% 100	39	% 39,8
Aurreko urtekoak			59	% 60,2
GUZTIRA	87	% 100,0	98	% 100,0

2005 osoan, Iruñeko HNALk 97 espediente landu zituen: 39 berriak ziren, eta 59, aurreko urtean abiarazitakoak.

IRUNEKO HNALk LAGUNDUTAKO ADINGABEAK

ADINA	2004		2005	
0-2	22	% 16,8	22	% 14,8
3-5	24	% 18,3	23	% 15,4
6-8	18	% 13,7	24	% 16,1
9-11	16	% 12,2	23	% 15,4
12-14	30	% 22,9	31	% 20,8
15-18	21	% 16,0	26	% 17,4
GUZTIRA	131	% 100	149	% 100

Urte berean, Iruñeko HNALk 149 adingaberekin lan egin zuen, hau da, aurreko urtean baino % 13,7 gehiagorekin.


Otik 6 urtera arteko adingabeen ehunekoak behera egin zuen: 2004an lagundutako adingabe guztien % 35,1 izan ziren, eta 2005ean, % 30,2. Aitzitik, 6tik 12 urtera bitarteko adingabeekiko jardunak gora egin zuen: 2004an % 25,9koa izan zen –34 adingaberekin lan egin zuen–, eta 2005ean, berriz, % 31,5koa –47 adingaberekin lan egin zuen–.

2004. eta 2005. urteen artean abiarazitako 126 espedienteen artean, 28 amaitu zituzten, hau da, % 22. Era berean, amaitutzat emandakoan artean, % 48 esku hartzen amaitu zutelako amaitu zituzten; % 36, Familia Zuzendaritza Nagusira bideratu zituztelako; % 8, adingabea etxez aldatu zelako HNALren eskumenetik kanpo zegoen lekuren batera; eta bertze % 8a, ezinezkoa zelako esku hartzea.

**IRUÑEKO HNALk AMAITUTZAT EMANDAKO ESPEDIENTEAK
2004 + 2005**

	Amaitutako espedienteak
<i>2004an amaitutakoak</i>	28
<i>2005ean amaitutakoak</i>	8
Amaitutakoak, guztira	28
2004an eta 2005ean abiarazitako espedienteak, guztira	126
Amaitutako espedienteen %	22

Honako grafiko honetan ageri dira espedienteak amaitutzat emateko arrazoi nagusiak.



Ebaluazioaz gain, HNALren eginkizun nagusia familian garaiz esku hartzea da.


FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA

	Familiak		Adingabeak	
	Kop.	%	Kop.	%
Familian Esku Hartzeko Programaren esparrukoak	42	43,0	74	49,7
Familian Esku Hartzeko Programatik kanpokoak	56	57,0	75	50,3
GUZTIRA	98	100,0	149	100,0

2005. urtean, Familiar Esku Hartzeko programa 42 familiarekin eta 74 adingaberekin erabili zuten guztira, hau da, HNALk tratatu zituen familia guztien % 43,3rekin eta adingabe guztien % 49,6rekin.

Ebaluazioa egin ondoren, arrisku egoeran edo babesgabetasun txikiko egoeran daudela jotzen duten adingabeak, oro har, auzo unitateen esku uzten dituzte berriro ere, hark egin dezan jarraipena. HNALren ardurapean jarraitzen duten baina Familiar Esku Hartzeko Programan parte hartu beharra ez duten adingabeen jarraipena, berriz, HNALk berak egiten du, eta honako jarduera hauetakoren bat antolatzen du horretarako:

- Gurasoentzako talde jarduerak.
- Nerabeentzako talde jarduerak.
- Psikologoaren esku-hartze terapeutikoa.
- Jarraipena egin eta egoera kontrolatzeko ereduren bat ezartzea.



Familiar Esku Hartzeko programan parte hartzen duten familien % 75ekin egiten den lana da, aldian behin eta aldi baterako, gurasoak trebatzea, Gurasoak trebatzeko azpiprogramaren esparruan, eta, ondoren, antzemandako zailtasunak konpondu ostean, beraiek gauzatzea seme-alabekin gizarte eta heziketa programak, familiaren baitan. Familien % 25ekin egiten den lana, berriz, Familiak laguntzeko azpiprogramaren bidez laguntzea da; izan ere, gurasoek seme-alabekin guraso izateko gaitasunak erabiltzeko ahalmen txikia dutela jotzen da eta, hori dela-eta, adingabeen familiartean erreferentzia positiboko heldu bat barneratzearen alde egiten da, ahal den neurrian gabezia horiek bete ditzan.

2005ean, 13 egoeratan amaitu zen gizarte eta heziketa arloan Familian Esku Hartzeko Programaren esparruan esku hartzen, hau da, Programak tratatutako kasuen % 30,9an, eta esku hartzeari uzteko arrazoiak honako taula honetan ageri dira.

**FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA
AMAITZEKO ARRAZOIAK**

	Kasua k	%
Familia Zuzendaritza Nagusira bideratzea	6	46,2
Esku hartzearen helburuak aldatzea	3	23,1
Finkatutako helburuak lortzea	3	23,1
Esku hartzeko ezintasuna	1	7,7
GUZTIRA	13	100

Orain artean izandako esperientziari esker, HNALk eta bertze lantalde espezializatu batzuek tratatu beharreko pertsonak sailkatzeko gutxieneko kategoriak sortu ahal izan dira, baina irekiak, aldakorrek eta dinamikoak dira:

- Familiartean babesgabetasun txikiko edota neurrizkoko egoeran dauden haurrak eta nerabeak.
- Familia hedatuak hartzen dituen adingabeak. Haien jarraipena egitea auzo unitateen eta Nafarroako Gobernuaren gaitasunez harago dago.
- Pertsona gisa eta gizarte eta eskola arloan moldatu ez diren sintoma larriak dituzten eta delituren bat egiteko arrisku handian dauden haurrak eta nerabeak. Haien artean, 12 urtetik beherako haurrak laguntzeak izan behar du lehentasuna.
- Honako arrazoi hauek direla-eta, haurrak babesgabe uzteko arrisku handian dauden eta laguntza espezifiko nahikoa ez duten familiak:
 - Lehenago babestu behar izan diren seme-alabak dituzten eta bertze seme edo alaba bat izaten duten gurasoak.
 - Adimen osasunaren alorreko arazo larriak dituzten eta laguntzarik ez duten gurasoak eta gurasoordeak.

- Seme edo alaba bat izatekoak diren guraso drogazaleak.
- Laguntzarik ez duten guraso nerabeak.

Bestalde, behar berriak sortzen dira eta, une jakin batzuetan, behar batzuk espero baino larriagoak bihurtzen dira, eta, haiei erantzuteko, ahalik eta baliabide askotarikoenak behar dira: helduen laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrak izatea, zentroetan eta familietan hartuta dauden eta jarrerazko arazo larriak edo drogak kontsumitzearekin lotutako arazo larriak dituzten nerabeen kopuruak gora egitea, etab. Halakoetan, litekeena da eskura ditugun baliabideak haien beharretara ez egokitzea: adingabe atzerritarren ama hizkuntza dakien edo haien kulturaren berri duen profesionalik ez izatea, adingabeek desohitzeko programetan ezin parte hartzea, programok borondatezkoak izatea, adimen osasunaren alorreko zerbitzuek ematen duten erantzuna nabarmenki eskasa izatea...

Alde horretatik, kontuan izan beharra dago ohikoa dela adimen osasunaren alorreko sareak arazo psikikoak edo psikosozialak izan ditzaketen haurrak tratatu behar izatea.

Haurrok sare horrek esku hartzea behar dute, baina, zalantzarik gabe, haurren eta gazteen gainerako psikopatologiei aurre egiteko beharrezko baliabideak murrizten dituzte. Gainera, gizarte zerbitzuek, haurrak babesteko komunitateko lantaldeek, eskolako orientatzaileek eta HNALek ere lan egiten dute haurrokin eta, seguru asko, ez litzuzke adimen osasunaren alorreko sareak lagundu beharko.

Gainera, laguntza espezifikoki dagokionez, adimen osasunaren alorreko Nafarroako sareak tratatzen dituen haur gehienak helduentzako osasun etxeetan tratatzen ditu. Haurrentzako eta gazteentzako unitatean osasun etxe sektorialek diagnostikoaren espezifikotasuna dela-eta bideratzen dituzten kasuak lantzen dituzte, eta han bakarrik ez dituzte helduen artean tratatzen. Jakina, haurrentzako eta gazteentzako unitatera bideratzen dituzten haurrak ere ebaluatzen ditugu hasiera batean gure zentroetan.

Ondorioz, haurrok ulertzen ez dituzten psikopatologiak eta mendekotasunak dituzten pertsonak ikusi behar izaten dituzte maiz; batzuetan, zailtasunak dituzten senideekin eta bizilagunekin elkartzen dira; maiz, beren buruari galdetzen diote zergatik dauden zaindaria; eta ez dute ulertzen zergatik joaten den norbait haien mediku berarengana zaintzapean edota eskuburdinak jarrita.

7.4.3. Hobetu beharrekoak

Kasuak, egoeraren larritasunaren arabera, Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratu behar diren ala ez eta, beraz, haiek tratatzeko eskumena nori dagokion erabakitzeari dagokionez, nabarmentzekoa da, Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburuak aipatzen dituen irizpideei eta protokoloei jarraitzeko kalte egin gabe, hura funtsezko faktorea dela sistemak ondo funtzionatzeko; horretarako, ordea, lan handia egin behar da, eskuliburuan trebatu, hura ezagutarazi eta elkar koordinatzeko.

Hainbatetan, zerbitzu espezializatuak (hala nola, Adin Txikikoak Babesteko Atala) izatearen ondorioz, litekeena da lehen mailako laguntza sareek neurri batean esku ez hartzea, edo haiek aitzakiazat erabiltzea, esku-hartzea eta erantzuna murrizteko. Halakoetan, adingabeak zentro batean sartzeko arriskua handiagoa da, eta haiek normalizatu eta gizarteratzeko aukerak, txikiagoak.

Halabeharrezkoa da arriskuoi aurrea hartzea eta lehen mailako laguntza zerbitzuek ahal bezainbat esku har dezaten bultzatzea, baina, horretarako, ezinbestean, beharrezko bitartekoez eta baliabideez hornitu behar dira; bestela, nolabait esku ez hartzeko arriskua dago, eta kasua bideratzeko arrazoia izateko esku hartzeko baliabiderik ez izatea, kasuaren beraren larritasuna baino gehiago.

Haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeen esperientziari dagokionez, berriz, Iruña iparraldekoarena ikusirik, erran daiteke, haiei esker, lan egiteko, ikertu eta ebaluatzeko eta esku hartzeko modu berriak esperimintatzeko parada izan dela: ikerketa eta ebaluazio prozesua egokia izatea garrantzitsua dela ikusi da, esku hartzeko metodoak baliozkotu dira, zailtasun sozialak dituzten adingabeak laguntzeko modu eta bide egokiak ondorioztatu dira eta, horren guztiaren ondorioz, azkenean, eredu hau hiriko bertze barrutietan hedatu eta ezarri da.

Iruñeko HNAL hedatzeko prozesu betean dago, eta Iruña osoan aritzen da dagoeneko. Horri esker, zailtasun sozialen bat duten adingabe guztiek laguntza baliabide batera jo dezake; han jarduten diren profesionalak oso espezializatuta daude, eta askotariko baliabideak dituzte erabilgarri, adingabeon oinarrizko beharrei erantzuteko eta haiek pertsona gisa behar bezala hazi eta gizarteratzeko. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Iruñeko Udalak egindako apustua, baita zer pozgarria den hori guztia alor honetan aritzen diren profesionalen ikuspegitik.

Halere, haurrak babesteko lantalde espezializatuok Foru Komunitateko berte eskualdeetan ezartzeko aurreikuspenak ez dira bete oraindik. Iruñeko herritarrek halako baliabide bat erabil dezakete, baina Iruñerriko berte udalerrietako (Barañaingo, Burlatako, Atarrabiako, Noaingo...) herritarrek ez dute aukerarik lantalde espezializatuok esku har dezaten. Nafarroako berte eskualdeetan, berriz, Lizarran bakarrik dago martxan antzeko esperientzia bat, eta Tafallan aurten abiaraztekoak dira; gainerakoak abian jartzeke daude. Ondorioz, litekeena da adingabeek zailtasun sozialen bat izatea, eta, egoera larrietan (Familia Zuzendaritza Nagusiak esku hartzen duenean) izan ezik, badirudi ez dituztela behar bezala laguntzen; aitzitik, oinarrizko gizarte zerbitzuek bakarrik laguntzen dituzte, baina, erran bezala, eskaintza ez da aski askotan gure haurren benetako beharrei erantzuteko.

Azken batean, ezinbestekoa da lantaldeok Nafarroa osora hedatzea, Haur eta Gazteendako Planak xedatzen duenarekin bat, eta, horretarako, haien osaera eta lan egiteko formak egokitzea, askotariko eginkizunak bete edo askotariko egoeretan esku hartu beharko baitute.

Halaber, beharrezkoa da bigarren mailako prebentzioaren alorrean neurri gehiago hartzea. Familian esku hartzeko programak (gurasoak trebatzeko saioak, gizarte abilezietan trebatzekoak, etab.), sare espezializatura ez ezik, oinarrizko sarera ere hedatu behar dira; izan ere, gaur egun, ez da familia batzuekin lan egiten, hain zuzen ere, taldean eta komunitatean laguntzarik ez duten zantzuak ageri dituztenekin. Egia erran, zaila da halako familiek jarduera normalizatuetan edo haientzat sortutako jardueraren batean parte hartzea, baina ezinbestekoa da halakoak eskaintzea eta parte hartzera bultzatzea; izan ere, prebentzioaren helburuak lortuko baditugu, hiru mailatan lortu behar ditugu.

Azkenik, fase honetan, garrantzizkoa da haurrak arrisku psikiatrikoan egotea eragiten duten arrazoiei komunitatearen eta prebentzioaren ikuspegitik ekitea, baliabide psikosozialak eta hezkuntza arlokoak erabiliz, eta kontuan izatea askotariko behar berriak sortzen ari direla. Behar berrioi behar bezalako erantzunak eman behar zaizkie, eta, horretarako, baliabide aproposak egokitu eta ezarri behar dira. Alde horretatik, nabarmendu beharra dago laguntza psikiatrikoa gero eta beharrezkoagoa dela, eta, hori dela-eta, neurri egokiak hartu behar direla, irizpide malguak eta prozedurak ezartzeko, adimen osasunaren arloko sareak tratamendu egoki eta, beharrezkoa izanez gero, ezberdina ematen duela ziurtatze aldera.

8. babesgabetasun larriko egoeretan esku hartzea

8. BABESGABETASUN LARRIKO EGOERETAN ESKU HARTZEA

8.1. ADINGABEEN GAINEKO IKUSPEGI OROKORRA


Babesgabetasun larriko egoeran dauden adingabeei buruzko atalean, txostena egituratzeko erabili ditugun bertze ataletako hurrenkerari jarraikiko gaitzaizkio, hots, esku hartzeko prozesu kronologikoari. Hortaz, ordena honetan, adingabea ikertu eta ebaluatzeko eta erabakitzeko prozesuaz arituko gara, egoera bakoitza aztertzeke planaz hitz egingen dugu, lantalde espezializatuak familian esku hartzeaz, adingabeak familian eta harrera etxeetan hartzeaz...

Hala eta guztiz ere, atal bakoitzean murgildu aurretik, babesgabetasun egoeran dauden eta laguntza lortzen duten adingabeen gaineko ikuspegi orokorra azaltzen saiatuko gara.

Bereziki, familiak banantzen direnean sortzen diren egoeretan (alegia, adingabeak familiarengandik bereizten direnean sortzen direnetan) jarriko dugu arreta, horiek baitira hobekien dokumentatutakoak, eta bertze autonomia erkidegoetakoekin konpara daitezkeenak.

Neurri handi batean, familiarengandik bereizten diren adingabeen kopurua babes zerbitzu jakin batek esku hartzeko aplikatzen duen politikaren adierazgarri da, baina bertze adierazle batzuen bidez osatu behar da: familiarengandik bereizten ez diren adingabeen babesgabetasun larriko egoeretan esku hartzeko bertze bideei buruzko adierazleez. Zoritxarrez, kasuoi buruzko informazioa askoz urriagoa da, txostenean ikusiko dugunez, eta are urriagoa hura konparatzeko aukera.

Nafarroan, familiarengandik bereizten diren adingabeen kopuru absolutuak eta 18 urtetik beherako mila biztanleko tasak gora egin dute azken urteotan.



Familiarengandik bereizten diren adingabeen kopuruak gora egitea ez dirudi ona, baina, bilakaera behar bezala aztertzeko, informazioa osatu egin behar da, eta ikusi babesgabetasun larriko egoeren zer ehunekotan izan den beharrezkoa haurrak familiarengandik bereiztea. Funtsezko gaia da, baina, halere, datu bakarra lortu dugu: 2004. urtean Programa behin-behinean ebaluatu ostean, urte hartako oroitidazkian argitaratutakoa; antza, lagin batean oinarritzen da.

FAMILIARENGANDIK BEREIZTEN DIREN ADINGABEEN % 2004ko BEHIN-BEHINEKO EBALUAZIOA

	2002	2004
Babesgabetasun egoera larrian dauden eta familiarengandik bereizten diren adingabeen %	16	14

Erran bezala, babesgabetasun egoera larrian dauden baina familiarengandik bereizten ez dituzten adingabeei buruzko informazioa osatugabea da. Kasuok analizatzean ikusiko dugunez, informazio sistemak ez du behar bezalako jarraipena egiten, eta, hortaz, ez da fidagarria, ez duelako aztertzen adierazle horren denborazko bilakaera osoa.


Honako taula honetan, dela familian edo dela harrera etxe batean hartu dituztelako, familiarengandik bereizten dituzten adingabeen kopuruaren bilakaera ageri da.

FAMILIARENGANDIK BEREIZTEN DITUZTEN ADINGABEEN KOPURUAREN BILAKAERA 2000-2006


Adingabeen kopurua	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Familian hartutakoak	156	166	180	191	216	228	228
Harrera etxeetan hartutakoak	148	155	135	139	141	155	147
Familiarengandik bereizitako adingabeak, guztira	304	321	315	330	357	383	375

Adingabeak hartzeko modu bakoitzaren 18 urtetik beherako mila biztanleko tasari erreparatuz gero, bestalde, ikusten da aipagai dugun aldiaren ez zela aldaketa handirik izan harrera etxeetan hartutako adingabeen kopuruan, baina familian hartu zituztenen tasak, pixkanaka, nabarmen egin zuela gora.

Adingabeen tasaren bilakaera, haiek hartzeko moduen arabera
Mila biztanleko tasa. 18 urtetik beherakoak



Bilakaera horren ildoan, harrera etxeetan hartzen dituztenen ehunekoa jaitsi egin da familiarengandik bereizten dituzten adingabeen artean, eta ontzat jotzekoa da hori.



Bertze autonomia erkidegoetan familiarengandik bereizten dituzten adingabeei buruz dituzten datuak zaharrak (1996koak eta 2000koak) dira, eta, hortaz, Nafarroako urte haietako bilakaera Espainiako batez bertzeakoarekin alderatu bertzerik ez dugu eginen.

**18 URTEK BEHERAKO MILA BIZTANLEKO TASEN KONPARAZIOA
1996. ETA 2000. URTEAK**

	1996. URTEA		2000. URTEA	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Familian hartutakoak	1,57	1,55	1,49	2,70
Harrera etxeetan hartutakoak	2,12	1,70	1,42	2,08
Familiarengandik bereizitako adingabeak, guztira	3,69	3,25	2,91	4,78

Ikusten denez, 1996tik 2000ra, familiarengandik bereizi zituzten adingabeen 18 urteko beherako mila biztanleko tasak behera egin zuen, funtsean, harrera etxeetan hartutakoen kopuruak nabarmen egin zuelako behera, eta, neurri txikiagoan bada ere, baita familian hartutakoenak.

Ondoko taulan ikusten denez, berriz, 1996an, Espainiako autonomia erkidegoen zerrendan, Nafarroa erdialdean zegoen harrera etxeetan hartutako adingabeen 18 urteko beherako mila biztanleko tasari dagokionez, eta Espainiako batez bertzekotik gora. Egun, ordea, Nafarroako tasa laugarren txikiena da, eta Espainiako batez bertzekoa baino askoz ere txikiagoa.

**BIZTANLEKO TASEN ETA KOPURUEN KONPARAZIOA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA
1996. ETA 2000. URTEAK**

Autonomia erkidegoak	1996. URTEA		2000. URTEA	
	Kop.	Milako tasa *	Kop.	Milako tasa *
Andaluzia	2666	1,5	2792	1,8
Aragoi	294	1,4	424	2,3
Asturias	374	2,1	394	2,7
Balear Uharteak	181	1,1	136	0,9
Gaztela-Mantxa	366	1,0	368	1,1
Gaztela eta Leon	961	2,2	629	1,6
Kanariak	1208	3,3	1182	3,4
Kantabria			259	3,0
Katalunia	556	0,5	1883	1,8
Ceuta eta Melilla	79	2,1	1250	34,8
Extremadura	659	2,7	461	2,1
Galizia	1563	3,1	1373	3,2
Errioxa	141	3,0	112	2,6
Madrilgo Erkidegoa	1963	2,0	1866	2,0
Murtzia	124	0,5	93	0,4
Nafarroa	205	2,1	148	1,4
Euskal Autonomia Erkidegoa	810	2,3	437	1,4
Valentziako Erkidegoa	1220	1,5	1645	2,2
GUZTIRA	13.370	1,7	15.452	2,1

* 18 urteko beherako 1.000 biztanleko tasa.

Erran bezala, adingabeak familiarengandik bereiztea ez da adingabeak babesteko Nafarroako sare espezializatuaren barruan dauden adingabeak laguntzeko bide bakarra, eta, hori dela-eta, ondoko taulan, hark ematen dituen zerbitzu guztiak agertzen saiatu gara; dena dela, zenbait txosten berezi honen xedeetatik kanpo daude, gure gaia babestu egiten diren adingabeak dira eta.

SARE ESPEZIALIZATUAREN BARNEAN DAUDEN ADINGABEAK (LABURPENA)	2004	2005
Bigarren mailako prebentzio programaren barruan daudenak	109	205
Kanpoko laguntza taldeek laguntzen dituztenak		
<i>Zailtasun sozial oso larriak dituzten adingabeen egoera ikertu eta ebaluatzeko taldeak</i>	31	36
<i>Adingabeen aurkako sexu abusuek ebaluatu eta halakoetan terapeutikoki esku hartzeko taldeak</i>	3	13
<i>Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuan parte hartzen dutenak</i>	90	96
<i>Nerabeak hezteko programan parte hartzen dutenak</i>	20	30
Familian hartutakoak	216	228
Behaketa eta harrera zentroetan hartutakoak	105	145
Erabateko barnealdian daudenak	163	187
Eguneko zentroan hartutakoak	*	19
Elkartzeko guneetan parte hartzen dutenak	105	188
Bertze batzuk		
<i>Eskola ordaintzeko diru-laguntzaren bat dutenak</i>	20	21
<i>Diru-laguntzaren bat duten eta beregain bihurtzeko prozesuan daudenak</i>	6	1
Adoptatutakoak		
<i>Jarraipena egiten ari zaizkien adoptatutako adingabe atzeritarrak</i>	250	274
<i>Adingabe atzeritar adoptatu berriak</i>	133	101
<i>Espainian adoptatutakoak</i>	4	9
Epalleek zigortutako adingabeak		
<i>Barnealdira zigortutakoak</i>	81	45
<i>Erregimen irekian daudenak</i>	125	120
<i>Guztira</i>	206	165

* 2004an sortutako zerbitzuak.

8.2 IKERKETA ETA EBALUAZIOA

Egoera orokorraren berri eman ondoren, arrisku edo babesgabetasun egoeran dauden adingabeen kasuak tratatzeko diseinatzen den esku hartzeko prozesuaren hurrenkera kronologikoari jarraikiko gataizkio.

Hasiera batetik, eskumenen aipatu banaketa izan dugu oinarri, oro har onartu eta ezarri baita. Haren arabera, Nafarroako toki erakundeei dagokie adingabeen babesgabetasun txikiko eta neurrizkoko egoerak antzeman, haiei buruzko adierazpena egin eta halakoetan esku hartzea; babesgabetasun larriko egoerei eta, aldi baterako edo behin betiko, adingabeak familiarengandik bereiztera behartzen duten egoerei

buruzko adierazpena egin eta halakoetan esku hartzea, berriz, Nafarroako Gobernu Adin Txikikoak Babesteko Atalaren eskumena da.

Ildo horretan, atal honen oinarria izanen da kontuan hartzea, lehen mailako zerbitzuek edo oinarrizko gizarte zerbitzuek hasiera bateko egoeraren ebaluazio azkarra egin ondoren, babesgabetasun larriko egoerak zerbitzu espezializatuetara (alegia, Nafarroako Gobernuko Familia Zuzendaritza Nagusiko Adin Txikikoak Babesteko Atalera) bideratzen dituztela. Hark, bere mendeko langileen bidez, lehenik, helarazten dioten egoera egiaztatu behar du. Horretarako, beharrezko ikerketa eta ebaluazio lanak egin behar ditu, eta, askotan, oinarrizko gizarte zerbitzuek kasua bideratzen diotenean ematen dioten informazioa osatu ere egin behar du; bertze zenbaitetan, berriz, hutsetik hasi behar du informazioa biltzen, egoera bertze instantzia batzuek jakinarazten diotelako Atalari, zuzenean.

Beraz, atal honetan, gure helburua Adin Txikikoak Babesteko Atalاک halako egoeretan zer egin behar duen aztertzea izanen da.

Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburuarekin bat, hoako hauek izan behar dute, funtsean, ikerketa fasearen helburuak:

1. Babesgabetasun egoerarik dagoen egiaztatu eta zenbateraino larria den ebaluatzea.
2. Babesgabetasun egoera dagoela egiaztatu ondoren, edo badagoela pentsatzeko arrazoizko eta oinarridun susmoa izanez gero, etxean haurren osasuna eta segurtasuna arrisku larrian dagoen zehaztea eta, beharrezkoa baldin bada, hura babesteko premiazko legezko neurriak hartzea.
3. Hau erabakitzen bada, haurra babesteko premiazko legezko neurriak betearaztea.

Ikerketa fasearen ostean, ebaluatu egin behar da, eta ebaluazioaren helburuek, eskuliburuarekin bat, honako hauek izan behar dute:

1. Babesgabetasun egoera sortu eta irautea eragiten duten banakoaren baitako, familiarreko eta gizarterako faktoreak zein diren jakitea, baita familiarren funtzionamenduaren alderdi onak ere.
2. Babesgabetasun egoerak adingabeen garapen fisiko, kognitibo, psikologiko edota sozialean zer-nolako ondorioak izan dituen ebaluatzea.

3. Haurra eta bere familia tratatu eta laguntzeko beharrak zein diren zehaztea.
4. Gurasoak gaitzeko pronostikoa zein den zehaztea.

8.2.1. Informazioa, artekaritza eta negoziazioa (hitzarmenak)

Egin beharreko lehen lanak (alegia, ikerketa lanak), pentsatzekoa denez, haurrari, haren egoerari eta ematen dioten laguntzari buruz ahalik eta informazio gehien bildu beharrean jarri behar du arreta.

Horretarako, ahal bezainbat informazio bildu behar da adingabeei, haien gurasoei, –baldin badituzte– anai-arrebei, familiarteko harremanei eta baldintzei, babesgabetasun egoera eragiten duten arrazoei eta abarri buruz. Azken batean, kontua adingabeen bizitzako elementuei buruzko informazioa biltzea da, antzematen den arrisku edo babesgabetasun egoera ebaluatu eta, hartara, zuzen erabakitzeko.

Hasiera batean, alor honetan esku hartzeko ezarritako irizpideekin bat, familiari eta adingabearen egoerari buruz datuak eman ditzaketen iturri guztietatik bildu behar da informazioa: soziala, medikoa, psikologikoa eta psikiatrikoa, eskolakoa, Poliziarena...

Gainera, ikerketa fasean, garrantzizkoa da gurasoekin harremanetan jartzea ere, egoerari buruzko zuzeneko informazioa lortzeko eta babesgabetasun egoera konpontzeko zer urrats emanen diren jakinarazteko ere.

Adin Txikikoak Babesteko Atalak aurrez analizatzen dituen espedientei dagokienez, aipatzekoa da zenbaitetan ez dituztela biltzen aipatu txosten guztiak, bereziki, adingabeen eta familien hezkuntza eta osasun arloko egoerari buruzkoak; halere, halakoetan, litekeena da bertze zerbitzu edo erakunde batzuek egindako txostenak aipatzea.

Alde horretatik, Haur eta Gazteendako Planak badio Nafarroako Gobernuko zerbitzu espezializatuek egiten duten ikerketa fasearen ahulguneetako bat dela, oro har, ikerketa eta ebaluazio txostenek datu gutxi ematen dutela haurren egoerari buruz.

Bestalde, gurasoekiko harremanei eta elkarrizketei dagokienez, aztertutako zenbait txostenetan bada aipamen laburrik noiz izaten diren, baina, hala ere, ebaluazio fasean, haurrak babesteko neurriak erabaki aurretik, komeni da nola esku hartzen den xehetasunez

adieraztea; batez ere, gorabehera eta neurririk garrantzitsuenen berri ematea komeni da, prozedurak ez dezan isilpean utz ikerketa fase osoa.

Esku hartzeko eskuliburua horretarako ere da erabilgarria, ikerketaren eta ebaluazioaren edukari eta hura egiteari buruzko informazioa baitakar. Nolanahi ere, gogoan izan beharra dago, larrialdietan eta erabateko arrisku egoeretan izan ezik –halakoetan, beharrezkoa eta halabeharrezkoa da erabakia eta ebazpena azkar ematea–, ezinbestekoa da babes neurriak onartzeko beharrezko informazio oro biltzea, neurri bakoitza zehaztasunez dokumentatzea, baita ikerketan eta ebaluazioan parte hartzen duten profesionalak antzematen dituzten egitate eta ezaugarri teknikoak ere.

Informazio gehiago ematea eta guztia behar bezala azaltzea funtsezkoa da erabakitzeko, eta neurri handiago batean ziurtatzen du azkenean erabakitzen dena egokiena izanen dela. Gainera, erabaki jakin bat hartzea eragiten duten elementuak ikuskatu eta aztertzeko bide ematen du, baita kasuan parte hartzen duten bertze pertsonen kasuan kasuko egitateak eta gorabeherak analizatzeko. Dударik gabe, hartara, segurtasun juridikoa handiagoa litzateke eta hobeto babestuko lirateke adingabeen eta haien inguruko pertsonen eskubideak.

Ebaluazioa egin eta erabakitzeko prozedurei dagokienez, azkenik, oro har eztaba daezina den akats bat egotzi izan zaie: adingabeek eta familiek parte hartze aktibo txikia izatea. Baliteke horren arrazoiak izatea haurrentzako zerbitzuetan erabiltzen diren informazio eta partaidetza bideak eskasak izatea, eta, era berean, litekeena da horren arrazoiak izatea, zerbitzuotako profesionalen lan kantitate handiaz gain, gizarte zerbitzuen funtzionamenduan alor honetan antzematen den joera edo kultura jakin bat: erabiltzaileek gizarte zerbitzuetan parte hartzearen garrantzia txikiagotu edo kontuan ez hartzea. Aldi berean, alor honetan, arrazoirik izan gabe ere, pentsatzen da erabiltzaileak ez daudela hartzen diren neurriak ulertzeko moduan eta prest.

Hori dela-eta, profesionalak esku hartzeko fase honetan duten eginkizunak berebiziko garrantzia du, baina zaila eta oso-oso konplexua ere bada, adingabeen ongizatea bermatzeko beharrezko neurriak hartu behar baitituzte. Horretarako, maiz, adingabeen eskubideen alde egin behar dute gurasoenekin talka egiten dutenean, baina interesen arteko kontraesanak esku hartzea eragotzi eta oztopatzen du, eta horixe da gakoa.

Hortaz, halakoetan, profesionalen egiteko nagusiak haurren eta nerabeen ongizatea bermatzea izan behar du, baina baita gurasoek aukerarik egokienak analizatzen parte har dezaten lortzea ere, eta, horretarako, neurri jakin batzuen desegokitasunaren arrazoiak azaldu behar dizkiete, eta haiei buruz zer iritzi duten entzun.

Alde horretatik, oro har, nabarmentzekoa da, muturreko egoera berezietan izan ezik –litekeena da halakoetan esku hartzen duten profesionalak mehatxatzea ere–, gurasoak seme-alaben ongizateak eta etorkizunak kezkatzen dituela, baita abandonatu egin dituzten zantzu nabariak daudenean ere, eta, hori dela-eta, garrantzizkoa da neurriak aukeratu eta erabakitzen parte har dezaten bultzatzea. Hartara, zenbaitetan, edonork guraso izateko ezgauza dela nabarmentzen duenean sentitzen den ia ezin saihestuzko lehen erreakzioa gainditu daiteke: ukazioa. Zailtasunak izanen lirateke edonola ere, baina uzurtasuna eta esku hartzearen aurkako jarrera hobetu daiteke, eta baita gurasoek laguntza ematea lortu ere.

Zalantzarik gabe, horixe da haurrak babesteko sistemako eta alor honetan aritzen diren profesionalen laneko alderdirik zailenetako bat, baina baita adingabeen beharrei erantzuteko modurik egokiena ere, neurriak ahalik eta baldintza hoberenetan hartzen direla ziurtatzeko, eta adingabeak familiarengana itzultzen laguntzeko.

Jakina, helburuok lortzeko, esparru honetan jarduten diren profesionalak laguntzeko neurriak onartu behar dira: baliabide gehiago eman behar zaizkie eta behar bezala prestatu eta aholkatu behar dira.

Egun erabiltzen diren prozeduren esparruan egiten diren elkarrizketak hori guztia lortzen saiatzen dira, baina, maiz, familiei iruditzen zaie ez dutela behar bezala parte hartzeko aukerarik, dela galdetu egiten ez dietelako, dela galdetu egin bai baina haien iritzia kontuan hartzen ez dutelako; erabakiak jakinarazten dizkiete, baina ez diete erabakitzeko prozesuan parte harrarazten.

Hala ere, kontuan hartu beharra dago iritzi hori baldintzatuta dagoela askotan, familiek ez dutelako onartzen zalantzan jartzea beren betebeharra betetzen duten. Halaber, aintzat izan behar da parte hartzeko aukerak ezin direla oro har eta alde zuzenetik ezarri; aitzitik, kasuan kasuko baldintzatzaileen eta senideen beraien gorabehera pertsonalen eta sozialen arabera dira.

Zalantzarik gabe, haurrak babesteko sisteman sartzea esperientzia zaila da. Osatzen duten elementu guztiak arrotzak dira: ingurune fisikoa, profesionalak, prozedurak, hizkuntza; ez datoz bat adingabeek

ohiko giroan ezagutzen dutenarekin. Deserosotasunaren, ulergaitzasunaren eta nahasmenduaren eta, areago, izuaren ondorioz, halakoetan, adingabeek defentsazko jarrera oldarkorra hartzen dute ezinbestean, eta zailagoa da elkarrizketa, negoziazioa eta, jakina, elkarlana. Azken batean, elkarri hurbiltzeko prozesua bideratzeko modu bakarra informazioa da, bai idatzizkoa eta bai ahozkoa.

Horretarako, baina, gurasoei haien ulermenera egokitutako azalpenak eman behar zaizkie. Izan ere, jakinarazpen formalak hobetu egiten ari dira edukiaren eta luzeraren aldetik, baina haien ezaugarriak hiztegi eta idazkera juridiko administratibo ilunak dira nagusiki; legezko bitartekoak dira, eta bertze neurri batzuek osatu behar dituzte. Gurasoen eta profesionalen arteko elkarrizketek, neurri batean, funtzio horiek betetzen dituzte, baina hobetu egin behar dira, eta informazio gehiago eman. Behin eta berriz egin behar izan arren, oinarritzkoa da babes sistemak nola funtzionatzen duen argitzea, haien kasua non kokatzen den, eta, kasuan-kasuan, zein diren aurrera egiteko balizko konponbideak. Alde horretatik, hizkuntza apalean prozeduraren ezaugarri orokorrei eta haurren zein gurasoen eskubideei buruzko liburuxkak idaztea, dudarik gabe, oso lagungarria litzaieke familiei ezagutzen ez duten eta, ondorioz, beldur ematen dien esparru bati aurre egiteko.

Ildo berean, bertze neurri batzuk ere aztertu beharko lirateke, hala nola, gurasoei halako erabakiak hartzeko osatzen den ebaluazio batzorde teknikora jotzeko aukera ematea. Zaila da, baina, hartara, kasuan kasuko gorabeherei buruzko eztabaida plural batean parte hartuko lukete eta iritzi sendoagoa lukete neurri bat ala bertzea hartzeko arrazoiei buruz.

Bestalde, adingabeen eta nerabeen beraien parte hartzea ere nabarmenki hobetu daiteke. Alor hau arautzen duten legeek iritzia emateko eskubidea xedatzen dute adingabeengan eragina duten auzi guztietan, eta, horrenbestez, haiek babesteko eskumena duen agintaritzak, haiek entzuteaz gain, hitz egin eta, ahal dela, haien iritzia kontuan hartuz erabakitzeko bide egokiak eskaini behar dizkie.

Adingabeek ulertu egingen badute zer gertatzen den babes sistemak esku hartzen duenean, azalpen egokiak eman behar zaizkie: non dauden, zergatik babesten dituzten, galdekatu egiten dituztenak nor diren eta ondoren zer jazoko den argitu behar zaie. Izan ere, haien ulermenera egokitutako azalpen argiak dira behar duten gutxieneko segurtasuna sentiarazteko bide bakarra.

Horregatik, oinarritzkoa da alor esanguratsu horiek guztiak nabarmentzea, esku hartzeko jarraibideak ezarri eta profesionalak egokiro esku hartzen dutela ziurtatzeko, oso memento garrantzitsua baita hau haurren eta haien familien bizitzan.

Azkenik, komenigarria litzateke haurren eta nerabeen ulermenera egokitutako material didaktikoak prestatzea, prozedurekin eta profesionalekin ohitzeko, beraiek eta gurasoek zer eskubide dituzten argitzeko, zer egoeratan dauden eta haiengan eragina duten erabakiak nork hartzen dituen azaltzeko eta erabakiei buruzko iritzia nola ematen ahal duten jakinarazteko.

8.2.2. Bermeak eta laguntza

Adingabeen eta familien parte hartze aktibo txikiaz ari ginela, egoeraren errua, neurri batean, egotzi diogu, esparru honetan, arrazoirik izan gabe ere, pentsatzeari erabiltzaileak ez daudela hartzen diren neurriak ulertzeko moduan eta prest.

Bada, gizarte zerbitzuen gure sistemako bertze akats orokor bat da kexak eta erreklamazioak egiteko sistema formal baina sinplifikaturik ez izatea. Haren bidez, administrazioaren edo epaileen aurrean helegiterik aurkeztu behar izan gabe, auziak ebazteko bide emanen litzateke, bertze profesional batzuen laguntzaz; izan ere, auziok garrantzi txikia dute batzuetan, baina gatazka pizten dute, gurasoen eta kasuan kasuko egoera ebaluatzen duen profesionalaren artean.

Ildo berean, faltan ematen da konponbideak ez bilatzea, hala nola, erreklamazioak ebazteko egitekoa Ebaluazio Batzordeari egokitzea. Horretarako, gizarte edo komunitate zerbitzuen alorrean eskumenik duten profesionalak ere osa dezakete, eta gurasoei, lehen erran bezala, esku hartzeko aukera eman behar zaie; haien konfiantzako pertsona baten laguntza izan dezakete horretarako, lagundu egiteko eta, beharrezko izanez gero, zer nahi duten, zeren beldur diren, zer espero duten eta zenbaterainoko konpromisoa onartzeko prest dauden adierazten laguntzeko.

Bestalde, halako prozeduren esparruan hartzen diren neurriei buruz aholkatzeari dagokionez, aintzat hartu beharra dago, hainbatetan, nahiko luzeak izaten direla, eta kaltetutakoek nekez dutela beren eskubideen berri; halaber, baliteke ez jakitea zergatik kentzen dizkieten seme-alabak. Halakoetan, ez dute doako laguntza juridikoa eskuratzeko aukerarik eta, hortaz, legelari batek prozedura epaitegira heldu artean zuzenbide aldetik aholkatu eta orienta ditzan. Bitartean, ordea, litekeena da familiek seme-alabekiko

harremanik ez izatea nahiko denbora luzean eta beren burua nola defendatu argi ez izatea.

Babes sistemaren alderdi juridikoari buruz aritu garenean argitzen ahalegindu garenez, alor honetako prozedura teknikoak nabarmenki konplexuak dira, eta jurisdikzio zibilean eta zigor eta administrazio arloko jurisdikzioetan izan dezakete eragina. Alde batetik, Kode Zibileko lehenengo liburuak arautzen dituen gai zibilak bideratzen dira, guraso ahala erabiltzeari berez dagozkion betebeharrei buruzkoak oro har. Administrazioak esku hartzen du halako prozeduretan, haurrak babesteko erakunde publikoa den aldetik, eta adingabeak babesteko administrazio espedienteak abiarazten ditu. Haiek bideratu ostean, adingabeen eskubideak, interesa eta ongizatea babesteko neurriak hartzen ditu, baina haien aurka egin eta errekursoak aurkezteko eskubidea dute gurasoek, guraso ahalaren jabe diren aldetik.

Bertze alde batetik, tratu txar mota jakin batzuk gertatzen direnean, zigor legediaren kontrako delitu jakinen adierazgarri tipikoak (kalteak, sexu askatasunaren aurkako delituak, etab.) jazo daitezke, eta baliteke haiek aipatu prozedura zibilekin eta administratiboekin batera bideratzea, zigor arloan. Hori dela-eta, are beharrezkoagoa da ebazpena azkarrago eta zaluago ematea, eta esparru honetako instantziek adingabe bakarraren inguruko auzi eta prozedura judizial guztiak kasu edo espediente bakarraren esparruan tratatzea, epaileek zigor arloan ematen duten ebazpenak ondorio larriak izan ditzakeelako administrazio publikoak bideratzen dituen prozeduretan.

Horregatik, justizia administrazioaren esparruan betiere, begi bistan dago neurriak hartu behar direla, beharrezko baliabideak izan eta halako egoeretan behar bezain azkarrak izateko, eta epaitegietako egungo profesionalek laguntza izateko lanean. Izan ere, gaur egun lan gehiegi dute atzeratuta, baina, hartara, hain eginkizun esanguratsua betetzen jarrai lezakete berdin-berdin eta, jakina, horrek guztiak bizkortasunean eta hartzen diren neurrietan ere izanzen luke eragina.

Alderdi bakoitzaren mailari dagokionez, berriz, argi eta garbi dago baliabideen eta bitartekoen aldetik berdintasunik eza handia dagoela halako prozedurak bideratzen direnean. Administrazioa da haurrak babesteko erakunde publikoa, eta, babesgabetasunari aurre egiteko hartzen dituen neurriek kalte egiten dietenean edo haren edozein erabakirekin ados ez daudenean, gurasoek legediaren berri izan gabe eta haien inguruko prozedurei buruz oinarrizko ideiarik ere izan gabe aurre egin behar diote. Hots, alderdi batek (administrazio publikoak) administrazioko teknikariek onartzen dituen ebazpenak (babes neurriak) bermatzeko ematen dituzten froga teknikoak erakuts ditzake,

baina bertze batek (adingabeen familiek) ez du haiei aurre egiteko argumenturik aurkezterik.

Azkenik, kontuan hartu beharra dago halako prozedurak ahalmen ekonomiko txikia duten pertsoneri buruzkoak izaten direla oro har, oinarrizko udal gizarte zerbitzuen erabiltzaileei buruzkoak. Hori dela-eta, ezin eztabaidatuzkoa da peritu pribatuen frogak ordaintzeko ahalmen ekonomikorik ez dutela, eta, horregatik eta frogak aurkeztea alegatu egiten duenari dagokiola xedatzen duen prozedurazko printzipioa aplikatu beharragatik, interesdunek beren burua babesteko modu bakarra prozeduraren bideekiko desadostasuna adieraztea da; izan ere, auziaren muinari buruz ezer gutxi egin dezakete, txostenen edukiaren kontra protesta egin edo desadostasuna adieraztea izan ezik.

Alabaina, Doako laguntza juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak xedatzen duenez, bi baldintza jazo beharko lirateke haien eskubideak hedatu eta peritu pribatuen frogak ordaintzeko: alde batetik, administrazioan dena delako froga egiten ahal duen teknikaririk ez izatea eta, bertze aldetik, epaileak edo auzitegiak horixe erabakitzea, frogabide hori onartzeko ebazpenaren bitartez.

Hori guztia arautzea Estatuaren eskumena da, Konstituzioko 149. artikulua ezartzen duenez, baina araudiak estu mugatzen du perituen frogak doako justiziaren esparruan sartzeko aukera, eta ez du onartzen administrazioak prozedurak bideratzen dituenean. Arartekoaren ustez, ordea, nabarmendu beharra dago doako laguntza juridikoa izateko eskubidea hedatu behar dela, hain zuzen ere, abokatu defentsariak administrazioak prozedura bideratzen duenean (batez ere, babesgabetasunari buruzko adierazpena egiteko prozedura hasten duenean) parte hartzeko.

Eskubide hori onartu egin dute dagoeneko zenbait autonomia erkidegotan, eta, administrazioa halako prozedurak bideratzen hasten denetik, horri esker, gurasoek behar bezala prestatutako eta esparru honetan trebatutako zuzenbide arloko profesionalen aholkularitza izan dezakete. Gainera, ahal dela, profesionalok ofiziozko txanda espezializatuetan aritu beharko lukete, bertze alor batzuetan bezala, mintzagai dugun esparruaren espezifikotasun eta zailtasun teknikoak direla-eta, eta neurriak behar bezain azkar hartu beharko lirateke, bai administrazioan eta bai epaitegietan. Horretarako, baina, prestakuntza mailak eta iaiotasunak eskakizunekin bat etorri behar dute.

Planteamendu garrantzitsua da hori. Izan ere, berriro ere errepikatuko dugu interesdunek, oro har, ez dutela batere prestakuntzarik zuzenbide

arloan eta baliabide ekonomiko urriak dituztela eta, ondorioz, eskubideak erabiltzeko, abokatuen aholkularitza lortzen dutenerako, epaitegian daudela. Ordurako, administrazioak abiarazitako espedienteak amaitutzat eman dute, eta litekeena da interesdunek beren asmoen kalterako agerraldiak, alegazioak eta adierazpenak egin izana haren esparruan eta, askotan, araudiak beren buruak defendatzeko ematen dizkien aukera guztiak agortu ez izana.

Gainera, profesionalek, eremu honetan espezializatuta dauden eta kaltetuak haiekin fida daitezkeen heinean, prozeduraren fase honetan lagundu eta babestu egiten dituztenez gero, gurasoen eta esku hartzen duten teknikarien artean ezinbestean izan beharreko elkarrizketa eta harremana bideratzen lagun dezakete, ahalik eta normalizatuena izan dadin, eta gurasoen uzurtasuna eta esku hartzearen aurkako jarrera hobetzen.

8.2.3. Jakintza arlo askotako profesionalen artean erabakitzea (Ebaluazio Batzordea)

Kasuan kasuko gorabehera oro ikertu eta, batez ere, ebaluatu ondoren, adingabeen babesgabetasun egoerari buruz erabaki behar da, eta haiek familiarengandik bereiztea dakarren neurri bat hartu edo familiaren baitan utzi. Erabakitzeaz gain, baina, esku hartzeko eta onartzen diren prebentzio neurrien bilakaera ikusi eta haren jarraipena egiteko beharrezko estrategia ere finkatu behar da.

Gainera, berriro nabarmenduko dugu, erabakitzeko, gurasoek, adingabeek –garapen eta heldutasun mailarekin bat– eta kasuan-kasuan esku hartzen duten profesionalek eta zerbitzuek ahal bezainbat parte har dezaten lortu behar dela. Aldi berean, gurasoei eta hurrei informazio osoa eta ulergarria eman behar zaie haien banakako edo familiareteko egoeran eragina duten erabaki guztiez, 1/1996 Legeko 9. eta 22. artikuluek diotenari jarraiki.

Ildo horretan, lehenago ere adierazi dugu haurrak babesteko zerbitzuek erabakitzen dutena taldeka erabaki behar dela, inola ere ezin duela profesional bakarrak erabaki. Horretarako, alta, profesionalek trebakuntza espezializatua behar dute.

Halaber, oinarritzko gizarte zerbitzuetan halako erabakiak hartu behar direnean zer gertatzen den ere azaldu dugu, alegia, alor honetan prestakuntza txikia duen profesional batek erabakitzen duela maiz.

Alabaina, ez gara aritu Adin Txikikoak Babesteko Atalak hartzen dituen erabakiez. Bada, Nafarroako Foru Komunitatean haurren

babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburuak, kasuan-kasuan arduradun tekniko bat izanda ere, lantaldean erabaki beharraren garrantzia ezartzen du jardunaren printzipiotzat, bertzeak bertze, eta Haurrak Babesteko Ebaluazio Batzordeari egokitzen dio erabakiak hartzeko erantzukizun nagusia. Ebaluazio Batzordea kide anitzeko organoa da, eta, eskuliburuarekin bat, honako eginkizun hauek ditu:

- Adingabeak legezko babesgabetasun egoeran daudela adieraztea.
- Adingabeen tutoretza bere gain hartzea, babesgabetasun egoeran daudelako adierazpena egiten denean edo epaileen ebazpen batek horixe ezartzen duenean.
- Gurasoen eskariari edo epaileen ebazpenari erantzunez, adingabeen gaineko zaintza bere gain hartzea.
- Baliabidea aldatzeko eta espedientea amaitutzat emateko proposatzea.
- Adingabeak erietxe psikiatriko batera bidaltzeko proposatzea.
- Epaileen esku dauden espediente guztiei buruzko proposamenak ebaluatzea.
- Adoptatu aurreko harrerei buruzko proposamenak egitea.
- Dagokion epaitegiari harrerei eta adopzioei buruzko proposamenak egitea.
- Dagokion epaitegiari erantzukizun penala duten adingabeei buruzko proposamenak egitea.
- Adingabeen eta haien gurasoen, senideen eta ingurukoen arteko harremanen erregimena ezartzea.
- Haurrak babesteko erakundeak eta zerbitzuak koordinatzea.
- Alor honetan eskumenik duten organo judizialekin elkarlanean aritzea.

Praktikan, berriz, Batzordea oso egoera bereziak aztertzeko bertzerik ez da biltzen, teknikarien ustez dena delako egoera analizatu behar duenean, baina teknikariek beraiek ere jotzen dute komenigarri eskuliburuak hasiera batean egokitzen dizkion egitekoak bere gain hartzea, haien lanean onuragarria izanen baita; hala ere, jakin badakite, baliabideen egungo egitura ikusirik, ezinezkoa dela Batzordea behar bezainbatean eta behar bezain sarri biltzea.

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea garatzeko foru dekretuaren proiektuak ere Batzordearen egitekoa mugatzearen alde egiten du, eta Esku hartzeko eskuliburuak esleitzen dizkion eginkizun zabalen kontra. Zehatz-mehatz, honako funtzio hauek baino ez dizkio egokitzen aipatu testuak:

- a) Babesgabetasun egoerei buruzko adierazpena egiteko eta hura bertan behera gelditzeko proposatzea.
- b) Baliabideak eta babes mota aldatzeko proposatzea, salbuespenezko egoeretan.
- c) Salbuespenezko egoeretan, babesgabetasun egoeran, gatazka sozialen batean murgilduta edo zentzatzeko etxeetan dauden adingabeak babesteko neurri guztiak proposatzea.
- d) Lege eta arau mailako arauak egokitzen dioten bertze edozein.

Ildo berean, Batzordearen osakerari dagokionez, foru dekretuaren proiektuak egungo egoerari eusten dio, eta egungoaren antzekoa izan behar duela xedatzen du. Zehazki, honako hauek osatu behar omen dute:

- a) Buruak (Adin Txikikoak Babesteko Ataleko buruak).
- b) Batzordekideek
 - Adingabeak Familietan Hartzeko eta Adoptatzeko Bulegoko buruak.
 - Zailtasun edo Gatazka Sozialak dituzten Adingabeak Laguntzeko Bulegoko buruak.
 - Dena delako auziaz arduratzen den lantalde teknikoko bi ordezkariak.
 - Atalean sortzen diren bulegoetako buruak.
 - Gatazka eta Berreziketa Lantaldeko ordezkari batek.
- c) Idazkari batzordekideak (Familia Zuzendaritza Nagusiari atxikitako eta haurren babesean espezializatutako administrazio publikoko (alor juridikoko) teknikaria

Oro har, Adin Txikikoak Babesteko Ataleko lantaldeetako arduradunen erranetan, erabakiak irizpide tekniko zorrotzei jarraiki hartzen dituzte, kasuan kasuko egoeran esku hartzen duten profesionalen artean, egiaztatutako egitateen eta adingabeen beraien gorabeheren arabera, eta, betiere, arduraren eta lehentasuna adingabeen babesari emateko printzipioaren esparruan esku hartzen saiatzen dira.

Dena delako egoera aztertzeko eta beharrezko neurriak proposatzeko txostenak dagokion lantaldeko bi profesionalak egiten dituzte: gizarte langile eta gizarte hezitzaile banak, bi gizarte langilek edo bi gizarte hezitzailek, edo gizarte langile edo hezitzaile batek eta psikologo batek. Hala ere, jakinarazi digutenez, egoerak eta proposamenak

bertze taldekideekin lantzen eta eztabaidatzen dituzte sarritan, informalki bada ere.

Txostenei beraiei dagokienez, ikusi dugu berriki egindako txostenak luzeagoak eta xeheagoak direla espediente zaharrak baino, espediente zaharren edukia nabarmen eskasagoa dela. Era berean, ikusi dugu nor aipatzeko joera dagoela nolabait, batzuetan, txostenak bertze zerbitzu eta erakunde batzuek egindako txostenetan oinarritzen baitira; hori dela-eta, arriskua dago itxuraz hainbat erakundetan eta pertsonatan oinarritzen den informazio corpora biltzeko, baina informazio hori kanpokoekin ere osatu behar da.

Txostenak egin ostean, Adin Txikikoak Babesteko Ataleko buruari aurkezten zaizkio, eta hark edukia eta proposamenak aztertu eta Familia Zuzendaritza Nagusiari jakinarazten dizkio, iritzia eman dezan. Azkenean, zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, Zuzendaritzak adingabearen egoeraz erabakitzen du eta, beharrezkoa bada, zer neurri hartu behar diren ebatzi. Dena dela, jabetu gara, noizean behin, txostenak proposatutako neurria onartu edo abian jarri ondoren formalizatzen direla.

Arartekoaren ustez, berriz gogora ekarri beharra dago oso garrantzitsua dela halako erabakiak lehen aipatutakoa bezalako batzorde bati jakinarazi eta proposamenak egiteko aukera ematea; batzordea askotariko profesionalek (gizarte langileek, hezitzaileek eta psikologoek) osatu beharko lukete, eta, kasuan-kasuan har daitezkeen erabaki guztietan, onena aukeratzen dela ziurtatzeko bertze berme bat da.

Gainera, batzordeak benetako ebaluazio lana ere egin beharko luke, eta ebaluazioa espedienteetan dokumentatu, ebazpen fasean gogoan hartzen dena espedientetik kanpo ez gelditzeko. Horretarako, orobat, akta edo antzeko dokumenturen baten bidez, batzordearen hausnarketa behar bezala azaldu beharko litzateke, proposatzen diren konponbideak egokienak direla egiaztatzeko eta batzordekideen arrazoiak eta iritziak agertzeko.

Halako formalitateak ez dira bete gabe utzi behar, eta profesionalek ez dituzte jo behar lan egiteko oztopotzat; aitzitik, administrazioaren esku-hartzearen egokitasuna bermatzen dute. Azken batean, onartezina da, prozesuaren ekonomiaren printzipioan hainbertze oinarritzearen ondorioz, segurtasun juridikoaren printzipioa guztiz ahultzea eta adingabeak ez ikustea argi administrazioaren jardunaren gardentasuna.

Batzordearen funtzionamenduari dagokionez, bestalde, agian komeni da babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako laguntzaren arloan aritzeko bitartekoak dituzten erakunde publikoetako eta pribatuetako ordezkariak eta bertze profesional batzuei (hala nola, oinarrizko gizarte zerbitzuakoei eta komunitate zerbitzuakoei) batzordean parte hartzeko aukera formala ematea, kasuan-kasuan aholkatu egin dezaten.

Fiskaltzak ere izan dezake eginkizunik batzordearen barnean, adingabeen interesak babesten. Egia erran, indarrean dauden arauak eta prozedurek Fiskaltzari informazioa ematera behartzen dute eta harrera etxeak zaintzen esku hartzerak behartzen dute hura, baina oso baliagarria izan daiteke aldi-aldi biltzen den eta esku hartzeko proposamenak formalizatzeko ahalmena duen batzorde batekin elkarlanean aritzea erakundeak koordinatu eta erabakiak jakintza arlo askotako profesionalen artean hartzen aurrera egiteko. Komeni da aukera hori ere aztertzea, bideragarria den analizatzea, bereziki, epaileen esku gelditu daitezkeen kasuak aztertzeko.

Nolanahi ere, hautatzen den ereduak hautatzen dela, begien bistakoa da, lantalde teknikoek beraiek diotenez, egungo baliabide formalak nahiko mugatuak direla egungo beharrei erantzuteko, eta, egun, egoera horretan, nekez onartuko dutela batzordeak erran bezala funtzionatzea.

Adingabeak babesteko legezko neurriren bat hartu behar den ala ez erabaki eta, baiezkoan, neurriak egokiena onartu ondoren, garrantzizkoa da dena delako kasua edo egoera bideratu edo jakinarazten duen pertsonarekin berriro ere harremanetan jartzea, lehenago erran dugunez; hots, erabakia kasua jakinarazi edo bideratzen duenari helaraztea. Aurreko atal batean azaldu dugu jada zer garrantzitsua den hori pertsona horrek babes sistemak esku hartzeko eta dagokion ardura bere gain hartzeko, eta, bereziki, zenbaterainoko garrantzia duten halako jardunbideek profesionalen artean; halaber, zehaztu dugu hori guztia isilekotasun printzipioa onartu beharrik ezartzen dituen mugen barruan egin behar dela betiere.

Azkenik, fase honetan esku hartzeko garaiaz edo epeez hitz egin beharrean gaude ezinbestean. Izan ere, denboraren joanak izugarritzako eragina du babesgabetasun larriko egoera guztietan, are gehiago kontuan izanik haurrak oso txikiak direla jazo daitezkeela.


Nabarmendu beharra dago halako prozeduren kaltetu nagusiak adingabeak beraiek direla. Haien babesteko neurriak hartzen dira,

baina neurriok zaluak, berehalakoak izan behar dute, eragingarriak izanen badira. Alde horretatik, inola ere ezin da konparatu ondarearen gaineko eskubide ekonomikoko huts bat galdu eta hartaz gabetzea eta pertsonen giza izaerari dagozkion eskubideak (familiarterko harremanak) galdu eta haietaz gabetzea, denbora igarotze hutsak bidegabe bihur baititzake hainbat erabaki, teknika juridikoaren ikuspegitik eztabaida ezinak izan arren.


Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburuak esku hartzeko denborazko alderdiari buruzko zenbait aipamen dakar, haren garrantziaren adierazgarri.

Eskuliburuak esku hartzeko honako epe hauek ezartzen ditu aztertu ditugun faseetan (kasuaren berri izaten denetik erabaki eta erabakia egoera konpontzeko plana onartuz formalizatu artean –geroago arituko gara egoera konpontzeko planaz–), laburbilduta:

Haurrak babesteko zerbitzuek (oinarrizko gizarte zerbitzuek eta Familia Zuzendaritza Nagusiak) abiarazitako espedienteen kronograma



Kronogramak ezartzen dituen epeekin aldera ditzakegun datu bakarrak 2003. eta 2004. urteetan egin zuten ebaluazioan azaltzen dira, eta, ikusten denez, esku hartzeko ordura arteko epeak ezarritako denborazko erreferentziak baino nabarmen luzeagoak izatea da joera orokorra. Horrek guztiak eragin handia du halako espedienteetan; izan ere, adingabeak halako adinekoak dira, litekeena da haien egoera konponezin bilakatzea denbora igarotze hutsaren poderioz.



Esku hartzeko epeak eskuliburuak ezartzen dituenak baino luzeagoak dira oraindik, eta horrek eta aurrerago profesional bakoitzak lantzen dituen espedienteei buruz emanen ditugun datuek haurrak babesteko zerbitzuak (fase honetan, Adin Txikikoak Babesteko Atala) tresna eta baliabide gehiagoz hornitu behar direla adierazten dute, berriro ere. Hartara, oro har, ezarritako epeak bete ahal izanen lituzkete, baita laburtu ere, eta ez lituzkete landuko behar bezala lan ditzaketenak baino kasu edo espediente gehiago.

2006an, informazioa eskatu genion Familia Zuzendaritza Nagusiari gai honi buruz, eta zera erantzun zigun:

ZENBAT DENBORA IGAROTZEN DA...

oinarrizko gizarte zerbitzuei susmoa jakinarazten zaienetik arriskua hasiera batean ebaluatzeko txostena egiten den arte?	15 egun
oinarrizko zerbitzuek Adin Txikikoak Babesteko Atalari egoeraren berri ematen diotenetik jakintza arlo askotako profesionalak txostena egin eta neurriak proposatzen dituzten arte?	Hiru hilabete
Adin Txikikoak Babesteko Atalak adingabea familiarengandik bereiztea proposatzen duenetik adingabea harrera etxe batera joaten den edo familia batek hartzen duen arte?	Batere

Familia Zuzendaritza Nagusiari informazioa eskatu genionean, honako galdera hau ere egin genion:

- “Zer sistema aplikatzen dira, babesgabetasun edo arrisku egoeraren larritasunaren arabera, epeak kontrolatzeko?”

Helarazi zigun erantzuna eskasa da argi eta garbi:

- “Adingabeen adinaren eta babesgabetasun arriskuaren arabera, haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburuak ezartzen dituen epeak errespetatzen dira”.

8.3. EGOERA KONPONTZEKO PLANA, ARDURADUNA ETA EBALUAZIOA

Ikerketa eta ebaluazio lana egin beharra eta hartu beharreko neurriak erabaki beharra eragiten duen egoeraren arabera, ondoren, kasuan kasuko egoera konpontzeko plana onartu eta abian jarri behar da. Hasiera batean, esku hartzeko eskuliburuak ezartzen duen prozedurarekin bat, plana Ebaluazio Batzordeak onartu behar du, edo oniritzia eman behar dio, eta, gero, Batzordeak Familia zuzendari nagusiari aurkeztu behar dio, onetsi egin dezan, baina, azaldu dugu dagoeneko, oro har, ez zaizkiola bide horri jarraikitzen, eta Batzordeak oso egoera berezietan bertzerik ez duela ematen iritzia.

Aldez aurretik, dena delako kasuaren arduradun teknikoak eta haren lantaldeak egoera konpontzeko planaren edukia prestatu behar dute, kasuari buruzko hasiera bateko ebaluazioa egin ondoren. Haur eta Gazteendako Planaren eta etengabe aipatzen ari garen esku hartzeko eskuliburuaren arabera, esku hartzeko faseko funtsezko bitartekoa da, adingabe bat behin betiko gizarteratu bitartean hartu beharreko erabaki nagusiak bildu behar ditu eta zailtasun sozialak dituen familia eta haur bakoitzaren egoeran esku hartzen duten zerbitzu guztiek osatu behar dute, batera eta elkar adostuta.

Planaren bertze ezaugarri esanguratsu bat da, hura prestatzeko, ahal dela, zailtasun sozialak dituen familiarekin adostu behar dela eta, ahal dela betiere, familiak onartzen dituen konpromisoak adierazi behar dituela.

8.3.1. Plan orokorra

Dudarik gabe, planean familiarekin adosteari esker, familiek eta adingabeek halakoetan izaten duten ziurgabetasuna argitzen laguntzen da hasiera batean; izan ere, ez batzuek eta ez bertzeek ez dute aurrez

ikusten diren planen eta neurrien berri zehatzik. Edonola ere, plana prestatzeko moduak, oro har, bide eman behar du plana halako moduan egituratzeko, analisisa egitea eta kasuaren gaineko ikuspegi orokorra izatea errazagoa da eta hartzen diren erabakiak oinarridunak dira.

Gainera, garrantzitsuena da planak kasuan-kasuan planteatzen diren erronkei aurre egiteko bide egokiak proposatu behar dituela, eta, horretarako, zerbitzu bakoitzak zer neurri hartu behar dituen eta esku hartzearen helburu nagusia zein den finkatu behar duela. Azken batean, planak babes neurriak koordinatu behar ditu eta, babes sistemak hartzen dituen neurriak ez ezik, zuzeneko zerikusia duten bertze sistema batzuekiko (hezkuntza eta osasun sistemarekiko, gizarte zerbitzuekiko eta adingabeak laguntzeko gainerako administrazioekiko) harremanak ere bildu behar ditu.

Helburu horiek guztiak lortu behar ditu, hain zuzen, esku hartzeko eskuliburuaren araberako egoera konpontzeko planak. Zehazki, honako hauek dira agertu behar dituen datu edo aldagai nagusiak:

- 1) Adingabearen eta haren familiaren datu pertsonalak.
- 2) Kasuaren aurrekariak
 - a) Familiaren historiako aurrekariak.
 - b) Aurrez familian esku hartu den (baiezkoan, zer baliabide erabili diren eta legezko zer babes neurri onartu diren).
- 3) Esku hartzearen helburua
 - a) Ebaluazioa, esku hartzea.
 - b) Familia babestea.
 - c) Familia aldi baterako banandu eta berriz elkartzea.
 - d) Adingabea familiarengandik behin betiko bereizi eta familia berri batean barneratzea, familia biologikoaren bisitak izanik ala gabe.
 - e) Adingabea familiarengandik behin betiko bereizi eta bere kabuz bizitzeko prestatzea.
 - f) Adingabea familiarengandik behin betiko bereizi eta harrera etxe espezializatu batera joatea.
- 4) Adingabearekin eta familiarekin lortu beharreko helburu orokorrak.
- 5) Helburuak lortzeko epeak.
- 6) Legezko neurririk hartu behar den eta, baiezkoan,
 - a) nolakoa izan behar duen: tutoretza (dela administrazioarena, dela epaileena) edo zaintza;

- b) bananduta egoteak zenbat iraun behar duen;
 - c) adingabea babesteko zer baliabide espezifiko erabili behar den: familia hedatuan edo harena ez den familian hartzea, harrera etxera joatea, adopzioa...;
 - d) zer baldintzatan hartu behar den, iraunaldiaren, kokalekuaren eta adingabea hartzen duen familiaren edo zentroaren ezaugarrien aldetik: zerbitzu terapeutiko edo hezkuntza zerbitzu bereziak behar dituen, familiako edo zentroko bertze adingabeak zer adinetakoak diren, etab.;
 - e) adingabeek senideak bisitatzeko erregimenak nolako izan behar duen: haiek bisitatzera duen, zenbatean behin bisita ditzakeen, kanpo ikuskatzailerik izan behar den...;
 - f) eta zer baliabide juridiko proposatu behar diren.
- 7) Bai adingabearen ingurunean eta bai familian hartu beharreko bertze neurri batzuk
- a) Zerbitzu espezializatuak (hala nola, familian esku hartzea).
 - b) Komunitatearen zerbitzuak (hala nola, eskolak, osasun etxeak, kultur eta kirol patronatuak, ludotekak, gazte elkarteak, emakume elkarteak eta oinarrizko gizarte zerbitzuen esparruko bertze programa batzuk).
 - c) Bertze zerbitzu edo baliabide espezializatu batzuk (hala nola, adimen osasunaren alorreko zentroak eta drogaletasuna tratatzeko zerbitzuak).
- 8) Planik egokiena zein den, zer ezberdintasun dauden proposatzen den planaren aldean eta zer dela-eta ez den gauzatzen.
- 9) Gertakizunen arabera plana, gorabehera berriak direla-eta, erabaki jakin batzuk aldatu behar direnean gauzatu beharrekoa.
- 10) Familiarekin eta adingabearekin egindako hitzarmenak eta haiek onartutako konpromisoak-
- 11) Kasuan kasuko arduradun teknikoak.
- 12) Kasua berrikusteko epea.

Aldaera horiek guztiak mamitzearren, esku hartzeko eskuliburuak kontuan izan beharreko oinarrizko hainbat printzipio edo irizpide ezartzen du, baita proposamenak egiteko ere.

Ildo horretan, berebiziko garrantzia aitortzen dio plana gauzatzen esku hartzen duten eragileekin bat planaren inguruko hitzarmenak proposatu eta haietan adosteari: adingabeen jatorrizko familiarekin;

horretarako adina eta gaitasunik badute, adingabeekin beraiekin; familia zerbitzuekin; egokia bada, kasuan-kasuan, esku hartzeko prozesuan zuzenean parte hartzen duten komunitateko bertze zerbitzu batzuekin; harrera etxearekin edo familiarekin; eta kasuan-kasuan esku hartzen duten bertze pertsona edo zerbitzu batzuekin.

Dena dela, babes sistemaren lehentasunak familiaren batasunari eustea izan behar duela aipatzen duenean, behin eta berriro adierazi dugunez, nabarmentzen du bereziki esanguratsua dela familiak birgaitzeko esku hartzen duten zerbitzu guztiak elkarrekin koordinatzea neurriak hartzen dituztenean.

Esku hartzeko eskuliburuak ere nabarmentzen du esku hartzearen ezaugarri hori, eta zera dio:

“Babesgabetasun larriko egoerak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura bideratzen dira —egun, Adin Txikikoak Babesteko Atalera— eta hark hartzen ditu bere gain, baina, hala ere, bertze zerbitzu batzuek familiaren baitan esku hartzen jarraitzen dute. Horregatik, erakundeak elkarrekin koordinatzea oinarrizkoa da, I. kapituluko printzipioek beraiek diotenez.

Gogoan izan beharra dago, adingabeak familiarengandik bereizi arren, askotan, komunitateko zerbitzuek familia laguntzen jarraitzen dutela, eta, hain zuzen ere, haiek deitzen dituztela ia beti haurrak babesteko zerbitzuak. Hori dela-eta, familia askok eta askok uste dute oinarrizko gizarte zerbitzuekin dutela harremanik estuena eta haiengana jo dezaketela behar dutenean, hartzen ari diren neurriekin ados ez daudela adierazi nahi dutenean.

Halaber, gogoan izan beharra dago, familiak berriz elkartzeko programaren helburuak lortzean, oinarrizko gizarte zerbitzuen esku gelditzen direla, edo oinarrizko gizarte zerbitzuen esparruan aritzen diren osasun etxeen laguntza eskatzen dela. Horregatik guztiagatik, haurrei eta familiei neurri koherente eta eraginkorrak eskaintzeko, biziki garrantzitsua da instantzia guztiak elkarrekin komunikatu eta koordinatzea”.

Eskuliburuak bertze hausnarketa bat ere egiten du eta zera dio, logikari jarraiki: egoera konpontzeko planaren proposamenak eta, beraz, planak berak bideragarri izan behar dutela. Izan ere, batzuetan, zerbitzuek ez dituzte eskura egoera bakoitzari aurre egiteko baliabiderik egokienak, eta litekeena da kasuan-kasuan baliabide edo zerbitzu jakin batzuk behar direla pentsatzea baina, praktikan, haiek

erabili ezin izatea, edo behar bezalako baldintzetan erabili ezin izatea. Halakorik gertatzen denean, bertze aukera batzuk bilatu behar dira, kasuan kasuko beharrei erantzuten dietenak eta, aldi berean, bideragarriak direnak.

Azken batean, kasuan-kasuan esku hartzeko irizpide objektibo oro baldintzatuta dago, zer baliabide erabil daitezkeen. Administrazioako zerbitzuen bertze esparru batzuetan ere gertatzen da hori, baina alor honetan are okerragoa da, neurrian onuradunek aparteko begirunea merezi dutelako, eta baita Nafarroako Foru Komunitateko egoera bera dela eta.

Esate baterako, esku hartzeko eskuliburuak dioenez, 2003. urteko Haur eta Gazteendako Planeko 6. programarekin bat, familiak laguntzeko bigarren mailako programa finakoak oro har sortzekoak ziren, baina, eskuliburuarekin berarekin bat, gaur egun, baliabideok ez daude oro har erabilgarri eta ohikoa da bertze baliabide batzuk erabili behar izatea. Desordena esanguratsu horren ondorioz, baliabideak beharretara egokitzen diren ebaluatzen, planik egokiena eta proposatutako plana bereizten ditugu. Hartara, datu fidagarriak bil daitezke baliabide edo zerbitzu berrien behar espezifikoetarako buruz.

Bestalde, egoera konpontzeko plana bera eta planak sortzen diren gorabeheren berri ematea berme elementuak dira: dena delako egoeraren bilakaera eta hartzen diren erabakiak analizatzeko bitarteko esanguratsua ez ezik, adingabeek familiaren baitan jarrai dezaten saiatzeko neurriak hartu dituztela egiaztatzen elementu argiak dira; izan ere, bertzeak bertze, baliteke epaileek edo epaileek osaturiko organoek aztertu behar izatea gurasoen aurkakotasuna familia banandu behar izateari.

Nolanahi ere, Adin Txikikoak Babesteko Atalean ikusitako espedienteek ez dute lotura handirik aipatu formalitate horiekin guztiekin. Espediente batzuek badakarte "esku hartzeko plana" delakoa, kasuan kasuko egoera konpontzeko planaren ordezkotzat har daitezkeen dokumentu labur bat hartako zenbait aldagai adierazten dituen neurrian, baina ez da aipatu bezain sakona eta zehatza.

Ildo berean, Ataleko profesionalen arabera, kasuan-kasuan esku hartzen duten zerbitzuak elkarrekin koordinatuta daude eta dagozkion neurriak betearazteko oinarriko printzipioei eta irizpideei funtsean jarraitzen zaizkie, baina, berriro ere, hori guztia ez da behar bezala azaltzen espedientea osatzen duten dokumentuetan. Dena den, kontuan hartu beharra dago zaila dela prozesu guztia behar bezala

adieraztea, espedienteak egiteko erabiltzen den egitura eta sistema direla eta: batzuetan, askotariko dokumentuek (osasun, gizarte, psikologia eta hezkuntza arloko txostenek, epaileen jakinarazpenek, epaiek, administrazioaren jakinarazpenek eta abarrek) osatzen dituzte, eta, ondorioz, konplexuak eta heterogeneoak dira, eta, hainbatetan, baita deserosoak ere profesionalek eguneroko jardunean erabil ditzaten.

8.3.2. Mailaketa eta proportzionaltasuna

Ikusi dugu dagoeneko, haurren babesaren esparruan, egungo araudiak esku hartzeko eta onartzen dituen neurriak mailakatzeko ahalmen handia egokitzen diola administrazioari, hark, kasuan kasuko berezitasunekin eta gorabeherekin bat, babesgabetasun eta arrisku egoerei aurre egiteko.

Bai 1/1996 Lege Organikoko printzipio gidariak, bai 15/2005 Foru Legekoak horren adierazgarri argiak dira, halako egoeretan adingabeak familian barneratzea eta gizarteratzea bultzatuz esku hartzea sustatzen baitute, komunitatearen laguntza baliabideak-eta erabiliz, adingabeen garapen pertsonalari kalte egiten dioten egoerei aurrea hartuz...

Lehen aipaturiko batzuk errepikatuko ditugu, baina, edonola ere, erran daiteke, esku hartzeko erduei edo aukerei dagokienez, gaur egungo joeraren ezaugarriak honako hauek direla:

- Askotariko beharrei erantzun behar zaiela-eta, askotariko aukerak eta mekanismoak izatea.
- Lehentasuna ematea babes beharrei familia bateratuta mantenduz erantzuteko bide ematen duten neurriei.
- Behar bereziak dituzten familietan esku hartzeko jarraibideak elkarlanean eta parte hartzean oinarritzea, hertsatuta esku hartzeko ereduan baino gehiago.
- Adingabeek haiengan eragina duten neurriak erabakitzen parte har dezaten bultzatzea.
- 10 urtetik beherako haurrak, ahal dela, familiek hartzea, erakundeek (harrera etxeek) baino gehiago.
- Familietan barneratzeko askotariko formulak erabiltzea.
- Pentsatzea hobea izan daitekeela multzo jakin batzuk, hala nola, nerabeak eta anai-arrebak, harrera etxeetan hartzea, hobeto egokitzen direlako haien beharretara eta gogora, eta anai-arrebak ez bereiztea funtsezkotzat hartzea.
- Harrera etxeetan hartzen dituzten adingabeen kopuruak pixkanaka behera egitea.


- Harrera etxe handiak itxi eta hori egiteko gomendatzea eta, haien ordean, adingabe gutxi har ditzaketan eta askotariko ezaugarriak dituzten zerbitzuak sortzea.

Kasuan-kasuan dagokion legezko neurria erabaki eta babesgabetasun edo arrisku egoeran dagoen familian eta adingabearen ingurunean esku hartzeari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburuak halako egoeren babesgabetasun eta arrisku maila zehazteko irizpideak ezartzen ditu eta, gainera, hainbat irizpide tekniko proposatzen ditu beharrezko neurriak hartzeko: Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua proposatzea; behin-behineko edo behin betiko, adingabea familiarengandik zenbat denboran bereizten den erabakitzea; adingabeak eta jatorrizko familiak harremanik izanen duten eta, baiezkoan, zer baldintzatan izanen duten zehaztea; eta adingabea familian (dela hedatuan, dela harena ez den batean) edo harrera etxe batean hartzea edo, azkenik, adoptatzea komeni den aztertzea.

Ondoko tauletan 2002an eta 2004an onartu zituzten neurriak ditugu, baita urtean antzematen diren babesgabetasun egoeren bilakaera ere.

HARTUTAKO BABES NEURRIAK

Hartutako neurriak	babes	Kopurua		Ehunekoak	
		2002	2004	2002	2004
Zaintza		219	229	55,3	53,0
Tutoretza		93	125	23,5	29,0
Batere		84	78	21,2	18,0
GUZTIRA		396	432	100,0	100,0



Adin Txikikoak Babesteko Atalak esku hartzeko erabiltzen dituen baliabideei dagokienez, berriz, taula honetan ikusten da familian esku hartzen den aldien kopurua ezin dela alderatu oraindik adingabeak dela familian, dela harrera etxeetan hartzen dituzten aldien kopuruarekin.

ADIN TXIKIKOAK BABESTEKO ATALAK ESKU HARTZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK

Esku hartzeko erabilitako baliabideak	Kopurua		Ehunekoa	
	2002	2004	2002	2004
Familian esku hartzea	63	81	16,6	18,6
Adingabeak familia hedatuan hartzea	128	151	33,7	34,6
Adingabeak haiena ez den familian hartzea	49	57	12,9	13,1
Adingabeak harrera etxeetan hartzea	138	134	36,3	30,7
Adopzioa	2	13	0,5	3,0
GUZTIRA	380	436	100,0	100,0

Datuon kariatara, nabarmentzekoa da, adingabeak eta haien familiak babesgabetasun egoera sortu eta goiz eta behar bezala laguntzeak babesgabetasun egoerak ez larriagotzen laguntzen duela eta, ondorioz, kasu gutxiagotan hartu behar direla babesgabetasunari luzaroan aurre egiteko edo familia luzaroan banantzeko neurriak.

Hots, hasierako faseetan lagundu eta esku hartzeko baliabideak badaude, argi eta garbi dago askoz kasu gutxiagotan egin behar dela azkenean babesgabetasun adierazpena, eta, neurri berean, kasu gehiagotan jarrai daitekeela adingabeak eta familiak familiartean tratatzen.

Izan ere, pentsatzekoa da esku hartzeko programen eta komunitate laguntzaren eta prebentzioaren hobekuntzak laguntza hobetzea ekarriko duela eta, horregatik, adingabe eta familia gehiago sartuko direla guztira babes sisteman.

Azkenik, lehenago aipatutakoaren ildoan, badirudi, Nafarroako Foru Komunitatean onartzen dituzten neurrien artean, alor honetan esku hartzeko argibideei jarraiki, garrantzi handiagoa ematen zaiola adingabeak familian hartzeari, harrera etxeetan hartzeari baino; gainera, askoz handiagoa da familia hedatuak hartzen dituen adingabeen ehunekoa, haienek ez bertze familiek hartzen dituztenena baino.

8.3.3. Ebaluazioa

Zerbitzu espezializatuek (hain zuzen, Adin Txikikoak Babesteko Atalak) egoera konpontzeko plana egin behar dute, legezko zer neurri hartu behar diren erabakitzeko, eta, ondoren, abian jarri behar da, hau da, proposatutako neurriak betearazi eta esku hartzen duten zerbitzuen eginkizunak eta ardurak finkatu behar dira.

Prozesu guztian berebiziko garrantzia du kasuan kasuko arduradun teknikoak. Horrelaxe deitzen du esku hartzeko eskuliburuak, eta prozesua prestatzeaz eta egoera konpontzeko plana osatzen duten proposamenak sustatu eta koordinatzeaz arduratu behar du nolabait; gainera, haien jarraipena egin ere egin behar du.

Oso ontzat jotzekoa da halako norbait izatea. Izan ere, babes sistemaren zailtasunik handienetako bati (alegia, babesgabe dauden adingabeen behar bezalako jarraipena egin beharri) aurre egiteko ekarpena da, eta egiteko hori pertsona jakin bati egokitzeko modua. Izan ere, babesgabetasun eta arrisku egoeretan esku hartzeko zerbitzuak, neurriak eta aukerak askotarikoak dira eta panorama konplexua eratzen dute, eta, hori dela-eta, koordinazioaren bidez eta babes prozeduran esku hartzen duten profesionalak eta eragileek dagokien erantzukizuna onartuz bakarrik antola daitezke.

Prebentzio edo babes lana hasi eta espedientea abiarazten denetik bertatik, adingabeak eta familiak ere askotariko teknikariek eta pertsonak tratatzen dituzte. Teknikari eta pertsona horiek haien bizitza erabaki eta baldintzatzen dute eta, ondorioz, halako norbait izateak segurtasun eta berme handiagoa ematen die, zalantzak edo gatazkak argitzeko erreferentea den aldetik.

Gainera, arartekoaren ustez, halako erreferente bat sortzeari dagokionez, kontuan izan beharra dago zein den, oro har, gure babes sistemaren egungo egoera, zerbitzu espezializatuetakoa profesionalak eginkizun bikoitza baitute: batetik, adingabeekin eta haien familiekin harremanetan jartzen direnetik, esku hartzeko arduradunak dira, eta, hainbatetan, baita familia banantzearen ere, baina, bertetik, egoera bideratzen saiatzeko arduradunak dira, adingabeekin eta gurasoekin hartu beharreko neurriei buruz adostasuna lortuz eta haiek beharrezko deritzen konpromisoak onartzera bultzatuz.

Gure ustez, eginkizunaren bikoiztasunak hainbat kontraesan edo gatazka pizten ditu hura bete behar duten profesionalen baitan, eta, pentsatzekoa denez, ziurgabetasuna eta nahasmendua sortzen du babes sistemaren erabiltzaileengan (nagusiki, familiengan),

zenbaitetan kontrolatzailletzat eta bertze zenbaitetan laguntzailletzat hartzen baitituzte.

Hori guztia aintzat hartu behar da kasuan kasuko arduradun teknikoaren egitekoak finkatzeko, eta profesional kopuru egokia izaten saiatu behar da, hark behar bezala bereiz eta bana ditzan aipatu bi eginkizunak, kontuan hartu gabe, gaur egun, zer neurri hartzen diren, espedienteak Adin Txikikoak Babesteko Ataleko bertze bulego batera bidera daitezkeela.

Esku hartzeko eskuliburuan oinarrituta, honako eginkizun hauek nabarmen ditzakegu kasuan kasuko arduradun teknikoak bete behar dituenen artean:

- Adingabeari eta haren familiari eta esku-hartzearen bilakaerari buruzko informazioa etengabe biltzea eta informazioa espedientean adieraztea.
- Kasuan-kasuan esku hartzen duten profesionalak zuzendu eta koordinatu eta haiei laguntza teknikoa ematea.
- Kasuan-kasuan esku hartzen duen taldearekin bat, esku hartu artean biltzen den informazio guztia aldian-aldian (adingabeak 4 urtetik gorakoak badira, sei hilabetean behin, eta haurrak txikiagoak badira, lau hilabetean behin) formalki analizatzea eta, beharrezkoa izanez gero, egoera konpontzeko planaren zenbait alderdi aldatzeko proposamenak egin edo, areago, hura berrikustea.

Berriro ere, agerian gelditzen da, eginkizun horiek guztiak betetzeko, zer garrantzitsua den zerbitzu guztietako taldeak eta profesionalak elkarrekin koordinatzea, hartzen diren neurriak betearazteko eta haien jarraipena egiteko. Alde horretatik, nabarmentzekoa da oinarritzko gizarte zerbitzuek egiteko oso esanguratsua izan dezaketela alor honetan, haiek dauden neurrian adingabearen eta familiaren inguruetik hurbilen, baina, horretarako, esku hartzeko ahalmen erreala izan behar dute.

Bestalde, egoera konpontzeko planaren bilakaeraren eta jarraipenaren arabera, azkenean, kasu edo espedientea amaitutzat eman behar da, babes sistemak esku hartzea beharrezkoa ez denean, edo, bestela, adingabea babesteko behin betiko neurri bat erabaki: adingabeak familiarrean jarraitu edo harengana itzultzea, adingabea familia hedatuan edo harena ez bertze familia batean barneratzea, edo adingabea bere kabuz bizitzeko prestatu edo zentro espezializatu batera joateko prestatzea.

Orduan ere, denbora oso aintzakotzat hartu behar da, eta esku hartzeko eskuliburuak behin betiko neurriak erabakitzeko gehieneko epeak ezartzen ditu: haurrak 2 urtetik beherakoak badira, gehieneko epea sei hilabetekoa da; urte eta erdikoa, 2tik 4 urtera bitartekoak badira; eta bi urtekoa, 4 urtetik gorako adingabeak badira.

Alabaina, ohartu gara fase honetan ere ez dagoela ezarritako baldintzetan lan egiteko sistematikarik, espedienteetan ez baita ageri nor den kasuan kasuko arduraduna, ezta datuak biltzeko aipatu era.

Kasu jakin bati buruzko datuen bilketa sistematizatzeari dagokionez, ez da jo behar, ezta gutxiago ere, zuzemen burokratiko gehigarria denik. Aitzitik, abantaila handiak dakartza, bai epe laburrean eta bai luzean, eta, ondorioz, esku-hartzea eraginkorragoa da. Batetik, informazioa ordenatzeari esker, haurren edo nerabearen garapenaren eta haren beharren jarraipen zalua egin daiteke, eta hartzen diren neurriak egokiak diren ala ez ebaluatu aldiari-aldiari. Bestetik, erregistro estatistikoa sor daiteke plangintza egiteko hainbat datu ezinbestekori buruz: babes sisteman sartzen diren adingabeen eta familien ezaugarriak zein diren eta zergatik sartzen diren sisteman, nork bideratzen dituen, nola esku hartzen den, esku-hartzeak zenbat irauten duen...

Jakina, egoera horretan badu eraginik Adin Txikikoak Babesteko Atalak egiteko duen lan handiak eta, horren adierazgarri, Ataleko profesional bakoitzeko kasuen ratioak ditugu.

Haur eta Gazteendako Planak badakar gai horri buruzko aipamenik, eta hainbat ratio ezartzen ditu, orientabide gisa; horretarako, Nafarroako Foru Komunitatetik hurbil dauden edo antzeko ezaugarriak dituzten lurraldeetan haurrak babesten esku hartzen duten zerbitzu espezializatuen funtzionamendua darabil erreferentetzat.

Hain zuzen ere, honako ratio hauek ezartzen ditu, lantaldeen arabera:

**LANGILE ESPEZIALIZATUEN RATIOAK
HAUR ETA GAZTEENDAKO PLANEKO RATIOAK (ORIENTABIDEA)**

	Ratioa profesionalako	
Ikerketa eta ebaluazioa	5	kasu *
Familian esku hartzea	15-20	familia
Adingabeak harrera etxeetan hartzea	25-30	familia
Adingabeak familian hartzea	35-40	espediente
Bereziketa eta gatazka	15-20	adingabe

** Ikerketa eta ebaluazio lana bi profesionalak osatutako lantaldeek egiten dutela jo behar da.*

Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2004. urteko oroitidazkiak ere badakartza gai horri buruz egindako ebaluazioko zenbait datu, baina Departamentuak berak informazio eguneratuagoa helarazi digu, eta, haren arabera, honako hauek dira ratio errealak:

	Ratioa		
	2003	2004	2005
Adingabeak Familietan Hartzeko eta Adoptatzeko Bulegoa	-	41,16	*
Nazioarteko Adopzio Lantaldea	78,5	81,4	68,83
Zailtasun edo Gatazka Sozialak dituzten Adingabeak Laguntzeko Bulegoa	-	68,5	*
Bereziketa Lantaldea	-	68,5	*

* Hurrengo ebaluazioan (2005-2006 tartekoan) zehaztuko dira.

PROFESIONALEKO RATIOAK (KONPARAZIOA)

PROFESIONALEKO RATIOAK	Planeko ratioak		Dakigun azken ratioa
Adingabeak Familian Hartzeko eta Espainiako Adingabeak Adoptatzeko Lantaldea	35-40	espediente	41,2
Nazioarteko Adopzio Lantaldea			68,8*
Adingabeak Ebaluatu eta Etxeetan Hartzeko Lantaldea			
Ikerketa eta ebaluazioa	5	kasu	68,5
Familian esku hartzea	15-20	familia	
Adingabeak harrera etxeetan hartzea	25-30	familia	
Gatazka eta Bereziketa Lantaldea	15-20	adingabe	68,5

Ikusten denez, oro har, benetako ratioak Haur eta Gazteendako Planak orientabide gisa ezartzen dituen ratioak baino askoz handiagoak dira, eta horrek eragina du Adin Txikikoak Babesteko Ataleko profesionalen kasuan-kasuan eman dezaketen laguntzan. Gainera, azkenaldian antzematen dituzten egoerak gero eta ezberdinagoak eta konplexuagoak dira, eta, jakina, gero eta laguntza eta denbora gehiago eman behar zaie, baina, egungo egoeran, zaila da halakorik egitea.

Bestalde, 2004ko behin-behineko ebaluazioaren egileek ez dakigu zer metodo erabili zuten ratioak kalkulatzeko. Beraz, lantalde bakoitzaren kasuen zerrenda bertzerik ez dugu eginen, lantaldeko kide kopuruaren arabera.

GATAZKA ETA BERREZIKETA LANTALDEAREN JARDUNA (LABURPENA)

	Babesa			Berreziketa			GUZTIRA		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
Adingabeak harrera etxeetan	48	58	71	36	20	16	94	78	87
Adingabeak 12tik 18 urtera bitartekoentzako behaketa eta harrera Zentroetan	64	77	92	45	25	14	122	102	106
Kanpoan bete beharreko neurriak				125	137	145	125	137	145
Nerabeak hezteka eta bertze	21	30	28				30	30	28
Ebaluazioak	37	23	12	9	130	180	46	170	192
GUZTIRA	170	188	203	215	312	355	417	517	558
Lantaldeko kideak							2	2	2

ADINGABEAK EBALUATU ETA ETXEETAN HARTZEKO LANTALDEAREN JARDUNA (LABURPENA)

	2004	2005
Zailtasun sozialak dituzten adingabeak ebaluatzea		
Adingabeak 0tik 12 urtera bitartekoentzako behaketa eta harrera zentroetan (Xilema)	63	65
Ebaluatu eta familiarengandik bereizten ez diren adingabeak	?	?
Adingabeak eguneko zentroan	*	19
Harrera etxeetan hartutako adingabeen jarraipena		
Navarra Nuevo Futuro	57	80
Xilema	43	51
Familian Esku Hartzeko Programa	90	96
Bigarren mailako prebentzio programaren barruan dauden adingabeak	109	205
GUZTIRA	362	515
Lantaldeko kideak	5	5


ADINGABEAK FAMILIAN HARTZEKO ETA ESPAINIAKO ADINGABEAK ADOPTATZEKO LANTALDEAREN JARDUNA (LABURPENA)

	2004	2005
Espainiako adingabeak adoptatzeko eskatzen duten familialak	127	151
Espainian adoptatutako adingabeak	4	9
Familia hartzaileak	178	192
Familian hartutako adingabeak	216	228
GUZTIRA	525	580
Lantaldeko kideak	5	5

NAZIOARTEKO ADOPZIO LANTALDEAREN JARDUNA (LABURPENA)

Nazioarteko Adopzio Lantaldea	2004	2005
Familia eskatzaileak	173	175
Adoptatutako adingabeak	133	101
GUZTIRA	306	276
Lantaldeko kideak	5	6

Azkenik, informazio ekonomikoari esker, ikusten da ez direla bete 8. programak, "Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren antolamendua eta esku hartzeko prozedura" izenekoak egitura teknikoak indartzeko egiten dituen iragarpenak.



Hain zuzen ere, hona hemen zenbait iragarpen, hitzez hitz:

- *“Profesionaleko espedienteen ratioak halakoak izatea, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko profesionalen kasuan kasuko beharrei behar bezala erantzun diezaiekete bai zuzenean eta bai zeharka”.*
- *“Profesional mota bakoitza zenbateraino behar den aztertzea eta moten arteko erlazioa zenbakitan ematea”.*

Bertze konpromiso bat, berriz, gauzatu egin da, eta bertze bat gauzatzen ari da: *“Erabakitzeko ardura duten profesionalen aholkularitza juridiko nahikoa eskaintzea, zaintza edo tutoretza administrazioaren esku uztea ebazten badute, batez ere” eta “Sistema bat ezartzea espedienteak informatizatzeko, informazioa zalutasunez eguneratu eta azkar berreskuratzearen eta adierazle*

baliagarriak izatearren Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta, oro har, babes sistema osoaren funtzionamendua ebaluatzeko”.

8.4. FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA ESPEZIALIZATUA

8.4.1. Esparru teorikoa

Erran duguez, bai legezko printzipio gidariek eta bai esku hartzeko eredu teknikoek babes beharrei familiaren batasunari eutsiz erantzuteko neurriei ematen diete lehentasuna, eta familiak elkarlanean aritzearen eta haien parte hartzearen alde egiten dute, hertsatuta esku hartzeko ereduen alde baino gehiago.

Ildo horretan, Haur eta Gazteendako Planaren arau zuzentzaileetako bat honako hau da:

- “Familiak babestea eta zailtasun sozialak dituzten gurasoen laguntza eta tratamendu beharrei erantzutea”.

Familia batuta mantendu eta gurasoak guraso izaten eta egiteko horretan beregain izaten trebatzeko laguntza eta tratamendu zerbitzuak emateak izan behar du hasiera batean babesgabetasun egoeran dauden adingabeen familietan esku hartzeko modua.

Seme-alabak behar bezala zaintzeko zailtasunak dituzten guraso gehienak lagundu egin daitezke, egokiro bete dezaten guraso diren aldetik dagokien eginkizuna. Helburuok lortzea, ordea, zenbait faktoreren araberakoa da, hala nola,

- garaiaz esku hartzearen araberakoa –zenbat eta lehenago esku hartu, orduan eta aukera gehiago daude osatzeko–;
- familiaren arazoen larritasunaren araberakoa;
- gurasoek zenbateraino onartzen dituzten beren zailtasunak eta zenbateraino dauden prest aldatzeko prozesua hasteko;
- eta tratamendua familiaren arazoetara eta beharretara zenbateraino egokitzen den.

Horregatik, oso egoera larrietan izan ezik, babesgabetasun egoeran dauden adingabeen familietan esku hartzeko, lehentasunak gurasoak guraso izaten trebatzea eta familia batuta mantentzea izan behar du.

Haurrak familiarengandik aldi baterako bereiztea beharrezkoa denean, berriz, lehentasunak familia berriz elkartzea izan behar du,

baina, horretarako, haurrak babesteko zerbitzuek osatzeko eta guraso izaten trebatzeko beharrezko laguntza eta tratamendu baliabideak eskaini behar dizkiete gurasoei.

Dela gurasoek uko egin dietelako edo dela eragingarriak izan ez direlako, baliabide horien guztien bidez lortu nahi genituen emaitzak lortzen ez ditugunean eta haurraren ongizatea eta garapena oso kaltetuta edo arrisku handian daudela ikusten dugunean soilik azter daiteke haurra familiarengandik behin betiko bereiztea.

Ildo horretan, Haur eta Gazteendako Planak honako helburu hau finkatzen du:

- Behar izanez gero, babesgabetasun egoera larrian dauden haurren familia guztiek izatea laguntza eta tratamendu baliabideak erabiltzea, haurrak familiarengandik eta ingurune sozialetik ez bereizteko.

Horretarako, bertzeak bertze, honako ekintza hauek egin beharra ezartzen du:

- Zehaztea zenbat familiak behar duten familian esku hartzeko programa espezializatu batek esku hartzea, eta oinarrizko aldagaiak babesgabetasun mota, familia gaitzeari buruzko pronostikoa eta esku hartzearen xedeak (familia batuta mantentzea, gurasoak trebatzea, familia laguntzea, familiaren barnean jazotzen diren sexu abusuak tratatzea edo krisialdietan esku hartzea) izatea.
- Familian esku hartzeko programa espezializatuok abian jartzen dituzten taldeak sortzea; nahiko izan behar dute profesionalen kopuruaren, prestakuntzaren eta malgutasunaren, ordutegiaren eta abarren aldetik, beharrezkoa den kasu guztietan esku hartzeko.

Azken batean, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua eragingarritasunaren adierazleak dira babesgabetasun egoera larrian dauden gero eta haur, gazte eta familia gehiagok parte hartzea halako programetan eta familiarengandik bereizi behar diren haurren ehunekoak behera egitea.

Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua hainbat programatan eta azpiprogramatan banatu izan da, eta, babesgabetasun egoera amaitzea ez ezik, familia osatzea ere du funtsezko helburu. Ildo horretan, programa eta azpiprograma guztiak

bat datoz eta haien esparrua familia osoa da.

Azpiprograma batzuen helburua adingabeak familiarengandik ez bereiztea da, eta bertze batzuen, familiak adingabeak haiengandik bereizi ostean laguntzea, "Jarraipena eta laguntza" atalean ikusiko dugunez.

Programaren baliabideak familia hezitzaileak, laguntza psikoterapeutikoa eta psikiatrikoa eta kasuan kasuko ikuskatzaile koordinatzaileak dira, eta, zer azpiprograma erabiltzen den, neurri batean edo bertzean esku hartzen dute.

Familiartean adingabea zaintzeko erantzukizuna egokiro edo gutxienez bete dezakeen erreferenterik dagoen, Gurasoak Trebatzeko Programa edo Familia "Laguntzeko" Programa aukeratzeko da.

- Gurasoak Trebatzeko Programa. Familia osatzeko beharrezko denbora sei hilabete eta lau urte artekoa izaten da, eta, batez bertze, neurrizko larritasuneko egoeretan eta egoera larrietan, familia hezitzailea astean bizpahiru aldiz joaten da familiaren etxera.
- Familia "Laguntzeko" Programa. Epe luzean esku hartzea da, eta, batzuetan, adingabea beregaina den arte da beharrezkoa. Esku-hartzea intentsiboagoa da, eta, batez bertze, neurrizko larritasuneko egoeretan eta egoera larrietan, familia hezitzailea astean hiru, lau edo bost aldiz joaten da familiaren etxera.

Hala ere, egoera jakin batzuetan are intentsibokiago esku hartu behar da, hain zuzen ere,

- berehala banantzeko arrisku larria dagoenean. Halako egoeretan, oso intentsiboki eta epe laburrean esku hartu behar da, eta esku-hartzeak sei hilabete iraun dezake gehienez ere. Familiak etengabe laguntzeko zerbitzua izan behar da, eta krisialdietan esku hartzen espezializatuta egon behar du, eta profesionalek krisialdietan esku hartzeko prest egon behar dute eta oso luzaroan egon behar dute familiaren etxean.

Baliabideez hornitzeaz gain, programa horiek guztiak komunitate zerbitzuen sarearekin ezin hobeto koordinatu behar dira; ahal bezainbat baliatu behar dute hura. Alde horretatik, bereziki garrantzitsua da adimen osasunaren alorreko zerbitzuekin koordinatzea, eta alkoholismoa eta drogazaletasunak tratatzekoekin, baita haurtzaindegiak, eguneko zentroak eta aisialdia emateko guneak


izatea ere, gurasoek atsedean hartzeko, haurrei estimuluak, laguntza eta tratamendua emateko eta adingabeak familiartean zer moduz dauden eta nola zaintzen dituzten etengabe ebaluatzeko.

8.4.2. Egungo egoera

1994. urterako, Nafarroako Gobernuak tratu txarrak ematen dituzten eta zabarkeriaz jokatzeko duten familietan esku hartzeko lehenengo ekimena abian jarri zuen.

Gaur egun, Programaren esparruan hartzen den neurri ororen jarraipena eta ebaluazioa egitea eta denbora antolatzea Zailtasun edo Gatazka Sozialak dituzten Adingabeak Laguntzeko Lantaldearen ardura da, alegia, Familia Zuzendaritza Nagusiarena, baina esku hartzeko neurriak Pauma enpresak betearazten ditu, Familiar Esku Hartzeko Kanpo Lantalde Espezializatuaren bitartez, harekin eginiko kontratuari esker. Lantaldeak 18 urtetik beherakoak laguntzen ditu, haien gizarte eta familia arazoak haien ingurunean bertan konpon daitezkeenean, adingabea harrera etxe edo etxebizitza batera joan eta deserrotu egin beharrik gabe (ikus 6.2 kapitulua, "Sare espezializatua").

Programak adingabeengan eta haien familietan du eragina, eta adingabeekiko harremana hobetu eta haiek behar bezala zaintzeko aholkatu eta orientatzen du, eta haien inguruko alor guztien jarraipena egiten du, heziketa ikuspegitik: psikologiaren, eskolaren, osasunaren, garapen fisikoaren, familiarren garapenaren, harremanen... ikuspegitik.




Iturria: 2005ko Nafarroako Kontu Orokorren oroit-idazkia

Begien bistan denez, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuaren bidez laguntzen dituzten adingabeen kopurua egonkorra da.

Familian esku hartzeko moduari dagokionez, ondoko grafikoak ageri du familien % 45ek Gurasoak Trebatzeko Programan parte hartzen dutela, eta % 25ek, Familia “Laguntzeko” Programan.

Kasuen bertze % 26an bestela esku hartzen da, baita berehala banantzeko arrisku larria dagoenean ere; orduan, bietara esku hartzen da, baina ebaluazio diagnostikoa ere egiten da adingabeak familia biologikoarengandik bereizi ala ez erabaki aurretik.



Familia Zuzendaritza Nagusiari eskatutako informaziotik ondorioztatzen da, antza, babesgabetasun larriko egoeran dauden adingabe guztien familietan esku hartzen dela nolabait:

“Babesgabetasun larriko egoerak Familia Zuzendaritza Nagusiaren eskumenekoak dira. Adingabeak familiarengandik bereiztea beharrezkoa ez bada, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuan parte hartzen dute, eta familian esku hartzeko orduen kopurua egoeraren larritasunaren arabera da”.

Halaber, Zuzendaritzak helarazitako informaziotik ondorioztatzen da honela banatu zituztela 2005ean babesgabetasun egoera larrian zeuden baina familiarengandik bereizi ez zituzten adingabeak:

**ADINGABEAK FAMILIA BIOLOGIKOARENGANDIK BEREIZI EZ
ETA HURA LAGUNTZEKO PROGRAMAK**

BABESGABETASUN EGOERA LARRIAN DAUDEN BAINA FAMILIARENGANDIK BEREIZI EZ DITUZTEN ADINGABEAK	2005ean lagundutako adingabeak
Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuan	96
Eguneko zentroan	19
Nerabeak hezteko programetan	30
Adingabeen aurkako sexu abusuetan terapeutikoki esku hartzeko programetan	16
Familiak elkarteko gunean	140
Bigarren mailako prebentzio programaren barruan	205 *

*** Adingabeen kopurua eguneko zentroan, Nerabeak Hezteko Programan eta familiak elkarteko gunean parte hartzen dutenen batura da.**

Txosteneko bertze atal batzuetan erran dugun bezala, Familian Esku Hartzeko Programaz ez ezik, eguneko zentroan eta Nerabeak Hezteko Programaren eta adingabeen aurkako sexu abusuetan terapeutikoki esku hartzeko programen esparruan antolatzen dituzten programa anbulatorioez ere baliatzen dira babesgabetasun egoera larrian dauden adingabeak.

Familia Zuzendaritza Nagusiak helarazitako datuarekin bat, 2005ean, babesgabetasun egoera larrian zeuden 205 adingabe lagundu zituzten familiarengandik bereizi gabe, bigarren mailako prebentzio programaren bidez. Teorian, behintzat, ez dirudi programa hori egokia denik babesgabetasun egoera larrian dauden adingabeak laguntzeko, Haur eta Gazteendako Planari jarraiki, "babesgabe gelditzeko arriskuan" daudenak laguntzeko baita eta lehen mailako sareak aplikatu behar baitu.


Gogoan izan beharra dago, babesgabetasun egoera larrietan, laguntza eman beharra Adin Txikikoak Babesteko Ataleko zerbitzu espezializatupei dagokiela nagusiki, adingabeak familiarengandik bereizi ala ez. Oinarrizko gizarte zerbitzuek baliabide mugatuak dituzte familian esku hartzeko, eta ez dirudi dituztenak nahikoak direnik halako egoeretan dauden adingabeen familiarteko arazoan larritasunari erantzuteko.

Bestalde, aipatu bezala, gaur egungo informazio sistemek arreta handiagoa jartzen dute zer baliabide erabiltzen den, adingabeen egoera nola bilakatzen den baino. Hori dela-eta, nahiko zehazki dakigu zenbat adingabe laguntzen dituzten baliabide bakoitzaren

bitartez, baina zaila da ikuspegi orokorra izatea eta zehatz jakitea zenbat adingabe dauden guztira babes sistemaren barruan eta larritasun egoeren maila bakoitzean.

Nabarmenagoa da hori inoiz babesgabetasun egoera larrian daudela jo duten baina familiarengandik bereizi ez dituzten adingabeei buruzko informazioa aztertuz gero. Izan ere, gaur egungo informazio sistemak ez du azaltzen adingabeon unean uneko egoera eta bilakaera, baina pentsatzekoa da haien kopurua handitu egin dela, urteen poderioz.

Azkenik, ondoko grafikoan ikusten denez, Haur eta Gazteendako Planak 9. programaren, "Familian esku hartzeko programa espezializatua" izenekoaren esparruan egindako aurreikuspen ekonomikoen % 90 bete dira.



8.4.3. Hobetu beharrekoak

Hala eta guztiz ere, gure ustez, esleitutako zenbatekoa ez da nahiko finkatutako helburuak lortzeko. Horren adierazgarri, urteotan lagundu dituzten familien kopuru eskasa dugu: kontua ez da hazi egin ez dela, 2006. urtean behera egin duela dirudiela baizik. Hori dela-eta, ondorioztatzen dugu baliabide gehiago behar direla, laguntzen diren familien kopurua handitu eta laguntza nabarmen hobetzeko, baina 2007. eta 2008. urterako aurreikuspen ekonomikoek ez dute xedatzen Familian Esku Hartzeko Programa gauzatzeko zenbatekoa handitzerik.

Gaur egun, kontua ez da esku-hartzea behar duten familia guztiak ez laguntzea, esku hartzeko eskuliburuak berak nabarmentzen duenez; aitzitik, kontua da, egungo mugak direla-eta, esku hartzeko modua eta

intentsitatea eta, are gehiago, esku-hartzearen iraupena, ez datozela bat kasuan kasuko beharrekina eta Haur eta Gazteendako Planak ezartzen dituen baldintzekin.

Alde horretatik, ziurtatu beharra dago Zailtasun Sozialak dituzten Adingabeak Laguntzeko Lantaldeak baliabide nahikoak izatea, Kanpo Lantaldera bideratzen dituzten kasuen jarraipena eta ebaluazioa egiten duela ziurtatzeko ez ezik, baita aurreko urteetako kasu guztien jarraipena eta ebaluazioa behar bezala egiten duela ziurtatzeko ere.

Halaber, gogoan izan behar da, adingabeak familiarengandik bereizten ez badira, arriskua dagoela babesgabetasun larriko egoera bat hain larria ez den bertze batekin nahasteko eta, horrela sailkatzen dugula-eta, kasuari buruzko kezka eta esku-hartzearen intentsitatea txikiagoa izateko.

Era berean, informazio sistemak hobetu behar dira, babesgabetasun larriko egoeran daudela jotzen den baina familiarengandik bereizten ez diren adingabeen egoera nola bilakatzen den zehazkiago jakiteko. Espero dugu programa informatiko berriak helburu hori izan duela, eta lortzera bideratuko dela, hain zuzen ere, Haur eta Gazteendako Planaren esparruan, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuaren bigarren helburua "Programaren eragingarritasunaren berri izatea" baita.

Izan ere, adingabeen egoerari buruz biltzen diren datuen iluntasuna dela-eta, bertzeak bertze, ezin dugu oinarrizko adierazle sistematikorik kalkulatu, familiarengandik bereizi behar diren adingabeen kasuen ehunekoak behara egiten duen neurtzeko.

Hori dela-eta, beharrezkoa da Haur eta Gazteendako Planak ebaluazio sistema hobetzeko finkatzen duen neurria hartzea:

- Eskuliburuak programen estaldura, prozesuak eta emaitzak neurtzeko aipatzen duen sistema ezartzea.

Orobat, komeni da zehaztea zer-nolako eginkizuna duten gaur egungo eta etorkizuneko HNALek babesgabetasun egoera larrian dauden eta familiarengandik bereizten ez dituzten adingabeen epe ertaineko eta epe luzeko jarraipena egiten.

Kontuan hartu beharreko bertze alderdi esanguratsu bat oinarrizko gizarte zerbitzuekiko eta adimen osasunaren alorreko sarearekiko koordinazioa hobetzea da, haien laguntza ezinbestekoa den aldetik programen estaldura zuzena eta lurraldeen arteko berdintasuna

bermatzeko. Dena dela, ezin ahaztu dugu, halako egoeretan, erantzukizun nagusia zerbitzu espezializatuak dagokiela.

Ilido berean, asko falta da oraindik ere haurtzaindegietan, eguneko zentroetan eta aisialdia emateko guneetan behar adina toki izateko, gurasoek atsedean hartzearen, haurrei estimuluak, laguntza eta tratamendua ematearren eta adingabeak familiartean zer moduz dauden eta nola zaintzen dituzten etengabe ebaluatzearen.

Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuak gero eta orokorragoa izan behar du, edo, bestela, gizarte eta hezkuntza arloan oro har esku hartzeko engranaje baten pieza bat izan behar du, oso desegituratuta dauden, gabezia material asko dituzten eta abilezia sozialak ez dituzten familiei behar bezalako laguntza emateko. Horretarako, ziurtatu behar da halako lotura izatea haurrak babesteko programen eta bazterketaren kontrako programen artean, maiz, haurrak babestu behar izateko eta gizartetik bazter geratzeko arrazoiak berdinak baitira eta oro har heldu behar baitaie.

Batez ere, ordea, gogoan izan beharra dago helburua familien batasunari eustea dela, eta, hori dela-eta, zailtasun sozialak dituzten gurasoei behar duten laguntza eta tratamendua eman behar zaiela.

8.5. ADINGABEAK FAMILIAN HARTZEA

8.5.1. Helburua

Haur eta Gazteendako Planean eta esku hartzeko eskuliburuan ditugu alor honetan esku hartzeko modua bideratu behar duten oinarrizko filosofia eta printzipioak.

Haien arabera, nabarmendu beharreko printzipioetako bat da “haurrak babestearen xedeak haurrak familia egonkor eta seguru batean (ahal dela, haienean bertan) barneratzea” izan behar duela.

Dokumentuok diotenez, haur gehienek oinarrizko beharrei erantzuteko ingurunerik egokiena familia da, eta, ahal dela, norberaren familia. Hori dela-eta, haurrak babesteko zerbitzuen helburu nagusi eta lehentasunezkoak izan behar du gurasoak guraso izaten trebatzea, seme-alabak behar bezala zain ditzaten eta familia batuta mantendu ahal izan dadin.

Hartara, haurrak familia biologikoarengandik bereizi behar dituztenean, haurrak babesteko zerbitzuen helburuak familia berriro

elkartzea izan behar du. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da honako hau egitea:

- Gurasoak eta seme-alabak ahalik eta sarrien eta ahalik eta estuen egotea harremanetan, betiere, haur bakoitzaren beharren arabera.
- Gurasoak guraso izateagatik dagozkien ahal bezainbat erantzukizun betetzen uztea eta hori egin dezaten bultzatzea.
- Gurasoei eta haurrei laguntza baliabide espezifikoak eskaintzea, pertsona eta familia gisa osatzeko prozesuan laguntzeko.

Esku hartzeko printzipio edo jarraibide horiekin bat, salbuespenezko egoeretan izan ezik, 12 urtetik beherako haurrak, aldi baterako edo behin betiko, familiarengandik bereizten dituztenean, egokiena da bertze familia batean hartzea; familia banantzea behin-behineko kontua bada, harrera soila edo iraunkorra da, eta, behin betikoa bada, berriz, adopzio aurrekoa. Lehenik eta behin, haurrak familia hedatuan har daitezkeen aztertu behar da, oro har, aukera hobea da-eta hori haiena ez den familian hartzea baino.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, 12 urtetik beherako adingabeak salbuespenezko egoeretan bakarrik har daitezke harrera etxeetan, eta are gehiago 6 urtetik beherakoak, salbuespenezko egoeretan izan ezik, hain haur txikiak halakoetan hartzea desegokia baita. Areago, Ebaluazio Batzordeak behar bezala arrazoitu eta ebaluatu behar ditu salbuespen egoerak eta, hala ere, 6 urtetik beherako haurrek hiru hilabete eman ditzakete gehienez ere harrera etxean.

Azken finean, adingabeak familian hartzea, familiek zaindu ezin dituztenean eta haiek adoptatzea posible edo egoki ez denean, haurrei tarte jakin batean laguntza osagarri edo ordezkia emateko era bat da. Haur eta Gazteendako Planak programa espezifiko bat aipatzen du horretarako, "Adingabeak familian hartzea" izenekoak, eta denbora aldetik antolatu eta hari buruzko aurreikuspen ekonomikoak egiten ditu; hain zuzen, adingabeak familian hartzeko programa 2002tik 2006ra bitartean lantzekoa zen.

Edukiari dagokionez, nabarmendu beharra dago programa bi programa edo azpiprogramatan banatu edo egituratzen dela. Jarraian, bakoitza osatzen duten hainbat jarduera edo ekimen aipatuko ditugu:

A) Familia hartzaileak erakarri, prestatu, aukeratu eta ebaluatzeko azpiprograma

- Informazio kanpaina berriak jartzea martxan, familia hartzaileak erakartzeko.
- Baliabide propioak edo itundutakoak erabiltzea, familia hartzaileen informazio eskaerei erantzuteko eta haiek ebaluatu, prestatu eta aukeratzeko, haurren beharren arabera.
- Adingabeak ez diren familiak haien hartzaile soil izatea eta harrera profesionalizatua bultzatzea.
- Eskuliburuak adingabeak familian hartzeko programa ebaluatzeari buruz aipatzen duen sistema ezartzea, haren estaldura, prozesuak eta emaitzak neurtzeko.

B) Harrera ondoko laguntza eta jarraipen azpiprograma

- Familiak hartzaileak lagundu eta haien jarraipena egiteko programa diseinatzea.
- Baliabide propioak edo itundutakoak erabiltzea, familia hartzaileak lagundu eta haien jarraipena egiteko programa gauzatzeko.

8.5.2. Bildutako datuak

Lehen azpiprogramari eta, zehazkiago, familia hartzaileak erakartzeko egindako lanari dagokionez, jakin badakigu 2004ko urrian kanpaina bat antolatu zutela, adingabeak familian hartzeko programa ezagutarazteko. Haren leloa “Hartu etxean. Hura du lekurik onena” izan zen, eta helburu nagusia, zailtasun sozialak dituzten adingabeak laguntzeko, herritarrek adingabeak familian hartu beharraren kontzientzia hartzea.

Zehatz-mehatz, kanpainak hiru helburu zituen: lehenik, familia hartzaile bihurtzeko, zer prozedurari jarraiki behar zaion jakinaraztea; bigarrenik, adingabeak hartzeko kultura sustatzea, hots, elkartasun eta lankidetzaren alde egitea, familia hartzaileetako adingabeen artean batez ere; hirugarrenik, behar bezain garbi ez dauden kontzeptuak argitzea, hala nola, “harrera” eta “adopzioa”.

Aurrekontua 32.000 eurokoa izan zen, eta, Nafarroako Gobernuak berak emandako informazioaren arabera, kanpainaren esparruan, iragarkiak argitaratu zituzten prentsan, afixa euskarriak egin eta 30.000 liburuxka argitaratu –27.000 gaztelaniaz eta 3.000 euskaraz–, mankomunitateetan eta gizarte zerbitzuetan, osasun etxeetan, ikastetxeetan, udaletxeetan, gizarte etxeetan, familiak eta haurrak laguntzeko elkarteetan eta parroketan banatzeko, bertzeak bertze.

Kanpainak iraun zuen bitartean, guztira, 83 familiak adierazi zuten interesa idatziz eta eman zituzten, beren datuak, eta haietako 60 joan ziren informazioa emateko antolatutako bilerara. Azkenean, 42k bete zuten galdeketa, ebalua zitzaten, eta 23ri adierazi zieten egokiak zirela.

Halere, datu gehiago bildu nahi izan dugu aipatu azpiprogramei buruz, eta, horretarako, informazioa eskatu diogu Gizarte Ongizate Departamentuari. Eskariari erantzunez, Departamentuak honako hau jakinarazi digu:

1. Azpiprogramak eta, bereziki, bigarrena gauzatzeko baliabide espezifikoei dagokienez, lehenik, jakinarazi digu, 2006ko urtarilaren amaieraz geroztik, bertze psikologo batek osatzen duela Adingabeak Familian Hartzeko Lantaldea, familia hartzaileak laguntzeko eta haien jarraipena egiteko.
2. Familia hartzaileei beharrezko laguntza emateko egiten diren jardueren kopuruari eta motari dagokionez, bigarrenik, zera jakinarazi digu:

“Betidanik, Ataleko teknikariek familia hartzaileen jarraipena egin dute. Hain zuzen, Ataleko teknikariek urtean behin telefonoz elkarrizketatu dituzte. Egoera konplexua edo jazo berria bazen, berriz, maizago elkarrizketatu izan dituzte.

Harrera ondoko laguntza eta jarraipen azpiprograma 2006. urtearen hasieratik lantzen da eta, oro har, honako hauek osatzen dute:

- Adingabeekiko eta familiekiko elkarrizketek.
- Telefono bidezko harremanek.
- Familien etxera egiten diren bisitek.
- Bertze profesional batzuekiko elkarrizketek”.

3. Laguntzaren bat duten familia hartzaileei dagokienez, hirugarrenik, zera erantzun digu:

“Honako hauek eskuratzen dute laguntza ekonomikoren bat, honako hauek ordaintzeko:

- Adingabeen mantenua: 130 familiak.
- Tratamendu psikologikoa: hiru familiak.
- Familiak Orientatzeko Zerbitzua: familia batek.
- Ebaluazio eta Tratamendu Kanpo Lantaldea: bost familiak.

Jarraipena honako hauekin elkarlanean egiten dugu:

- Lizarrako eta Iruñeko HNALekin, eta oinarrizko zenbait zerbitzurekin.
- Eguneko zentroarekin (familia batena).

Harrera Lantaldeak ere zuzeneko jarraipena egiten du”.

4. 2006an hartutako adingabeen jarraipenari dagokionez, laugarrenik, zera helarazi digu:

“2006an, 18 adingabe hartu ditugu familian.

- Batek hartuta egoteari utziko dio irailan, hartzailea bere herrira itzuliko dela eta.
- Espediente baten jarraipena HNALrekin elkarlanean egiten dugu, eta, hortaz, esku-hartzea zeharkakoa da.

Gainerako 16 adingabeen ingurunean, honela esku hartu dugu:

- 105 aldiz jarri gara harremanetan familia hartzaileekin telefonoz.
- 40 aldiz jarri gara harremanetan familia biologikoekin telefonoz.
- 24 elkarrizketa egin dizkiegu familia hartzaileei.
- 15 elkarrizketa egin dizkiegu familia biologikoei.
- 61 aldiz elkarrizketatu gara edo hitz egin dugu telefonoz bertze zerbitzu edo senide batzuekin”.

5. Azkenik, Departamentuak honela deskribatu du familia hartzaileen jarraipena egiteko oinarrizko programa:

“Adingabeak hartu eta hitzarmenak sinatu ondoren, jarraipena egiten hasten gara familiartean. Lehen urtean, honako hau egiten dugu gutxienez:


- Familia hartzaileak bi aldiz elkarrizketatu.
- Adingabeak behin elkarrizketatu.
- Familia hartzaileekin harremanetan jarri, telefonoz. Lehenengo hilabetean, astean behin jartzen gara harremanetan, eta, ondoren, hamabost egunean edo hilabetean behin, adingabeen eta familien bilakaeraren arabera.
- Urtebeteren buruan, ebaluatu. Horretarako, familiak behar bezainbat elkarrizketatzen ditugu, adingabeen

egoeraren eta harrerari buruzko pronostikoaren berri jakiteko.


- Adingabeen adinaren eta arazoan arabera, eskolako tutoreekin ere elkarrizketatu edo hitz egin telefonoz.
- Gainera, familiei jakinarazi kasuan kasuko arduradunak harreraren bilakaerari buruz duten edozein zalantza argitzeko prest daudela.

Harreraren lehenbiziko urtean, oro har, hamar ordu eta erdi ematen ditugu familia hartzaileekin, eta, bigarreanean, zazpi eta zortzi artean, baina egoera berezietan denbora gehiago eman behar da”.

Honako grafiko hauetan adingabeak hartzeko modu honi buruzko daturik esanguratsuenak ageri dira. Lehenengoan ikusten denez, familian hartzen dituzten adingabeen kopurua esponentzialki handitzen da urtetik urtera, baina, 2005ean, hazkundea bereziki handia izan zen.



Adingabeak familian hartzeko moduari dagokionez, lehenik, ikusten da harrera iraunkorra askoz gehiagotan jazotzen dela aldi baterako harrera edo harrera soila baino; hau da, harrera iraunkorra hedatuago dago.




Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusiak helarazitako informazioa.

Joera horixe izan da urteotan, baina aldaketa txikiak izan dira, ondoko taulan ikusten denez.

**FAMILIAN HARTZEN DITUZTEN ADINGABEEN KOPURUAREN
BILAKAERA, HARTZEKO MODUAREN ARABERA**

	2002	2004	2006
Harrera soila	% 35	% 40	% 36
Harrera iraunkorra eta adopzio aurrekoa	% 65	% 60	% 64

Familia hartzaileen sailkapenari dagokionez, bigarrenik, handiagoa da familia hedatuen ehunekoa adingabeenak ez diren familien ehunekoa baino, baina familia hedatu hartzaileen ehunekoak behera egin du azken urteotan, ondoko grafikoan eta informazio taulan ikusten denez.




**FAMILIAN HARTZEN DITUZTEN ADINGABEEN KOPURUA,
HARTZEKO MODUAREN ARABERA
2006ko ekainaren 30eko egoera**

Adingabe kopurua	Familia hedatuak	Adingabe enak ez diren familiak	GUZTIRA
Aldi baterako	57	27	84
Modu iraunkorrean	98	41	139
Adoptatu aurretik	0	10	10
GUZTIRA	155	78	233


Ehunekoak	Familia hedatuak	Adingabe enak ez diren familiak	GUZTIRA
Aldi baterako	68	32	100
Modu iraunkorrean	71	29	100
Adoptatu aurretik	0	100	100
GUZTIRA	68	32	100

Adingabeen egoerari dagokionez, hirugarrenik, grafikotik ondorioztatzen denez, administrazioak zaintzen dituen adingabeak dira nagusi, baina administrazioak zaintzen dituen zenbait adingaberen gurasoek, denboraren poderioz, ez dute onartzen egoera, eta, azkenean, epaileek zaindu behar dituzte.


**Familian hartzen dituzten adingabeen legezko egoera.
2005. urtea**



Familian hartzen dituzten adingabeen adinari dagokionez, laugarrenik, hartzen dituzten adingabeak zer adinetakoak diren ikusten da ondoko grafikoan, baina kontuan hartu beharra dago adin jakin bateko adingabeen kopurua bilakatu egiten dela, ez baita ohiz kanpoko, aurrerago ikusiko dugunez, adingabeak luzaroan egotea egoera honetan.




Bestalde, familia hartzaileei laguntza ekonomikoak emateko aukera dago, baina batzuek ez dakite oso zehazki nola lor ditzaketen. Hala ere, aldi-aldi, gehienek eskuratzen dute laguntzaren bat, adingabeak mantentzen laguntzeko. Gainera, laguntza bereziak ere ematen dira, behar bereziei erantzuteko.



Jardunari berari dagokionez, bosgarrenik, nabarmendu beharra dago 2006an 15 adingabe adoptatu zituztela. Alde horretatik, gogoan izan beharra dago Adingabeak Familian Hartzeko eta Espainiako Adingabeak Adoptatzeko Lantaldeak adingabeak adoptatu egiten dituztenean amaitzen duela esku hartzen eta ez duela jarraipenik egiten ondotik.

Azkenik, ondoko taulak frogatzen du familian hartuta ematen dituzten urteen araberako adingabeen kasuen kopurua handitu egin dela.



Taula horiek guztiak erakusten dute familian hartzen dituzten adingabeen kopurua gora egiten ari dela pixkanaka, 2000tik aurrera batez ere, baina, edonola ere, aipatzekoa da, harreran duen eragina dela-eta, gaiari buruzko bi foru dekreturen proiektuak daudela abian. Bataren helburua, txostenean behin eta berriz erran dugunez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea garatzea da, eta bertzearena, haurrak babesteko laguntzak arautzea.


Lehen proiektuak hainbat alderdi arautzen ditu: adingabeak familian hartzeko eskabideak aurkeztea, familiak ebaluatzeko irizpideak, familiak egokiak diren ebaluatzeko prozedura eta egokiak direlako adierazpena, familia hartzaileen betebeharrak eta, azkenik, balizko ordainketak.

Balizko ordainketen ildoan, bigarren foru dekretuaren proiektuak familia hartzaileentzako laguntzei buruzko kapitulu bat dakar, eta

laguntza zertarako emanen den zehazten du; adingabe bat baino gehiago hartzen dituzten familiak, familia hedatuak eta adingabeenak ez direnak nola lagunduko dituzten; eta, azkenik, familia hartzaileei aparteko laguntzarik emanen dieten, gastu jakin batzuei aurre egiteko. Alde horretatik, laguntzaren zenbatekoa urtero finkatuko omen da.

Bestalde, adingabeak familian hartzeko bestelako laguntzei dagokienez, aipatzekoa da Nafarroako Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erreforma onartu zuela 2006. urteko abenduan, eta, haren ondorioz, ez dela zergarik ordaindu behar erakunde publikoek adingabeak hartzearen trukean ematen dituzten laguntza guztiak direla eta; alegia, familia hartzaileek ez dituztela adierazi behar errenta adierazpena egiten dutenean.

Azkenik, eginiko ahalegin ekonomikoari dagokionez, ondoko grafikoak Haur eta Gazteendako Planak 10. programaren, "Adingabeak familian hartzea" izenekoaren esparruan egindako aurreikuspenen eta gastatu gastatutakoaren arteko konparazioa ageri du. Ikusten denez, gastatutako zenbatekoa aurrez espero baino nabarmen handiagoa izan da.



8.5.3. Familia hartzaileen jarraipena egin eta haiek laguntzea

Adingabeak hartu eta hitzarmenak sinatu ondoren, jarraipena egiten hasten dira familiaretan. Lehen urtean, honako hau egiten dute gutxienez:

- Familia hartzaileak bi aldiz elkarrizketatu.

- Adingabeak behin elkarrizketatu.
- Familia hartzaileekin harremanetan jarri, telefonoz. Lehenengo hilabetean, astean behin jartzen gara harremanetan, eta, ondoren, hamabost egunean edo hilabetean behin, adingabeen eta familien bilakaeraren arabera.
- Urtebeteren buruan, ebaluatu. Horretarako, familiak behar bezainbat elkarrizketatzen ditugu, adingabeen egoeraren eta harrerari buruzko pronostikoaren berri jakiteko.
- Adingabeen adinaren eta arazoen arabera, eskolako tutoreekin ere elkarrizketatu edo hitz egin telefonoz.
- Gainera, familiei jakinarazi kasuan kasuko arduradunak harreraren bilakaerari buruz duten edozein zalantza argitzeko prest daudela.

ADINGABEAK FAMILIAN HARTZEKO LEHEN FASEKO HARREMANAK (BATEZ BERTZEKOAK)

2006ko lehen sei hilabeteetan hartutako 16 adingabeak

	Elkarrizketa	Telefono bidezkoak	Guztira
Familia hartzaileekin	1,5	6,6	8,1
Bertze zerbitzu edo senide batzuekin	0,8	3	3,8
Guztira	2,3	9,6	11,9

Adingabeak familian hartu eta lehen hilabeteetan, esku hartzen dutenen arteko harremanen kopurua handia da (11,9koa), baina, ikusten denez, gehienetan telefonoz jartzen dira harremanetan.

HARRERA ONDOKO PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN FAMILIA HARTZAILEAK

	2002	2004
Harrera ondoko programan parte hartzen duten familia hartzaileak	% 44,0	% 36,5

Harrera ondoko laguntza eta jarraipen azpiprograma 2006. urtearen hasieratik lantzen da eta, oro har, honako hauek osatzen dute:

- Adingabeekiko eta familiekiko elkarrizketek.
- Telefono bidezko harremanek.

- Familien etxera egiten diren bisitek.
- Bertze profesional batzuekiko elkarrizketek.

**EPE ERTAINEAN FAMILIA HARTZAILEEN JARRAIPENA EGIN
ETA HAIEK LAGUNTZEA
Jarraipen faseko harremanak (batez bertzekoa)**

	<i>Familiako harremanen batez bertzekoa</i>
Urteko telefono deien kopurua	Bat
Adingabeekiko eta familiekiko elkarrizketen kopurua	"Egoera konplexuetan beharrezkoak direnak"
Familien etxera egiten diren bisitak urteko	Zehaztu gabe
Familia bakoitzarekin ematen diren orduak urteko	
Lehenengo urtean	Hamar ordu eta erdi
Bigarren urtean	Zazpi edo zortzi ordu
Ondoko urteetan	Zehaztu gabe

**LAGUNTZAREN BAT ESKURATZEN DUTEN FAMILIA HARTZAILEAK
2006ko iraileko egoera**

Laguntzaren bat eskuratzen duten familia hartzaileak	Kop.	%
Adingabeak mantentzeko laguntza ekonomikoak	130	63
Bertze laguntza ekonomiko batzuk	9	4
<i>Tratamendu psikologikoa ordaintzeko</i>	3	1
<i>Familiak Orientatzeko Zerbitzua ordaintzeko</i>	1	0
<i>Ebaluazio eta Tratamendu Kanpo Lantaldea ordaintzeko</i>	5	2
Laguntza espezifiko bat ere	68	33
Guztira	207	100

ADINGABEAK FAMILIAN HARTU ETA HUTS EGITEN DUTEN KASUAK

Adingabeak familian hartu eta huts egiten duten kasuak	2002		2004	
Familia hedatuan			% 11	% 5,8
Adingabeena ez den familian			% 2	% 2,7
GUZTIRA	% 2	% 1,1	% 13	% 4,9

8.5.4. Familia hartzaileen iritzia

Txosten bereziak egin izan dituenen, arartekoak kasuan kasuko sektoreen iritziaren berri jakin nahi izan du, eta, horretarako, bai osatzen dituzten elkarteetara eta, zuzenean, bai kasuan-kasuan esku hartzen duten pertsonengana jo izan du. Metodologia horri jarraiki, Nafarroan

familian hartzen dituzten adingabeen egoeraren berri hobeto izate aldera, familia hartzaileekin harremanetan jarri gara, bi bidetatik.

Batetik, egun Nafarroan halako familiak biltzen dituen elkarte bakarrera jo dugu, Magale izenekora, eta, bertzetik, hainbat familia hartzailek hogeï galdeketari erantzun diete, adingabeak hartzeko modu honen Nafarroako egungo funtzionamenduaren hainbat alderdiri buruz zer iritzi duten adierazteko.

Hots, bildutako informazioa kualitatiboa da nabarmen, baina zenbait galdera dena delako alderdiaren egoera 1etik 10era ebaluatuz erantzun beharrekoak ziren.

MAGALE elkartearekin izandako elkarrizketan bildutako informazioa

Adingabeak familian hartzeko prozesuan eragina duten zenbait alderdiri buruz eta elkartearen beraren jardunaz aritu gara.

MAGALE elkarteak 2003ko abuztuaren 13an sortu zen eta, egun, 35 bat familia biltzen ditu, alegia, familia hartzaileen % 18,4. Elkartearen helburua adingabeak familian har ditzaten bultzatzea da, eta, horretarako, administrazio publikoarekin elkarlanean aritzen da, harrera hobetu eta sustatzeko eta familiak (hartzaileak eta hartuak) aholkatu, informatu eta laguntzeko, eta, azkenik, baita haien eta adingabeen eskubideak babesteko ere.

Elkarteak osatzen duten gurasoek antzeko beharrak eta arazoak dituzte adingabeak familian hartzeko prozesuan, eta baita gabezia handiak ere: teknikoak, ekonomikoak eta giza baliabideen aldetikoak.

Diotenez, gabeziok hiru multzo oso ezberdinetan banatzen dira:

1. Familia biologikoei egiten zaien jarraipena eskasa da, eta, ondorioz, asko eta asko ezin dira duintasunez berrantolatu gizarte, ekonomia eta osasun arloan, seme-alaba biologikoak berreskuratzeko.
2. Familia hartzaileei egiten zaien jarraipena eskasa da. Kontuan izan beharra dago ahalegin osagarria egin behar dutela hartzen dituzten haurrak zaintzeko; izan ere, haurrok deserrotuta daude eta aldi baterako hartzen dituzte eta, ondorioz, familia nabarmen desegituratzen dute gehienetan. Gainera, adingabeak familiara egokitzeko aldi bat behar da, baina egokitzeko aldia luzatu eta baliteke harrerak irauten duen bezain luzea izatea. Horregatik guztiagatik, familia hartzaileek uste dute haien arazoei profesionalek behar bezala lagunduz erantzun behar zaiela, gatazka egoerak hain larriak izan ez

daitezen. Azken batean, besoak zabaltzen dituzte, biologikoak ez diren seme-alabak hartzeko.


3. Haurrei egiten zaien jarraipena eskasa da. Hain zuzen ere, hauxe da arazorik okerrrena, bai hartzen dituzten adingabeei eta bai familia hartzailearen seme-alaba biologikoei egiten dieten jarraipena eskasa dela. Izan ere, haurren harreran espezializatutako lantalde batek haurrok tratatu beharko lituzke aldian-aldian.

Gurasoon ustez, administrazioak jarraipenik ez egitea are nabarmenagoa bilakatzen ari da azken urteotan, eta, jarraipenik eza dela-eta, familian hartzen dituzten zenbait adingaberen kasuek huts egiten dutela uste dute, nerabeenek batez ere. Alderantziz, uste dute, jarraipen zuzen eginen balitz, izugarri lagunduko lukeela adingabeak familian har daitezen bultzatzen.

Azkenik, kezkatuta daude, Nafarroan ez dagoelako adingabeak familian hartzeari buruzko azterlanik: ez da aztertzen zenbat kasuk duten arrakasta, zenbatek egiten duten porrot, zenbatetan adoptatzen duten azkenean adingabea edo zenbatetan itzultzen den azkenean familia biologikoarenera. Halaber, kezkatuta daude, adindun bihurtzen diren adingabeen (bai harrera etxeetan eta bai familian hartzen dituztenen) egoera dela-eta, haiek gizarteratu, laneratu eta pertsona gisa garatzeko bideak araututa ez daudelako eta babesgabe gelditzen direlako bizitzan; hain zuzen, horrek kezkatzen ditu gehien.

Familia hartzaileei helarazitako galdeketaren bidez bildutako informazioa


MAGALE elkarteak bera osatzen duten 20 familiari galdeketa bat helarazteko aukera eman digu, eta ondoko taulak inkesta horren erantzunetatik bildutako datuak ageri ditu.




Hona hemen galdeketa horietatik ondorioztatutako hainbat gogoeta:

1. Inkestari erantzun dioten 20 familien artean, 15 hartu dituzten adingabeenak ez bertze familia batzuk dira, eta bost, adingabeen familia hedatuak. Hala ere, datu orokorrek kontrako joera adierazten dute, eta kontuan izan beharrekoak dira, elkartea adingabeenak ez diren familia hartzaileek osatzen baitute, oro har, eta, nagusiki, haiek erantzun baitiote galdeketari.
2. Adingabe gehienak modu iraunkorren hartuta daude. Hain zuzen ere, 13 adingabe modu iraunkorren hartu dituzte, eta lauri harrera soila egin diete, eta nabarmentzekoa da hiru familiak ez dakitela beraiek egindakoa harrera soila ala iraunkorra den. Datuen ildo berean, MAGALE elkartearekin izandako elkarrizketak adierazten du harrera gehienak iraunkorrak direla. Horrek, ordea, ondorio negatiboak ditu adingabeengan eta familia hartzaileengan: alde batetik, adingabeengan segurtasunik eza sortzen du, eta familiengan, berriz adingabe bat ez hartu nahia, harrera iraunkorrak oso luzatzen direla eta.
3. Batez bertze, familiek 6,4 urtez hartzen dituzte adingabeak: harrerarik laburrena hiru urtekoa izan da, eta luzeena, 15 urtekoa. Aurreko atalean erran dugunez, ostera, harrera hain luzea izateak ondorio larriak ditu bai adingabeengan eta bai familia hartzaileengan.
4. Harreraren trukean ordain ekonomikoren bat izateari dagokionez, 16 familiak badute (% 80k), baina lauk, ez.
5. Familiek adingabeak hartzeko prestakuntzari buruz duten iritzia dagokionez, berriz, 4,3 puntukoa da batez bertze, eta nabarmentzekoa da hainbat familiak 0 puntu eman diotela alderdi horri –itemen ebaluazioak 0 eta 10 puntu artekoa izan behar zuen: 0 oso iritzi txarrari zegokion, eta 10, oso onari–.
6. Adingabeak egokitu edo moldatzeari buruzko iritzia 4,75 puntukoa da, baina, aurreko ataleko galderari bezala, bada 0 puntu eman dion familiarik.
7. Harreraren aurretik eman dieten informazioak 3,6 puntu atera ditu, batez bertze, baina lau familiak 0 puntu eman diote.
8. Jarraipenaren batez bertzeko ebaluazioa da okerrena, 3,05 puntukoa izan baita. Familia gehienek telefono bidezko harremanen bat eta zuzeneko elkarrizketa gutxi aipatu dituzte, eta bada harrera


formalizatu eta arduradunarekin inolako harremanik izan ez duen familiarik.




9. Izandako laguntzaren inguruko ebaluazioa 4,95 puntukoa da.



10. Galdeketari erantzun dioten familien artean, 13k gomendatu eginen liekete bertze familia batzuei adingabe bat hartzeko eskatzea; hiruk, ez; eta hiruk ez dute erantzun, uste baitute ez dela gomendio kontua, norberaren erabakia baizik. Erantzunotatik ondorioztatzen dugunez, zailtasunak gorabehera, familia hartzaile gehieni esperientzia atsegingarria iruditzen zaie, batez ere, hitzez hitz, “zailtasunak dituzten haurrentzat onuragarriena” dela uste baitute.



11. Gehienek oso beharrezkotzat dute etengabeko laguntza zerbitzua izatea, gorabeheraren bat dutenean erabiltzeko; batez berte, 8,15 puntu eman dizkiote, berte edozeri baino gehiago.



Azken finean, oro har, familia hartzaileek ez dute oso iritzi ona administrazioak ematen duen zerbitzuari buruz, item bakarraren ebaluazioa ere ez baita izan 5 puntutik gorakoa. Alde horretatik, nabarmentzekoa da administrazioak familiei eta adingabeei egiten dien jarraipenari eman dioten puntu kopuru eskasa, eta adingabea hartu aurreko informazioari eman diotena, alderdiok funtsezkoak baitira hartzen dituzten adingabeen ongizatean. Hain zuzen ere, fase honetan bereziki, familia asko kezkatuta daude informazio gutxi edo

batere ez ematen dietelako adingabeen osasun egoerari, tratamendu medikoei, kontuan hartu beharreko egoerei... buruz.

Hori dela-eta, oinarrizko gizarte zerbitzuek harrera mota honetan izan dezaketen eginkizunean edo partaidetzan sakondu behar da. Oro har, ez dute familian hartzen dituzten adingabeen kasuetan esku hartzen –batez ere, haienak ez diren familiek hartzen dituztenean–, eta, ondorioz, Adin Txikikoak Babesteko Ataleko teknikariek lagundu behar dituzte nagusiki adingabeok, baina, zerbitzuok hurbil daude eta eraginkorrak dira, oro har, eta, horregatik, baliabide egokia dira aldian behin harreraren jarraipena egiteko, Adin Txikikoak Babesteko Atalarekin eta kasuan kasuko teknikari arduradunarekin elkarlanean.

Bestalde, atentzioa ematen du zenbat puntu eman dizkieten etengabeko laguntza zerbitzua izan beharri, harrerak familiengan estutasuna eta ziurgabetasuna pizten duela adierazten baitu. Hori dela-eta, egun halakorik ez dagoela-eta, komeni da familia hartzaileak nola prestatu, ebaluatu eta aukeratzeko dituzten berrikustea, halako egoerarik ez jazotzeko.

Gogoan izan beharra dago harrera mota hau ez dela behar bezain ezaguna, baina bai, ordea, oso beharrezkoa. Adingabeak hartuz, familia hartzaileek ezin ukatuzko eskuzabaltasuna eta elkartasuna adierazten dute, baina, adingabeen beraien ongizaterako, gizarteak egiten duten lana onetsi eta erakundeek lagundu egin behar dituzte, behar bezainbat, garapen fisiko eta psikikoarentzat batere gomendagarriak ez diren esperientziak dituzten adingabeok ez dezaten berriro ere porrot egin, zorigaitzokoa izan bailiteke haien etorkizunerako.

8.5.5. Elkartzeko guneak eta bisita erregimena

Elkartzeko guneak laguntza profesionalizatua emateko baliabideak dira, eta leku neutralak dira, gurasoek seme-alabak bisitatzeko.

Gehienbat, banandu edo dibortziatzen ari diren eta seme-alabekin harremanetan egoteko zailtasunak dituzten gurasoek erabiltzen dute, baina baita familia edo harrera etxe batean hartu dituzten adingabeen familiek ere.

Kasu gehienak Familia Epaitegiak edo bertze epaitegiren batek bideratzen ditu, familia auziak eta zigor arloko neurriak ezarritako auzi penalak baitira, eta gainerakoak, funtsean, Adingabeak Familian Hartzeko Lantaldeak bideratzen ditu. Harrera etxeren batean hartzen dituzten adingabeen bisitak, berriz, harrera etxeaz edo etxebizitzaz

arduratzen den erakundeak kudeatzen ditu, eta asko etxeetan edo etxebizitzetan bertan izaten dira, horretarako prestatzen dituzten geletan.


Izenak berak dioenez, elkartzeko guneak familiarteko harremani eusten laguntzeko lekuak dira, eta, horretarako, haurrek eta familiak harremanetan jarraitzea bideratzen eta ahalbidetzen dute, lehen aipatutako arrazoiak direla medio, bisita eskubidea urratzen denean, erabiltzen zaila denean edo erabili beharrak arazoak sortzen dituztenean.

Bere ezaugarriak direla-eta, aldi baterako eta behin-behineko baliabidea da, bisita erregimena normalizatzeko, eta honako hauek dira helburuak:

- Adingabeak egunerokoan haiekin bizi ez den gurasoarekin elkartzea, esku-sartzerik gabe eta segurtasun baldintzetan.
- Haurren eta gurasoen sentimenduak entzun eta babestea eta haiei eustea, egoera beraiek prestatzeko aukera ematea eta bilera pozgarria izan dadin bideratzea.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak hobetzeko jarraibideak irakastea.
- Adingabeek beren emozioak egituratzeko eremu bat sortzea, leku seguru batean, gurasoekiko harremanetan dituzten esperientzia berriak barnatzen hasteko.
- Gurasoek, nolana, guraso lana egin dezaten eta bien artean egin dezaten bultzatzea.

Bisitak hainbat motatakoak dira: haurrak hartu eta uztekoak, ikuskatuak eta familian hartuta daudenenak,

Funtzionamenduari dagokionez, jarraian, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Sailak helarazitako informazioa emanen dugu, tratatutako kasuen eta arazoaren kopuruaren, bisita moten eta kasuak bideratzen dituen erakundearen edo gurasoen jatorriaren arabera:




Ondoko taulan elkartzeko gunea erabiltzen duten familiak zer zerbitzuz bideratzen dituzten ageri da. Txosten honen esparruan –adingabeak babesteko sistemaz ari gara, baina ez, ordea, haiek berreztekoaz–, nabarmentzekoa da % 37 familian hartzen duten adingabe baten familiak direla eta, hortaz, Adingabeak Familian Hartzeko Lantaldearen ardura direla, baina gainerakoen laguntza antolatzeaz Adin Txikikoak Babesteko Atala bera arduratzen dela.

ELKARTZEKO GUNEAN TRATATZEN DITUZTEN ARAZO MOTAK

ARAZO MOTAK	Kasu kop.	%
Banantze gatazkatsua	46	34
Familiarteko indarkeria	40	29
Alkohol kontsumoa	8	6
Druga kontsumoa	11	9
Buruko gaixotasuna	11	9
Sexu abusuak	9	6
Seme edo alaba adingabea zaintzen ez duen gurasoa eta hura harremanetan egoteko zailtasunak	12	9

Erran dugu jadanik elkartzeko gunean tratatzen dituzten kasu batzuk ez direla txosten honen berezko esparrukoak, baina, hala ere, garrantzitsu deritzogu tratatzen dituzten arazoei eta esku hartzen amaitzeko arazoiei buruz eman dizkiguten datuok agertzea.



Arautu egin dutenean, gure inguruko herrialdeetan bestela izendatu dute zerbitzua, eta Espainiakoa, hain zuzen ere, Frantziako ereduari jarraiki zaio funtsean. Lehenengo baliabideak 1994an sortu ziren, eta, egun, Espainiako probintzia guztietan daude ia.

Orain arteko jardunaren arabera, hainbat ondorio atera ditzakegu, kontuan izan beharrekoak zerbitzuaren funtzionamenduan duten eragina dela eta.

Esaterako, aldi baterako eta behin-behineko zerbitzua dela azaldu dugu, baina, egia erran, abian izan den bitartean ikusi dugunez, kasuen ehuneko handi bat kroniko bihurtzen dira. Izan ere, bikote askok eta askok behartuta parte hartzen dute nolabait, eta inolaz ere ez dute onartzen, hitzarmenik lortzen ez dutenean, inor artekari aritzerik bisitek sortzen dituzten arazoak konpontzeko.

Gure ustez, kasuak kroniko bihurtzearen ondorioak arreta handiz analizatu behar dira, batez ere, adingabeengan badute eragina. Azkenean, helburua baliabidea bera egokitu eta haren helburuak eta mugak berriz zehaztea da.

Gainera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak berak dioenez, zenbaitetan, kasuak baliabide honetara bideratzen dira, behar bezain kontuan hartu gabe haren funtzionamenduaren

ezaugarriak zein diren eta zer bide ematen dituen gatazkak konpontzeko eta bisita erregimena normalizatzeko. Alabaina, poliki-poliki, epaileek eta, zehazkiago, Familia Epaitegiak gero eta hobeto dute haren berri; hain zuzen ere, bilerak izaten dira aldian-aldian Familia Epaitegiarekin.

Elkartzeko gunean lan egiten duten profesionalei dagokienez, elkartzeko guneen funtzionamendua araututa dago, zertarako erabili behar den zehazteko, baina, hainbatetan, han aritzen direnek ez dute argi zein den beren eginkizuna eta zenbateraino esku hartu behar duten. Halaber, zalantzan jartzen dute txostenak egin beharra, alderdiek eskuratu egin ditzaketelako azkenean epaitegian eta, hori dela-eta, arriskuan daudelako, gurasoek beren onerako erabil ditzaten; ondorioa da, batzuetan, bi gurasoekiko harremana kaltetzen dela, eta, bertez batzuetan, txostenak kalte egiten diola uste duenarekikoa.

Orobat, profesionalok ez dute sentitzen aginpide nahikoa dutenik gurasoen gainean, eta horixe da, hain zuzen, gurasoek elkartzeko gunearen funtzionamendu arauak ez betetzeko arrazoia. Ildo horretan, halako baldintzetan, zaila da neurtzea han jarduten diren langileak behar adina prestatuta dauden argi eta garbi ez dagoen eginkizun bat betetzeko.

Erran bezala, baliabide hau 2002an jarri zen martxan Nafarroan, eta, horretarako, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak 18/2002 Foru Agindua eman zuen, otsailaren 20an, "Familia Elkartzeko Gunea" eta "Haur eta Gazteentzako Eguneko Zentroak" sailkatzeko. Lehenengoa Iruñeko Joaquín Beunza kalean sortu zen, baina, 2007ko otsailaren hasieran, bertez bat jaio zen, Iruñeko Barañain etorbidean. Biak ala biak Xilema elkarteak kudeatzen ditu, itun bati esker.

Dena dela, aipatu Foru Aginduko xedapenak gorabehera, faltan ematen da baliabide honen alderdi guztiei buruzko araudi xeheagoa: definizioa, hartzaileak, erabiltzen hasteko modua, han aritzen diren langileen soslai profesionala eta elkartzeko guneek funtzionatzeko baldintza materialak. Are gehiago, gutxieneko arau teknikoak ere aldarrikatu beharko lirateke, guneen ezaugarri arkitektonikoak zehazte aldera; izan ere, zertarako erabiltzen diren, ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte.

Bestalde, nabarmentzekoa da Adingabeak Familian Hartzeko Lantaldeak denbora luzea eman behar duela bisitak, bilerak eta gainerako gorabeherak kudeatzen. Adibidez, oso ohikoa da bisitak bertan behera uztea, askotan, familiek (hartzaileek edo biologikoek) ez

dutelako joaterik. Familia biologikoak ez joateari dagokionez, aztertu behar da neurririk har daitekeen haiek elkartzeko gunera joaten laguntzeko edo bisiten ordutegia haiek joan ahal izateko moduan antolatzeko; izan ere, familian hartzen dituzten adingabe askoren familiek garraio bide erregularrak bakarrik erabil ditzakete, ez dutelako bertze bitartekorik.

Bisita erregimenaren ordutegi mugatua –bisitak asteazkenetan eta ortziraletan egin behar dira, 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan eta igandeetan, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara– egungo egoeraren arrazoi nagusietako bat da, baita bisitak kudeatzeko tresna tekniko egoki bat ez izatea ere, sistemaren koordinazioa handiagoa izateko eta sistema bera eraginkorragoa izateko. Hori dela-eta, erran daiteke gaur egungo egoera oso hobetu daitekeela, baina espero dugu lokal berriak neurri batean konponduko duela.

Azkenik, nabarmentzekoa da zenbaterainoko kezka pizten duen bisita erregimenak; zehazki, hura aldatu edo bertan behera uzteko prozedurak, haren definizioak baino gehiago. Ezarritako irizpideekin bat, behin eta berriro aldarrikatu izan da bereziki garrantzizkoa dela erregimen malgua diseinatzea, administrazio publikoak egoeraren (oporren eta abarren) arabera aldatzea izan dezan, baina, familien ikuspegitik, harrigarria da erakunde publikoek erabaki ahal izatea bisitak bertan behera uztea, eta epaileek haien erabakia – ordurako, gehienetan, betearazitakoa– berretsi bertzerik ez egitea.

8.6 ADINGABEAK HARRERA ETXEETAN HARTZEA

8.6.1. Helburua

Adingabeak harrera etxeetan hartzea da adingabeak babestutako zentroetara edo laguntzako etxebizitzetara eramatea –Nafarroan, hedatuago daude laguntzako etxebizitzak– eta dena delako harrera establezimenduaren edo etxearen erregimenean sartzea. Harrera etxeetan, zuzendariak egiten du babesgarri lana.

Behin eta berriz aipatzen ari garen filosofiari eta printzipioei jarraiki, 12 urtetik beherako haurrak, aldi baterako edo behin betiko, familiarengandik bereizten dituztenean, egokiena haiek familian hartzea da, dela familia hedatuan edo dela haiena ez den familia batean. Adin horretatik beherako haurrak salbuespenezko egoeretan bakarrik har ditzakete harrera etxeetan, eta are gehiago 6 urtetik beherakoak; gainera, 6 urtetik beherako haurrek hiru hilabete eman ditzakete gehienez ere harrera etxean

15/2005 Foru Legeko 69.b) artikulua xedatzen du hori. Haren printzipio gidariekin bat, adingabeak harrera etxeetan hartzeak izan behar du bertze aukerarik ez dagoenean soilik aplikatu beharreko konponbidea.

Hala eta guztiz ere, adingabeak harrera etxeetan hartzea izaten da hartzen den lehenengo neurria, egoera ebaluatu eta, beharrezkoa izanez gero, haiek babesteko neurririk egokienak hartu bitartean; hain zuzen, behaketa eta harrera zentroetan hartzen dituzte. Dena dela, legediak berak dioenez, harrera etxeetako egonaldiak ahalik eta laburrena izan behar du, adingabeen ongizatea eta interesa dela-eta, harrera etxeetan luzaroago egotea komeni denean izan ezik.

Ildo horretan, onartu beharra dago, azkenaldian bada ere, adingabeak harrera etxeetan hartzea zerbitzu multzo baten zatitzat hartzen dela orain, eta ez dela epe luzeko irtenbidea; aitzitik, bertze hainbat eginkizun betetzen ditu, hala nola, adingabeak larrialdietan hartzea, familiar hartu bitartean, edo familiar hartzeak huts egiten duenean. Hau da, halako xedeaniztasuna duen harrera motatzat hartzen da, esku hartzeko prozesuaren hainbat fasetan, gainerako neurriak modu eragingarrian gauzatzea ziurtatzeko.

Esku hartzeko eskuliburuak badakartza harrera mota honen oinarritzko elementuak ere.

Hasiera batean, konponbide egokitzat du, beharrezkoa denean eta baldintza egokietan erabiltzen bada betiere, eta, alde horretatik, nabarmentzen du erabili behar dela adingabeari bertze edozein neurri baino on handiagoa egiten dionean. Nafarroako Foru Komunitatean Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planarekin bat, Adingabeak Harrera Etxeetan Hartzeko Programaren helburua hartutako adingabeen egonkortasuna eta segurtasuna bermatzea eta haien oinarritzko beharrei erantzutea da.

Hartara, adingabeak harrera etxeetan hartuz gero, haien oinarritzko beharrei behar bezala erantzuten dietela ziurtatu behar da. Hain zuzen ere, honako behar hauei erantzun behar diete:

- Behar materialei (elikatu, jantzi, etab. beharrari).
- Osasun laguntza izan beharrari.
- Eskolatu beharrari.
- Eskolan ikasten dutena finkatu eta zuzendu beharrari.

- Adin bereko haurren berezko esperientzia normalak (etxebizitza egokia, ordutegiak, jarduerak, hezkuntza ereduak, aisia emateko jarduerak...) izan beharri.

Gainera, harrera etxeetako baliabideak adingabeei maitasuna, babesa, konfiantza, segurtasuna eta egonkortasuna eskaintzeko moduan antolatu behar dira, eta, horretarako, haurrak babesteko sistema osatzen duten gainerako baliabideez gain, hartzen dituzten adingabeen eta haien familien beharrei erantzuteko beharrezko baliabideak izan behar dituzte. Horregatik, gutxienez, honako alor hauetan eman behar dute laguntza:

- Eguneroko bizimodua antolatzen.
- Osasun arloan.
- Prestakuntza arloan.
- Autonomia eta erantzukizun arloan eta gatazketan esku hartzen.
- Aisialdi eta komunitate arloan.
- Gizarte harremanetan eta osatzen duten taldearekiko harremanetan.
- Familiarteko harremanetan.
- Bertze erakunde batzuekiko harremanetan.

Harrera etxeetan hartzen duten haur bakoitza haren egoeraren eta beharren arabera ebaluatu behar da. Banan-banan ebaluatu behar dira, eta, gero, banakako heziketa planak egin behar dira, egoera konpontzeko plana gauzatzeko.

Horretarako, harrera etxeen ezaugarriei dagokienez, plangintza, antolamendu eta funtzionamendu arauak oinarritu behar dute haurren beharrei ahalik eta modu hobereanean erantzun beharrean, bai pertsona gisa eta bai talde gisa.

Alde horretatik, 1/1996 Lege Organikoko 21. artikulua xedatzen duenez, erakunde publikoek adingabeak hartzeko zerbitzu eta zentro espezializatuak aurretik baimendu, akreditatu eta erregistratu behar dituzte, eta haien funtzionamenduari buruzko araubidea bereiz arautu. Aparteko arreta jarri behar dute segurtasun eta osasun gaietan,

langileen kopuruan eta prestakuntzan, hezkuntza proiektuan eta adingabeek barne funtzionamenduan parte hartzeko bideetan, eta baita haien eskubideak bermatzen laguntzen duten gainerako baldintzetan ere. Horretarako, Legeak, berariaz, betebeharrak ezartzen die adingabeak babesteko eskumena duten erakunde publikoei: sei hilean behin gutxienez, zentrook eta zerbitzuok ikuskatzea; Ministerio Fiskalari, aurrekoek gain, haiek zaintzea ere ezartzen dio.

Nafarroako araudiaren esparruan, berriz, 15/2005 Foru Legeko 91. artikulua eta hurrengoek hainbat agindu ezartzen dituzte harrera etxeen araubideari eta haietan bizi diren adingabeei buruz, baina haien antolamendua eta funtzionamendua aurrerago garatuko omen da, arau bidez. Halere, hasiera batean, Foru Legea garatzeko foru dekretuaren proiektuak ez dakar halakorik. Horregatik, esparru hau lehenbailehen arautu behar da, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuko xedapenak eguneratuz eta osatuz.

Halaber, Haur eta Gazteendako Planak berariaz aipatzen duen programetako bat adingabeak harrera etxeetan hartzeko programa da, baina, egia erran, ez dago egoera guztietan balio duen programa edo harrera etxe bat ere. Izan ere, erran bezala, halako baliabideak behar dituzten adingabeen beharrak askotarikoak dira. Gainera, beharrok aldatu egin dira denboraren poderioz, eta gaur egun harrera etxeetan hartzen dituzten adingabeen ezaugarriak eta beharrak oso ezberdinak dira duela zenbait urtekoen aldean.

Azken batean, baliabide hau behar duten gazteen eta nerabeen ezaugarrietara eta beharretara behar bezala egokitu eta haiei behar bezala erantzutea da harrera mota honen funtsezko erronka, eta, horretarako, harrera etxeen eta etxebizitzien sareak dibertsifikatu egin behar du eta askotariko laguntza programek eta harrera etxe motek osatu behar dute.

Esku hartzeko eskuliburuak hainbat programa aipatzen ditu, behar horri erantzutearren. Hala ere, Nafarroako harrera etxeetako egungo egoeraren oinarria Harrera Etxeetako Oinarrizko Programa da funtsean. Hain zuzen ere, eskuliburuak aipatzen duen lehen programa da, eta bertze batzuen bidez osa daiteke, harrera etxe bakoitzean hartzen dituzten haurren eta nerabeen ezaugarrien eta beharren arabera.

Zehatz-mehatz, honako programa hauek aipatzen ditu eskuliburuak:

<i>Adingabeak harrera etxeetan hartzeko oinarritzko programa</i>	"Oinarritzko" izena du, bertze programen oinarria delako, eta legezko babesaren ezartzen zaien 4tik 14 urtera bitarteko haur eta nerabe gehienek beharrei erantzuteko egokia da.
<i>Larrialdietako laguntza programa</i>	Krisialdian berehala laguntzeko erabiltzen da, haurrak eta nerabeak etxetik ateratzea ezinbestekoa denean haiek babesteko.
<i>Atsedean hartzeko programa</i>	Haurra edo nerabea zaintzeko da, hura zaintzea edo harekin bizitzea aldi batez tentsio iturri handiegia bihurtzen denean gurasoentzat eta egoera horrek familiaren egonkortasuna arrisku larrian jartzen duenean, eta haurrak babesgabe daudenean laguntzeko erabiltzen da.
<i>Haur txiki-txikiak laguntzeko programa</i>	Babesteko, familiarengandik bereizten dituzten 0tik 3 urtera bitarteko haurrak laguntzeko da, bertze familia batean hartzea egoki edo posible ez denean, eta salbuespeneko egoeretan bakarrik erabiltzen da.
<i>Ezgaitasun larriak dituzten adingabeak laguntzeko programa</i>	Babestu egin behar diren, ezgaitasun fisiko edo psikiko esanguratsuak dituzten eta, ondorioz, etengabeko laguntza berezia behar duten haurrak eta nerabeak laguntzeko da.
<i>Ezgaitasun larriak dituzten adingabeak laguntzeko programa</i>	Babestu egin behar diren, ezgaitasun fisiko edo psikiko esanguratsuak dituzten eta, ondorioz, etengabeko laguntza berezia behar duten haurrak eta nerabeak laguntzeko da.
<i>Jokabide arazo larriak dituzten adingabeak laguntzeko programa</i>	Babestu egin behar diren, oso jokabide arazo larriak dituzten eta talde baten baitan bizitzeko zailtasun espezifikoak dituzten haurrak eta nerabeak laguntzeko da; hainbatetan, arazo psikiatrikoekin (akutuekin zein kronikoekin) eta droga gehiegi kontsumitzearekin batera jazotzen dira arazok eta zailtasunok, edo haien ondorio dira.
<i>Helduen laguntzarik ez duten adingabe atzerritarrek laguntzeko programa</i>	Helduen laguntzarik ez duten eta familiaretan guztiz babesgabe dauden 12 urtetik gorako nerabeak lagundu eta babesteko da, erabateko beregaintasuna lortzen eta gizarteratu eta laneratu laguntzeko.
<i>Nor bere kabuz bizitzeko prestatzeko programa</i>	Babestu egin behar diren 14 urtetik gorako nerabeak lagundu eta babesteko da, pertsona beregain gisa gizarteratzeko beharrezko oinarritzko abileziak garatzeko.

Era berean, esku hartzeko eskuliburuak programa bakoitza definitzen du, balizko hartzaileak nor diren, kasuan-kasuan zer zerbitzu eman edo eskaini behar diren eta zer baliabide behar diren horretarako. Kasuan-kasuan, Haur eta Gazteendako Planeko hainbat ekintza ere aipatzen ditu, hala nola, harrera etxeetan eta

etxebizitzetan lan egiten duten profesionalak trebatzeko programa espezifiko bat sortzea.

Azkenik, azaldutako guztiaren ildoan, erakundeak elkarrekin koordinatzera deitu nahi ditugu berriro ere, ezinbesteko baldintza den aldetik hurren eskubideak eta babesa ziurtatzeko, eta, horretarako, txosten osoan nabarmendu dugun bezala, jakintza arlo eta sektore askoren artean eta sarean lan egin behar da, esku hartzeko eskuliburuak berak dioenez.

Hartara, Adin Txikikoak Babesteko Ataleko teknikariek aldiari-aldiari kasu bakoitzean esku hartzen duten zerbitzuekin eta profesionalekin izaten dituzten zuzeneko harremanez gain, ziurtatu behar da zerbitzuok eta profesionalok bide eta sistema egonkor eta zaluak izatea, elkarrekin koordinatzeko eta kasuan-kasuan esanguratsua den informazioa zuzenean helarazteko elkarri.

Esku hartzen hasten denetik, halako bideak eta sistemak daudela eta ondo funtzionatzen dutela ziurtatu behar da, eta kasuan kasuko arduradunak bilerak antolatu eta sustatu behar ditu esku hartzen duten zerbitzuen eta profesionalen ordezkariekin (oinarrizko gizarte zerbitzuekin, harrera etxeekin, Familiar Esku Hartzeko Lantalde Espezializatuarekin, hezkuntza arlokoekin, adimen osasunaren alorrekoekin...), dena delako egoera aztertu eta elkar koordinatzeko.

8.6.2. Bildutako datuak

Jarraian, Nafarroan egun dauden harrera etxeak (nolanahikoak) kudeatzen dituzten erakundeek eta elkarteek haiei buruz helarazi dizkiguten datuak eta bakoitzeko tokien kopuruari buruzkoak emanen ditugu. Departamentuak berak informazio eskariari erantzunez adierazi digunez, adingabeak harrera etxeetan hartzeko oinarrizko programa lantzen dute horietan guztietan.

BEHAKETA ETA HARRERA ZENTROAK 2004 eta 2006 artean hartutakoak

	2004. urtea	2005. urtea	2006. urtea
Behaketa eta harrera zentroak	110	147	161
Otik 12 urtera bitartekoentzat (Xilema)	41	63	65
12tik 18 urtera bitartekoentzat (Ilundain Haritz Berri)	69	84	96

BEHAKETA ETA HARRERA ZENTROAK
2006an hartutakoak eta joaten utzitakoak

	2006. urtea		
	Hartutakoak	Joaten utzitakoak	Lagundutakoak
Behaketa eta harrera zentroak	147	151	161
Otik 12 urtera bitartekoentzat (Xilema)	55	60	65
12tik 18 urtera bitartekoentzat (Ilundain Haritz Berri)	92	91	96



Harrera eta behaketa zentroek kasu bereziak ere tratatu behar dituzte, hala nola, helduen laguntzarik ez duten adingabe atzerritarrenak, baina, Nafarroan, egoera ez da larria oraindik.

	2005eko urt.-abe.	2006ko urt.-ira.
Behaketa eta harrera zentroetan izandakoak	18	12
Behaketa eta harrera zentroetan jarraitzen duena	1	1

Nazionalitate askotako adingabeak hartzen dituzte behaketa eta harrera zentroetan: errumaniarrak, marokoarrak, portugesak, aljeriarrak, kroaziarrak eta frantsesak.

Familia Zuzendaritza Nagusiaren arabera, gehienak (familiarik dutenak) familiarengana bidaltzen dituzte bueltan, baina bertze batzuk iheslariak eta bertze autonomia erkidego batzuetan babesgabe jotakoak dira eta hara itzularazten dituzte.

2006. urteko azaroan, Familia Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi zигun helduen laguntzarik ez duten adingabe atzerritarrek laguntzeko baliabide bat diseinatzen ari zela. Hain zuzen ere, Estatuko administrazio nagusiak egindako deiari erantzunez ari zen, Kanarietatik penintsulara ekarritako helduen laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrek hartu eta laguntzera deitu baitzuen.



ADINGABEAK HARRERA ETXEETAN HARTZEA
Urtean urteko abenduaren 31ko egoera

	2005	2006
Behaketa eta harrera zentroak	14	10
Otik 12 urtera bitartekoentzat (Xilema)	10	5
12tik 18 urtera bitartekoentzat (Ilundain Haritz Berri)	4	5
Harrera etxeak	141	144
Navarra Nuevo Futuro elkartearen etxebizitzak	63	58
Xilema elkartearen etxebizitzak	40	37
Ilundain Haritz Berri fundazioaren neskontzako harrera etxea	5	10
Navarra Sin Fronteras elkartearen mutilentzako harrera etxea	16	18
Navarra Sin Fronteras elkartearen neskontzako harrera etxea	13	11
Dianova sarearen desohitzeko zentroa	4	3
GUZTIRA	155	147


ADINGABEAK HARRERA ETXEETAN HARTZEA
2006an hartutakoak eta joaten utzitakoak

	2006. urtea		
	Hartutakoak	Joaten utzitakoak	Lagundutakoak
Barnealdiak	76	57	212
Navarra Nuevo Futuro elkartearen etxebizitzak	22	20	85
Xilema elkartearen etxebizitzak	18	5	53
Ilundain Haritz Berri fundazioaren neskontzako harrera etxea	14	9	19
Navarra Sin Fronteras elkartearen mutilentzako harrera etxea	11	9	27
Navarra Sin Fronteras elkartearen neskontzako harrera etxea	6	8	19
Dianova sarearen desohitzeko zentroa	5	6	9

Egoera jakin batzuetan, Familia Zuzendaritza Nagusiak laguntza ekonomikoak ematen ditu zailtasun sozial bereziak dituzten adingabeek itundu gabeko harrera etxeetako egonaldiak ordaintzeko.

ITUNDU GABEKO HARRERA ETXEAK

	2004	2005
Itundu gabeko harrera etxeetako egonaldiak ordaintzeko laguntza ekonomikoak	20	21
Zenbateko osoa	64.341	59.400
Kasu bakoitzeko batez berteko zenbatekoa	3.217	2.829



Laguntzako zentroi eta etxeei dagokienez, haietako kalitate irizpideei eta estandarrei buruz galdetu diogu Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta honako hau erantzun digu, hitzez hitz:

“Harrera etxeak kudeatzeko kontratuak arautzen dituzten klausula administratibo berezien orriek kalitate materiala eta funtzionamenduaren kalitatea neurtzeko ebaluazio teknikoa nola egin behar den arautzen dute. Dena dela, etxeok kudeatzen dituzten zenbait erakundek ziurtagiri ofiziala (EFQM ziurtagiria) dute, eta berteze batzuk hura lortzeko bidean dira. Bestalde, 2007an, Familia Zuzendaritza Nagusiak harrera etxe guztiak ebaluatuko ditu”.

Harrera etxeen gainean egiten diren kontrolei dagokienez, berriz, zenbatean behin eta nork egiten dituen eta gai horri buruzko txostenik dagoen galdetu eta zera jakinarazi digu:

“Ataleko teknikariak harrera etxeetako lantalde teknikoekin biltzen dira astean behin. Bestalde, harrera etxeetan adingabe berri bat hartzen dutenean, banakako heziketa plana prestatzen dute, eta horixe erabiltzen dute jarraipena egiteko gidari; programa urtero berrikusi eta berregiten dute. Azkenik, txosten asko egiten dira; hain zuzen ere, Familia Epaitegiaren eskariari erantzunez eta baliabideak aldatzen direnean egiten dira”.

Azkenik, harrera etxeetako profesionalen prestakuntzari dagokionez, jakinarazi digute, 2004. urteko irailean, profesionalok trebatzeko prestakuntza plan bat jarri zutela abian, Familia Zuzendaritza Nagusiaren eta zuzendari eta arduradun pedagogikoen artean elkarlanean egindakoa.

HARRERA ETXEETAKO LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA

	2005	2006
Ikastaro kopurua	1	2
Orduak	35	24
Deialdi kopurua	4	6
Eskola orduak, guztira	140	72
Parte hartzaileak		
<i>Dianova (Zandueta)</i>	3	
<i>Ilundain fundazioa</i>	9	3
<i>Navarra Sin Fronteras</i>	24	29
<i>Nuevo Futuro</i>	25	44
<i>Mensajeros de la Paz</i>	14	37
Parte hartzaileak, guztira	75	113
Langile bakoitzeko eskola orduak, batez berte	14,3	7,2

Zehatz-mehatz, honako hauek izan dira antolatutako ikastaroak eta haien plangintza:

2005. urtea. IKASTAROA: “Adingabeak harrera etxeetan hartzea: kontuan hartu beharreko oinarriak eta jokabide egokiak”.

- 1. modulua: Familia Epaitegiko lantalde psikosozialak harrera kasuetan esku hartzea.
- 2. modulua: Haurrak babestea.
- 3. modulua: Tratu txarrak / abandonua ulertzea.

- 4. modulua: Gizarte hezitzaileen eginkizuna harrera etxeetan.
- 5. modulua. Kalitatea, egiturez harago.
- 6. modulua: Droga kontsumoa.

2006. urtea. IKASTAROA: “Harrera etxeetan hartuta dauden adingabeen familiekin lan egitea”.

- 1. modulua: Familien eta erakundeen eta familien arteko harremanen funtzionamendua ulertzea.
- 2. modulua: Familiarekiko komunikazioa.
- 3. modulua: Familiekiko lana, esperientziaren arabera.

2006. urtea. LAN SAIOA: “Adingabeei buruzko Legea. Harrera etxeetan aplikatzea”.

Familian hartzen dituzten adingabeen egoera aztertzeko bezala, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate Departamentuari datuak zuzenean eskatzeaz gain, harrera etxeak eta laguntzako zentroak kudeatzen dituzten erakundeekin eta elkarteekin harremanetan jarri gara, zehazkiago jakiteko nola funtzionatzen duten gaur egun Nafarroako Foru Komunitatean ditugun harrera zerbitzuek. Hain zuzen ere, harrera mota honen inguruko ikuspegi kualitatiboa izan nahi genuen, oinarritzkoa baita adingabeak babesteko sistema osatzen duten neurrien artean, eta, horretarako, elkarrizketa erdi egituratuak egin ditugu harrera etxeetako arduradunekin eta galdeketa bat erabili dugu, hainbat ezaugarri kualitatiboren (toki kopuruaren, tipologiaen, hartzen dituzten adingabeen adinaren...) berri izateko.

Harremanon esparruan, 2006ko azaroaren eta abenduaren artean, hainbat elkarrizketa egin ditugu adingabeak laguntzeko Nafarroako zentroetan, informazio gehigarria bildu eta hobeto ebaluatzeko egoera. Alabaina, jakin badakigu bisitak eta bisiten iraupena ez direla nahikoa harrera etxeetako egoera haien arduradunek ezagutzen duten bezain ondo ezagutzeko. Zehazki, honako erakunde hauekin elkarrizketatu gara:

- Asociación Navarra Nuevo Futuro elkartearekin, laguntzako etxebizitzetarako buruz.
- Xilema elkartearekin, laguntzako etxebizitzetarako, Behaketa eta Harrera Zentroari eta eguneko zentroari buruz.
- Ilundain Haritz Berri fundazioarekin, Behaketa eta Harrera Zentroari, baserri eskolari eta harrera etxeei buruz.
- Asociación Sin Fronteras elkartearekin, harrera etxeei buruz.
- Dianova sarearekin, kontsumoei buruz.

Lehenik eta behin, erakunde bakoitzaren ezaugarriei dagokienez, zenbat denbora daramaten lanean adingabeekin, batzuk eta bertzeak bilakatu egin dira: lehenik, beharrezko egiturak aldatu dituzte, behar berrietara egokitzeko; bigarrenik, jarrerak, banakako plangintza egiteko modua, programak ezartzeko modua, autoebaluazioa eta adingabeen familietan esku hartzeko modua eraldatu dituzte, eta funtsezko aldaketa izan da; azkenik, langileen trebakuntza, prestakuntza eta profesionalizazioa aldatu dute. Azken batean, nolabait, arazo berri eta askotarikoetara egokitzen saiatu dira, gero eta arazo gehiago baitaude eta haurrak babesteko sarea osatzen duen edozein erakunderen ikuspegitik erronka handia eta oso kezagarriak baitira.

Ilido horretan, kontuan izan beharra dago erakunde guztiek konturik garrantzitsuenetan (harreran, ebaluazioan, kasun-kasuan esku hartzen...) esku hartzeko protokoloak prestatu dituztela, eta kalitate egiaztagiriak ere lortu dituztela batzuek. Gainera, harrera etxeetako lantalde teknikoak hartzen dituen adingabeen familiekin ere lan egiten du.

Hala eta guztiz ere, bada ezberdintasunik proiektuak aztertu eta gauzatzeko moduaren aldetik, etxe bakoitzaren esperientziaren, filosofiaren eta printzipioen, egindako bidearen... arabera, baina, oro har, egin ditugun elkarrizketetan eta bisitetan ikusi dugunez, guztiek onerako berritu dute banakako eta taldekako planak egiteko modua, eta behar bezain maiz egiten dituzte, harrera etxe bakoitzaren ezaugarriekin bat.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da egoera jakin batzuetan esku hartzeko moduaren gaineko ikuskera, adingabeen arazoei oro har eta haien inguruko alor guztiak (pertsonala, familiartekoa eta gizarte, osasun, eskola, lan eta kultur arlokoa) kontuan izanik erantzun beharrean oinarritzen baita.

Nabarmentzekoa da, halaber, adingabe guztiek dutela nork bere banakako heziketa plana; nolabait, banakako heziketa plana adingabe bakoitzaren ingurunean esku hartzeko banakako programazioa da. Gero eta sistematikokiago erabiltzen da, baina kontu izan behar da ez dadin bihurtu eskakizun formala, lan egiteko (kasuaren jarraipena egin eta adingabeen egoeraren plangintza eta bilakaera prestatzeko) benetako bitarteko baino gehiago

Harrera etxeen ezaugarriei dagokienez, berriz, aldaketa eta bilakaera prozesua jazo da alor honetan, eta erakunde handiak alde batera utzi eta talde txikiak elkarrekin bizitzeko unitateak sortu dira. Prozesu horri jarraiki, erran daiteke Nafarroan nagusi den eredia aipatutako

bigarrena dela, eta, hartara, adingabeak elkarrekin bizitzeko eta haien artean harreman onak izateko jarraibideak landu nahi dituztela, baita adingabeak areago gizarteratu ere.

Batetik, toki guztiak administrazioarekin itundutakoak dira, eta, kopuruari dagokionez, harrera etxeek zortzi eta hamasei adingabe artean har ditzakete; hain zuzen ere, laguntzako etxebizitzek eta zentroek zortzi adingaberentzako tokia izan ohi dute, baina Felix Etxegarai gazteentzako harrera etxeak hamaseirentzat du. Etxeen beraien ezaugarriak direla-eta, batzuk neska-mutilentzat dira, eta bertze batzuk, neskentzat ala mutilentzat.

Bestetik, harrera etxeetan hartzen dituzten adingabeak 0tik 18 urtera bitartekoak dira. Familia Zuzendaritza Nagusiko Adin Txikikoak Babesteko Atalak bideratzen ditu zerbitzuetara, baina adingabe jakin bati harrera etxe bat edo bertzea egokitzea hartu behar dutenean dagoen toki kopuruaren arabera da, adingabeen beharren arabera bano gehiago.

Azkenik, funtzionamenduaren aldetik dauden ezberdintasunak, oro har, espezializazio mailaren eta laguntzen dituzten adingabeen ezaugarrien arabera dira. Erran bezala, behaketa eta harrera zentroak, laguntzako etxebizitzak eta zentroak, gazteentzako harrera etxeak eta bazterketa edo kontsumo arazoak dituzten adingabeak laguntzeko zentroak ditugu.

Hain zuzen ere, laguntzako hiru etxebizitza eta zentro, 0tik 12 urtera eta 12tik 18ra bitartekoentzako behaketa eta harrera zentroak, hiru harrera etxe eta droga kontsumitzaileentzako terapia zentroa bisitatu ditugu.

Oro har, erran daiteke horietako guztietako elementurik garrantzitsuenak (logelak, guztiek erabiltzeko eremuak, sukaldea, komunak, etab.) baldintza onetan daudela, baina, jakina, bada ezberdintasunik, instalazioen zahartasunaren arabera; gainera, bi behaketa eta harrera zentroetan hartzen dituzten adingabeen kopurua hartu beharko luketena baino handiagoa da, etengabe gertatzen diren egoera jakin batzuei adingabeak haietan hartuz erantzun beharra dela eta.

Harrera etxeetako langileei dagokienez, azkenik, nabarmentzekoa da, egin ditugun bisitei esker, ikusi dugula profesionalak, oro har, sakonki esku hartzen dutela adingabeen kasuetan, lan egiteko zailtasun nabariak izan arren –erakundeek harrera etxeetan hartzen dituzten adingabeei eta haiek laguntzeko dituzten langileen zerrendari buruz betetako galdeketa informazioa 6. kapituluaren eman dugu–.

209/1991 Foru Dekretuak harrera etxeetan etengabe egon behar duten langileen gutxieneko kopurua eta zuzeneko laguntza eman behar dutenena ezartzen du, eta bete egiten da, baina, harrera etxeek funtzionatu eginen badute, langileek etengabe arduratu behar dute, adingabeak urteko egun guztietan egun osoz lagundu behar direlako. Hori dela-eta, lan baldintzak eta lanaldia latzak dira, eta, gainera, ordainsaria ez da oso ona. Horregatik guztiagatik, profesionalak (batez ere, hezitzaileak) ez dira luzaroan aritzen eta txandatu egiten dira, eta, ondorioz, laguntzaren kalitatea okerragoa da.

Harrera etxeak kudeatzen dituzten erakundeek helarazi digutenez, urtero jakinarazten diote administrazioari zer aldaketa izan diren langileen artean, eta harrera etxe edo zentro bakoitzean esku hartzen duten lantaldeak ikuskatzen dituzte; oro har, erakundeetan izaten diren lantalde teknikoek ikuskatzen dituzte, baina litekeena da inori berariaz kontratua egitea ere.

Halaber, haientzat lan egiten duten profesionalak espezifikoki eta jarraituki prestatzeko barne jarduerak antolatzen dituztela erran digute. Hala ere, askotariko egoerei aurre egin behar dietela eta hartzen dituzten adingabe batzuek harrera etxeetan arazoak sortzen dituztela-eta, langileei behar bezalako prestakuntza ere eman behar zaie, indarkeriazko gatazkei eta istiluei aurrea hartu eta halakorik ez jazotzeko batez ere; izan ere, oso gutxitan azaleratzen da, baina indarkeria halako zerbitzu espezializatuetakako profesionalen kezka nagusietako bat da.

Azkenik, elkarrizketen bidez, harrera etxeak kudeatzen dituzten erakundeek eta elkarteek zenbait ekarpen egin dituzte adingabeak harrera etxeetan hartzeari buruz, eta hainbat bat etorri dira. Bertzeak bertze, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Sistemak lan gehiegi du egiteko, eta, ondorioz, egoera jakin batzuetan ez da behar bezain azkar esku hartzen. Berez, ez dira kexu Adin Txikikoak Babesteko Ataleko lantaldeen lanari buruz, baina jakitun dira alor honetan administrazioaren eredu erabiltzeak geldotasuna eta burokratizazioa dakarrela.
- Alor honetan gero eta kasu gehiago sortzen dira eta kasuak gero eta zailagoak dira, eta, hori dela-eta, baliabideak dibertsifikatu egin behar dira. Izan ere, gaur egun, sistemak berdinak bailiran tratatzen ditu kasu guztiak, baina ezin da halakorik egin, baliabideek eta laguntzak zeharo ezberdinak izan behar baitute egoera jakin batzuetan (adingabeek autismoa, buruko gaixotasunak, jokabide arazoak... dituztenean). Hori dela-eta, sistema arruntak ezin die behar

bezala erantzun. Azken batean, babesgabe dauden adingabe guztiak ez dira berdinak, eta, egoera berezi askotan, laguntzak ere berezia izan behar du.

- Arazo berriak sortzen ari dira esparru honetan, hala nola, immigrazioa (helduen laguntzarik ez duten adingabe atzerritarrak) eta babes sistemak ohiko desegituraketa estereotipoarekin bat ez datozen familietan esku hartu beharra gero eta gehiago.
- Inork aipatu du komenigarria izan daitekeela eremu honetan aritzen diren profesionalak arnasberritzeko bideak asmatzea. Izan ere, familia biologikoek gero eta iritzi hobea dute haietaz, beren seme-alabak laguntzea haien esku uzten duten aldetik, baina gero eta egoera konplexu eta zailagoei aurre egin behar diete.
- Lan zaila egin behar dutenez gero, harrera etxeetako profesionalak laguntza teknikoa dute, eta funtsezkoa da, egiten duten lan mota dela eta. Hartara, langileak gutxiago txandakatzea ere lortzen dute.
- Adin Txikikoak Babesteko Atalarekiko harremanari dagokionez, kasuen jarraipen egokia egiten du, eta alor honetan ez da behar etengabeko laguntza zerbitzurik, beren baliabideak baitituzte adingabeen beharrei erantzuteko, baina, lehen erran bezala, beharrezkoa da Atalak hobeto egitea adingabeen banakako ebaluazioa eta informazio gehiago ematea bakoitzaren egoerari buruz.
- Nafarroako Gobernuko departamentuek, oro har, ulerberagoak izan behar dute adingabeekin eta gehiago parte hartu behar dute laguntzan. Aurrerapauso handia izanen litzateke hori harrera etxe guztien funtzionamendu orokorrean, eta ona litzateke adingabeei alor guztietan behar duten laguntza emateko: eskola, lan, osasun... arloan. Oro har, harrera etxeetako langileek arazoak dituzte, eskola arloan ulertzen ez dituztelako, eta, batik bat, adimen osasunaren alorreko zerbitzuek behar bezalako laguntza eman diezaieten; inoiz, kabinete partikularrekin egin behar dute beharrezko zerbitzuak eskuratzeko kontratua. Dena dela, alor horietan ere lan gehiegi izatearen ondorio da hori guztia, nagusiki.
- Adingabeek 18 urte bete eta sistema utzi beharri dagokionez, denbora asko daramate planteatzen ez duela

batere zentzurik hainbat urtetan baliabide publikoak erabiltzea haiek babesteko eta, adindun bihurtzen direnean, kale gorrian uztea, sistematik bertzerik gabe botatzea. Adingabeen ikuspegitik, 18 urte betetzetik hurbil egotea benetako trauma da, horren beldur direlako, eta, gainera, azkenean, litekeena da familiarengana itzuli behar izatea, kaltegarria izan arren. Horregatik, adingabeak beregain bihurtzen laguntzeko baliabide berriren bat (esaterako, egokitzeko etxebizitzak) sortu beharra dago, 18 eta 21 urte arteko gazteak hartzeko; izan ere, adingabeek etxetzat har dezaketen erreferente bat eta zaintzen dituen norbait behar dute, eta kostua ez litzateke oso handia, gazteek ordaintzen lagun dezaketelako, beren diru-sarreraren eta abarren bidez. Zenbait erakunde sortzen ari dira proiekturen bat zailtasunak dituzten adingabeak lanertzeko, baina administrazioek eta bertze estamentu batzuek (hala nola, enpresek eta auzoetako gizarte etxeek) gehiago parte hartu beharko dute, azken finean, esku-hartzea osoa izateko. Guztioi dagokigu.

- Inork aipatu duenez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak bultzatu behar du harrera etxeak kudeatzen dituzten erakundeen artean aldi-aldi bilerak edo bilguneak antola daitezen, nor bere esperientziaren, jardunbideen eta iritzien berri elkarri emateko, asko lagunduko bailuke ematen dituzten zerbitzuak aberastu eta hobetzen.
- Zenbait erakunderi arazo ekonomikoak dakarzkie administrazioak ordainketa atzeratzeak; oro har, atzerapena hilabetekoa da, baina, batzuetan, luzeagoa.

Ondorio gisa, adingabeak harrera etxeetan hartzeari dagokionez, berriro ere nabarmendu behar dugu komeni dela haien inguruan oro har dugun ikuskera aldatzea eta harrera etxeak ez hartzea bigarren mailakotzat. Egoera jakin batzuetan, oso baliagarriak izan daitezke eta, orain arte errandakoarekin bat, askotariko zerbitzuak ematen dituzte, kasuan-kasuan eta esku hartzeko prozesuaren fase bakoitzean, kasuan kasuko beharrei erantzuteko baliabiderik egokienak batera erabiltzeko moduan.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da elkarte pribatu horiek guztiek egiten duten lana, sistema publikoa laguntzeko sarea osatzen baitute. Beharrezko lana da adingabeen (etorkizuneko helduen) ongizatea eta garapen egokia alde guztietatik lortzeko, eta erakundeek ahalik eta laguntza eta babes handiena eman behar diete.

8.6.3. Adingabeen iritzia

Lehen ere erran dugu, txostena egiteko, elkarreetako arduradunekin elkarriketatu, harrera etxeetara joan, harrera etxeetako arduraduneri galdeketa egin eta zuzenean behatzeaz gain, laguntzen dituzten adingabeen iritzia ere bildu dugula, garrantzitsu baiteritzozgo haiek txostenaren zati baten partaide sentitzeari eta, hartara, azaltzeari zer iritzi duten, babes sistemaren onuradun nagusiak diren aldetik, hark ematen dien laguntzari buruz.

Horretarako, elkarriketa laburrak egin dizkiegu, eta, gainera, galdeketa xume bat diseinatu dugu, haien ulermenera egokituta dauden eta erantzuten errazak diren galderez osatutakoa. Helburua harrera etxean edo laguntzako etxebizitzan ongi dauden jakiteko beharrezko informazio guztia eta haren funtzionamenduari buruzko iritzia biltzea zen, baita zaintzaileekiko eta haiekin harremanetan dauden arduradunekikiko harremanei buruzkoa ere.

Haren bidez, zenbait gauzari buruz galdetu diegu: zer atsegin duten harrera etxean eta zer ez, zer iritzi duten arabei buruz, norengana jotzen duten zerbait oker dagoenean, nola bideratzen dituzten kexak, erabakitzeke ahalmenik duten, nola interpretatzen dituzten egoera batzuk eta berteak, nolakoa den eguneroko lankidetzeta, zer falta zaien, zer nahi duten...

Jakina, badakigu adierazi dituzten nahiak eta iritziak adingabeen berezkoak direla. Hortaz, kontuan izan behar dugu idealistak izateko joera dutela, eta kontuz ibili iritzi jakin batzuk neurtzen; zenbait, gainera, bideraezinak dira, harrera etxearen ezaugarriak eta adingabearen egoera bera direla eta.

Nolanahi ere, oro har, norberaren egoeraren berezko baldintzatzaileak gorabehera, pozik daude funtsean harrera etxearen baldintzekin eta ematen dieten laguntzarekin.

Jarraian, galdeketen bidez zer datu bildu ditugun azalduko dugu, eta galderen emaitzak zein izan diren.

1. taula. Galdeketei erantzun dieten adingabeen kopurua harrera etxeke

36 hurrek erantzun diete galdeketei, eta Asociación Navarra Sin Fronteras elkarrearen Gaztebide eta Felix Etxegarai harrera etxeetan, Xilema elkarrearen laguntzako etxebizitzetan eta Behaketa eta Harrera Zentroan, Ilundain fundazioaren La Loma harrera etxean eta

Behaketa eta Harrera Zentroan eta Asociación Nuevo Futuro elkartearen etxebizitzetan bizi dira.

Haurren eta nerabeen kopurua		Sin Fronteras		Xilema		Ilundain		Nuevo Futuro	Guztira
		Gaztebide	Felix Etxegarai	Etxebizitzak	BHZ	La Loma	BHZ		
Adina	6-11 urte			3				2	5
	12-15 urte	2	3	1	1	2	3	4	15
	16-18 urte	5	2				3	4	14
	Adinduna							1	1
Sexua	Mutilak		5	1			3	4	13
	Neskek	7		3	1	2	3	7	23
GUZTIRA		7	5	4	1	2	6	11	36

Elkarrizketatutako haur gehienak nerabeak dira: % 80,55ek 12tik 18 urtera bitartean dituzte; haien erdiak, 12tik 15era bitartean, eta bertze erdiak, 16tik 18ra bitartean. Hau da, galdeketari nerabeek erantzun diote gehienbat.

ZER ATSEGIN DUTEN HARRERA ETXEAN ETA ZER EZ

	Bai	Erdizka	Ez
Bizikideak	% 86,1	% 11,1	% 2,8
Hezitzaileak	% 80,6	% 8,3	% 8,3
Zuzendaria	% 80,6	% 5,6	% 13,9
Familia tratatzen duten modua	% 77,8	% 0,0	% 22,2
Janaria	% 72,2	% 8,3	% 19,4
Jolasak	% 69,4	% 0,0	% 30,6
Giroa	% 66,7	% 8,3	% 27,8
Dekorazioa	% 58,3	% 2,8	% 38,9
Arauk	% 41,7	% 8,3	% 50,0

Lehenik, harrera etxeko eguneroko bizitzaren zenbait ezaugarri aipatu eta galdetu diegu zein atsegin duten eta zein ez, eta adingabe gehienek erantzun dute janaria, jolasak, giroa eta bizikideak atsegin dituztela. Hain zuzen ere, galdeketari erantzun diotenen % 86k erantzun dute adiskideak atsegin dituztela, bertze edozein galderari baino gehiagok, baina, dena dela, pentsatzekoa zen, adin horretan mailakideek osatzen duten taldea baita erreferente nagusia.

Iritzirik parekatuenak harrera etxeko arauetarako buruzkoak izan dira, hiruko aldea bertzerik ez baitago baiezkoaren eta ezezkoaren artean, ezezkoaren alde. Dena dela, arauen kontra egitea ere bada nerabeen

ohiko ezaugarria, batez ere, kontuan hartuta harrera etxeetan bizi diren adingabeak egoera berezian eta familiarengandik bereiz daudela.

Nabarmentzekoa da, bizikideen ondoren, hezitzaileei eta zuzendariari buruz dutela iritzi onena, neurri berean. 36 adingabeetatik 29k erantzun dute harrera etxeko bai hezitzaileak eta bai zuzendaria atsegin dituztela.

Oro har, adingabe gehienek (bai laguntzako etxebizitzetakoek eta bai harrera etxeetakoek) iritzi ona dute aipatutako gai guztiei buruz, harrera etxeetan pozik dauden eta haietara ondoko egokitu diren adierazgarri.

Hala ere, pentsatzekoa zenez, 12tik 18 urtera bitartekoentzako behaketa eta harrera zentroan bizi direnen iritzia txarra da, bizikideei buruz izan ezik; hain zuzen ere, bost aldiz okerragoa da. Dena dela, kontuan izan behar dira haren ezaugarriak eta adingabeek denbora gutxi ematen dutela; hori dela-eta, han hartzen dituztenek ez dute etxetzat hartzen.

3. taula. Pribatutasuna eta isilekotasuna

	Bai	Batzuetan	Ez	GUZTIRA
Komunean zaudenean ezin baduzu kisketa itxi, nahiago zenuke itxi ahal izatea?	% 91	% 0	% 9	% 100
Atsegin al duzu zure logela?	% 80	% 0	% 20	% 100
Gustura al zaude zure logelan?	% 71	% 0	% 29	% 100
Jotzen al dute langileek atea sartu baino lehen?	% 66	% 6	% 29	% 100
Bertze norbaitena ere al da logela?	% 60	% 0	% 40	% 100
Ba al duzu leku egokirik maite dituzun gauzak gordetzeko?	% 62	% 0	% 38	% 100
Itxi al dezakezu komuneko kisketa?	% 43	% 0	% 57	% 100
Nahi duzunean eta bakarka dei al dezakezu telefonoz?	% 29	% 6	% 66	% 100
Giltzatu al dezakezu armairu edo tiraderaren bat?	% 8	% 0	% 92	% 100

Pribatutasunari eta isilekotasunari buruzko iritziak askotarikoak dira bai harrera etxeetan bertan eta bai galdera bakoitzaren esparruan. Armairu edo tiradera bat giltzaz ixterik duten galdetu eta ezetz erantzun izana nabarmendu beharrean gaude, baina litekeena da laguntzako etxebizitza eta harrera etxe guztietako araua izatea, eta, hortaz, ez dugu hartuko esanguratsutzat.

Adingabeen erdia baino gehiago bertze norbaitekin bizi dira, baina, hala ere, gehienek beren logela atsegin dute eta gustura daude han.

Adingabeen % 55,56k ezin dute komuneko kisketa itxi, baina haien % 88,9k nahiago luke ahal balu. Nerabeek intimitatea izatea oinarritzko eta beharrezkoa da behar bezala garatzeko, nahiz eta arazoren bat sortu harrera etxeek bete beharreko segurtasun arauekin.

Galdeketa erantzun dioten gehienek adierazi dute harrera etxeko langileek atea jotzen dutela logelan sartu aurretik, intimitatea errespetatzeko, baina hamarrek ezetz erran dute.

Telefonoari dagokionez, % 63,9k ezin dute nahi dutenean eta bakarka erabili, eta halako egonezina pizten die horrek, adiskideekin hitz egiteko gehien erabiltzen duten komunikabidea baita.

4. taula. Harrera etxeko arauak

	Bai	Erdizka	Ez	GUZTIRA
Ba al dakizu zein diren harrera etxeko arauak?	% 100	% 0	% 0	% 100
Ba al dakizu zein diren arauak ez betetzearen ondorioak?	% 94	% 3	% 3	% 100
Galdetzen al dizute iritzia arauak egiteko?	% 33	% 11	% 56	% 100
Bidezkoak iruditzen al zaizkizu arauak ez errespetatzearen ondorioak?	% 43	% 6	% 51	% 100
Erabiltzen al da janaria kentzea diziiplina ezartzeko?	% 31	% 0	% 69	% 100

Adingabe guztiek dute nork bere harrera etxeko arauen berri, eta, horri esker, errazago kokatzen dira han. Ildo horretan, % 91,67k dakite zein diren arauak urratzearen ondorioak, eta, horri esker, hobeto egokitzen dira harrera etxera.

Harrera etxeko arauak egiteko kontuan hartzen dituzten galdetu eta adingabe gehienek erran dute ezetz edo neurri batean bertzerik ez dituztela kontuan hartzen, eta % 33k bakarrik erantzun dute baietz, galdetu egiten dietela edo kontuan hartzen dituztela uste dutela.

Adingabeen % 50ek baino gehixeagok uste dute arauak urratzearen ondorioak ez direla bidezkoak, baina ez da nabarmentzekoa. Ondorioak pribilegioak kentzea izaten dira oro har, eta min egiten die horrek.

5. taula. Zerbait oker dagoenean...

Atal hau da jakiteko adingabeek zer pertsona jotzen duten konfiantzazkotzat eta nork uste duten laguntzen dituela.

Proposatutako galderari erantzun bat baino gehiago ematen ahal zioten, nahi adina, eta ez zuten ordenan erantzun behar; aipatu bertzerik ez zuten egin behar.


Ez bazaude ondo eta norbaitekin hitz egin nahi baduzu, norekin nahiago duzu?	Guztira	%
Lagun batekin	16	16
Hezitzaile edo tutorearekin	15	15
Amarekin	15	15
Anai-arrebekin	12	12
Bertze hezitzaile batekin	10	10
Bertze norbaitekin	10	10
Bertze senide batekin	8	8
Aitarekin	7	7
Harrera etxeko bertze norbaitekin	3	3
Zuzendariarekin	1	1

Adingabe gehienek (% 44,4k) adiskide batekin hitz egitea nahiago dutela erantzun dute, baina puntu bakarreko aldea dago nork bere hezitzailearekin eta amarekin hitz egitea nahiago dutenen aldean, hezitzaileak harrera etxeetan dauden adingabeen erreferente eta euskarri bilakatzen diren seinale.

Zuzendariarekin hitz egitea nahiago dute gutxien: adingabe batek soilik hautatu du hura erreferente.

Ildo horretan, bertze senide batek, aita edo harrera etxeko bertze langileek ere ez dute lehentasunik.

6. taula. Harrera etxeko zerbaiten edo norbaiten kexu bazara, ba al dakizu zer egin behar duzun kexatzeko?



Gehienek dakite zein den kexak aurkezteko prozedura, eta lau adingabek bakarrik erantzun dute ez dakitela haren berri.

Zer egiten duzu?	Guztira	%
Harrera etxeko hezitzaile batekin hitz egin	22	65
Senide batekin hitz egin	5	15
Gizarte Ongizate Departamentuko norbaiti idatzi edo deitu	2	6
Ez dakizu kexa nori aurkeztu	2	6
Ezer ez, ez zarelako kexu	2	6
Ezer ez, ez zarelako ausartzen	1	3

Zerbaiten kexu direnean, adingabeen % 65ek hezitzaile batengana jotzen dute. Berriz ere, argi dago hezitzaileak direla haien erreferenteak.

Oso-oso adingabe gutxi idazten edo deitzen dute Gizarte Ongizateko Departamentura –bik–, ez dute ezer egiten –hiruk– edo ez dakite nori aurkeztu kexa –bik–.

Senitartekoei dagokienez, bost adingabek bakarrik hitz egiten dute haiekin. Ondorioa da harrera etxeko kontuak harrera etxean bertan garbitzen direla, hezitzaileekin, haiek baitira adingabeen erreferenteak.

7. taula. Zuri buruzko erabakiak: eskolaz aldatzea, gurasoak ikustea, oporrak erabakitzea...

gurasoak ikustea, oporrak erabakitzea...


	Bai	Erdizka	Ez	Erantzunik ez	GUZTIRA
Ba al dakizu nola erabakitzen duten zuri buruz?	% 64	% 0	% 31	% 6	% 100
Galdetzen al dizute zer nahi duzun erabakitzen dutenean?	% 69	% 8	% 17	% 6	% 100
Galdetzen al diete guraso edo tutoreei edo bertze senide batzuei zer iritzi duten erabakiez?	% 75	% 6	% 14	% 6	% 100
Ba al duzu zure espedientea eskuratzerik?	% 8	% 0	% 89	% 3	% 100

Atal hau da jakiteko zer iritzi duten adingabeek haiei buruz erabakitzeko moduz.

Nabarmentzekoa da gehienek ezezkoa eman dutela beren espedienteak eskuratzerik ba ote duten galdetu diegunean; hain zuzen ere, adingabeen % 91,67k erran dute ezetz. Datu horretatik ondorioztatzen denez, harrera etxeetan bizi diren adingabeek, oro har, ez dute beren espedientea irakurtzerik, baina hiruk, ordea, badutela erantzun dute.

Adingabe gehien-gehienek badakite nola erabakitzen duten haiei buruz, eta iruditzen zaie galdetu egiten dietela eta kontuan hartzen dutela haien iritzia, baita senideena ere. Ondorio onak ditu horrek nerabeen garapenean, beren bizitza nolabait kontrolatzen dutela sentitzen baitute, eta ez daudela harrera etxearen mendean erabat.

8. Harrera etxearen funtzionamendua



Harrera etheen funtzionamenduari dagokionez, hainbat gairen zerrenda luze bat egin dugu, alor horren berri hobeto jakiteko.

Lehenengo galdera “Galdetzen al dizute nola nahiko zenukeen harrera etxeak funtzionatzea?” izan da, eta 27 adingabek erantzun diote. Erantzun gehienak ezezkoak izan dira, eta harrera etxe askotan eman dituzte. Hain zuzen ere, erantzun dutenen % 62,96k adierazi dute ez dietela galdetzen eta, hortaz, ez direla harrera etxearen funtzionamenduaren partaide sentitzen.

Harrera etheen funtzionamendua nola hobetu daitekeen galdetu, berriz, eta adingabe guztiek erantzun dute.

EGIN DAITEZKEENAK ETA HOBETU BEHARREKOAK	Bai	Batzuetan	Ez	GUZTIRA
Janaria anitzagoa izatea	% 69	% 0	% 31	% 100
Otorduak prestatzea	% 71	% 3	% 26	% 100
Aisialdia luzeagoa izatea	% 66	% 0	% 34	% 100
Logela dekoratzea	% 61	% 0	% 39	% 100
Gurasoekin eta bertze senide batzuekin maizago elkartzea	% 63	% 6	% 31	% 100
Lagunekin sarriago egon eta hitz egitea eta lagunei sarriago idaztea	% 65	% 0	% 35	% 100
Jarduera gehiago programatzea	% 56	% 0	% 44	% 100
Logelak giltzaz ixtea	% 53	% 0	% 47	% 100
Bakarrik egoteko leku bat izatea	% 53	% 6	% 42	% 100
Harrera etxearen funtzionamenduz kexatzea	% 53	% 3	% 44	% 100
Nahi duzun arropa aukeratzea	% 47	% 8	% 44	% 100
Itxi egin daitezkeen armairuak edo tiraderak izatea	% 43	% 3	% 54	% 100
Harrera etxeko hezitzaile edo pertsonaren batekin denbora gehiago ematea	% 47	% 3	% 50	% 100
Adiskide bat bazkaritara gonbidatzea	% 42	% 0	% 58	% 100
Eskola aukeratzea	% 39	% 3	% 58	% 100
Logelak kisketatuz ixtea	% 25	% 0	% 75	% 100
Guztiek bakarkako logelak izatea	% 19	% 0	% 81	% 100
Medikua aukeratzea	% 8	% 3	% 89	% 100

Ezezkorik nabarmengarriena medikua aukeratzeari buruzkoa da, adingabeen % 88,9k uste baitute ezin dutela egin halakorik.

Ezezkoen esparruan, jarraian, adingabeen % 85,56k onartzen dute harrera etxeetan ez dagoela aukerarik han bizi diren guztiek bakarkako logelak izateko; lehenago aipatu dugunez, adingabe gehienak bertze norbaitekin daude logelan, baina, hala ere, gustura daude. Ildo berean, adingabeen % 75ek uste dute ez dagoela aukerarik logelako kisketa ixteko, baina % 55,6k “bakarrik” uste dute

tiraderak edota armairuak giltzaz ixteko aukerarik ez dagoenik; % 44,5ek, ordea, baietz uste dute, itxi egin daitezkeela.


Gai pertsonalagoi dagokienez, % 66,7k uste dute badutela zenbait otordu prestatzerik, eta % 61ek, beren logelak dekora ditzaketela; garrantzitsua da hori adingabeen ongizatean, beren logela beretzat har baitezakete hartara. Azkenik, % 50ek uste dute badutela zer arropa erosi nahi duten erabakitzea, eta bertze % 50ak, ezetz, ez dutela inolako kontrolrik.

Kanpokoekiko harremani eta aisialdiari dagokienez, berriz, adingabeen % 61ek uste dute harrera etxeetan badela aisialdia luzeagoa izateko aukera, gurasoekin eta bertze senide batzuekin maizago egoteko, lagunekin sarriago egon eta hitz egiteko eta lagunei sarriago idazteko. Datu hori ere adingabeok harrera etxetik kanpokoekin eta beren erreferenteekin harremanetan egoteko beharraren adierazgarri da, baita langileek inola ere bete ezin dituzten hainbat gabezia afektiborena ere.

Bertze honako hauei buruz dagokienez, azkenik, iritzia ez da nabarmengarria, askotarikoa baita: hezitzaileekin denbora gehiago ematea dagoen, zentroaren funtzionamenduaz kexatzea, eskola aukeratzea, bakarrik egoteko leku bat izatea, adiskideren bat bazkaritara gonbidatzea, jarduera gehiago programatzea... Hori dela-eta, ezin da atera ondorio giririk horri buruz.

Bitxikeria gisa, aipatzekoa da adingabeen % 69,5ek uste dutela harrera etxeko janariak anitzagoa izan behar duela.

9. taula. Atxegin al duzu harrera etxean bizitzea?



Adingabeen ikuskerari buruzko azken atala galdeketako azkena ere bada: "Oro har, atsegin al duzu harrera etxean bizitzea?".

Proposatutako bost erantzunen ehunekoak oso orekatuta daude. % 22k erran dute oso gustura daudela, eta bertze horrenbestek, gustura daudela. Hau da, guztira, harrera etxeetan bizi direnen % 44 gustura daude, eta, gainera, adingabeen % 13,8k diote ez dagoela gaizki. Aintzat hartu beharreko ehunekoa da hori.

Hamabost adingabek, ordea, adierazi dute ez dutela atsegin harrera etxean bizitzea. Horietako bost 12tik 18 urtera bitartekoentzako harrera eta behaketa zentroetan daude, eta pentsatzekoa zen hori erantzunen zutela, zentroaren beraren berezitasunak direla-eta. Izan ere, halakoetan hartzen dituzten adingabe gehienak behartuta joaten dira, eta, hasiera batean, denbora gutxirako; hori dela-eta, ez dira bertako sentitzen, eta beren girotik kanpo daudela iruditzen zaie.

Ondorio gisa, nabarmentzekoa da adingabe asko gustura daudela harrera etxean, harrera etxeek eta hango baliabideek haiekin lan txalogarria egiten duten adierazgarri.

Adingabeek beraiek emandako iritziak frogatzen du irudipen hori, lehen aipatutakoa, eta atal honetan atera ditugun ondorioak zuzenagoak direla pentsatzeko bide ematen digu.

8.6.4. 18 urte bete eta harrera etxetik joan beharra

Adingabe bat harrera etxean hartzeari uzteko arrazoiak hainbat egoeraren ondorio dira. Batzuetan, adingabeak familian hartu edo adoptatu egiten dituzte, baina bertze batzuetan (gehienetan), ordea, arrazoi izaten da adingabeek eta familiek esku hartzearen helburuak lortu eta adingabea familiarengana itzultzea edo, familiarik ez duela edo familiarekin bizitzea bideragarria edo komenigarria ez dela-eta, adingabea familiarengana itzuli ez eta adindun bihurtzea. Hain zuzen ere, maiztasun aldetik, hurrenkera horrexetan jazotzen dira.

Harrera etxean bizitzeari uztea babes sisteman sartzen diren adingabe guztien bizitzan da adierazgarri eta esanguratsua, eta, hori dela-eta, esku hartzeko eskuliburuak berak dio adingabeak harrera etxeetan hartzen dituztenean lortu beharreko funtsezko helburuetako bat adingabea horretarako prestatzea dela. Hala ere, bereziki, aipatzekoa da harrera etxetik 18 urte betetzen dituztelako joaten direnen egoera, adingabeak babes sistematik irtetea baitakar, eta ordura arte nolobait zaintzen zituztenen esku egoteari uztea.

Gai horri buruz, azaldu dugu jadanik esku hartzeko eskuliburuak programa espezifiko bat ezartzen duela, adingabeak bere kabuz bizitzeko prestatzeko. Helburua, 18 urte bete eta babes sistematik kanpo geratu ostean, harrera etxean egon diren gazteak behar bezala gizarteratu daitezzen ziurtatzea da, benetako eskakizun sozioekonomikoei eta beharrei erantzuteko moduan.

Horretarako, babestu egin behar diren 14 urtetik gorako nerabeak lagundu eta babestu egin behar omen dira, pertsona beregain gisa gizarteratzeko beharrezko oinarriko abileziak garatzeko.

Bertzeak bertze, esku hartzeko eskuliburuak honako gai hauek aipatzen ditu adingabeei beren kabuz edo beregainki bizitzeko prestatzeari dagokionez:

- Laguntza ekonomikoa, ostatua, mantenua eta prestakuntza ordaintzeko.
- Orientabidea eta laguntza, eguneroko bizitzan beregainki moldatzeko beharrezko gaitasunak garatzeko.
- Orientabidea eta laguntza, prestakuntza jardueretan jarraitu eta laneratzeko beharrezko prestakuntzaz jabetzeko.
- Laneratzen laguntzea, gaztea orientatuz eta haren eta komunitatearen baliabideak sustatuz.
- Gizarte sareekin harremanetan egotea, gazteak haietan baneratzeko laguntzeko eta laguntza iturri berriak eratzeko.

Hala eta guztiz ere, honezkero begien bistan geratu da zein diren egungo sistemaren gabeziak eta ahulezia alor honetan. Ildo horretan, ondorio orokorra da auzi hau oraindik ere ebazteke dagoela, eta horrek ondorio larriak dituela adingabeen sentimenduetan 18 urte betetzear daudenean.

Nafarroako harrera etxeak kudeatzen dituzten erakundeek beraiek ere adierazi dute, haien ustez, kontraesana dela hainbat urtetan ahalegin handia egin eta baliabide publiko asko erabiltzea adingabeak babesteko eta, adindun bihurtzen direnean, kale gorrian uztea, sistematik bertzerik gabe botatzea, are gehiago kontuan izanik, egungo egoera sozial eta ekonomikoan, 18tik 20 urtera bitarteko gazteak ez daudela prest helduen bizimoduari aurre egin behar izateko, eta are gutxiago babes sistematik ateratzen diren gazteak.

Adingabeok 18 urte betetzen dituztenean, erakunde horiek egin behar omen diote aurre, nagusiki, haien egoera zail eta konplexuari. Izan ere, nolabaiteko lotura izan dute ordura arte gazteekin, eta egungo hutsunea betetzeko aukerak sortu eta bideratzera behartuta sentitzen

dira. Horretarako, askotariko ekimenak gauzatzen dituzte, hala nola, babes sistematik kanpo geratzen diren gazteak laneratzeko erakundeak eta enpresak sortzea, baina administrazioak ez du onartzen dagokion ardurara eta, batzuetan, laguntza ekonomiko berezi bat eman bertzerik ez du egiten; adibidez, horixe xedatzen du, labur-labur, adingabeak babesteko laguntzak arautzeko foru dekretuaren proiektuak.


Ikusitakotik ondorioztatzen dugunez, desoreka handia dago baliabide eta programa aldetik, batetik, zerbitzu itxi edo trinkoen eta, bertzetik, kanpoan egin daitekeen lanaren eta tarteko konponbideen artean. Ondorioz, harrera etxetik joateko uneak berebiziko eragina du gizarteratzean, arriskuz betetako memento kritikoa baita, eta litekeena baita urteetan egindako lana alferrikakoa izatea, gutxieneko jarraitutasun edo jarraipenik eza dela eta.

Harrera etxeak kudeatzen dituzten elkarten eta erakundeen ustez, beharrezkoa da administrazioak alor honetan dagokion ardurara bere gain hartzea eta halako egoerei aurre egiteko beharrezko baliabideak bideratzea, baita Nafarroako Gobernuako departamentu guztiek eta gizarteko gainerako estamentuek sakonkiago parte hartzea, halako egoeretan oro har esku hartzeko eta gazteok zinez prestatzeko beregainki eta bere kabuz bizitzeko. Bestela, arriskua dago, gazteok autonomoak izateko prozesuaren orde, haiek baztertzeko prozesua jazotzeko.


Harrera etxeak kudeatzen dituzten elkarteek eta gainerako erakundeek aipatutako gabeziei aurre egin eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak jakinarazi digu ez dela egia, 18 urte betetzen dituztenean, harrera etxeetan dauden gazteak babes publikorik gabe batere geratzen direnik. Adin Txikikoak Babesteko Atalak berak hartuta egon diren bitartean erreferentetzat izan dituztenengandik bereizteko prozesuan laguntzen omen ditu eta lanerako prestatu, lanpostu bat aurkitu, bizilekua topatu edo, litekeena bada, berriz familiaretan bizitzen hasten diren bitartean zaintzen ditu; gazteok erakundeetatik atera ondoko jarraipenaren gastuak "Zailtasun sozialak dituzten gazteak laguntzea" sailaren kontura ordaintzen ditu.

Azken batean, begi bistakoa dirudi gehiegizkoa dela ondorioztatzea administrazioa ez dela batere arduratzen arazo honetaz, baina harrera etxetik joateko eta nor bere kabuz bizitzen hasteko programa berrikusi eta sendotu egin behar dela, erabakigarria eta giltzarria baita gizarteratzeko prozesuan, harrera etxeetan dauden nerabeei dagokienez batik bat.

Atal hau amaitu aurretik, aipatzekoa da ahalegin ekonomiko handia egiten dela adingabeak harrera etxeetan hartzeko, Haur eta Gazteendako Planak egiten dituen iragarpenak eta 12. programaren, “Adingabeak harrera etxeetan hartzea” izenekoaren esparruan gastatutakoa konparatuz gero ikusten denez.



Grafiko horretan ez da ageri epaileek ezarritako neurriak bete behar dituzten adingabeak harrera etxeetan hartzeko zerbitzuaren kostua. Aitzitik, 13. programaren, “Epaileek zigortutako haurrak eta gazteak laguntzeko programa” izenekoaren kontura ordaintzen da, eta alor honetako gastua ere nabarmenki handitu dela eta Planak iragarritakoa baino askoz handiagoa dela ikusten da.



Familia Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioarekin bat, guztira, ondokoa izan da adingabeak harrera etxeetan (babestekoetan eta zentzatzekoetan) hartzeko gastuaren bilakaera.

Gastu erreala	2002	2003	2004	2005	2006
Adingabeak harrera etxeetan hartzea	4.186.645 €	4.741.617 €	5.010.663 €	5.533.661 €	6.909.389 €


8.6.5. Aipamen laburra zentzatzeko etxeetan dauden adingabeei buruz

Zigor Kodeak faltatzat hartzen duen hutsegiteren bat egiten badute eta Adingabeen Epaitegiak Adingabeen erantzukizun penala arautzeko 5/2000 Legeak xedatzen duen neurriren bat betetzera zigortzen baditu, 14tik 18 urtera bitarteko gazteek badute programa bat Planaren esparruan.

Helburua haiek gizarteratzea da, ezartzen dituen hamaika neurrien bitartez:

- Erregimen itxiko barnealdia.
- Erregimen erdi irekiko barnealdia.
- Erregimen irekiko barnealdia.
- Barnealdi terapeutikoa.
- Droga kontsumoa eta adimen osasunaren alorreko arazoak tratatzeko tratamendu ambulatorioa.
- Eguneko zentrora joatea.
- Asteburua harrera etxean edo etxean ematea.
- Zaintzapeko askatasuna.
- Bertze pertsona, familia edo heziketa talde batekin bizitzea.
- Komunitatearen onerako zerbitzuak ematea.
- Gizarte eta hezkuntza arloan lan egitea.

	2004	2005	2006
BARNEALDIA			
<i>Kautelazkoa</i>	5	2	7
<i>Erregimen itxikoa</i>		3	
<i>Erregimen erdi irekikoa</i>	30	19	15
<i>Asteburua harrera etxean ematea</i>	40	20	7
<i>Terapeutikoa, droga kontsumoa dela eta</i>	6	1	1
Barnealdian daudenak, guztira	81	45	30
KANPOAN BETE BEHARREKO NEURRIAK			
<i>Zaintzapeko askatasuna</i>	61	64	69
<i>Tratamendu ambulatorioa, droga kontsumoa eta adimen osasunaren alorreko arazoak direla eta</i>	12	2	6
<i>Asteburua harrera etxean ematea</i>	16	19	14
<i>Komunitateari oinarrizko zerbitzuak ematea</i>	28	36	41
<i>Eguneko zentrora joatea</i>		1	1
<i>Gizarte eta heziketa arloko lanak</i>	8	11	10
<i>Bertan behera utzitako neurrien jarraipena</i>		4	4
Kanpoan bete beharreko neurriak, guztira	125	137	145
GUZTIRA	206	165	175



GATAZKAK DITUZTEN ETA BERREZI EGIN BEHAR DIREN ADINGABEAK BARNEALDIAN
Urte osoan hartutakoak

	2004			2005			2006		
	Babesa	Berrezik.	Guzt.	Babesa	Berrezik.	Guzt.	Babesa	Berrezik.	Guzt.
<i>Felix Etxegarai mutilentzako harrera etxea</i>	16	6	22	25	1	26	26	0	26
<i>Gaztebide nesKentzako harrera etxea</i>	18	2	20	20	0	20	18	1	19
<i>Epalleek ebatzitako neurriak beteazteko Ilundain harrera etxea</i>	0	22	22	0	18	18	0	14	14
<i>La Loma nesKentzako harrera etxea</i>	12	0	12	8	0	8	19		19
<i>Adingabeak desohitzeko Zandueta zentroa</i>	2	6	8	5	1	6	8	1	9
GUZTIRA	48	36	84	58	20	78	71	16	87

GATAZKAK DITUZTEN ETA BERREZI EGIN BEHAR DIREN ADINGABEAK BARNEALDIAN
Urtean urteko abenduaren 31ko egoera

	31/12/2003	31/12/2004	31/12/2005	31/12/2006
Asociación Navarra Sin Fronteras elkarte				
<i>Felix Etxegarai mutilentzako harrera etxea</i>	11	13	16	18
<i>Gaztebide nesKentzako harrera etxea</i>	10	12	16	19
Ilundain Haritz Berri fundazioa				
<i>Epalleek ebatzitako neurriak beteazteko Ilundain harrera etxea</i>	11	7	7	7
<i>La Loma nesKentzako harrera etxea</i>	3	5	5	10
Dianova				
<i>Adingabeak desohitzeko Zandueta zentroa</i>	6	1	4	3
GUZTIRA	41	38	48	57

GATAZKAK DITUZTEN ETA BERREZI EGIN BEHAR DIREN ADINGABEAK ORIENTAZIO ETA HARRERA ETXEETAN

	2004			2005			2006		
	Babesa	Kaut.	Guzt.	Babesa	Kaut.	Guzt.	Babesa	Kaut.	Guzt.
<i>Ebaluazioa eta harrera</i>	64	5	69	77	5	82	92	7	99
<i>Asteburuak ematea</i>	0	40	40	0	20	20	0	7	7
Guzt.	64	45	109	77	25	102	92	14	106

GATAZKA ETA BERREZIKETA LANTALDEAREN JARDUNA (LABURPENA)

	Babesa			Berreziketa			GUZTIRA		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
Adingabeak harrera etxeetan	48	58	71	36	20	16	94	78	87
BHZ	64	77	92	45	25	14	122	102	106
Kanpoan bete beharreko neurriak				125	137	145	125	137	145
Nerabeak hezte	21	30	28				30	30	28
Ebaluazioa	37	23	12	9	130	180	46	170	192
GUZTIRA	170	188	203	215	312	355	417	517	558

Azken hiru urteotan, hazkunde ikusgarria izan da Gatazka eta Berreziketa Lantaldeari eskatzen dizkioten ebaluazio txostenen kopuruan. Gehienbat, gatazka eta berreziketa fiskaltzek eskatzen dituzte. Halere, ondoko grafikoan ikusten denez, gehienak (% 89) arrisku txikiko egoeratzat hartzen dira eta, azkenean, oinarrizko gizarte zerbitzuetara bideratzen dira.

**NORK ESKATZEN DITUEN
GATAZKAK DITUZTEN ADINGABEEI BURUZKO EBALUAZIO TXOSTENAK**

ESKATZAILEA	2004	2005	2006
Babeserako Fiskaltza	9	24	12
Berreziketa Fiskaltza	24	161	230
Ebaluazio Lantaldea	2	4	
Harrera Lantaldea		3	
Foruzaingoa	2	3	
Nerabeak hezteko programa		3	
Adimen osasunaren alorreko zentroa	1		
HNAL		1	
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	19	14	
GUZTIRA	57	213	242

FISKALTZAK ETA BERTZEK GATAZKAK DITUZTEN ADINGABEEI BURUZ ESKATZEN DITUZTEN EBALUAZIO TXOSTENAK NORA BIDERATZEN DIREN AZKENEAN

NORA BIDERATZEN DIRA ESPEDIENTEAK?	2004	2005	2006
Oinarrizko gizarte zerbitzuetara	18	113	170
HNALra	3	11	5
Bertze autonomia erkidego batera			5
Zailtasun edo Gatazka Sozialak dituzten Adingabeak Laguntzeko Bulegora			4
Ilundain BHZra	4	1	3
Adinduentzako programara			2
Adingabeak harrera etxeetan hartzeko programara	10	24	1
Nerabeak hezteko programara	9	19	1
Zentro terapeutiko batera	1		
Laguntza ekonomiko batera	1		
Adingabeak familian hartzeko programara		1	1
SMMARA		1	
Ebaluatutakoak, guztira	46	170	192
Ebaluatzeke daudenak	11	43	50
GUZTIRA	57	213	242

8.7. JARRAIPENA ETA BABESA

Txostenaren aurreko atal batean oinarritzko gizarte zerbitzuek babesgabetasun txikiko egoeretan eta neurritzko babesgabetasun egoeretan esku hartzen duten moduz eta halakoetan ematen duten laguntzaz aritu gara, eta mekanismo horiek egiteko horri heltzeko mugatuta daudela azaldu dugu, eta ez dutela halako egoeretan familian esku hartzeko programa egituratu edo baliabide propiorik. Erran dugu, halaber, Iruña eta Lizarra salbuespenak direla, HNAL dituztelako.

Areago, zenbaitetan, familian esku hartzeko lehen mailako zerbitzuen lana Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuaren bidez egin behar da neurri batean; hain zuzen, Programa Adin Txikikoak Babesteko Atalak kudeatzen du.

Edonola ere, lehen mailako sareak baliabide eta prestakuntza nahikoa ez izatea muga esanguratsua da hasiera batean babesgabetasun egoera larrian dauden adingabeen familietan esku hartu eta haiek laguntzeko, eta, adingabeak familiarengandik bereizi ala ez, laguntza eman beharra Adin Txikikoak Babesteko Ataleko zerbitzu espezializatuari dagokie nagusiki.

Hain zuzen ere, halako egoerei buruz arituko gara jarraian. Adingabeak familian hartzeari eta harrera etxeetan hartzeari buruz jardun dugunean, alegia, adingabeak familiarengandik bereizten dituztenean jazotzen den egoeraz jardun dugunean, gabeziak daudela ikusi dugu, jarraipenaren kalitatea ez dela behar bezain ona, eta faltan ematen dela alor honetan esku hartzeko jarraibide egokiak ezartzea, esku-hartzeari buruzko iragarpenekin eta programazioarekin bat, eta ez, ordea, kasuan-kasuan sortzen diren beharrekina bat.

ADINGABEAK FAMILIA BIOLOGIKOARENGANDIK BEREIZI ETA HURA LAGUNTZEKO PROGRAMAK Esku-hartze motak (laburpena). 2005eko abenduaren 31ko egoera

FAMILIARENGANDIK BEREIZITAKO ADINGABEAK	<i>Familian esku hartzeko programaren batean parte hartzen dutenak</i>	<i>Inolako laguntza programatan parte hartzen ez dutenak</i>	Guzt.	Oharrak
BHZetan hartutakoak	0	14	14	
Familian hartutakoak	0	227	227	Zenbait familia hartzaile, beren kabuz, familia biologikoarekin harremanetan jartzen dira eta lagundu egiten dute.
Harrera etxeetan hartutakoak	0	148	148	Harrera etxeak, beren kabuz, zenbait familia biologikorekin harremanetan jartzen dira eta lagundu egiten dituzte.
GUZTIRA	0	389	389	

**FAMILIAN HARTUTAKO SEME -ALABA ADINGABEAK DITUZTEN
ETA TRATATU EGITEN DITUZTEN FAMILIAK**

	2002	2004
Familia osatu eta adingabea haiekin itzultzeko tratatzen dituzten familia biologikoak	% 5,0	% 4,0

Iturria: behin-behineko ebaluazioa.

LAGUNTZAREN BAT ESKURATZEN DUTEN FAMILIA HARTZAILEEN %

<i>Laguntzaren bat eskuratzen duten familia hartzaileen %</i>	2005
Familia hezitzailea	<i>Zehaztu gabe</i>
Laneratzeko laguntza	<i>Zehaztu gabe</i>
Adimen osasunaren alorrekoa eta drogaletasunen aurkakoa	Adimen osasunaren alorreko tratamenduak adimen osasunaren alorreko sare publikoak ematen ditu.
Ekonomikoa	Salbuespenezko egoeretan ematen da, babesgabatasun egoera jakin bat konpondu eta adingabeak harrera etxeetara eraman behar ez izateko.
Bestelakoa (nolakoa?)	Psikologo eta gizarte langile banak osatutako lantalde batek familiak eta adingabeak laguntzen ditu sexu abusuak gertatzen direnean.
Familia bisitatzea	
Familien etxera egiten diren bisitak urteko	<i>Zehaztu gabe</i>

Haur eta Gazteendako Planak ematen du egoera horren berri. Hain zuzen ere, adingabeak hartzeko bi moduen jarraipena egin eta halakoetan esku hartzeaz ari denean, halako laguntza programa bat ez izatea nabarmentzen du. Alde horretatik, adierazgarria da adingabeak harrera etxeetan hartzen dituztenean jazotzen den egoeraz egiten duen aipamena; izan ere, lehenik dio egoera horretan dauden adingabeen % 50en baino gehiagoren kasuan familiaren etxera itzultzea dela etorkizunerako proposamena, baina, ondoren, dio iragarpenok nekez lor daitezkeela, egun familian esku hartzeko baliabideen eskasia dela eta. Zehatz-mehatz, honako hauek dira gabeziak:

- Zenbait adingaberi familiarekin itzultzeko plana egokitzen diete, baina adingabeon familia biologikoen % 37,2k bakarrik lortzen dute familia hezitzaile baten laguntza; % 33k baino ez, adimen osasunaren alorreko arazoak tratatzekoa; eta % 31k bertzerik ez, laneratzekoa.

- Familiak Hezteko Programa (egun, Familian Esku Hartzeko Programa) ez da erabiltzen harrera etxeetan dauden adingabeen familiak laguntzeko, eta ardura edo erantzukizun hori, praktikan, harrera etxeak kudeatzen dituzten erakundeen esku gelditzen da, lehen aipatu bezala.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuek baliabide mugatuak dituzte familian esku hartzeko, eta ez dirudi dituztenak nahikoak direnik familiarengandik bereiz dauden adingabeen familiarteko arazoen larritasunari erantzuteko.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak uste dute familian esku hartzeko programak seme-alabak etxean dituzten familiekin erabili behar direla.

Arazo horri guztiari heltzeko, Haur eta Gazteendako Planak eta esku hartzeko eskuliburuak Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua ezarri eta garatzen dute, hurrenez hurren. Haren helburua da babesgabetasun larriko egoeran dauden hauren familia guztiek, behar badute, laguntza eta tratamendu baliabideak erabili ahal izatea, haurrak familiarengandik eta ingurune sozialetik ez bereizteko ez ezik, banantzea halabeharrezkoa bada, adingabea familiarekin lehenbailehen itzultzeko ere.

Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua hainbat programatan eta azpiprogramatan banatu izan da, eta, babesgabetasun egoera amaitzea ez ezik, familia osatzea ere du funtsezko helburu. Ildo horretan, programa eta azpiprograma guztiak bat datoz eta haien esparrua familia osoa da.

Hona hemen haiei buruzko aipamen txiki bat, Hauren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburuak azaltzen dituen bezala:

- Familiak berriz elkartzeko programa

Helburua da familia batuta mantentzea eta, aldi baterako, hauren babesgabetasun egoera hain larria zelako administrazio publikoak haien gaineko tutoretza edo zaintza bere gain hartu behar izan du, familiarengandik bereizten dituzten haurrak familiarengana itzul daitezen lortzea.

- Familiaren barnean jazotzen diren sexu abusuak tratatzeko programa

Honako hauek dira programaren helburuak:

- a) Familiaren barnean sexu abusuak jazotzen direla-eta, administrazioak haurrak babesteko neurriak hartu eta erabakitzen duenean familiaren etxetik joan behar dutela aldi baterako, familia berriz elkar dadin lortzea, ikerketa eta ebaluazioa egin eta familia berriz elkartzeko prozesuari ekitea egokia dela ebatzi ondoren; halakoetan, abusuen egilea familiatik kanpo ala barne gera daiteke. Hau da, programa familiak berriz elkartzeko programa da berez, baina alde nabarmenak daude baten eta bertzearen artean, eta ezberdintasunok, bertzeak bertze, esku hartzeko metodologian eta erabili beharreko baliabideetan dute eragina.
- b) Abusuen egilea etxetik joaten denean eta haurra etxean geratzen denean, sexu abusuak berriro gerta ez daitezen lortzea.

Hala eta guztiz ere, gaur egun, seme-alaba adingabeengandik bereizten dituzten familia biologikoak ez dira behar bezainbat eta programazio bati jarraiki laguntzen, esku hartzeko eskuliburuarekin bat, halako programen onuradun izan behar duten arren.

Are gehiago, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatuan parte hartzen duten familia guztien % 4k bakarrik hartzen dute parte familiak berriz elkartzeko azpiprograman.

Bestalde, laguntza mota honi dagokionez, nabarmentzekoa da esku hartzeko eskuliburuak berak esku hartzeari buruz aipatzen duen oinarritzko filosofia. Izan ere, familia oro har laguntzea hartzen du pertsonak garatzeko biderik egokientzat, eta dio gurasoak direla seme-alaben babes iturririk onena eta haien oinarritzko beharrei erantzuteko baliabide normala, eta, hortaz, laguntza sistema informalen (hala nola, senitartekoen eta adiskideen) eta formalen (osasun etxeen, ikastetxeen, komunitateko gizarte zerbitzuen...) laguntza izan behar dutela.

Horretarako, funtsezkoa da alor honetan esku hartzen duten administrazioak elkarrekin koordinatzea, esku-hartzea eraginkor eta fidagarria dela ziurtatzeko. Sare publikoen eta erabil daitezkeen neurrien aniztasuna dela-eta, egoera konplexuegia da, eta erran daiteke babesgabetasun egoeran dauden adingabeen jarraipena egitea dela adingabeak babesteko sistemaren zailtasun nagusietako bat. Hori dela-eta, egoera antolatu egin behar da, babes sistema osatzen duten profesional eta eragile guztiak elkarrekin koordinatuz eta nork dagokion erantzukizuna bere gain hartuz, eta adingabeak babesteko programak gizarte bazterketari aurre egiteko programekin

lotu behar dira, sarritan, haurrak babestu behar izateko eta gizartetik bazter geratzeko arrazoiak berdinak baitira eta oro har heldu behar baitzaie.

Alde horretatik, esku hartzeko eskuliburuak aipatzen duen kasuan kasuko arduradun teknikoa aproposa da kasuaren zuzendaritza teknikoa bere gain hartzeko: onartzen diren neurriak eta ekimenak koordinatu behar ditu, kasua aldian-aldian berrikusi behar du eta, gainera, adingabeen eta familien erreferentea izan behar du, zalantza edo gatazkaren bat pizten denerako.

Ildo horretan, prozesuan esku hartzen duten pertsonak (gurasoak, senideak, etab.) komunikatzeko bideak ere hobetu behar dira, Adin Txikikoak Babesteko Atalaren gaur egungo lan baldintzetan eta bulegoetan ez baita posible. Horregatik, komeni da sistemaren bat ezartzeko aukera aztertzea, egiten dituzten deiak eta gainerako galderak bideratu eta haiei erantzuteko; hain zuzen ere, sistema horrek erantzuteko ardura duen profesionalarengana bideratu behar ditu deiak eta galderak, eta, azkenean, pertsona horiek behar duten erantzuna lortzeko bide eman.

Izan ere, administrazioko egiturak kasuan kasuko egoerara eta adingabeen beraien egoerara egokitu behar du, ez alderantziz: baliabideak kudeatzeko bitartekoek ahalik eta malguenak izan behar dute eta halako egoeretan esku hartzen duten profesionalek harrera etxeetara eta adingabeen etxera behar bezainbatean joateko aukera izan behar dute; gainera, kudeaketa bitarteko egokiak izan behar dituzte, behar bezala lan egiteko.

Azkenik, aipatzekoa da Adingabeen Fiskaltzak oso eginkizun esanguratsua izan dezakeela halako egoeren jarraipena egiten eta halakoetan laguntza ematen. Epaitegietako zerbitzuek, oro har, gero eta gehiago parte hartzen dute jarraipen lan guztietan, neurri batean, Adingabeen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak haurren eta nerabeen ongizatea zaintzeko eginkizuna areagotzen duelako, baina, hala ere, komeni da ildo honetan sakontzea eta, horretarako, fiskaltzak baliabide gehiago izatea.



8.8. SISTEMAREN EBALUAZIOA ETA IKERKETA

Jarraian, espedienteak amaitutzat emateko arrazoiei buruz helarazi dizkiguten datuak emanen ditugu. Adierazten dutenez, familiarekin bueltatzea da arrazoi nagusia.

ESPEDIENTEA AMAITUTZAT EMATEKO ARRAZIOIAK
Behin-behineko ebaluazioa txostena (2003-2004)

Adina, batez bertze	15 urte
Familiarekin bueltatzea, etab.	% 65
Nor bere kabuz bizitzen hastea eta 18 urte betetzea	% 30
Bertze autonomia erkidego batera joatea	% 5
Adopzioa	
Babesgabetasun egoera amaitzea edo konpontzea	
Bertze batzuk	

Halaber, sistema ebaluatzeko adierazlea izan daitekeen aldetik, babesgabetasun adierazpenen aurka aurkezten dituzten helegiteen kopurua emanen dugu, ehunekotan, eta baita epaileek onartu edo ezetsi egiten dituzten errekurtsioen ehunekoa ere.



Halako datuak eta informazioa erabiltzen ditugunean, gogoan izan beharra dago zerbitzuak emateko modu asko daudela (administrazioak bere kabuz, itunak eginez, etab.), baina horiek guztiek badutela izendatzaile komunik: haiek abian jartzeko erantzukizuna publikoa da eta, hortaz, baita hartzen diren neurriak betearazi eta haien jarraipena egitekoa ere.

Alor honetako jardunaren arduradun diren aldetik, administrazio publiko eskudunek (bereziki, Nafarroako Gobernuak, adingabeak babesteko erakunde publikoa den neurrian), sistematikoki, alor honetan hartzen diren neurriak kontrolatu eta ebaluatu behar dituzte aldian-aldian, dagokien ardura bete egiten dutela eta sistemaren erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, eta zerbitzua hobetu eginen dela ziurtatzeko.

Jakina, horretarako, lehenik eta behin, zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatu behar dituzte, gutxieneko eskakizun materialak eta funtzionalak betetzen dituztela ziurtatzeko eta zerbitzu publikoa eman beharra babesteko; azken batean, beharrezko kalitate mailak bermatzeko.

Alabaina, sistema bertze mekanismo batzuek ere osatu behar dute, zenbateraino den eraginkorra eta zer-nolako emaitzak lortzen dituen zehazteko beharrezko datuak biltzeko.


Haur eta Gazteendako Planak kontuan hartzen du horren garrantzia, eta, ildo gidarien artean, kalitateaz eta eraginkortasunaz ari dela, honako hau xedatzen du: *“Haurrak babesteko sistemak eta hura osatzen duten zerbitzuek neurri fidagarri eta baliagarriak hartu behar dituzte, esku-hartzearen eragingarritasuna eta kalitatea jarraituki ebaluatzeko; hau da, jakiteko zenbaterainoko ahalmena duten erabiltzaileen beharrei erantzuteko”*.

Gainera, honako hau ere ezartzen du: *“Zerbitzuon helburuak eragingarritasuna eta kalitatea hobetzea izan behar du betiere, eta, horretarako, jakintza zientifikoa eguneratu eta haurren babesgabetasun arazoei heltzeko estrategiei eta metodoei buruzko ezaguera berriak aplikatu behar ditu”*.

Hori dela-eta, Planak bera jarraituki ebaluatzeko programa bat dakar. Haren xedea, funtsean, Plana ezartzeko prozesuaren eta hura osatzen duten programen jarraipena egitea da, eta, horretarako, hainbat adierazle ezarri behar omen dira. Bertzeak bertze, Familia Zuzendaritza Nagusiaren 2004ko oroitidazkitik ondorioztatzen denez, zenbait sortuak dira dagoeneko.

Ildo horretan, txostenean behin eta berriz aipatu dugunez, 2003an eta 2004an Planaren behin-behineko ebaluazioa egin zuten, urte horiexei buruzkoa, eta egun 2005. eta 2006. urteak ebaluatzen ari dira. Bi ebaluazioak Euskal Herriko Unibertsitateko lantalde teknikoak egin ditu, Plana bera prestatzen lagundu baitzuen.

Bildu dugun informazio ekonomikotik ondorioztatzen denez, Planak esparru honetan egindako iragarpenak nahiko neurri onean betetzen ari dira.



Ildo berean, Haur eta Gazteendako Planaren Jarraipena Egiteko Batzorde Teknikoak hainbat bilera egin ditu orain arte, 2003ko otsailaren 17an, 2004ko maiatzaren 12an eta 2005eko maiatzaren 6an, eta jakin badakigu 2006ko azken hilabetean bertze bat egin zuela. Hain zuzen, Batzorde Teknikoa Familia Zuzendaritza Nagusiko, oinarrizko gizarte zerbitzuetako, harrera etxeak kudeatzen dituzten erakundeetako, Fiskaltzako, Familia Epaitegiko, Foruzaingoko, adimen osasunaren alorreko haurrentzako eta gazteentzako unitateko, Drogamenpekotasunaren aurkako Foru Planeko eta Eskolatzeko Batzordeko ordezkariak osatzen dute.

Alabaina, sistema horiez gaindi dagoen ebaluazio lanaren falta antzematen da. Izan ere, aipatu sistemak jarraipena egiteko prozedurekin nahasten dira eta, maiz, txostenak eta urteko oroitidazkiak egitera mugatzen dira; horrek ez du erran nahi dokumentuok ez dakartzatenik elementu beharrezkoak eta kontuan hartu beharrekoak babes sistemaren funtzionamenduaren berri jakin nahi izanez gero.

Azaldutako funtzionamendua, baina, nekez jazo daiteke aipatzen ari garen esparru teorikoen barnean, ezta espedienteen analisiaren esparruan ere. Aitzitik, prozesuko fase bakoitzaren ebaluazio kualitatiboa egin behar da, eta kontrol mekanismo sistematikoak ezarri behar dira, laguntza emateko benetako modua egiaztatu eta fase bakoitzean zer emaitza lortzen diren ikusteko.

Alde horretatik, bereziki nabarmengarria da adingabeak babesteko hartzen diren neurrien epe luzeko emaitzak ebaluatzen dituen azterlanik ez izatea.

Azkenik, Haur eta Gazteendako Planak ezartzen duenarekin bat, jakintza zientifikoa eguneratu eta haurren babesgabetasun arazoei heltzeko estrategiei eta metodoei buruzko ezaguera berriak aplikatu behar dira, batez ere, kontuan izanik Planaren epea amaitu egin dela eta, ebaluazioaren emaitzen arabera (batez ere, 2005eko eta 2006ko ebaluazioaren arabera), datozen urteetarako plan berri bat egin behar dela.

9. ondorio eta gomendio nagusiak

(Letra larriz txosteneko zer ataletaz ari garen adierazi dugu; letra etzanez gomendioak azpimarratu ditugu; eta letra lodiz, testuaren edukia zeri buruzkoa den hobeto ulertzeko pasarteak).

Analisi luze eta sakona egin dugula-eta, arartekoak testu osoan egindako ondorio eta gomendio nagusiak laburtu eta nabarmentzea zaila da. Halere, orain arte errandako guztia sinplifikatze aldera, ideia nagusitzat ditugunak emanen ditugu, baina, nolanahi ere, komeni da txosten osoa irakurri edo, behintzat, dena delako gaiari buruzko pasarteak begiratzea. Hau da, inolaz ere ez dugu jo behar jarraian diogunak orain artekoa ordezkatzeko duenik.

ARAU ESPARRUA

1. Oro har, **gaur egun Nafarroan indarrean dagoen arau esparrua** osoa da, eta nahikoa da haurrak eta gazteak zuzenbide eta administrazio arloan modu eraginkorrean babestea ziurtatu eta Nafarroako administrazio publikoak alor honetan sakontasunez esku hartzeko beharrezko bitartekoez hornitzeko.

Ardatza Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea da. Hain zuzen, 15/2005 Legeak alor honetako eskumenak banatzen ditu, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta toki entitateen artean; erakunde laguntzaileek zer baldintza bete behar dituzten zehazten du; adingabeen eskubideen zerrenda luze bat eta haien betebeharren laburrago bat egiten du, nazioarteko itunen eta Adingabeen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren ildoan; arrisku eta babesgabetasun egoerei eta gatazka sozialei aurrea hartu eta haien aurka babesteko ekimenak eta neurriak ezartzen ditu; erreforma sistemaren esparruan, adingabeak hartzeko etxeen araubidea xedatzen du; eta zehapen araubidea zedarritzen du, arau-hausteak eta administrazioaren zigorrak tipifikatuz.

Alabaina, Foru Legea arauz garatu behar da zenbait xedapen zehazteko, funtsean, alderdi organikoei eta prozedurazko alderdiei buruzkoak: erakunde laguntzaileak akreditatu eta Foru Komunitateko administrazioaren erregistroetan izena ematea; laguntza zerbitzuak, etxeak eta zentroak sortu eta martxan jartzeko araubidea; adingabeei zer debeku, muga eta neurri ezarri behar zaizkien; arriskua ebaluatu eta babesgabetasun egoerari buruzko adierazpena egiteko prozedurak; adingabeak haien borondatez zaintzeko prozedura; adingabeak hartzeko prozeduraren edukia eta prozedura bera; zer

neurri hartu behar diren gatazka sozialak dituzten adingabeen ingurunean; erreforma sistemaren esparruan epaileek ebazten dituzten neurriak betearazteko prozedura; harrera etxeetan bizi diren adingabeei neurriak ezartzeko prozedura; administrazioaren arauak hasteagatiko zigorrak jartzeko prozedura...

Horregatik, Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaien Departamentuari gomendatuko diogu Foru Legearen arauzko garapena lehenbailehen susta dezan, ahalik eta modu eraginkorrean aplikatzea ziurtatzeko.

Foru Legea osatzeko, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldarrikatu dute berriki, eta hori dela-eta, beharrezkoa izanen da administrazioak xedapen egokiak ematea, zubi gisa, lege baten eta bertzearen xedapenak lotzeko.

2. Nafarroako Gobernuak **Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Plana** prestatu zuen, eta ikusi dugu jada oso bitarteko baliagarria dela helburuak eta epeak finkatzeko, zer egin behar den erabakitzeko, zenbateko aurrekontua beharko den zehaztu eta hura bideratzeko, ebaluazioa egiteko adierazleak erabiltzeko... Hain zuzen ere, Planak haurrak babesteko araudiaren xedapen orokorrak eta abstraktuak gauzatzen ditu, administrazioak plangintza egiteko bitartekoa da, eta, hori dela-eta, abenduaren 15eko 15/2005 Foru Legeko 6.5. artikulua ere aipatzen du, oro har: "Gizarte zailtasunak dituzten haurrak eta nerabeak zaintzeko ondoz ondoko planen plangintza egin eta haien garatuko dira, haien betetzearen gaineko ebaluazioa egin ondoren".

Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaien Departamentuari gomendatuko diogu zailtasun sozialak dituzten haur eta gazteentzat berte plan bat presta dezan, urte askotarako, egungo legezko eta arauzko esparruarekin guztiz bat datorrena, behar adinako giza baliabideez, aurrekontuaz eta baliabide materialez hornitutakoa eta, adierazle fidagarrien bitartez, aldian-aldian ebalua daitekeena. Lortu beharreko helburu batek haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideak bermatzea izan behar du berariaz.

BABES SAREA: ESKUMENEN BANAKETA

3. **Nafarroako babes sarea** alor honetako eskumenak ahalik eta modu eraginkorrean banatzearen emaitza da. Hain zuzen ere, eskumenak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta toki erakunde eskudunen (udalen eta, baldin badagokio, mankomunitateen) artean banatuta daude: batak laguntza sare espezializatua osatzen du, eta bertzeek, oinarrizko gizarte zerbitzuak, lehen mailako laguntza sarea.

Laguntza sare espezializatua kasu larriez arduratzen da, eta lehen mailakoa, hain larriak ez direnez.

Horiez gain, haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeak (HNAL) sortu dira, edo sortzekotan dira, lurralde jakin batean (Lizarran, Tafallan eta abarretan) edo biztanle askoko eskualde batean (hala nola, Iruñean) esku hartzen duten jakintza arlo askotako taldeak. Iruñekoa izan ezik –Iruñeko Udalaren mendekoa da–, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren mendekoak dira eta hark sustatzen ditu, eta lehen mailako laguntza sarea laguntzen dute.

Egun, Iruñeko (udalerriko) eta Lizarra aldeko lantaldeak daude eraturta, eta, 2007an, Tafalla aldekoa sortuko da. Lehenengo biek Nafarroako biztanleriaren erdiaren beharrei erantzuten diete, eta berriak 44.873 biztanleren beharrei erantzuten die.

Lizarrako lantaldearen sorrera eta 45 kasutan izandako esperientzia oinarritzko gizarte zerbitzuak laguntzeko talde espezializatuok sortzea oso egokia izan den frogak dira.

Iruñeko Udalak baliabide nahiko bideratzen du Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lantaldera: 2006an, 15 profesionalak osatzen zuten eta urteko gastua 500.000 eurotik gorakoa zen; Lantaldeak 224.919 biztanleren beharrei erantzuten zien orduan. Lizarrako Lantaldeak 2007an izanen dituen baliabideak urriagoak dira, jakina, biztanle gutxiago (70.179) lagundu behar dituelako: lau profesional eta 136.000 euroko aurrekontua urtean.

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak xedatzen duenez, gizarte etxeak sortu behar dira gizarte zerbitzuetako sailetan, eta lantaldeok haietan parte hartu behar dute. Oso neurri egokia da hori, eta zortzi urteren buruan Nafarroan halako hamar lantalde izateko helburua lortzeko bide eman dezake.

*Egungo ildoan lan egiten jarraitzeko gomendatuko dugu, eta Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planak eta Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak finkatzen dituzten helburuak lortzeko, hots, **gizarte zerbitzuak ematen dituzten gizarte etxeetan Nafarroako biztanleriaren % 100 estaltzeko behar adina HNAL sortzeko.***

Haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeok behar bezainbateko giza baliabideak eta aurrekontua izan behar dituzte, bai abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko eta bai zailtasun sozialak dituzten haur eta gazteentzat egiten duten plan berriko xedapenak betetzeko.

Gainera, gomendatuko dugu Planak lantaldeok sortzeko iragartzen duen aurrekontua modu eraginkor batean gauzatzea. Erraterako, 2006an, haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeak sortzeko gastua Planak iragarritakoaren erdia ere ez zen izan.

Orobat, komenigarria da gaur egun lehen mailako sarearen eta sare espezializatuaren artean dagoen koordinazioa hobetzea, baita haurrak babesten diharduten zerbitzu publiko guztiak eraginkortasunez koordinatzea ere.

LEHEN MAILAKO SAREA

4. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak **oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzen laguntzen** du. Horretarako, lehen, diru-laguntzak banatzeko deialdiak egiten zituen urtero, baina sistema ordezkatu du eta eraginkorrago bat darabil: gaur egun, zerbitzu bakoitzarekin urte askotarako hitzarmenak egin eta, hartara, aldez aurretik bermatzen du finantzazioaren egonkortasun, jarraitutasun eta segurtasun juridikoa eta ekonomikoa, hainbat urtetarako. Hori guztia Nafarroako arartekoak garai batean egindako gomendioari erantzunez egin du.

Etorkizunean ere urte askotarako hitzarmen bidezko sistema erabiltzen jarraitzeko gomendatuko dugu, eta, beharrezkoa bada, aurrekontua handiagotzeko, lehen mailako sareak modu eragingarrian esku hartzen duela ziurtatzearren.

5. **Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programaren** helburua adingabeei haien garapen pertsonalari bide ematen dion ingurunea ziurtatzea da, babesa eta laguntza pertsonala, familiartekoa eta soziala emateko tresnen bidez. Programa, ordea, ez da aldi eta maila berean ezarri Nafarroako eskualde guztietan, baina, behinik behin, hura ezartzeko gastua bikoiztu egin da hiru ekitalditan eta, 2006an, 663.491,45 eurokoa izan zen.

Programaren hazkundera (2006an hasitakoa) adierazgarria izaten jarraitzeko gomendatuko dugu, eta oinarrizko gizarte zerbitzu guztiek programan parte hartzeko, oraindik ere % 25ek ez baitute parte hartzen.

SARE ESPEZIALIZATUA

6. Oro har, **Nafarroako Foru Komunitateak sare espezializatua antolatzeko egindako organigrama** egokia da kasuan kasuko beharrei erantzun, bete beharreko eginkizunak bete eta lortu beharreko helburuak lortzeko.

Ardura nagusia Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Adin Txikikoak Babesteko Atalari (Familia Zuzendaritza Nagusiko Familiaren eta Adin Txikikoaren Politiken Plangintza, Segimendu eta Ebaluaziorako Atalari) dagokio.

Alabaina, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea berritzailea eta garrantzizkoa da oso, eta alor hau ere oso zail eta berezia da, oihartzun handia du gizartean eta giza baliabide eta aurrekontu nahikoak behar dira. Horregatik guztiagatik, komeni da jarduna zentralizatzeko eskumena duen administrazioko unitatea mailaz igo eta, gutxienez, zerbitzu batekin parekatzea; zerbitzu berriak aipatu legearen izenarekin lotuta egon behar du, betiere, Familia Zuzendaritza Nagusiaren edo dagokionaren esparruan.

Adin Txikikoak Babesteko Ataleko nazioarteko adopzio saila ez da txosten honen gaia, baina han aritzen direnek lan handia egin behar dute –urtean 100 adingabe baino gehiago adoptatzen dituzte eta 175 familiak eskatzen dute adoptatzeko–. Hori dela-eta, are argiago dugu sail hori mailaz igo eta atal bihurtu behar dela eta, ondorioz, Atala zerbitzu bihurtu behar dela, eta langile eta baliabide material gehiago bideratu behar direla. Bertze horrenbeste erran daiteke Zailtasun edo Gatazka Sozialetan dauden Adingabeak Laguntzeko Bulegoaz eta haren hurreneko Gatazka eta Berreziketa Lantaldeaz, 165 adingabe laguntzen baitituzte: 45, barnealdian, eta bertze 120ak, kanpoan.

7. Adingabeak babesteko sare espezializatuan lan egiten duten **giza baliabideen** multzoa 243 profesionalek osatzen dute, baina 23 lagun bakarrik dira Adin Txikikoak Babesteko Atalaren beraren baliabideak. *Ataleko langileen zerrenda modu errealista batean ebaluatzeko gomendatuko dugu, eta, argi eta garbi beharrezkoa dela ikusten denez, haien kopurua nabarmen handiagotzeko, helarazten dizkieten eskariei behar bezala erantzutearren;* gainera, langileok espezializatuta egon behar dute, prestakuntza egokiaren bidez. Hartara, azken hiru ekitaldiotako joera (alor honetako giza baliabideen kantidadak pixka bat gora egitekoa) gainditu daiteke, eskasa baitirudi; izan ere, kontuan izan beharra dago sare espezializatuak lan handia duela egiteko eta Foru Legeak eginkizun sozial garrantzitsua egokitzen diola.

8. 2002-2006 aldirako Haur eta Gazteendako Plana ezartzeko **gastua** hasieran aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan zen lehen urteetan, baina 2006an iragarritakoaren parekoa izan zen, eta, 2007. urteko proiektuaren arabera, baliabide ekonomikoak berriz ugarituko dira.

Hau da, baliabide ekonomikoek nahikoak dirudite, baina kalkulatzeko den aurrekontuaren gauzatzea hobetu egin behar da.

Hain zuzen ere, aurrekontua berrikusi eta zuzendu egin behar da, behar baino baliabide gutxiago bideratzen badira. Alde horretatik, garrantzi kualitatibo handikoa dela-eta, kanpo lantaldeak (ikertu, ebaluatu eta esku hartzeko taldea; programan esku hartzeko talde espezializatua; nerabeak hezteko taldea; eta ingurune irekiko taldea) osatzen dituztenekin itunak eta kontratuak egiteko gastua bereziki analizatu behar da.

9. Familia hartzaileak adingabeak babesteko politikaren funtsezko oinarritzat hartzen jarraitu behar dugu, eta, hortaz, Foru Komunitateko administrazioak haiek laguntzen jarraitu behar du.

2007ko urtarrilaren 1ean, 190 familia hartzaile zeuden Nafarroan: 129 adingabeen familia hedatuak ziren, eta 61, haienak ez bertze batzuk. Ildo horretan, azken hamarkadan % 57 handitu da familia hartzaileen kopurua, baina hedatuak ehunekoak behera egin du adingabeenak ez direnen aldean.

10. Oro har, txosten hau egiten ari garela, eskaria kontuan izanik, **harrera etxeen egungo sarea** egokia dela erran daiteke: guztira, 21 establezimenduk (laguntzako 14 etxebizitzak edo etxek, bi behaketa eta harrera zentrok, lau harrera etxek eta desohitzeko zentro batek) osatzen dute. Gauza bera erran daiteke eguneko zentroaz eta elkartzeko gunez ere.

11. Adin Txikikoak Babesteko Atalaren esku dauden **espazio fisikoak eta baliabide materialek** eskasak dirudite, eta horrek (espazio fisikoak urria izateak) Atalera jotzen duten pertsonen intimitatean du eragina, oso gai zailak azaldu behar baitituzte.

Arazo horren jakitun, Gizarte Gaien Departamentua Familia Zuzendaritza Nagusiaren eraikina guztiz berritzeko proiektu bat bideratzen ari da eta baliabide ekonomikoak bideratzen ari da, tresnak berri, espedienteak informatizatu, espedienteak kudeatzeko sistema berri bat ezarri, informazioa biltzeko sistema hobetu eta abarretarako.

Gizarte Gaien Departamentuari gomendatuko diogu Familia Zuzendaritza Nagusiaren eraikina berritzeko, eta aparteko arreta jartzeko erabiltzaileen intimitatean.

Halaber, adingabeei buruzko espedienteak kudeatzeko sistema moderno (informatiko) eta eraginkor bat abian jartzeko gomendatuko diogu.

12. Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Planak **Azpiegiturak Sortzeko Programaren** esparruan finkatutako zenbait helburu lortzeke daude. Bereziki, adingabeek epaileek ebatzitako neurriak betetzeko zentroaren eraikuntza atzeratuta dagoela sumatzen da. Dena dela, Gizarte Gaien Departamentuak jakinarazi digunez, proiektu tekniko bat onartu dute zentro hori egiten hasteko eta lanak egiteko baimena eskatu diote Arangurengo Udalari.

Lehenbailehen hobetu beharreko esparrua da hau eta, hori dela-eta, gomendatuko dugu beharrezko zuzemenak azkarrago egiteko, Nafarroak lehenbailehen izan dezan adingabeek epaileek ezartzen dizkieten neurriak betetzeko zentroa.

LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZEA

Lehen mailako prebentzioa

13. Nafarroako Gobernuak Zailtasun Sozialak dituzten Haur eta Gazteendako Plana prestatu zuen, eta, haren esparruan, **Sentsibilizazio Eta Lehen Mailako Prebentzio Programa**. Bada, helburuak, proposatzen dituen neurriak eta hura ebaluatzeko adierazleak egokiak eta zuzenak direla erran daiteke. Alabaina, programa horren esparruan gastatutako zenbatekoa hasiera batean 2002-2006 aldirako ezarritako aurrekontua baino nabarmenki txikiagoa dela ikusten da, eta, hori dela-eta, *gomendatuko dugu aurrerantzean aurrekontuaren gauzatzea hobetzea edo, bestela, aurrekontua bere horretan gauzatzea ezinezkoa bada, aurrez kalkulatzan den gastu publikoa hain handia izatea komeni den neurtzea.*

14. **Oinarrizko gizarte zerbitzuak eta lehen mailako laguntza zerbitzuak**, *nagusiki, lehen eta bigarren mailako prebentzioaren alorrean jardutea lortu behar dugu.* Prebentzio fasean, funtsezkoa da bertze oinarrizko zerbitzuekin, zerbitzu espezializatuekin eta esparru honetan dabilzan erakundeekin eta elkarteekin sarean (koordinatuta) lan egiteko sistema ezartzea, baita gizarteak parte har dezan eta areago parte har dezan bultzatzea ere, haurrak laguntzeko auzo eta familia elkarten eta taldeen bitartez.

Lehen mailako esku-hartzea

15. Adingabeen babesgabetasun egoerak garaiz antzeman eta oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazteari dagokionez, egokitzen dugu bai **Harrera eta Orientabide Sozialerako Programa** izatea, bai

kasuak oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez bideratzea (kasuak haiei helaraztea) ere.

Sistema hobetzeko, baina, Gizarte Gaien Departamentuak Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua ezagutarazi beharko luke alor honetan aritzen diren profesionalen artean, eta beharrezko prestakuntza ikastaroak eman beharko lizkieke Adin Txikikoak Babesteko Ataleko, oinarrizko gizarte zerbitzuetako eta alor honetan esku hartzen duten Foru Komunitateko administrazioko bertze zerbitzu batzuetako langileei.

Halaber, haurrak babesten trebatu eta haurrak babestu beharrenden kontzientzia harrarazteko lan egiten segitu behar da, gidaliburuen bidez eta irakasleen artean eta guraso elkarteetan eta bestelako familia elkarteetan bertze ekimen batzuk antolatuz, esku-hartzea Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta betiere.

Alde horretatik, Familia Zuzendaritza Nagusiak berriki onartu dituen neurriak ontzat jotzekoak dira.

Eskuliburuaren bidez, administrazio publikoen eta alor honetan esku hartzen duten zerbitzu publikoen (osasun etxeen, udaltzaingoaren, prebentzioan dabilzan komunitate elkarteen, adimen osasunaren alorreko etxeen, erietxeen...) artean behar bezalako koordinazioa izatea ziurtatu behar da, lehen fasean esku hartzen duten profesionalen kasuen bilakaeraren berri emateko mekanismoak izatea, profesional jakin batzuk adingabeen banakako tutore aritzea eta bakoitzaren bilakaeraren jarraipena egitea...

16. Kasuen hasiera bateko ebaluazioari eta haiek Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzeari dagokionez, oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratzen dute kasu gehien (kasu guztien % 59), baina bertze batzuek ere jakinarazten dizkiote Atalari kasuak (oro har, larrienak), hala nola, epaitegietako zerbitzuek (% 12) eta osasun zerbitzuek (% 9,3).

Egitekoaren garrantzia ikusirik, gomendatuko dugu haurrentzako eta nerabeentzako laguntzan espezializatutako giza baliabideak ugaritzea, bai langile espezializatuari kontratua eginez eta haiek oinarrizko gizarte zerbitzuetara atxikiz, bai ziurtatuz HNALek behar adina laguntzen dituztela egun dauden langile espezializatuak.

Halaber, egungo langileen prestakuntza hobetu behar da, bereziki, adingabeak eta kasuan-kasuan parte hartzen duten pertsonak babesteko neurriak erabakitzeari eta haien eskubideak (norberaren

eta familiaren intimitaterako eskubidea eta ohorerako eskubidea) babesteari dagokionez.

17. Arrisku txikiko eta neurrizko arriskuko egoeretan, tentagarria da oinarrizko gizarte zerbitzuek Adin Txikikoak Babesteko Atalera bideratzea kasuak, baina halakorik ez gertatzea lortu behar da.

Horretarako, honako hau gomendatuko dugu: a) argi eta garbi zehazteko zer egoeraren kudeaketa dagokien oinarrizko gizarte zerbitzuei; b) oinarrizko gizarte zerbitzuak behar bezainbeste langilez hornitzeko; c) oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileak halako egoeretan eman beharreko urratsetan trebatzeko; d) Adin Txikikoak Babesteko Atalak langileok laguntzeko, baina ez haiek ordezkatzeko, sistema zentralizatu ez eta oinarrizko zerbitzuak alde batera ez gelditzearren; eta e) HNAL sortzen jarraitzeko.

Iruñeko eta Lizarrako HNAL sortu izana oso ona eta baliagarria izan da, eta esperientzia unitate berri horrek etorkizunean egin dezakeen lanaren adierazgarri da.

Garrantzizkoa da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak prebentzioaren ikuspegitik ekitea haurrak arrisku psikiatrikoan egotea eragiten duten arrazoiei, baliabide psikosozialak eta hezkuntza arlokoak erabiliz, eta kontuan izatea askotariko behar berriak sortzen ari direla. Behar berrioi behar bezalako erantzunak eman behar zaizkie, eta, horretarako, baliabide aproposak egokitu eta ezarri behar dira. Alde horretatik, nabarmendu beharra dago laguntza psikiatrikoa gero eta beharrezkoagoa dela, eta, hori dela-eta, neurri egokiak hartu behar direla, irizpide malguak eta prozedurak ezartzeko, adimen osasunaren arloko sareak tratamendu egoki eta, beharrezkoa izanez gero, ezberdina ematen duela ziurtatze aldera.

BABESGABETASUN EGOERETAN ESKU HARTZEA

(Proporzioan, hau da txosteneko atalik luzeena, adingabeen eskubideen errespetuaren ikuspegitik kontuan hartu beharrekoena dela-eta).

18. Azken urteotan, bai familiarengandik bereizten dituzten adingabeen kopurua, bai haien 18 urtetik beherako mila biztanleko tasa hazi dira Nafarroan:

2000. urtean, 304 adingabe zeuden bereizita eta milako tasa 2,91koa zen; 2006. urtean, berriz, 375 zeuden bereizita eta milako tasa 3,29koa zen.

Gaur egun, harrera etxeetan hartzen dituzten adingabeen aldean, askoz ere gehiago hartzen dituzte familian duela bi urte baino: 2000. urtean 156 adingabe zeuden familian hartuta, eta 2006an, 228; aitzitik, 2000. urtean 148 adingabe zeuden harrera etxeetan hartuta, eta 2006an, 147.

1996. urtean, 18 urtetik beherako mila biztanleko 3,69 adingabe zeuden familiarengandik bereizita Nafarroan, eta 3,25 Espainian. 2000. urtean, berriz, Nafarroako tasa 2,91koa zen, eta Espainiakoa, 4,78koa.

19. Adingabeak arriskuan edo babesgabe daudela antzematen denean, **ikerketa eta ebaluazioa** egin behar da, baina, arartekoaren ustez, Gizarte Gaien Departamentuak hainbat hobekuntza egin ditzake fase honetan:

- *Adin Txikikoak Babesteko Atalak abiarazten dituen espedienteek, honelakorik ez badakarte, adingabeei, haien zuzeneko senideei, familiarteko harremanei eta baldintzei, egoera eragiten duten arrazoiei... buruz ahalik eta informazio gehien ekarri behar dute, baita txosten medikoak, sozialak, psikologikoak edo, bestela, psikiatrikoak, eskolakoak, epaitegietakoak... ere.*
- *Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua eta ereduak eta inprimakiak bateratzea oso baliagarriak dira lan egiteko. Betiere, helburu nagusiak beharrezko informazioa biltzea izan behar du, babes neurriak erabakitzeko, eta baita hartzen diren neurriak eta kasuan-kasuan esku hartzen duten profesionalen antzematen dituzten egitateak eta alderdi teknikoak dokumentatzea. Hartara, segurtasun juridikoa handiagoa da eta, batez ere, hobeto babesten dira adingabeen eta kasuan-kasuan parte hartzen duten pertsonen eskubideak.*
- *Ahal dela, profesionalen egiteko nagusiak, haurren eta nerabeen ongizatea bermatzea ez ezik, gurasoek aukerarik egokienak analizatzen parte har dezaten lortzea ere izan behar du, eta, horretarako, neurri jakin batzuen egokitasunaren arrazoiak azaldu behar dizkiete, eta haiei buruz zer iritzi duten entzun. Horretarako, ordea, profesionalok baliabideak izan behar dituzte eskura, eta egoerei aurre egiteko beharrezko laguntza, prestakuntza eta aholkularitza eman behar zaie.*
- *Indarrean dagoen legediak xedatzen dituen jakinarazpen formalez gain, gurasoei haien ulermenera egokitutako*

azalpenak ere eman behar zaizkie, eskubidea baitute. Horretarako, liburuxkak erabil daitezke, hizkuntza apalean, adingabeak babesteko sistemaren funtzionamendua azaltzeko. Era berean, komeni da, seme-alabei kalte egiten ez dietenean, edo mesedegarria denean, aztertzea ea komeni ote den gurasoak Ebaluazio Batzorde Teknikoak adingabeen buruz erabakitzeke antolatzen dituen bileretara joatea, eta kasuan kasuko gorabeherei buruzko eztabaida plural batean parte hartzea, hobeto jakiteko zergatik den hobea neurri bat ala bertzea hartzea.

- Halaber, ziurtatu behar da hurrek eta nerabeek beraiek ere modu aktiboan parte hartzea, eta, horretarako, haiek formalki entzuteaz gain, iritzia emateko bideak eskaini eta, komenigarria bada, iritzi hori kontuan hartu ere egin behar da, erabakitzeke. Horretarako, komeni da haien ulermenera egokitutako material didaktikoak sortzea, zer eskubide dituzten, zer egoeratan dauden, prozedurak nolakoak diren, eskumenak nori dagozkion... argitzeke.
- Komenigarria da erabiltzaileek kexak eta erreklamazioak aurkezteko sistema bat ezartzea ere, administrazioa edo epaitegietara jo beharrik izan gabe, bigarren mailakoak diren baina gurasoak eta kasuan-kasuan esku hartzen duten profesionalak aurrez aurre jarrazten dituzten arazoak ebazteko. Ebaluazio Batzorde Teknikoaren bidez edo bertze organoren baten bidez ere egin daiteke hori, eta gurasoek ere parte har dezakete, konfiantzako pertsona batekin batera, lagun egin diezaien edo haien izenean mintza dadin.
- Ebaluazio Batzorde Teknikoa izan daiteke kide anitzeko organo aproposa, jakintza arlo askotako pertsonak osatzen dutela eta profesionala dela-eta, adingabeen buruzko erabaki nagusiak hartzeko. Hori dela-eta, gomendatuko dugu esku hartzeko eskuliburuak aipatzen dituen eginkizun guztiak egokitu dakizkion.
- Administrazioaren gomendioekin ados ez dauden gurasoek eta tutoreek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea izan behar dute, abokatu defentsarien bidez, batik bat, babesgabetasun prozedura abian jartzen denean. Zuzenbide arloko profesionala gurasoen eta kasuan-kasuan esku hartzen duten teknikarien arteko bitartekari edo lokarria izan daiteke, eta haien arteko harremana zentzuzko ildoan bideratu eta esku-hartzearen aurkako jarrera hobetzen lagun dezake.

- *Adingabeak babesteko prozedurek ahalik eta azkarrenak eta arinenak izan behar dute, are gehiago kontuan izanik interesdunen (adingabeen eta zuzeneko senideen) bereberezko eskubideez ari garela. Legediak, arauak eta esku hartzeko eskuliburuak ezartzen dituzten epeak guztiz errespetatu behar dira, eta, ahal dela, baita laburtu. Gainera, erabakitzeke oinarritzat erabiltzen diren txostenen ereduak bateratzeko iradokiko dugu.*

Egoera konpontzeko plana. Arduraduna eta ebaluazioa

20. Betiere, **egoera konpontzeko plan** bat izatea ziurtatu behar da, modu eraginkorrean esku hartzeko bitarteko gisa erabiltzeko, formalitate hutsa izan ezean. *Gomendatuko dugu Ebaluazio Batzordeak plana praktikan onartzeko, esku hartzeko eskuliburuak berak xedatzen duenez.* Plana aplikatzeko, beharrezko baliabideak utzi behar dira zerbitzu eskudunen esku, 2003ko Haur eta Gazteendako Planaren esparruko 6. programa betetze aldera.

21. **Foru Komunitateko administrazioak** ebaluazio fasean **hartzten dituen erabakiak** proportzionatuak direla iruditzen zaigu. Errate baterako, 2004. urtean, kasuen % 18 familian esku hartzeko programa espezializatua erabiliz ebatzi zituen; % 35, adingabeak familian hartuz; % 31, adingabeak harrera etxeetan hartuz; eta % 3, adopzioaren bitartez. *Hala eta guztiz ere, gogoan izan beharra dago, oro har, egin beharreko lehen gauza adingabeen arazoak familian esku hartzeko programaren bitartez konpontzea dela, eta halakorik egin ezin edo komeni ez denean bakarrik jo behar dela adingabeak familiarengandik bereiztera.*

22. Egoera konpontzeko plana **ebalutzeko**, *gomendatuko dugu pertsona bakarrak bi eginkizun nagusi bete behar ez izatea: batetik, esku hartzeko ardura nork bere gain hartzea –zenbaitetan, adingabeak familiarengandik bereiztea dakar– eta, bertzetik, egoera konpontzen saiatzea.* Alde horretatik, kasuan kasuko arduradun tekniko funtsezkoa da plana gauzatzeko, esku hartzeko eskuliburuari jarraiki, eta adingabeekin eta gurasoekin hartu beharreko neurrietan adosten saiatzea dagokio, beharrezko konpromisoak onar ditzaten bultzatuz.

Kasuan kasuko arduradun teknikoaren lana eraginkorragoa izateko, Adin Txikikoak Babesteko Ataleko profesionalek egin beharreko lana hobeto banatzeko gomendatuko dugu, edo, beharrezkoa izanez gero, egiteko esanguratsu honetan aritzen diren langile gehiago izateko. Izan ere, Haur eta Gazteendako Planak profesional bakoitzeko ratioari

buruzko orientabideak proposatzen ditu, baina egiazko ratioak askoz ere handiagoak dira.

Gainera, 8. programaren, "Antolamendua eta esku hartzeko prozedura" izenekoaren esparruan gastatzen den zenbatekoa handiagotu behar da. Erraterako, 2004an (aurrekontua gehien gauzatu zen urtean), aurrekontuaren % 40 bakarrik gauzatu zen.

Familian modu espezializatuan esku hartzea

23. Adingabeei tratu txarrak ematen dizkieten edo haiek zabarkeriaz tratatzen dituzten familietan esku hartzeko, Nafarroako Gobernuak kontratua egin zion Pauma enpresari, eta hark kudeatzen du esku hartzea, familian esku hartzeko programaren bitartez.

Baliabide gehiago bideratzeko gomendatuko dugu, familien kopurua handitu eta laguntza hobetzeko. Izan ere, gaur egun, halako laguntza mota behar duten zenbait familiak ez dute eskuratzetik.

Informazio sistemak hobetzeko ere gomendatuko dugu, zehazkiago jakiteko nola bilakatzen den babesgabetasun larriko egoeran daudela jotzen den baina familiartekoengandik bereizten ez diren adingabeen egoera.

Oinarrizko adierazleak sistematikoki ezartzeko ere gomendatuko dugu, sistemaren eraginkortasuna ebaluatu eta neurtzeko zenbat egiten duen behera familiarengandik bereizi behar diren adingabeen ehunekoak.

Azkenik, HNALen egitekoa argitzeko gomendatuko dugu, babesgabetasun egoera larrian dauden eta familiarengandik bereizten dituzten adingabeen jarraipena egiteari dagokionez, eta Adin Txikikoak Babesteko Atalaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen zein adimen osasunaren alorreko sarearen arteko koordinazioa hobetzeko.

24. Adingabeak familian hartzea

Gaur egun, MAGALE da Nafarroako familia hartzaileak biltzen dituen elkarte bakarra; hain zuzen ere, 2003an sortu zen eta familia hartzaileen % 18,4k osatzen dute. Bada, elkarteko kideei egindako inkesta bati eta familia hartzaileek 20 galdeketeri erantzun izanari esker, badakigu zer iritzi duten adingabeak hartzeko modu honen Nafarroako ereduari buruz.

Haien erranetan, administrazioak ez die behar bezalako jarraipena egiten familia hartzaileei eta haiek hartzen dituzten adingabeei, eta ez dago azterlanik Nafarroan adingabeak familian hartzeari buruz.

Sistemaren kontrako kritikak gorabehera, eta adingabeak familian denbora luzez hartu behar dituzten arren –batez bertze, 6,4 urtez–, galdeketari erantzun dioten 20 familietan 13k gomendatu eginen liokete bertze familia batzuei adingabe bat etxean hartzeko; hiruk ez liokete gomendatuko; eta bertze hiruk ez dute erantzun, uste baitute ez dela gomendio kontua, norberaren erabakia baizik.

Adingabeak familian hartzeari dagokionez, gomendatuko dugu kontuan hartzeko familia hartzaileen iradokizunak, Nafarroan familian hartzen dituzten adingabeen kopuruari buruzko azterketak egiteko eta familia hartzaileei etengabeko laguntza zerbitzua emateko, arazo edo zalantzaren bat dutenean hara jo eta behar bezalako aholkularitza izan dezaten.

25. Elkartzeko guneak eta bisita erregimena

Gaia zehazkiago arautzeko gomendatuko dugu, eta Gizarte Ongizate kontseilariak otsailaren 20an emandako 18/2002 Foru Agindua (indarrean dagoena) ordezkatzeko. Araudiak elkartzeko guneen hainbat alderdiri heldu behar die: definizioari; onuradunei; guneak erabiltzeko moduari; han aritzen direnen soslai profesionalari; funtzionamenduaren baldintza materialei; baldintza arkitektonikoei buruzko gutxieneko arau teknikoei; egungo ordutegia baino luzeagoa izan beharri; erabiltzaileek nahi dutena ez egiteko, bisitak aldatzeko edo bertan behera uzteko arrazoiei eta prozedurari; erreklamazioak aurkezteko sistema malgua izan beharri; baliabide gutxien duten familiei laguntza eman beharri garraiobide publikoa erabiltzeko...

Adingabeak etxeetan hartzea

26. Batez bertze, 150 bat adingabe hartzen dituzte urtean harrera etxeetan, eta nabarmentzekoa da Foru Komunitateko administrazioak **ahalegin ekonomiko** handia egin behar duela horretarako, gastatzen duen zenbatekoa aurrekontuak ezartzen duena baino handiagoa baita. Errate baterako, 2006an, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak 7.000.000 euro bideratu zituen alor honetarako.

27. Lehenbailehen, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua ordezkatu eta 15/2005 Foru Legeko 91. artikulua eta hurrengoak eta Gizarte zerbitzuei buruzko 14/2006 Foru Legea garatu behar dira, adingabeentzako harrera etxeak antolatu eta abian jartzeko bete beharreko baldintzak arautzeko.

28. **Hurrei eta nerabeei buruzko erabakiek** haien ezaugarrien araberakoak izan behar dute, oro har. Horretarako, harrera etxeen eta

etxebizitzaren sareak dibertsifikatu egin behar du eta askotariko laguntza programek eta harrera etxe motek osatu behar dute.

29. **Erakunde**en (oinarrizko gizarte zerbitzuen, harrera etxeen, *Familian Esku Hartzeko Lantalde Espezializatuaren, hezkuntza arloaren, adimen osasunaren alorreko etxeen...*) **arteko koordinazioa** hobetzeko gomendatuko dugu, ezinbesteko baldintza den aldetik haurren eskubideak eta haurrak beraiek babesten direla ziurtatzeko. Ildo horretan, jakintza arlo eta sektore askotako erakundeek eta profesionalak batera lan egin behar dute, sarean, Gizarte Ongizateko Departamentuak esku hartzeari buruz argitaratutako eskuliburuak berak dioenez.

30. **Laguntzako etxebizitzetan eta zentroetan** (hiru etxebizitzatan, bi behaketa eta harrera zentroetan, hiru harrera etxetan eta droga kontsumoari aurre egiteko zentro terapeutiko batean) izan gara, eta, han egindako elkarrizketek frogatzen dutenez, erakunde guztiek auzirik garrantzitsuenetan (harreran, bilakaeran, unean uneko egoeretan...) esku hartzeko protokoloak dituzte, eta hainbatek Europako kalitate egiaztagiriak ere eskuratu dituzte. Gainera, harrera etxeetako lantalde teknikoak hartzen dituen adingabeen familiekin ere lan egiten du.

Adingabeentzako banakako heziketa planak prestatzen dituzte, baina ez da jo behar eskakizun formalak direnik, adingabeen egoeraren jarraipena, plangintza eta ebaluazioa egiteko elementuak baizik.

Laguntzako zentroak eta etxebizitzak kalitate ereduak lantzen dituzten talde txikienezko unitateak (ez erakunde handiak) izatea bultzatzen ari dira, eta lan ildo horretan jarraitu behar da, oso positiboa baita. Zenbaitek EFQM egiaztagiria ere dute, baina Foru Komunitateko administrazioak ebaluazioak egin behar ditu aldian-aldian zentro bakoitzean, kalitate estandarrak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Orobat, halako zentroetako profesionalak etengabe prestatzen segitu behar dute, Gizarte Ongizateko Departamentuaren eta zentro bakoitzeko zuzendarien eta arduradun pedagogikoen artean osatutako planei jarraiki. Ildo horretan, halabeharrezkoa da indarkeriazko gatazkei eta istiluei aurrea hartzeko prestatzea.

Adingabe jakin bati harrera etxe bat edo bertzea egokitzeak adingabeen beharren araberkoa izan behar du, hartu behar dutenean dagoen toki kopuruaren araberkoa baino gehiago.

Sarri, behaketa eta harrera zentroetan adingabe gehiago izaten dira hartzen ahal dituztenak baino, eta, beraz, Gizarte Ongizateko Departamentuak arazoari erantzun behar dio.

31. ***Irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuek sistema publikoa laguntzeko balio handiko sarea osatzen dute, eta, hortaz, Foru Komunitateko administrazioak behar bezala tratatu behar ditu eta behar adina lagundu behar ditu diruz.***

Elkarteak eta erakundeak, lehenik eta behin, pozik daude Adin Txikikoak Babesteko Atalak egiten dien jarraipenarekin eta ez dute uste etengabeko laguntza zerbitzua behar dutenik; bigarrenik, Foru Administrazioa arinagoa izatea eta erakundeen lana ez burokratizatzea nahi dute; hirugarrenik, uste dute baliabideak dibertsifikatu egin behar direla, gero eta kasu gehiagotan (adingabe atzeritarren, autisten, buruko gaixotasunen bat dutenen... kasuetan) lagundu behar dutelako eta kasuak gero eta zailagoak direlako; laugarrenik, adingabe bakoitzari buruzko ebaluazioa hobetzeko galdegiten dute; bosgarrenik, faltan ematen dute Hezkuntza eta Osasun departamentuek are gehiago ez esku hartzea eta gehiago ez laguntzea adingabeon kasuetan; eta, seigarrenik, aldian-aldian bilerak, bilguneak eta batzarrak antola daitezen bultzatzea nahi dute, erakundeek nork bere zentroen funtzionamenduaren berri emateko elkarri.

32. ***Gizarte Ongizateko Departamentuari iradokiko diogu aldian-aldian inkestak egin diezazkien harrera etxeetan hartuta dauden adingabeei.*** Txosten berezia egiteko, guk ere helarazi diegu galdeketa bat 36 haurri, eta, haren arabera, bizikideak balioesten dituzte gehien eta harrera etxeko arauak gutxien, adin horretako gatzetxoan artean pentsatzekoa denez. Bestalde, adingabe gehienak gustura daude harrera etxeetan eta ondo egokitu dira.

33. Elkarteen eta erakundeen ustez, gaur egungo sistemak gabeziak eta ahuleziak ditu **adingabeek 18 urte bete eta harrera etxeetatik joan** behar dutenean. Ondorio orokorra da konpontzeke dagoen arazoa dela.

Haien erranetan, estrategikoa da 18tik 21 urtera bitarteko gazteak haien kabuz bizitzen trebatzeko baliabide berriak sortzea, hala nola, egokitzeo etxebizitzak, ez baita zentzuzkoa adingabeak zaindu eta 18 urte betetzen dituztenean bakarrik uztea. Horretarako, ordea, administrazioak areago esku hartu eta, enpresekin eta gizarte etxeekin elkarlanean, gazteok laneratzeko proiektuak sustatu behar omen ditu.

Gizarte Ongizateko Departamentuaren ustez, berriz, Adin Txikikoak Babesteko Atalak lagundu egiten ditu gazteak hartuta egon diren bitartean erreferentetzat izan dituztenengandik bereizteko prozesuan. Lanerako prestatu, lanpostu bat aurkitu, bizilekua topatu edo,

litekeena bada, berriz familiaratean bizitzen hasten diren bitartean zaintzen ditu, eta gazteok erakundeetatik atera ondoko jarraipenaren gastuak ordaintzen ditu.

Hala eta guztiz ere, *administrazioak harrera etxeetatik joan ondoko eta nor bere kabuz bizitzen hasteko programa berrikusi eta sendotu behar du, garai erabakigarria baita hura gizarteratzeko, batez ere, erakundeetan egon diren gazteen bizitzan.*

34. Gizarte Ongizatearen Departamentuko Familia Zuzendaritza Nagusia **helduen laguntzarik ez duten adingabe atzeritarrak laguntzeko baliabide bat** diseinatu eta abian jartzera bultzatuko dugu, solidario jokatu eta Kanariar uharteetara heltzen diren adingabeak Nafarroan hartzeko. Halaber, zailtasun sozial bereziak dituzten adingabeak itundu gabeko harrera etxeetan hartzeko laguntzak banatzen jarraituzera bultzatuko dugu.

35. Zentzatzeko etxeetan dauden adingabeak

Gatazka eta Berreziketa Lantaldeak egin behar dituen ebaluazio txostenen kopurua modu ikusgarrian handitzen da urte batetik bertzerara, gatazka eta berreziketa fiskaltzek eskatzen dizkietenena batik bat, eta, hori dela-eta, *beharrezkoa da Lantaldearen baliabide profesionalak ugaritzea.*

36. Jarraipena eta laguntza

Langileen baliabide ekonomikoak eta materialak ugaritu behar dira, lehen mailako laguntza sarean lan egiten dutenenak eta baita bigarren mailako laguntza sarekoenak, seme-alaba adingabeengandik bereizten dituzten familia biologikoak laguntzeko, tratatzen dituzten familien ehunekoa (% 4 eta % 5 artekoa) oso txikia baita.

Hau da, seme-alaba adingabeengandik bereizten dituzten familia biologikoei ematen zaien laguntza hobetzeko gomendatuko dugu.

Ildo horretan, erran bezala, kasuan kasuko arduradun teknikoaren egiteko adierazgarria da, kasuaren zuzendaritza teknikoa bere gain hartu eta onartu beharreko neurri eta ekimen guztiak sustatu eta koordina baititzake. Horretarako, aldi-aldi, bilerak egin behar ditu egoera aztertzeko eta, gainera, adingabeen eta familien erreferente bihurtzeko zailtasunak edo arazoak dituztenean.

37. Sistemaren ebaluazioa eta ikerketa

Gizarte Ongizateko Departamentuak Haur eta Gazteendako Planaren behin-behineko ebaluazioa egin zuen, 2003. eta 2004. urteei buruzkoa, eta 2005. eta 2006. urteei buruzkoa egiten ari da orain.

Alabaina, ez du kasuak, estatistikak eta espedienteak analizatu bakarrik egin behar, ezta urteko oroitidazkiak egin. Aitzitik, osotasunaren ebaluazio kualitatibo jarraitua egin behar du, epe luzera.

Horrenbestez, *Gizarte Gaien Departamentuari adingabeak babesteko Nafarroako politika publikoaren ebaluazioa sustatzeko gomendatuko diogu*. Politika publikoa ebaluatzeko, Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak oso erreferente baliagarriak eta guztiek onartutakoak dakartza.

Halaber, honako hau gomendatuko dugu:

- a) *Administrazioak ematen dituen edo haren ardurapekoak diren zerbitzu publikoen kalitateari buruzko adierazle fidagarri eta baliozkoak sortzeko, haien eragingarritasuna eta kalitatea (hau da, erabiltzaileen beharrei eta eskariei erantzuteko gaitasuna) jarraituki ebaluatzearren.*
- b) *Jakintza zientifikoa eguneratu eta haurren babesgabetasun arazoei heltzeko estrategiei eta metodoei buruzko ezaguera berriak aplikatzeko.*

Haur eta gazteendako plan berria egin beharra aukera ezin hobe da kalitate plana ere egiteko, epe luzekoa, helburu eskuragarriak finkatzen dituen eta ebaluatu egin daitekeena; alegia, jarraipena egiteko modukoa izan behar du.

ADINGABEEN OINARRIZKO ESKUBIDEAK IKUSKATU ETA KONTROLATZEA

38. Ez dugu sumatu Nafarroan nazioarteko, Estatuko edo Foru Komunitateko araudiek aipatzen dituzten haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideak nabarmenki urratzen direnik, baina horrek ez du erran nahi inoiz halakorik gertatuko ez denik. Inoiz eta, are gutxiago, egituraz adingabeen oinarritzko eskubideak urratzeari aurrea hartzeko, *Gizarte honako hau gomendatuko diogu Gizarte Gaien Departamentuari:*

- a) *Adingabeen eskubideak **urtero ikuskatzeko plan egoki eta espezifikoa** prestatzeko, ikustearren zer egoeratan dagoen arrisku gehien oinarritzko eskubideak urratzeko; zenbat ikuskatze egin behar dituen zehazteko, leku eta egoera arriskutsu guztiak edo, gutxienez, larrienak aztertzearen eta haien lagin adierazgarria osatzearren; eta plana gauzatzeko baliabideak eta egutegia finkatzeko.*

Bereziki, plana gauzatu behar da adingabeak giltzapetzen dituzten tokietan; beren jarrera dela-eta, arduradunek eta langileek zigortu edo antzeko zerbait egin diezaieketen tokietan. Planak ziurtatu behar du adingabeek uneoro dutela beren eskubideen berri, ahal bezainbat erabil ditzaketela, eta, formalak ez ezik, eragingarriak diren erreklamazioak egin ditzaketela kalte egiten dieten erabaki guztien aurka.

- b) Ikuskatze lana behar bezala egiteko baliabideez hornitzeko.*
- c) Ikuskatze lana egiteko arduradunei prestakuntza egokia emateko.*
- d) Ikuskatze lana behar bezala egiteko, haren emaitzak aktetan biltzeko eta aktak ikuskatze planen gauzatzea kontrolatzen duten administrazioko organoen esku jartzeko.*
- e) Dagokionari egiten duenaren larritasunaren arabera zigor egoki eta proportzionatuak ezartzeko, adingabeei edo dena delakoari haien eskubideak zuzenean edo zeharka ukatzeagatik, egitez edo ez-egitez. Egitea edo ez-egitea oso larria ez bada, zigorra ohartarazpen edo jakinarazpen modukoa izan daiteke, zigortzeko baino gehiago, kontzientzia harrarazteko.*

Nafarroako arartekoak, antolamendu juridikoak egokitzen dizkion eskumenak erabiliz, administrazioak gomendio horixe eta txosteneko gainerako gomendioak zenbateraino betetzen dituen aztertzeko txostenak eginen ditu, eta *ad hoc* jarraipena eginen du. Hain zuzen, administrazioaren jarduna ikuskatuko du, adingabeen eskubideak noiznahi eta nonahi errespetatzen direla ziurtatzeko.

ONDORIO OROKORRA

Laburbilduz, Nafarroako administrazio publikoek adingabeak babesteko egiten duten lana, oro har, nahikoa eta ona dela erran daiteke. Jardun publikoaren bertze esparru askotan bezala, nabarmen hobetu daitezkeen gauzak daude, baina, hala ere, bidegabea da erratea adingabeak babesteko Nafarroako botere publikoen lana, oro har, txarra edo eskasa dela.

Hobetu egin daitezkeen gauzen artean, bereziki, Foru Komunitate osoan adingabeen babesa sustatu eta kudeatzeaz arduratzen diren

administrazioko unitateak (batik bat, Gizarte Gaien Departamentuko Adin Txikikoak Babesteko Atala edo zuzenean egiteko horietaz arduratzen den maila handiagoko bertze unitate bat) giza baliabide gehiagoz hornitu beharra dugu, eta babesgabetasun egoeretan esku hartzeko espezifikoki trebatu beharra.

Halaber, haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeak lehenbailehen sortu behar dira.

Orobat, adingabeak babesteko planen eta programen esparruan ezartzen diren aurrekontuak modu eraginkorrean gauzatu behar dira, azkenean, hasiera batean finkatzen diren helburuak lortu egiten direla ziurtatzeko.

Berebat, kasuan-kasuan parte hartzen duten subjektu guztiek (adingabeek eta gurasoek, baina baita zuzenean esku hartzen duten profesionalak (gizarte langileek, hezitzaileek, psikologoek eta, baldin badagokio, medikuek) parte hartzeko eta iritzia emateko administrazioaren prozedurak (errealak, ez juridikoak eta formalak soilik) hobetu behar dira.

Adingabeen babesaren alorrean lan egiten duten zerbitzu publiko guztien arteko koordinazioa hobetu ere egin behar da.

Azkenik, adingabeak babesteko politika publikoa ebaluatu eta zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko teknikak erabiltzen hasi behar da, eta adingabeen eskubideak urtero ikuskatzeko plan egoki eta espezifikoa prestatu eta gauzatu, ikustearren zer egoeratan dagoen arrisku gehien haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideak urratzeko.



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa